

**Nemesio Etxaniz**

**LUR BERRI BILLA**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,  
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Iturria: Lur berri billa, Nemesio Etxaniz. Izarra, 1967.

<http://klasikoak.armiarma.com>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/?i=34>

# NERE ESKER ONA:

Nere lan au argitaltzeko, bi etsai nituan gogorre-nak: nere dirurik eza aurrena, ta euskerak irakurle gutxi izatea bigarrena. Orregatik zorretan gelditu naiz lagundu diatenekin.

Diru-laguntza eskeiñi didate, Espartza-tar Andoni, adiskide berriak, eta Mendizabal-en alargun dan Antzi-zu-tar Laura andreak.

Nere liburuaren ale-mordoxka erosiaz lagundu didate beste auek: Donostiko Aurrezki Kutxa biak: Pro-bintzialak eta Munizipalak, aurrena. Gero Bizkai Diru-Etxeak, Bilbo-Diruetxeak, Donostiko Diru-Etxeak, Santander Diru-Etxeak, Tolos Diru-Etxeak, Gipuzkoar Diru-Etxeak, eta Aragoi Diru-Etxeak.

Azaleko edergarrik Antonio Valverde, adiskide miñari zor dizkiot. Amaika mesede egindako gizona, auxe.

Negar asko egin izan degu euskaldun idazleok, gure dirudunak ez digutela laguntzen-eta. Agian, gerok eskatzeko lotsa geiegi izan degulako ez ote?

Neri, beintzat, uste gabeko laguntzak sortu zaizkit, eske asi orduko. Nere ongille guziei, nere eskerrik onena agertu nai diet orain.

**Egilleak**

*Erbestean Euskalerrri-miñez bizi diran euskaldun guziei eskeintzen die eleberri au.*

**Egilleak**

# Zer?

Gure biziak bere azken-muga urreratzen nabaitzen du. Amairu urte barru, bizi bagera, larogei urte, alajaiña!... Artuko al-ditugu?... Gure lagun eta ezagunak, ezker-eskui, galdu zaizkigu lurpean eta bakar-giroa loditzen ari da gure inguruan.

Gure bizitzari begiratu bat botatzeko ta egin degun lanaren onaurkiak gure ondorengoentzat liburu batean biltzeko ordua degu, beraz. Or-emen, euskal-leiaketak ugaltzen ari zaizkigu. Onenari bere saria ematen diote, baiña idazlanak maiz argitaldu gabe gelditzen dira.

Ala neuzkan nere lanb atzuek, noiz argitalduko zai. Aita ponteko bat bear zuten nere lanok. Gaur liburuak kostatzen diranarekin, auen argitalbena etzan gure poltsikoarentzako lana. Norbaiten babes billa saiatu bear izan degu, ta zerbaiten laguntza usteak, aurrera eragin digu.

\* \* \*

Gure bizitza osoa, euskal-miñez jota ibilli gera lanean. Gure amesak beti alde batera jotzen zuten: euskerari *Lur Berriak* eskeiñi nai genizkion; gure izkuntzari bide berriak urratu nai izan dizkiogu. Eta ortan joan zaizkigu egunik onenak. Aldiz, gure amesak eta asmoak bete al izan ditugu; aldiz, gure lanak eztu bear zuan mugarik eta maillarik iritxi.

Euskaldunok olerkietan beste errietakoen mailla ondu al izan degu. Baiña euskal antzerki ta nobela, *oraindik idazle yaio baten zai daude*; ta beste sail batzuetan ere, atzeratxo gaude, noski.

Nere aldetik, egin ditudan lanetatik onaurkiak artu ta geroko gizaldiei eskeiñi bear nizkien nere *Azken-Itz* bezela. Euskal Testamentu bat bezela dijoakizue, beraz, nere liburu au.

Esango banizue bezela: «Ni, euskera lanean, one-raiño iritxi naiz. Zuek, ortik aurrera joka zazue bikain, gure izkuntzaren burruka irabazi arte».

\* \* \*

Datozen lanak, ez dira sail batekoak. Nere lan guzietan, aukera egin det: Nobela, Irratsaio-Txangoak, Ipuiak, Antzerki-jolasa, Olerkiak. Gure ikastoletako

aurrak kanta berri izai zeuden eta ortan ere lan egiñak gera. *Kanta-Kantari* liburuan asitako lana, aurrera joan da, ta emen datozkitzu gerora sortu ditudan abesti berriak.

Lengo liburuan or gelditu dira; batzuek salduta guziak, eta beste asko oraindik erosle-zai. *Nola idatzi euskeraz?... Kanta-Kantari... Izeko Aberatsa ta Irulearen Negarra*. Kulixka Sortan argitaldutako *Antzerkiak* eta *Kontu Kontari*. Erderaz: *Curso de vascuence*, diskoekin...

Oiek izan dira nere lanik nagusienak. Gero, zenbat lan-puxketa, euskal egunkari ta aldizkarietan zabalduak! Eguneroko ogia irabazteko, ostera, gogoz kontrako lanetan, zenbat ordu alperrik galduak! Eta gogozko lanetarako astirik ez.

Gure biziak egun gorriak ikusi ditu. Euskal-miñak, ala ere, gure nekea jasotzen eta gure illunpeak urratzen erakutsi digu. Gure erriaren burrukak eman dio gure biziari bere argi ta lanerako akulua. Ondorengoak jasoko al-dute noizbait gure lanaren frutua.

\* \* \*

Gure «ortografia» ikusita, norbaitek onezkero begi-tartea zimurtu du, esanaz:

-«Oraindik «-r» ta «-l» idatziaz al-datorkigu kaiku au? Setatsu alena!» Baiña setatsuok amor ematen jakin degu. Nik, nere liburu batzuetan, «-rr» ta «-ll» erabilli izan ditut.

Kanta-Kantari-ko abestiak ere eman jarri ditut; liburu orren ale batzuek bakarrik gelditzen bai zaizkit. Letra auen aldekoak, berriz, ez ditut beiñere -r" ta -l"-ri amor ematen ikusi.

Gai ontan esan bear diran guziak, esanak ditugu. Ez noa, beraz, alde bateko ta bestekoen arrazoiak aitatzera.

Bakar-bakarrik, auxe esango det: «Eztabaidak utzi ta bakoitzak bere bidez lan egin beza gogoz. Denbora zabalagoak datozenean, euskaltzale guziak eskubide ta askatasun berdiñarekin itzegin dezatenean, orduan izango da gauza oiek betiko erabakitzeko ordua».

Bitartean, guk eztegu idazkera aldatzeko arrazoi gogorrik arkitzen.

Donostian, 1966-go Otsaillak 15.

**Amillaitz**



# ELEBERRI LABURRA

Eleberri labur batek, ipuien aldean lan zaila sortzen du. Gaia luzean eramatea, ez da egun batean ikasten dan egitekoa. Ipuietan ainbestean moldatu izan naiz; baiña nobelatan, ezin det aisa eraman lana.

Bi nobela edo eleberri egiñak ditut. Emen, bigarrena dijoakizu bakarrik. Lenengoa, gogortxo da alde batetik, eta gaiñera ikutu batzuen bearrean daukat. Iñoiz betetzen banau, eta Jainkoak beste mundura lenago eramaten ezpagaitu, zuen eskuetan utziko det ori ere. Gaurko, naikoa izango det sarre-ra eleberri bakarrarekin egitea.

Urrengoa egiten badet, ohea izan dedilla.

# AMERIKETAN GALDUAK

## ATARI-AURREAN

-Norbaitek esan omen-zikan, gure irudimena motz gelditzen zala asmaketan; egia, alegia, askoz aberatsagoa omen dek.

-Orain ere nobelakerietan al-aiz, Martiñ.

-Norbaitek jaso bear dik lan au ere, Tomas.

-Eta zer iokan?

-A, bai! Mundu ontan gertatzen diranak, guk irudimenez asmatuak baiño aundiagoak dirala, esan nainian.

-Ori norbaitek esan zuala.

-Bai, ta ori egia dala neronek ikusia diat. Gure Euskalerrri txiki ontan, urrutira joateke, egundoko gai larriak arkitzen dituk gitxiena uste dan tokian.

-Ez nian orrelakorik uste.

-Ba, alaxe dek. Nobela-gaia nai badek, ez daukak asmatzen ari bearrik. Basamortuan eta mendi goienetan zintzilik ikusten ditugun gure basarri paketsuetan aztartzen asten baaiz, arritzeko nobela biziak arkituko dituk.

-Arritzekoa benetan.

-Izan ere, gure gurasoen urteak gogorrek izan ituan. Norbait etxean okertzen bazan; bizibidea estutzen bazitzaien; semeak soldaduzkatik askatu nai baziran... gure etxeetatik Ameriketa alderako jario etengabea sortze uan aldi aretan.

-Ala zeudek Amerikak euskal odolekoz beteak.

-Ta zenbat bizi larri urruti aietara erderarik gabe joaten ziran aien artean. Makiña bat gurasok ixillean egosi bear izaten zian beren biotzetako negarra. Ta zenbat seme-alaba errukarri lur zabal aietan galduak, beren etxetan geiago aien berririk jasotzen etzutela!

-Norbaitek arrotu bearreko bizitza latzak, noski. Ta esku artean dekan nobela ortan, konta-gai oietakoren bat aukeratu al dek?

-Bai, adiskide.

-Orduan, ire konta-aria benetan gertatua dek, iñolaz ere?

-Ain gertatua ere!... Liburu onetan dijoazen gertaera nagusi guztiak, gure baserri bateko sendibarruan egositako bizi larrien pausoak dituk. Eta etxe artatik irtetzeke, beste bi edo iru nobelatarako gaia atera zitekek.

Lagun biak ixillik gelditu ziran... Martiñ-en maigañean papel naste bat agiri zan. Andik aterako zitzaion urrengo nobela (eleberria diote euskal-itzgarbi zaleak). Eta norbait, amets-uts diralakoan bada-go, bota beza burutik uste oker ori.

Izenak eta erriak aldatuta jarri dira, jakiña! Egi-lleak zerbait jantzi du gertaera-aria, baiña or agertzen diran giza-ematikumeak, gure artean biziak dira. Batzuek joan ziran gure artetik; besteak, oraindik bizi-rik dauzkagu.

Lagun bien jarduna entzun dezu. Ni ere, aiek bezela ixiltzera noa. Emendik aurrera nobelako giza-ema-kumeak izango dituzu izlari. Ta gertatu ziran bezela, or dijoazkitzu pamili bateko gorabera miñak.

## **AIZE-ORBELAK**

-Biar etetzen da gure bizia, Juana.

-Gurasoen esana eginbearra det, Andres.

-Gurasoen esana!... Obe zenduan Jaungoikoaren legea bete.

-Ta nola da, ba, lege ori?

Basoan gora zijoazen neska-mutil gazteak eta arratsalde erdian, bi txori txio bizian alkartu ziran bizi-legea beteaz.

-Ikusi al-dituzu txori oiek, Juana?... Ori da Jainko-legea. Txori oiek alkar jo dute, ta alkarrekin poztu dira. Gurasoen esanera beren maite-legea makurtu bearrik ez dute izan.

-Zaude ixillik, Andres, Jainkoak zigortu ez gaitzan. Gurasoen esana badakizu zeruko esana dala. Onela ikusi izan da euskal-etxetan.

-Zeruak alderdi gutxi duala uste det zure biarko eztaietan. Zure gaztetasuna ondatzera zaramazkite, ezagutzen ez dezun gizon orrengana.

-Egia, ez det ezagutzen; baiña gurasoak guk baiño obeto dakite zer komeni zaigun.

-Zer komeni zaigun!... Bost ardura zaie etxe askotan seme-alabei zer komeni zaien... Bestea maiorazgoa dala ta besterik ez. Ori bai, diru zikiñari ongi begiratuta. Gure biotzak eta maitasuna itotzen dirala?... Txorakeriak!... Gazte-aize txoroak besterik ez dira gure kontuak... Laster aztuko dira oien berotasunak... Orrela uste dute zenbait gurasoak.

-Ixo! ixo!... Biotza urratzen didazu itz oiekin.

-Eta or zoaz gurasoen eskutik, txala ixkoarengana eramán oi-duten bezelaxe, zure biotz urratu orren errukirik gabe, bein ere ikusi ez dezun senarrarengana.

\* \* \*

Nexkak negarrari eman zion, arratsaldeari bere poza ondatuaz. Mutillak trumoia zeraman bere barruan, eta ler-zorian zijoakion biotza.

-Zergatik, Juana? Zergatik gertatu bear zitzaigun au bioi? Gure maitasunak ez al zuan etorkizun oberik merezi?... Zerua, zerua!... Gizonen ustelkeria estaltzeko asmatutako lege eder pranko badegu gere kaltean eta ondamendian.

Eguzkiak Intxorta-aldeak azken-argitan laztandu zituan, eta neskatxaren begietan malkozko bi arri bitxi dirdaika zeuden arratsaren atal-aurrean. Udalaitez-ek ildako gotzai baten zerraldo-itxura artu zuan eta Anboto-ko sorgiñak zillarrezko orrazia illargi-argitan erabiltzeko prest zeukan. Elgeta-ko eliz-dorretik astiro-astiro zabaldu zan illunabarrean Abemarikoa. Gabaren agintea lurraz jabetzera zetorren.

-Orrela galdu bear al-zaitut, Juana... betiko?

-Jaungoikoogatik, Andres! Nerekin ez al det naikoa neke? Etzaidazu barrua lertu-arazi.

-Nerea zera, nerea! Zergatik kentzen didate zure poza? Au ez da zerua; au inpernu bizia da gure kontra jaikia.

-Arren, Andres! Etzazu gure gain zeruko asarrerik ekarri. Berandu da ta etzagun luzatu gure azkena.

-Ori da: gure azkena!... Oi! Ez det nai, ez!... Ez det nai.

Bere etsipenean zerbait eten zitzaien gazte biei beren barrenean. Mutillak eldu zion neskatxari ta bereganatu zuan amorro bizian. Neskatxak etzuan borondaterik besarkada ura etetzeko, eta gabaren illunpetan bere negarra ixuri zuan mutillaren bularreran.

An zegoen pixka bat goraxeago *Basaburu* base-  
rria. Atean arkitu zuan Juanak bere ama.

-Berandu ator, Juana. Ezkon-bezperan ere ezin etxeratu sasoez?

-Jostunarekin luzatu zait egona.

-Ba... biartik kontuak ateratzen ikasi bearko den. Etxekoandre bizitzak aurrena orduak zaitu-bearra izaten din.

-Bai, ama.

-Ba, gaur, Abemarikoa aspalditxo jo din.

-Bai, ama.

-Zer den, neska? Edozeiñek esango liken biar ire illetak dirala, ta ez eztaiak. Mutil txoro ori al-darabilen buruan?

-Gabon, ama. Ez daukat apaltzeko gogorik.

-Ori den. Biar etxe berrira aldatu bear, eta joan adi begizuloak aundituta.

Neskatxak etzion erantzun. Azkar-azkar, maindio-ra ixkillaretan gora izkutatu zan, eta baztar batean zeukan bere lo-gelako atea iriki ta leio-aldera egin zuan. Mutillaren zauria berri-berriro urratua zeraman biotzean, eta oera baiño len paketu bearra zeukan.

Ordurako illargia, izarren batzarreko erregin, zeru ozkarbian bete-betean agiri zan, eta aren argitara, inguruko mendiak ixillaren gordelari ziruditen. Elosu-gaiñak eta Iru Kurutzeta alde batera; Deskarga aldeak bestera... Zer zan gau artan mundu guzia? Illerri aundia besterik ez, eta mendiak, giza-emakumeen gurari ta asmoen illobiak.

Eriotza zan bere biotzak zekarkion oroipen beltza. Ta maitasun gazte aren azkenak, itota zeuzkan bere bularrean zorionaren pozkiroak, Ego-aizearen arroaldiak orbel-zurrunbilloa sortu zuan atai-aurreko



intxaur-ondoan, eta orbel galdu batek arpegian jo zuan gure nexka. Barruan zirrada illun bat somatu zuan Juanak. Bazirudian orbel arek zoritxarren bat zekarkiola, artu bear zuan bizimodu berrirako. Bereki-ko esan zuan:

Orra nere irudi benetakoa: orbela. Orixe naiz, ala bearraren aizeak arrotutako orbel galdua! Nere eme-zortzi urteak lurperatzera noan emakume errukarria.

Ta burutapen aien mendean, nekeak beartu ta lo artu zuan leio-ondoan. Otzak esnatu zan alako batean, besoak txindurrituta... Noizbait oeratu bear zuala ta sartu zan makildutakoaren antzeko gorpuztarekin maindirepean... Aiek ametsak!... Bere senartzakoa urrutira gelditzen zitzaion eta alperrik ziran arengana-tzeko egiten zituan alegiñak. Ontan, beste gizon bat agertzen zan bere aurrean. Gerora, gizon arek otso-itxura artzen dio. Atzaparretan lotu bear du.

-Ama! ama!...

-Zer abil or deadarka ezkon-egun goizean?

Leiotik egunsentiaren argi xotilla sartzen zan gelan eta aurrean zeukan ama deika.

-Ez al den esnatu bear, beste etxeko guztiok jaiki-ta gaudela? Abil azkar, Juana. Apaizari itxoin-eraztea ez den itxura izango-ta.

## EZTAI LEGORRAK

Alakotxea zan Joakiña, Juana-ren ama. Beti lanean, beti prest egunari berea emanaz; mendi-alde artan egokitu zitzaion neke ta lanari besoak ukatzeke ta erlijio-gauzetan zorrotza ta benetakoa. Basaburu-n berak zeraman etxe barruko jira osoa. Zazpi seme-alaba, gaztena semea, beste guziak alabak, eta biotz aundia etxe guzikoen naigabe ta pozak jasotzeko. Osaba Patxi gelditu zan etxean umeeekin, Erramona ta Ixabel, amairu ta amar urteko aizpa txikiak eta zortzi urteko mutikoa, Antontxo.

Esango al ditugu nagusien izenak? Martina, alaba zarrena, Pedro-rekin etxera ezkondua zegoena bere ogei ta bost urteekin. Pedro, auzoko basarri bateko semea orain Basaburu-ko nagusi gazte egiña ta ama Joakiña, alkarrekin zijoazen aurrena. Juana, aitarekin eta bere aizpa zarragoekin atzeratxoago zetorren. Juana, laugarren alaba zan, Antoni bigarrena ta Jesusa irugarrena. Aundiak aldapan bera jaiko soiñekotan joaten ikusi balituzte txikiak, negarra ta marrua sortu

zitekean; baiña Basaburu-ko jende nagusia bidean galdu zanean, aurrak lotan gelditu ziran beren oetan.

\* \* \*

Gure kontuak aurrera eraman baiño len, irugarren alaba, Jesusa, nundik eta nola etorria zan esan bear degu. Joakiña-ri, bere bi alaba nagusiak izan ondoren, bost seme-alaba, bata bestearen ondoren galdu egin zitzaizkion. Auzoko andre zar batek esan zion:

-Begira, Joakiña. Orrelakotan, kanpotik aur bat etxeratzea izan oi da onena. Ori egiten badezue, berri-ro seme-alabak onik eta osasuntsu artuko dituzu. Ta badakit nik nundik ekarri zuri mutiko polit bat.

Joakiñak bere baietza eman zion artarako ta andik pixka batera, agertu zitzaion esanaz:

-Ara, ba; mutikoa espero genduan, baiña nexka jaio da ta emen dezu.

Onela artu zuten Jesusa etxerako. Aur ura nundikoa ote zan? Bazuan gaixoak nunbaiteko beroaren bearra. Inguruko erri batean, eztegu erririk aitatzen, botikaioa bere bi alabekin bizi zan. Il zan aita ta aren lekurako erdalerritik etorri zan ildakoaren utsunea bete bear zuan botikaioa.

Lengoaren alabak etxean artu zuten berria, ta onek bere esker ona nolabait erakutsi zien aizpa bie. Andik urtebetera, neska biak aur-zai zeuden botikaio berriari eskerrak. Legeak gazteena emaztetzat artze-ra beartzen zuan aur bien aita. Orretan, aizpa zarrenari egin zioten orduko erremeioa: Ameriketako bidean jarri zuten neska gajoa ta sortu zitzaion alaba Basaburu-ra eraman zuten etxeko artu zezaten. Onela inguratu zuten basarri artan irugarren alaba.

Aren ama irentsi zuan Amerikak eta geio etzan beraren berririk izan errian. Orduko lege gogorrak onelakotxe erabaki galgarriak artu-arazten zizkieten gure aurretiko jende ezjakin ari. Andik urte askotara, aizpa zarraren alaba onen semea ta aizpa gazteenaren semearen alaba bat elkarrekin maitemindu ta ezkontzekotan ziran.

Eta eskerrak Basaburu-ko jendeak jatorri aren berri zekianari. Gazte biak ezkontzeko odoleko eragozpenaren barkapena eskatu bear izan zuten aldare-ra baiño len. Onelakotxe ustegabeko korapilloak sortzen dira gure etxetako bizitzetan.

Baiña goazen gure arira. Jesusa alabatzat artu zutenetik, Joakiñak beste seme-alabak onik ekarri zituan. Sorginkeria edo zeruko laguntza zirudian kontu

arek. Aurrena, orain ezkontzera dijoan Juana etorri zen etxea poztera ta Jesusa-ren bizitzak nobela baterako naikoa gai eman dezaken arren, Juanaren goraberak aukeratu ditugu gure liburu au osatzeko. Ikusiko degun bezela, laugarren alaba onek bazekarren akatsen bat eta osasunez onik jaio bazan are, geroko bere bizitzan naikoa korapillo ta mataza sortuko zuan nobela bat osatzeko.

\* \* \*

Gure mende onen lenengo amarrekoan nolako giroa zan gure basarri ta errietan, jende zarrari esan bearrik eztegu. Gazteentzat galduak dira orduko oitura ta legeak. Baiña guk oso gogoan ditugu aldi artako izaera ta aidea. Ezkontzak goiz egiten ziran; basarritarrak geienetan goizeko seirak edo zazpiretan. Etzegoen, beraz, oraingo eguardi aldeko ezkontza-legerik. Elizakoa azkar bukatu ta bereala abitu zan Basaburu-ko jendea Juana-ren etxe berrira. Bergaratik Oxintxura bitartean, antxe zegoen *Etxeguren* basarria, alda-pa-aldapan. Elizan bilduak ziran etxe bietakoak, eta jaztetxean, Zubieta kaleko ardangela batean gosari-

legea egin ondoren, bereala artu zuten Etxeguren-erako bidea.

Senar gaztea erdi-lotsatua zijoan Juana-ren alboan. Eta gizakumea ala ikusita, Juana nola joango zan asmatzeko, ez da argi-iturri izan bearrik. Gazte jendea, iji ta oju, ta gurasoak alde bietako gizonak atzetik eta andreak aurretik, an sartu ziran Etxeguren-go atarian.

Basarri au, Mekolalde-tik gora abitu ta muiño batean agiri zan. Bertako jendearen berri emateko gaude oraindik. Gurasoez gaiñera, (Iñazi ta Tomas beren izenak), Martin, seme zarrena, Juana-rekin ezkondu berria, lenbizi aitatu bearra. Mikolas zetorren bigarren semea, ta bi alaba gazteagoak, Katalin eta Madalen.

Gure kondairako, bi seme zarrenak ditugu kontuan artu bearrak. Auekin izango da gure gertaeren asiera. Gurasoak urtetan aurrera-samartuak ziralako, seme zarrenak artu-bearra zuan etxeko ardura. Orre-gatik etxe artan etxekoandre gazteak argi berria zekarren.

Zertan luzatuko degu egun artako bazkal-jaiia eta eztaidantza ta arreoaren erakustea gurditik jetxi-ala? Oiek guziak orduko legez zintzo ta nausiki egin ziran

eta arratsalde-erdian, ezkon berriak Bilbo-rako bidea artu zuten Mekolalde-ko geltokian.

Pare bat egun Bilbon egitea, gauza aundia zan urte aietarako, eta gure ezkon-berriok, senarra maio-razgoa zan aldetik, bi egun oso egin zituzten Bizkaiko uriburuan. Irugarren eguneko gaberako, beren etxean ziran. Egun artan etxeko guziak aparitan bildu ziran. Itxuraz, eztaie ondo bustiak izan ziran. Bazkari ta apari legezkoak, gazte jendearen dantza-saioak eta irrintziak oi-ziranak, senide ta lengusu ta auzokoen poza.

Ala ere, bazan an eroso etzijoan kontu bat. Bazkaldarrak aren susmorik izan balute, jaiaren alaitasuna etxe artan lausotu ta ixilleko txutxu-mutxu pranko sortu zitekean. Etxekoentzat lotsa ta auzokoentzat ziri-esan eta par-irri-gaia ugari emango zukeana. Zer ote?

## **IRRISTAN**

Mutillak oi dituk, ba, ontan basarritarrak! Abereen artu-emanak ain etxeko dituztela, kristauen arazoetan eta batezere, ezkontzak sortzen dituan egitekotan,

beren pilosopi ta parre ta ziri-gaia errez arkitzen ditek. Ordotx eta aardien berri txikitatik ikasiak asi oi dira basarrietan, eta gizakume ta emakumea beren jolas-zirietan, aien pare jotzen dituzte. Makiña bat parre egin oi du mendiko jendeak, gai auetan kalekumeok oi degun ezjakiñaren kontura.

Bilbotik itzuli ziranetik, ezkon-berriak «puntera» naikoa aditu bear izan zuten, batez ere senar gazteak bere lagunengandik:

-Kaixo, Martin! Bilbo-aldean erabaki al dira auziak?

-Auzitarako asti gutxi izan diagu, Praixko.

-Txala ostikalaria, ala?

-Ori eskolan sartutakoan ikasiko dek.

Emakumeak xotillago ta urrutiragotik joango zitzaizkion andre gazteari:

-Eztaiak ondo, Juana?

-Ez otz eta ez bero, Katalin. Pake-pakean joan dira.

-Martopillak bidean onezkero?

-Udaberrian oi dira loreak.

-Ez dator gaizki. Udazkenean Azaroa ta Udaberrian baratzea loretan.



Etxeguren-go ama zarrari kezka bat sortu zitzaion, andre gaztearen arpegia ikusi zuanetik:

-Juana, sartu zera zure etxean.

-Oraindik beron bearra dago emen, gazteon lana zuzentzeko.

-Gure sasoia joan zan. Orain zuek jarraitu bearko diozue zarron bideari.

-Asmatuko al degu.

-Ta?... Ze moduz gure Martiñ-ekin?

-Azkarregi da oraindik ezer esateko. Ez da okerrik beiñepein, eta ori ez da gitxi.

-Ori da. Gauzak bere bidez eta orduz sortuko dira, ezta ala?

-Bai, ama.

«Bai, ama» arek, alako kanpai pitzatuaren soiñua zuan ama zarraren belarrietan. Emakumeak alako begi ezkutu bat oi dute, beren seme-alaben etorkizunari usaia aurrez artzeko, eta geroak argituko zuan amaren biotzak bere barruan zerabilen zorigaitz-bil-durra, aintzakotzat artzekoa ote-zan ala ez.

Martiñek etzirudian bere emazte gaztearekiko pozetan oso igari zebillenik. Etxea errezegi lagatzen zuan, eta egun osoak sarri eizean zeramazkian.

-Motell, motell -esaten zion amak-. Nun ibilli aiz orren berandu arte?

-Eizean gora ta bera, Elosu-aldera urreratu naiz eta gero itzulera luzea.

-Juana ikusteko presarik ez al dek? Ezkon-berri batek obeto begiratu bear zioz bere andreari.

-Ez det bakarrik laga.

-Ori dek! Senar gazteak bere emaztea iñoren eskuetan, eta bera kezkarik gabe eize-bila mendi-maldatan. Egokia iristen al diok jokaera orri?

Ta ori zan egia. Emazte gazteak zerbait esan zeza-kean etxe artako jira-berri. Martiñek geitxo alde egi-ten zuan etxetik, Juana besterik eskura utzita. Ta beste ori, Mikolas, anai gaztea zan. Basarrietan, bakardadeak oker asko ekarri oi ditu ezkonduz azteen artean. Aukera geiegi oi da mendian etsaiak lan egiteko. Gaztetasuna ta odola ditu lagunik onenak ortan, eta Etxeguren-en eroso jarri zitzaizkion tentatzailleari bere asmoak aurrera eramateko bideak.

Batzuetan, guraso zarrak soroan eta seme gaztea ta Juana bakarrik gelditu ziralako; urrengoan, andre gazteak Mikolasi basora-edo lagundu bear ziola-ta... senarra eizean zan bitartean, poliki egokitzen ziran zirikaldiak.

-Baiña, Juana; Martiñek nola lagatzen zaitu orren bakarrik?

-Ez naiz umea, iñork zaitu bear izateko.

-Ai, Martiñen lekuan banengo.

-Zuk ere, ezkon-aurretik izango zenituzke eskeintz aundiak. Bein ezkondu ezkeror, andreagandik igesi, gizon geienak bezela.

-Eztago gaizki! Zure gaztetasunak darion argia ikusita igesi? Leloa bear nuke ortarako.

Juanak etzion izpiderik eman nai, ta artan gelditu zan egun artako alkar-izketa. Baiña etxeak txoko asko zituan, eta Mikolasek ederki asko zekian aien berri. Alako koiñatu eztirik etzan errez billatzen.

Juana sukaldean ari bazan, sukaldean zalako, oek egiten edo autsak kentzen bazan gelatan, gorako aitzakiren bat asmatuaz, Mikolasek ederki zaitzen zituan bere koiñata bakarrik ari zan lekura sartzeko aukerak. Gazte biak, sasoia ta etsaia lagun zituzten elkarrengana biltzeko. Ta Mikolasen alegiñak eta itzak, egunetik egunera agiriagoak ziran. Gauzak berez osatuko ziran, denbora bear eze...

Udazkeneko arratsalde arek ere, etzuan kulpa gutxi. Lurra orbelez betea agiri zan eta garoa etxeratzeko egunak aurrera zijoazen. Martiñ goizean goiz

eizerako bere griña asetzero irten zan mendira. Aita erreumak artuta zebillen aldi artan, eta ama zarra ere, etxeko ardura artzeko obeto zegoen, basora joateko baiño. Katalin eta Madalen, alaba gazteak ikastera jeisten ziran Plaentxira.

Tomasek Mikolasi esan zion:

-Seme, garoak etxeratzeko ordua diagu. Atzo eba-  
kitakoa busti baiño len, aterperatuko bagendu, mese-  
de ederra giñakek.

-Lagunik gabe motz geldituko naiz mendian, aita.

-Koñatak lagunduko dik; ezta ala Juana?

-Bai, aita. Bear dana egiteko nago emen.

Eta atera ziran basora bidean. Gurdiarekin ordube-  
teko joana mendian gora, ta gazte biak urtez pare-  
pare ta gogoz erne. Ego-aizetan itzak aisa sortzen  
zitzaizkien, eta Mikolaxen ezpaiñetan bazan piperra.  
Basoan sartu ziranean, oiñak orbeletan murgil, ostro-  
otsa esnatzen zuten pauso bakoitzean. Noiz-nai,  
aizeak zurrunbilotutako ostroak arpegira zetozkion  
Juanari, ta berriro Basaburuko leioan, ezkon-bezpera-  
ko gabean, nabaitu zuan zirrada bera berritzen zioten.

Andre gazteak leize beltza zuan bere aurrean eta  
leize arek beregana tira egingo balio bezela, ikara  
somatzen zuan bere izate osoan. Mutilla Juanaren

lagunarte-pozetan, aisa zebillen garoa biltzen eta gurdiratzen. Onela, uste baiño len bukatu zuten egun artako lana.

Artean arratsaldea luzea zala ta gurdi-babesean exeri ziran, mokau bana artzeko asmotan. Juana, lanak atera zizkion kolorez ederragotuta zegoen. Mikolasek, bere barrua arengana ziara makurtua zeukanez, ler-zorian zerabilen bere biotz-irrika:

-Arratsalde ederra, Juana.

-Oso ederra, Mikolas.

-Ederragoa zure ondoan nagoela.

-Zaude ixilik, Mikolas, Martiñek entzungo balizu.

-Martiñek etzaitu merezi.

-Ta zu bai, al-ezta?

-Besterik ziñake nerekin.

Aideak kanpo-usai gozoa zekarren eta gazte biak giro epel artan beta geiegi zuten etsaiak andre gaztearen biotza bere asmoetara makurtzeko. Mutillaren garrak mundu gutxiko emakume aren gaztelua errebearrean zeukan ondoan.

-Ez, ez, Mikolas.

-Zergatik ez? Martiñek orren aztua zauzkala, etzu zure leialtasunik merezi.

Elkarrengana urreratzen ari ziran konturatzeke... Eta Jainkoak asma zer gerta zitekean illunabar aretan, bidean pausoak somatu izan ezpalituzte. Juana, arpegia artean mutillaren itzetara berotua, jaiki zan bat-batean.

-Zu emendik, Martiñ?

-Erbi ondoren luzatu zait arratsaldea ta oraintxe ninjoan etxeruntza.

-Mikolasek bere lana etenda ikusi zuanean, anaia-ri alako kaixo otz bat esan eta beietara egin zuan. Gogo aundi gabe, «Aida» esanda, gurdiak eman zion berako bideari.

Kosta zitzaion Juanari bere barruko irakiña baretzen. Itz-erdika erantzuten zion senarrari. Oni, maldi-zio bat bezela pasa zitzaion burutik susmo txar bat. Bere andre ta anai gazteagoaren artean ez ote zer-bait? Une bateko kontua izan zan... Baiña gurdi-negarrak, iru biotz aietan umatzen ari zan zorigaitzaren illetak aurrez adierazten zituala ematen zuan.

# SENARRAREN AKATSA

Etxeguren-go ama zarrak bazerabilen naikoa kezka, erraiñari begira urte osoan:

-Juana! Nere begiak moteldu egin ote dira?

Etxe artan, emazte gazteak etzuan nobedaderik" aitatzen. Ainbeste illabete ta ezkontza-ondorenik ez? Errain legorra ekarri ote zuten, ba, etxera? Oi dan bezela, amak semearen aldetik akatsik izan zitekeanik, etzuan uste. Izatekotan, okerra erraiñarena bear zukean.

Bitartean, Mikolasek bere gogoa aurrera zeraman, Juanari senarrak ukatzen ziona, onen anai gazteagoak ugari eskeintzen zion. Baten ajola-ezak, bestearen arreta ederragoa egiten zuan. Ala, ba, Juanari biotze-ko giltzak Mikolasi emateko ordua urreratzen ari zitzaila, zirudian.

Zein emakumeri etzaio gustatzen gizakumearen leia? Norbait bere ondoren azkuretuta ikusteak, badu alako indar izkutu bat emakumearen biotzean. Auke-  
ran etorri zitzaion Mikolasi igande-goiz ura. Etxeko guziak goiz-mezetara jetxi ziran Osintxura. Etxean, ain eroso gelditu ziran Juana ta biak. Aria eten-zorian

zegoen eta mutillak koiñataren inguruan bere alegi-  
ñak berritu zituan.

-Juana, zergatik ari zera bion zoriona atzeratzen?

-Zoriona zer da, Mikolas?

-Zu nere esanetara jartzea... Zeren bildur zera?

Ezer sortuko balitz ere, ez al dezu senarraren itzala?

Zu aurdun ikusita ere, iñork ez luke ezer esaterik.

Etxeguren-en goiz artan atari-aurreko intxaurrari  
orbekak erruz erori zitzaizkion eta Juanaren gaztelua  
lurrera etorri zan Mikolasen erasoan aurrean. Egun  
osoan, orbelen zirrada nabaitu zuan andre gazteak  
eta gau artan etzuan berealakoan lorik artu.

Andik lau illabetera, Iñazik bere erraiña botaka  
arkitu zuan ikuillu baztarrean:

-Ala ere!... Noiz edo noiz badatoz loreak.

-Ixo, ama!... Iñork ere ez dezala jakin. Oraindik  
eztakit, ba...

-Oraingo emakume auen kontuak! Biok ixillik gor-  
deko degu, gauzak agertu arte. Zaude trankil eta  
kontu artu zere buruari.

Urrengo Mikolasekin ziran kontuak:

-Gurea nabarmentzeko zorian da, Mikolas.

-Nola nabarmendu bear du, Juana? Zure gizona ez  
dezu, ba?



-Ai, Mikolas! Ordu txarrean bigundu nintzan zure esanetara! Eta orain nere okerrak eta lotsak auzoan arrotu bearrean dira. Zure anaia ez da gauza ezkontzarako ta datorren aurrak agirian jarriko du gure griña izkutua. Kanpai ederrak jo bear ditugu orain.

-Zer esaten didazu?

-Entzun dezuna.

-Ta zergatik ez didazu lenago esan ori? Kontu artuko nuan ori jakin banu.

-Neronek ere ba al nekian, ba. Senarraren jokaera ain zan arritzekoa... Urtea pasa ta senarrak etzuala ezeren eskerik... Noizbait izango da, esaten nuan nere artean... Lengoan, igande-gabean zerbait birbiztua etorri zan eta bere edanaren indarrak lotsa kendu zion, iñolaz ere... baiña aren alegiñak alperrikakoak izan ziran. Anai akets orrek galdu bear gaitu.

-Milla genanio! Tazer egin diteke orain?

-Martiñek zer dion okusi. Eta arena ikaragarria izango da neretzat.

Boskarren illabetera lertu zan senarraren trumoia. Juanak negar eta negar erantzuten zion, gizonaren asarreari. Urrengoa, ama zarraren poza aldatu zanean izan zan. Eta emakume eroriak, erotu bear zuan denen esapean. Azkenerako lertu zan bera ere.

-Guziok ni zapaltzeko eskubidea dezuela uste dezue; baiña nerea al da erru osoa? Ez al nuen nik nere senargaia? Ez al nuen zuengatik nere biotza ito izan bear? Eta nun zeundeten zuek seme gauza-ez ori ezkontzarako eskeintzeko, ta aren anai gaztearen eskuetan nere argalkeria ta ezjakiña lagatzeko? Ta orain, gauzak okertu diranean, denok nere gain ustutzen dezue guzion okerren ur zikiña.

Iñazi, estu ta larri ari zan Martiñen asarrea baretu nairik:

-Seme, beltza da gerta zaiguna. Baiña oraindik gerok bakarrik dakigu gertatua. Ez dedilla auzoan zabaldu, guzien parregarri geldituko giñake-ta. Anaia-ri ere, gaztea da ta, barkatu egin bearco diozu, ta bataioan zure izena ematea izango da onena datorren aurrari. Orrela bere itxura batean geldituko dira gauzak.

-Eta ni emazte zapuztu orrekin bizi? Ez orixe! Gaur bertan atera bearco du bere etxera bidean. Jaso dezatela bere gurasoak.

-Eta jendearen esanak?

-Nai dutena esan dezatela.

Ama zarrak erraiñari Martiñen agindua esan zionean, Juanak bere zoriaren leizea neurtu zuan ondoraiño:

-Ederki da. Ni joango naiz nere etxera. Nere etorkizuna botako det amildegira. Emakume ustel bat besterik ez naiz gaurtik... Eta zure seme ederrak ez al du jaso bear bere egiñaren ondorenik? Gauza auek ez tira, ba, bakarraren lanak. Bi izan gera okerra sortu degunok eta Jainkoak daki zenbat tentabide ta azpikeri erabili duan Mikolasek ni bere gogoetara makurtzeko. Eta senarrak bere eginbearra ta emazteari zor zion legea baztartuta beti. Ezkontza gaxoa eskeiñi zenidatena! Ta ez aztu!... Aurra, kontuak kontu, Etxegurengo odolekoa izango da.

-Etzaitut nik botatzen, Juana. Baiña onelakoetan badakizu etxetako pakea ta izen ona galdu ez dedin, ixil-ixillik gauzak bertan bera itotzea izan oi dala onena.

-Ondo da. Nerekin ez dezue geiago lanik izango. Banoa beiñere laga bear ez nuan etxeruntz. Jainkoak erabaki zuzenagoak eta errukitsuagoak izango al ditu neretzat.

Gurdibidean bera zijoala, odol-kolorea zuan zeruak. Urrutira gurdi-negarrak Juanaren biotzeko itogune larriari, garrazi zorrotzez erantzuten zion.

## **IZKUTA-BEARRA**

Basaburun Joakiña atal-aurrean ari zan txotx batzuek sutarako biltzen. Etzekien zer zetorkion:

-Zein da or barreneko bidetik datorrena?... Jainko maitea! Juana da-ta!... Baiña zer arpegi dakarren, alaba? Gaixorik al abil, ala?

-Ama-albak, alkarri begira gelditu ziran:

-Ezten baiña okerrik izango?

Ontan amaren begia argitu zan bat-batetan:

-Bataioa bidean al degu?

-Bai, ama; baiña ez da berri pozgarria izango.

-Ikaraz jartzen naun, alaba.

-Bakarrik al zaude etxean?

-Bai, Juana. Besteak soroan ditun. Baiña zer den?

-Goazen barrura, ama. Ta zeruak gorde gaitzala?

Luze egon ziran ama-alabak gela-barrenean. Atera ziranean, Joakiñak bere andre-aide guzia galdua zuala ematen zuan.

Jaungoiko Santua! Ta au asiera besterik etzan... Zer esan bear zuten auzoak? Basaburuko etxeak etzuan alako lotsarik ezagutu artean... Juanak etzuan bere bizitza guzian bururik geiago jasoko:

-Auzokoentzat, i amarengana etorri aiz aurra izan bitartean. Eta ire gizonak buru pixka bat badu, gauzak itxuran gordetzeko bere izena eman bearko zion aurrari.

-Ortan da. Bere gauza-eza ta anai gaztearen oke-rra ixillik gordetzeko, ezin dezakete gutxiago egin. Gurea bezin aien odolekoa da etortzeko dana.

Etxekoei esatea izan zan urrengo ozpin-zurruta. Juana arrazkero, madarikatutako itzala bezela zebilen etxeko txokoetan. Egunez etzan iñoren aurrera agertzen. Gabaz, illunak lurra ta lotsak etstaltzen zituan, txaburu inguruan egiten zuan irteratxoren bat.

Joakiñarentzat asi zan bere bizi guziko arrastaka gorria. Aren biotza kezka larriak ziztatuko zuan arrazkero gau ta egun:

-Neronek galdu det alaba, zeukan senargaia burutik kendu ta bere ondagarri izango zuan senarra borondatez kontra artu-araziaz gaixoari. Jainkoak bar-katuko ote-dit utsegite aundi au?

Urrengo egunean Bergaran azoka zan eta antxe bere barrua lasaitzea erabaki zuan. Goizean-goiz, eguna argitu baño len, Santa Marinako eliz-atarian zan. Seiretako meza ari zan orduantxe ta meza bukatu arte itxoin zion apaizari. Au aitor-lekuan sartu zane-ko, joan zitzaion bere barruko larria ustutzer:

-Ara, ba, jauna...

Ixillik aditu zizkion apaizak bere kezka guziak eta bukatu zuanean, arek bere aldetik eztarria garbituaz eztul batzuek egiñaz, esan zion:

-Egoera larria gaiñeratu zaizu ta nekeak izango dira gertatua ixillik gordetzen eta itxurazko irtenbidea asmatzen. Alaba, alik eta ezkutuen egon dedilla.

-Ala dago, baiña orain zer? Nerea egin al det? Jaunak barkatuko al dit?

-Jaunak, damutu ezkeru, dana barkatu oi du, baiña munduak eztizu barkatuko. Penitentzi luzea datorkizu bete-bearra. Zorigaitz orren keriza beti zure bizitza illuntzen ariko zaizu. Nolanai, Garizuma ontan Loiola-ko San Inazioaren etxera jo bear zenduke. Badezu an Aita Baltzola. Aretxekin itzegingo bazendu, ez det uste kalterik izango zendukenik. Nik baino argi geiago emango dizu.

-Ori ere egingo det, ba. Azoka-egunen bat aukeratu ta Azpeitira baninjoa bezela, Loiolaraiño iritxikonaiz, Jaungoikoak laguntzen badit.

Loiolan etziran kontuak arira etorri... Aita Baltzola erriren batean itzaldietan ote zen, esan zioten. Gaberakoe torri zitekeala... Joakiña, ostatueta sartzeko etzegoen. Egunerako eraman bai zuan dirua, ta iñori dirurik eskatzeko, etzeukan inguruan ezagunik, ez lagunik. Aterri zegoen, beiñepein, eta gau batekoa nolabait egingo zuala, pentsatu zuan berekiko.

Gaba etorri zan, baiña A, Baltzola-rik etzan agertu. Urrengo goizean lenbiziko orduan iristea bazitekeala ta andre gajoak gaba Santutegi aurreko ixkillaretan pasatzea erabaki zuan. Martxoan, artean gau otz samarrak. Etzan bereala joan gau ura. Izarrak zeruetan beren bideak astiro zeramazkiten. Aita Guretan urtu zan Joakiña gau luze artan, baiña berak nai zuan izarrak etzuan ikusi. Orrek zeukan kezkatan. Bere barruko egoneziñari lagun egiñaz, aizeak arpegira jotzen zion. Eraman zituan soiñeko ta gaiñerako berogarri guziak bear izan zituan goiz-aldeko giro otzari eusteko.

Urrengo egunean, goiz asko jo zuan atea, baiña A, Baltzolarean aztarranik etzan artean eta ainbeste luza-

penen ondoan, iñor ikusteke bere etxerako bidea artu bear izan zuan. Aren barruko larriak, etzuan bigungarrik arkitu. Basaburuko aldapa, iñoiz baiño pikeagoa iruditu zitzaion andre errukarriari.

Juanak ikusi orduko galdetu zion larri:

-Ta ezer egin al dezu, ama?

-Ez diñat ezer egin, Juana. Aurra jaio ta sendatzen aizenan bezin laster, Ameriketara alde egitea izango den onena.

-Ori da. Ni galdu nadilla lur aietan. Etxeko izena garbi gelditu ezkeru, nereak ez du ajolarik.

-Alaba aut, bestek bezela, baiña zer asma genezaken besterik? Emen auetatik izkututzen baaiz, ixilduko ditun mingain txarrak. Emen ikusiko baindute, ez geniken egun onik izango.

Bataioa illunabarrean eta ixillik egin zuten elizan. Legezko semea bezela jarri zuten Bataioko liburuan. Juanaren senarrak eman zion bere abizena ta sasikumea, jatorriz garbi geratu zan elizan. Juana, sendatu bezin laster elizan sartu zan et andik astebetera Aneriketarako bidea prestatu zioten. Semeari, Pako deitu zioten eta Zumarragako basarri batera bialdu zuten, an andre gazte batek azi zezan.



Etzan etxe jasoa. Noizean bein agertzen zan Joakiña umea ikustera ta etxeko guziak lanera irtenak zira-la, mutikoa zikin-artean arkitzen zuan autsez eta muskeraz ederki ornitua. Ama nun zuanik etzieten itzik esatenb asarri artakoei. Gaixorik zala, ta orregatik ezin zuala semerik azi. Ameriketara aldegiñañ zanik, ezta itzik ere.

## **PARAGUAY ALDEAK**

Ogei urte betetzeko zeuzkan neskatxarentzat, bazan, ba, ura ere eragabeko bidea. Juana, gure mendi-artetik beiñere irten gabea, itxas-ontzian, mixeri artean eta jende berriaren nastean, erderaz ondo jantzi gabe, naikoa larri arkitu zan.

Aren antzera, beste euskaldun gizaseme bat ere bazijoan eta eskerrak ari. Bidean egoki etorri zitzaion euskaldunaren lagunartea. Bide erdian, Cuban, gelditu zan gizaseme ura. Juana, andik aurrera bere erritarrik gabe, soillago gelditu zan ontzian. Eskerrak ordurako beste ezaupide batzuek egiñak zituanari! Ala-ola joan ziran itxasoko egunak eta lurreratu zan noizbait

Montebideoko kaian. Andik, Paraguay-rako bidea artu zuan.

Ta aren aurra?... Pakotxo, Zumarragako basarrian gelditu zan amarengandik etenda, auzoaren izkutu. Ama zorigaiztokoak bere biotz-legeak ausi ta aur aren gain zituan eskubide ta maitasun-legea ito egin bear zituan. Aurrena, pekatu aren berri iñork ez jakitea zan. Beste lege nagusiagoak austen zirala orrela? Aurraren ama, emen baiño arrisku aundiagotan gelditzen zala Ameriketako girotan? Eta zer?... Sasoi artako pekatu bakarra, bazirudian seigarren agindukoa zala. Beste guziak onen aldean etziran ezer. Sermolariak eta dotriñako erakutsiak agindu orren esiak aitatzen eta ortan sortutako argalkeriak abots larriz madarikatzen, ermeak ziran.

Kontu iñork sasikumeren bat sortu danik jakin! Ta ori iristeko, ontzat emango ziran aurra amari kentzea ta len argala agertu zan emakumea Ameriketara askoz arrisku aundiagotara bialtzea. Alakotxe kertenkeriak egiten ziran etxetan, jendeari gai ontan lotsa aundiegia sartzen zitzaiolako. Bereala ikusi zan jokae-ra aren ondoren txarra. Juana, gure errietako oituretatik etena, ta bere semearen oroipen samiñez urratua, bat-batetan Ameriketako oitura lasaietan galdua arki-

tu zan. Auzokoren bat alde aietan bazala ta besterik gabe ara bialdu zuten, baiña Ameriketako zabaldi aietan auzoko batek ezer gitxi eragin zezaiokean Juanaren bizi-erabakiari. Emen pekaturik beltzena zana, an lege egiña ikusten zuan. Elizako bedeinkaziorik gabe gizakume ta emakumea alkartzea, geienak artzen zuten bidea zan lurralde aietan. Zer zan ohea? Emen-go neurri gogorrekin ama-semeen kateak etetzea, ala apaizaren itzik gabe, maitasun-legeak onartzea?

Juanaren burua zalantza aiek garbitzeko etzegoen bear aiña jantzia ta beste aldetik auzokoaren laguntza utsarekin ain zebillen saldua. Norbait bear zuan eta inguruko guziak bezela, Miranda aldetik Ameriketara joana zan gizon batekin lotu zan urte gutxi barru. Orrela, emen ixillik eta izkutu aldi batean egiña, an bere bizitzako lege ta agiriko jokaera gertatu zitzaion.

## **ASKOREN BIDEA**

Isaura Vazquez eta Rogelio Monforte, senar-emazte gazteak, lurreko tokirik pelitenetako batean bizi ziran. Galiziko itxas-alde argia ta zelai berdeak aurrean zituzten. Lur xamur arek, ordea, etzien berta-

ko bizilagunei ogi-biderik sortzen. Ala ezagutu zituzten beren gurasoen etxeak, ala auzokoenak. Beti bizi eziñik eta jatorduak betiko barautan urrituak.

Galizi ikusi ez duanak, eztaki lur zatirik ederrenetakoa danik. Gallego izena, arlote ta zarpail esatea bezelaxe da gure artean. Baiña Galiziak ez du lurraren aldetik ezer arloterik, ez zarpaillik. Arosa aldeak, Vigo ta Maringo alderdiak ikusi dituanak badaki lurralde ta itxas-alde aren edertasun berri. Ezer zoragarririk bada lur ontan, alderdi aiek berdiñik gabeak dirala esan bearra degu.

Galiziko ibaiak, itxaso zabalean sartu-aurrez, len-bizi alako saioak egiten dituzte zabalean nola bizi ikasteko. Onela ibaiaren azkenetan, egundoko saillak artzen dituzte ta ikustekoa da nolako ondartzak politik eta ugarte liluragarriak sortzen diran nun-nai, ibai zabalduaren ertzetan.

La Tojako Ur-Exea ere, ugarte batean dezu atsegintokia dirudiala. Zubi batek eramaten zaitu bertara ta leku aietan dabillenari, munduan dagoenik ere etzaio bururatzen. Mundutik kanpoko Maitagarrien zelaietan sartu zerala ematen du ta an ez da ordurik, ez egunik luzatzen. Ikusmira ta giro gozoak sortu egiten dizu zere sentipena ta oarmena. Ames-tokiren

batera aldatu zeralakoan, txorabiatua uzten zaitu lekuak. Nun-nai dituzu arrika ondartzarik txoragarrienak eta ugariterik sorginduenak. Lur ezta kanpotik dijoanarentzat.

Baiña lur eme arek, ez du bularrik bertako seme-alabentzat. Antxiñatik datorkio Galiziari gaitz au. Jendea ugari sortzen dala, zatituegia gelditu zaie ta era ortan sukalde bakoitzari dagokion lurra, ez da etxekoak mantentzeko lain.

Ala gertatzen zitzaien Isaura ta Rogeliori ere. Beste lekurik ez eta emaztearen guraso zarren etxean gelditu ziran ezkondata gero. Len estu bizi baziran, e tortzen asi ziran aur berriekin estuagoa zijoakien bizi-modua. Bi mutiko ta alabatxoak izan ziran jaio zitzaizkien umeak. Guraso zarrak makillapean oituak bezela, etzuten itzik ateratzen. Lendik etsita zeudenez, gauzak korapillo berriz okertzen ziran bakoitzean alkarri begiratu ta burua makurtuaz, estuasun berria ixillik onartzen zuten. Baiña ezkondu gazteak ezin ziran egoera artara jarri:

-Aita, emen eztegu ezer egiten eta gure aurrak zuen egoera larria, larriagotzera datoz.

-Zer egingo diñagu, ba, Isaura? Kontu ori zarraden gure etxean, eta Galizi guzian.

-Baiña ez luke ala izan bear.

-Zer egitea nai den, lurrak geiago ematen ezpa-  
du?

-Lur berriak billatu. Ameriketean Galizi osoa baiño  
lur zabalagoak jaberik gabe omen daude.

-Benantzionekoak berotu al zaituztee? Oraindik  
ikustekoak zeuden ango kontuak. Gaztea aiz ta eskar-  
menturik ez den ezagutu.

-Zer nai dezu emengo eskarmentua baiño okerra-  
gorik?

-Alaba, Ameriketatik etortzen diranak kontatzeko  
gelditzen ditun; baiña itzultzen ez diran asko ta asko,  
an ondatzen ditun etxetik urruti lur zabal aietan gal-  
duak. Amaika etorriko uke al balu.

-Emengoa ikusia daukagu, ba, aita. Ito baiño lena-  
go ez al degu obe, lur berrietara jotzea?

-Alaba, ez aut nik lotuko, baiña ezta bultzako ere.  
Joaten bazerate, emen geldituko gaitun guraso zarrak  
zuen zai.

Aitari itza eztarrian ito zitzaion eta alabak malko-  
rik ikusi etzezaion, leio aldera egin zuan, burutapen  
illunak bizkarra makur-arazten ziotelarik. Gau artan  
guraso zarrak oean sartu ziranean, luzaro loa urruti  
izan zuten begietatik.

Galizi errukarria! Gazteri guzia jario negargarrian, Ameriketara gaitzen zaien lurralde zorigaitzekoa.

Bere etxe-aurrean exerita, Isaura ta Rogelio La Toja aldera begiak luzatuaz, aopekotan egon ziran. Izarrak, lo artutako lurra zaitzen zeuden eta urrutitik olatuen burrunda-otsa zetorren, Ameriketako kezka biotzean txertatuaz. Itxasoaren mezua aztutzerik etzegoen. Aren deiak geroago ta gogorrago jotzen zuan jende beartsu aren biotzetan. Etzegoen beste biderik; Ameriketara joango ziran gazteak.

Egun larriak izan ziran guraso zarrentzat. Amak, batez ere, biotza erdi bi egiña zerabilen egun aietan. Zer etzuan arek emango semeak eta billobak bere ondoan ikustearren? Baiña etzegoen gazteak etxean lotzerik. Gaiñera, etorkizun beltzaren pixupean zapaldua zeudela, zer asma zitekean?

Isaura ta Rogelio erabakiak zeuden. Bidea zabalik zeukaten. Besteak egin zutena zergatik etzezaketen berak egin? Beren iru seme-alabatxokin etxetik atera ziranean, Galiziko zeliak berdea zerioten alde guzieta- ra. Iñork ezin zezakean asmatu lur zoragarri arek bere seme-alabentzat zeukan lege gogorra. Beste sendi bat urratua geldituko zan alako leku ez-tian. Gurasoak

etzuten biotzik izan zijoazenei Vigoraino lagun egiteko. Itomen ura luzatzerik etzan komeni.

Aurrak zijoazen alaien. Beren ezjakiñean, e tzuten atzera begiratzeko tarterik. Lur berriak ikusteko azku-reak eta aurrez itxas-ontziko bizimodua probatzeko irrika pozgarria zeramaten beren buru txikietan. Vigon etzuten lan aundirik izan. Ontzia ateratzeko ordua zala ta bertara jo zuten zuzen. Txartelak al ziran merkeenak artu zituzten. Ezpaizan geiagorako dirurik. Iru-garren maillako gela zabal aretan moldatu bearko zuten al-zen bezela, beste beartsu-jendearen lagunartean.

Beren txokoa artzen eta aurrekin nola moldatu asmatzen joan zitzaizkien azkenengo uneak. Konturatu ziraneko, ontzia lurretik eten eta itxas uretan aurre-ra atera zan illunabar aldean. Lenbiziko joan-aldia, lotan joango zitzaien. Egunberria, itxas-erdian etorri zan. Goian zerua ta bein ura. Aiek zelai zabalak! Ta ala izango zan egunetan Ameriketako lurra agertzen etzan bitartean.

Ontziko bizitza beartsuentzat etzan ain atsegiña, beti alkarren gaiñean pillatuta, aize urri ta usai txarren artean, nolabait eraman zituzten illabete artako egunak. Lurraren gerrialdera beroak kedu-arazi zikien



Europako neguak jantzi-arazi zizkien soiñeko beroga-  
rriak. Ameriketako Ego-aldean, udaberria aurrera zijo-  
an Buenos Airesko kaietan lur artu zutenean.

Ango ardailla ta istillua lurrera irtetzeko! Ontziko  
bakoitzak zeramazkian bildu ta maletak jaso ta  
batzuek ezagunen besarkadak artzera; beste askok,  
iñoren ezaupiderik gabe joanak, Ameriketako zabaldi  
aietan etorkizunaren berri gabe, beren buruan saldu-  
ta ikusten zituzten. Onela agertu zitzaien Arjentinako  
Uriburua Isaura ta Rogeliori. Ta urrengo egunetik bizi-  
bideren bat arkitzeko alegiñak egin bearra zuten  
senar-emazte biak.

Rogeliok bere bizi guzian zama bildu ta zama jaso  
ibillia baitzan, kaietan, muelletan zeukan bere neurri-  
ko bizibidea. An beti zegon ontziren bat bete, naiz  
ustu bearra. Lau-bost bat etxetan galdetu ondoren,  
eskeiñi zioten lana. Ontziak karga ta ontziak ustu, an  
irabaziko zuan bere andre ta seme-alabentzako ogia.  
Urrengo egunetik zamatzaille bat geiago izango zan  
Buenos Airesko kaietan.

Ordurako Paraguay-aldean Juana bere Miradakoa-  
rekin seme-alaba bi izana zan. Ez eliz eta ez apaiz,  
ume aiek ere bazetozen mundura. Lekutan zeuden  
Basaburuko amaren kezkek eta lege estuak! Europak

itxasoz bestaldera bialtzen zuan jendetza ura, Ameriketako oitura zabarretan bereala nastua arkitzen zan. Juanari noizean bein eztenkada bat bezela sortzen zitzaion biotzean galdera larri bat:

-Nere Egigurengo semetxoak zer egiten ote du Basaburun?

Basaburun bazekiten zerbait Juanaren zabarkeri berri, baiña ama Joakiñari iñork etzion ezer esaten alakorik, mindu etzedin. Ala ere, amak bazuan zerbaiten susmo txarra: an zeruetan bere izarrak adierazten zizkion etxeko guzien zorigaitz eta ezbearrak, eta egun aietan izar ura illunago agertzen zan. Basaburun etzan okerrik egun aietan, eta ama Joakiñak berekiko esaten zuan:

-Ameriketari izango degu ezbearren bat. Zer ote-dabil nere alaba?

## **SASIKUMEAREN KORAPILLOAK**

Pakotxo iñudeagandik kendu zuten ezkerro, Basaburun zeukaten. Etxeko guziak ura izkutu eukitzea zuten aurrenengo ardura. Auzoa jakin-min aundikoa izan oi da, ta an ere baziran Basaburuko auraren berri

sakon jakin nai zutenak. Galdera aiei nola erantzun zan kontua. Umea nolatan sortu zan, izkutatu egin bear. Etzan lor txikia uraxe.

-Arratsalde on, Joakiña.

-Ala zuri ere, Paskuala.

-Juanaren umea zaitzen?

-Onek ematen dizkigu lanak.

-Juana Egiguren, al-ezta?

-An dabil kikili-makala.

-Ondoezik, beraz?

-Ez du gauza aundirik, baiña umea azteko ere aultxo aukeran. Orregatik etxera ekarri degu mutikoa.

-Aitajaun eta amandrearen ondoan ez da gaizki izango.

Eta Joakiña an izkutatuko zan bere illobarekin, ainbeste galdera artean nastu baiño lenago.

Egigurenen Juanarenak bukatu ziran. Martiñek bere emaztearekikoak egiñak zituan eta okerrena aregandik etzegoela ondorengorik ateratzerik. Beraz, Mikolas jarri bear ko zuten basarriko nagusi, seme-alaben katea etetzerik nai ezpazan.

Munduko zuzenbide okerra ta jokaera itxuratia. Mikolas, istillu guzien sortzaille nagusi izana, etxeko maiorazgo egiña gelditzen zan. Bitartean, onek enga-

ñatutako emakume argala, etxeko lotsagarrikeririk aundiena bezela, munduko bazterrera jaurtikia, an zebillen iñoren errukirik gabe. Bien umea, ordea, bataioan Martiñen seme agertzen zan. Legez, beraz, Pakotxori zegokion Egigurengo maiorazgotza.

Korapilloa errez askatzekoa zan. Martiñek, ezkontzarako gauza etzan ordutik, ez Juanarekin eta ez beste iñungo emakumerekin sortu zezakean benetako ezkontzarik. Bien arteko elkarte ura, beraz, indarririk gabea zan; lotura gezurrezkoa. Mikolas, bigarren semeak, ekarritako naste ura, oni zegokion iñori baiño lenago garbitzea. Aurraren amarekin ezkondu, lengo ezkontza ustela zala agertu ta gauzak bere bidera ekarriak zeuden.

Joakiña elizarik-eliz galdezka ibilli zanean, nola etzioten apaizak bide au akontsejatu? Ezer eztakigu, baiña orduko giroa ezagutu genduenoi etzaigu bat ere arrigarri egiten, gauzak joan ziran bezela joana. Aur ura sasikumea sortu zala agertu? Maiorazgoaren ezkontzarako gauza-eza ta Mikolasen okerra jendearen aotan ipiñi? Ori iñoa ere ezin zitezkean. Beraz, ama-semeak Ameriketara bialdu ta gal zitezela. Basarri bietako izena gordetzea zan bearrena. Ta onela pekatari nagusiena etxeko maiorazgo egiña ta beste

emakume batekin ezkondua gelditu zan goizetik gabera.

Baiña artean sasikumearen eskubideak papeletan sendotuak agiri ziran. Mutiko gixajoak etzekian zer zebiltzan beraren bizkar. Mikolasi emazteak seme-alabak eman zizkionean, onek bere aur legezkoentzako nai izan zituan etxeke nagusitzak. Sasikumearen jaiotza-papelak orren kontra zeuden, ordea, ta aiek aldaztea bearrekoa zan.

Ta orain, lengo lotsari guziak aztu zitzaizkien. Joan ziran elizara ta juzgaura ta gertatua garbi agertu zuten. Pako etzala Martiñen semea, Mikolasen ezkon-gaitakoa baizik. Onela jarri zuten bataio ta jaiotza agiritan eta zuzenbideak eragin etziena, diru ta etxeke nagusitza-goseak etxeke izena galtzeko bildurra kendu zien.

Orain sasikumeak ezingo zuanb ere eskurik sartu Eigurengo kontuetan. Juana ta aren semea galduak gelditzen zirala? Orren kezkarik etzizaion iñori esnatu. Munduko erabakiak aldi artan orrelakotxe itxuragabeak oi ziran giza-emakume arteko lizunkeri-bidetan.

Mutikoa, amar urtedun zanean, Bergarako prailetara bialdu zuten zerbait ikastera. Ordurako, Antoni,

Basaburuko bigarren alaba Bergarara ezkondua zegoen, eta onen etxean artu zuten emendik bere eskolara bialtzen zutela Pako. Iru urte ala eramán zítuan mutíkoak. Bitarte ortan erdera píxka bat ikasi zuan; kontuak ateratzen ere, ainbestean jarri zan. Argia ta píxkorra zetorren mendíko semea ta orregatik azkar asko konturatu zan bera etxeíkoentzat etzala artaldeko arkumerik artúena.

Al zutela, beti izkútura bialtzen zuten lagunen bat edo etxera etortzen zanean. Bai bera ta bai beraren ama aítatzerakoan garbí itzegiten lotsatu egiten zira-la esan zítekean. Ama Ameríketan etzan, ba? Ala ere, etxeíkoak etzíoten edozeiñi egirik esaten:

-Au al dezue etxeíko maiorazgo izatekoa?

-Bai zera! Au beste alabarena da, Juanarena.

-Egunak emen pasatzen, orduan?

-Ama osasunez etzebílen ondo ta gurean artu genduan píxka bat gogortu arte. Aítajaun eta amandrea-ren ondoan eztabíl gaizki.

Eta mutíkoa barrura bialduko zuten jendeak ikusterik nai ezpálute bezela, Askotan berari begíratu ta itz-erdíka ta aopekotan somatzen zítuan izeko-osabak. Egun batean, mutíkoen kontuan, oker txíkíren bat egin zualako, asarre egin zítoten:

-Sasikume alua! -entzun zion osabari esaten.

Eta itz aiek zer esan nai zuten garbi ezpazekian ere, gauza onik etzutela adierazten iruditu zitzaion. Zergatik etzekian, baiña usai txarra artu zien itz bi aiei. Amandreak bakarrik artzen zuan gozoro. Amandreak erakutsi zizkion otoitzak eta besteak baztartzten zutenean, amandrearen altzoa oi zuan iges-leku. Bein baiña geiagotan Ameriketara zan amaren alde otoi eragin zion gajoak. Orregatik Pakotxori amandrea gertatu zitzaion ama-ordea. Bizitza guzian bere umezurtzaidea zeramala, amandrearen oroitzak bete izan zion amaren utsunean.

Amairu urte bete zituaneke, or-emen jasoak zeuzkan bai bere amarekiko ta bai berekiko inguruan entzundako zenbait kontu, arrotzeko etziranak. Bere amaren izena al zan gutxiena aitatzen zan osabarenean ere, ta aitatzen zanetan, etxeko lotsarik aundiena bezela aterako zuten platerera.

Iru urte aietan Bergaran ikasiak etziran gain-gaiñekoak, baiña Pakotxori etzioten kalterik egingo gero-ko bizitzan. Ala, ba, egun batean amandreak artu ta Basaburura eramane zuan eta an jakin-eraso zion aurrerako bere bizitza nundik norakoa izango zan. Amonak gozatu zion opilla:

-Pakotxo, mutil egiña ago ta erderaz ere, guk ez bezela ikasi dek. Mundua zabala diagu ta leku aundiak zeudek emendik kanpora.

Mutikoak etzuan tutik ere igartzen zertara zetozen amandrearen esan aiek:

-Ikusten al dek izar dizdizari ura?

-Bai, amandrea.

-Ba, uraxe diat Juangoikoaren begia. Begira, ezbearren batek jotzekotan nagonean, izar ori illundu egiten dek, eta gure odolekoren bat eriotz zorian danean, odol gorri kolorea artzen dik. Gaur bezela argitsu danean, gure gauzak ondo dijoazen abisua oi dek.

Mutikoa amandrearen itzetan geroago ta sortua-goia zegoen:

-Ire ama Ameriketara dala badakik. Eta gure auzoko bat ere, Munozarreko Pillipe, urteak dituk ara joan zala. Aretxekin ikasiko uke ederki gizon izateko bizibideren bat.

Mutikoak itz aiek bere barruan egosteko astirik etzuan izan. Bakar-bakarrak ikara aundi bat nabaitu zuan bere barrenean. Amairu urtekin Ameriketara bialtzen zuten!... Basaburu-inguruak Jainkoak asma noiz arte begien aurretik kentzen zizkiotela. Ikusia



zegoen: lenbizi ama, ta gero bera urruti izkutatzeko gogoazuzten etxekoak. Zergatik ote?... Andik aurrerako egunak agur miña egiten zioten biotzera. Orduarteko kristauak eta mendiak laster amets-uts izango ziran berarentzako!...

Amandreak, zapi batean bilduta bere jantziak eman zizkionean, ezin izkutatu izan zituan malko ixil batzuek. Gau artentzuan gajoak lo aundirik egin. Lenalaba, ta orain biloba. Ameriketako urruti aietan galtzera bialtzen zituzten:

-Jauna! Badakizu ondo etxeko izen ona gordetzearen dala guzia. Gorde itzazu beren bidetan.

Amandrearen izarra gau aretan laiñppear izkutatu zan. Etzan argirik zerutik. Urrengo egunean Bilbotik Ameriketatararuntz irten zan «Murumendi» izeneko itxasontzia. Beste bideko lagunentartean, euskalduntaldea zijoan. Talde artentzuan Pakotxo bakarrik zan erderaz zerbait zekianik. Beraz, bide guzian bera izan zuten taldeko gidari.

# BAKOITZA BERE ALDETIK

Pakok bazekian ama Ameriketan zuana, baiña etzan amarengana joan. Bere bizitza laburrean ongi ikasia zeraman ama etxeko guzien lotsagarri izana zala. Bere amairu urtetako soiltasun artan, borondatea gogortua zeukan bere aldetik jotzeko.

Montebideon zai arkitu zuan urrutiko aideren bat. Onen etxean mirabe izateko bidalia zuten Basaburuko aiton-amonak eta an joan zan nagusi berriaren ondoren, onen etxera. Sartu zaneko usai txarra artu zion etxe ari. Etxeak etzeukan aitzakirik. Etxe ederra zan benetan eta kanpotik begiratu ezkeru itxura gustagarrikoa ematen zuan, baiña barrutik ustel-usaia zerion.

Zer ziran emakume aiek? Ain jantzi ariñetan eta gizakume artean ain nabarmen!... Eta noiz-nai, ardan-gelan zurrutaka gizakumeak baiño areago ta gero zertara joaten ziran goiko gelatara aspaldiko ezagunak balira bezela, an luzaroan izkutatzeraz?

Mutikoarentzat naikoa baiño geiago ere bazan ango ikuskizuna bide okerrean barrena bete-betean sartzeko. Baiña gizakumearen indar izkutuak zenbateraiñoakoak diran! Pakori etzion bere barruak okerrera-

ko bultzarik sortzen. Ikasbide txar aiek baiño geiago eragitzen zion amandrearen zuzentasunak.

Bereala aspertu zan giro artan. Mutikoaren izaera zuzenak lizunkeri aide ura ezin eraman zuan. Ala, ba, egun batean, Montebideori agur egin eta Buenos Airesa jo zuan. Aldi artako Buenos Aires etzan gaurkoa. Artean auzo berriak sortzen ari zitzaizkion eta erriaren ertzetan oso oitura zakarrak eta nolabaiteko jendea biltzen zan.

Amabost urte zituaneke, zaildu bearra izan zuan «Pulqueria» batean. «Pulqueria» alde aietan, emen «ardangela» esatea bezela da. Lan-aukera aundirike tzegoen sasoi artako mutillarentzat eta aurrenengo etxea Prantzi-aldeko euskaldun baten pulqueria izan zuan bizi izaten ikasteko. Donato zuan nagusiak izenata morroiaren leialtasuna ezagutu zuanean, oso etxekotzat artu zuan seme balu bezela.

Ala erantzuten zion Pakok ere bere nagusiari. Bereala biak oso alkarren adiskide egin ziran. Oitu egin bear zan gero, gizarte aren zakarkeri-artean bizi-tzen! Asieran etzan erreza izan kontua. Baiña illabete batzuek igaro zituaneke, mutilla ziara egiña zegoen bizimodu berrira.

Gabetan ikustekoa izaten zan ardangela isteko oruda iristen zanean! Jende basati arentzat alperrik izaten ziran bai erri-zaiaren aginduak eta bai nagusiaren itzak. Iñork etzuan ardangela ustutzeko ikararik egingo. Orregatik, esanak alde batera utzi ta beste bide eragikorragoa artu bear izaten zuten.

Ortarako, poliziak erabili oi dituan gomazko zartailuak zituzten. Ordua jotzen zuanean, nagusimorroiak artzen zuten bakoitzak bere zartailua ta an asiko ziran exerita zegoen jendea goxo-goxo astintzen. Zartatekoak gogortzen asten ziran. Azkenerako etzan errukirik iñorentzat. Zirti-zarta! An sortzen zan zigorketa! Baiña era gozo ortan ardangela ederki ustutzen zan.

Mostradorean ere, erne egon bearra zuan gure menditarrak. Norbaitek begitan artzen bazinduan, etzizun barkatuko. Bereala ateratzen zituzten labaiñak eta gizonaren biziak etzuan arkakoso batenak aiña balio. Ala egokitu zitzaion egun batean Pakori ere. Bazan edale-artean italiar jatorriko ergel bat, beti berea egitea nai izaten zuana. Beti kontu nastuak oi zituan eta ordaintzeko orduan iskanbilla sortu bear izaten zuan. Pakok etzion barkatzen eta bein baño

geiagotan kontuak garbitzera beartu ere egin zuan arroxko ura.

Italiarrak bere zaputza barruan gorde zuan, baiña beti aukera-zai zebillen bere gorrotoa ustutzeko. Pako mostradorean bakarrik zegoen egun batean, alderatu zitzaion bere asmo okerrak aurrera eramateko asmotan. Eskatutako edaria pixkaka edanaz, italiarra mostradore ertzera urreratzen zijoakion. Iges lekua itxi naizion Pakori ta ikusten zitzaion begietan odol-egarria. Baiña au ere etzegoen lo bere aldetik.

Edaleak bere eskuan zeukalakoan, esaten dio amorroz:

-Orrelaxe nai indudan nere eskuetan.

Pakok eskura zeukan gomazko zartailua artu ta eman zion buru-erdian neurri-neurriko zartatekoa. Edalea zentzu gabe lurrera erori zan. Jaso zuten morroi artean eta ardangela-aurrean lurrean utzi zuten esnatu arte.

Baziran labaiña dantzatzen oso yaioak ziranak eta aiekin etzegoen jolasik. Egun batean ikusi zuana gogoan gelditu zitzaion. Santanderkoa zan mutilla ta fruta saltzen egon oi zan, etxe-kantoi baten kontra. Ala zegoela, or datozkio iru gizon txepel erdi birbiztuak eta bakarraren lepotil parre egiteko asmotan, asi

zaizkio otarrak ustutzen. Artu sagarra ta aide lurrera; artu udarea ta or ziak urrutira... Santanderkoak etzuan ikararik egiten. Besteak igaliak bota zizkiotenean, eta otarrak utsik ikusi zituanean, patxara-patxaran bere labaiña atera zuan.

Beste irurak etzuten bakarraren eraso aintzakotzat artu ta an dijoazkio gaieñra, aren lepotik nai zuten aiña parre egingo zutelakoan. Baiña leku onean zeuden aren kontra jokatzeko. Igali-saltzailleak ekiten diob ere labaiñari ta bakoitza banan arrapatuta, asten zaie zirt eta zart:

-Au ire amarentzat.

Eta matrailla alderik alde ebakia uzte zien.

-Au ire andrearentzat.

Eta sabela, esteak zerizkiela urratzen zien. Azke-nerako irurak, ondo ordaindu zuten beren txatxukeria. Deitu zieten zaurituen emazteei eta an eraman zituzten irurak, konpostura bat egin zezaieten. Pako etzan aide artara egiten eta bereala billatu zuanb este bizi-bide egokiagoa.

Argentinan aldi artan euskaldun eskuetan zegoen esnea banatzea. Goizero ueksladun jendea zaldi gaiñean sartuko zan Buenos Airesko kaletan esnea etxetara banatuaz. Gure menditarrarentzat gogokoagoa

zan lanbide ura. Ordurarte ezagututako euskaldunak bizitza nastua zeramaten eta esan bearrik ez, euskaldunak ere bazirala bide okerretan zikinduak. Eskerrak beste euskaldun zintzo askori, gure jendeak Ameriketan zintzo-izena irabazia zeukan. Eta esne-saltzailleak jatorrenetakoak arkitu zituan Pakok.

\* \* \*

Amak, Paraguay aldean, etzuan semearen berri-rik, Juanari ere, bere sasi-ezkontzak sei seme-alaba ekarri zizkion. Dirua inguratzeke lanbidea ere egokia asmatu zuan. Inditarrak oso gozozaleak dituzu. Beraz, gozoki-denda bat zabaltzea izango zuan bizibidea ateratzeko aukerarik ederrena. Bururatu bezela burutu ta bere mirandatarrekin asi zan gozogiñan eta gozo saltzen. Etzan ortan esku txarrekoa gure Juana ta etorkizunak garbi asko erakutsi zuan artutako lanbidea irabazi aundikoa zana.

Urte gitxi barru, dirutza aundia zuten eskuetan. Eta beren buruak diruz ongi ikusi zituztenean, beren jaioterrira itzultzeko gogo sortu zitzairen.

\* \* \*

Isaura ta Rogeliok azkenengo artu zuten etxea, Buenos Airesko kale berrietan zegoen. Alde ura oraindik etxez osatu gabea agiri zan eta lengo etxe illunaren aldean askoz alaigoa ta argiagoa zalako, ara aldatu ziran bere iru seme-alabekin. Rosa, alaba bakarra, orduantxe ari zan bere gaztetasunera zabaltzen. Amazazpi urtekin, maitagarria zegoen neskatxa ta luzatu gabe, mutillen baten begietan sar zitekean oso barrura.

Seme biak, Jenaro ta Dimas izenekoak, itxoin zezaketen artean, baiña neskatxak bere aukera-ordua gaiñean zuan. Egun aietan, aspertua zebillen Pakob etiko ardangelako burruka aretan, eta bizibide ura aldatzeko aukera izan zuanean, etzan asarre. Goizero, euskal-kantak eta zaldien perra-otsak urratzen zuan egunsetniko aidea. Zaldizko esne-saltzaileen zarata alaiz betetzen ziran kaleak eta «gaucho» berri aiek emakumeen begietan oso edertuak agertzen ziran.

Rosa zaldizkoen otsera azkar asko jeisten zan ateraiño. Esnez ontzia betetzen zioten eta gero luzaroan an egongo zan esne-saltzailen joan-etorriari begira. Ain zuzen ere, orduantxe azaldu zan esne-saltzaille berria. Gaztea bera ta mutil egokia oso. Arrazkero,



goizak poz berria zekarkion neskatxa maiteberari. Goizetik goizera alkarren berri jakiten joan ziran gazte biak:

-Egun on, Rosa.

Deadar egingo zion mutilak bere esne-ontzia jasotzen zuala.

-Baita zuri ere, Pako.

Eta besterik gabe bazuten puska baterako alkar-izketa.

## **UDABERRI-LOREAK**

Guretzat udazkena danean, Arjentina aldean udaberria esnatzen da. Panpa-aldeko aidea artean zorrotza zetorren baiña egunak luzatzen ari ziran. Inguru guziak pozera ta alaitasunera deitzen zien biotzei. Pako geroago ta pozago zebillen goiz-argi aietan. Ardangela zuloan sartuta, odola irakiten egotearen aldean, besterik zan zaldi-gaiñean egunero eguzkiaren jaikiera zaitu ta esne-saltzalleen abestiekin biotza zabaltze ura.

Ta gañera, Rosaren begiak ate-aurrean bere zai. Neskatxaren izketaldiak goizari argi berria itxasten

zion. Mutilla ez titan zebilen. Esne-neurrian agiri zanean onen biotz-aldi beroa:

-Tori, Rosa, zure arpegiko azala zuritzeko.

Eta neurria bete ta gero, palasta bat esne ixuriko zuan neskaxaren ontzian. Rosa ere, bere aldetik maitasun-girotan igari, etzegoen goiz-ordu ura galtzeko. Galiziko alabak euskal-gizasemea etzeukan saltzeko. Buenos Airesko jendetza nastu aren erdian, bi gazte aiek maite-kanta sortzen ari ziran eta biotz bi maite-galda aretan urtzeko zorian zeuden.

-Ken zaite aurretik, Rosa.

-Zer, ba?

-Zure dizdirak itxutu egiten nau-ta.

-Illunean naiago al dezu, Pako?

-Zu ondoan zerala, bai, Rosa. Azkenerako gorroto bizia artu bear dizut.

-Orixe bear degu.

-Eztakit, ba, baiña begi-bista geroago ta geiago galtzen ari zait.

-Okulista bat ikustera joan zaitez lenbailen.

-Aurrean daukat nere begi-sendatzailleak.

-Tira, tira! Noiz itzegin bear dezu benetan?

-Aldara-aurrera nere besotike raman zaitzadanean, Rosa.

-Ortarako pikoak eldu gabe daudela uste det, Pako.

-Elduko dira, Rosa, ta zuk uste baiño lenago, ala ere.

Isaura atean agertu zan deika:

-Baiña alaba, ez al dakin aita ta anaiak lanera irte-zeko ire esnearen zai dauzkanala?

Gazte biak, uste gabeen bere alkar-izketa eten ziotenean, e rdi gorrixkatuta gelditu ziran. Amaren begiak etzuten une ura galdu. Egun artan, lanera baiño len, Rogeliok entzun zion emazteari:

-Gaur albiste berria aidean jaso dedala uste det.

-Zer albiste, gero?

-Gure Rosak esne-saltzaille gaztea begi-ninietan lotau ote duan edo...

-Poztuko nintzake, Isaura.

-Ameriketa ontan arkitzeko, egoki-egokia deritzait neri ere.

Gazteen kontuak aldapan bera zijoazen. Orain, jai-arratsaldetan ere alkar ikusten zuten. Ordu aiek etziran saltzekoak. Baiña Pakok bere barruan korapilloa zekarren eta uraxe askatu arte, ezin zezakean pakerik arkitu. Ta pakea bearrezkoa zuan Rosari bere biotza zan bezelakoa eskeintzeko. Arratsalde arek udaberri-

ko lore-usaia biotzetaraiño sartzen zuan. Aidea aopekotan egoteko aukerakoa zuten gazte biak:

-Rosa, badet, ba, zuri esan bearreko kontu bat.

-Ez al degu, ba, esan bearreko guzia agortu?

-Ez, maite. Oraindik eztakizu nere jatorri-berri.

-Euskalduna zerala jakitea naikoa det eta zure biziera zuzenak agirian jartzen dit zure izaera.

-Baiña nere jaiotza ta nere ama mundu ontan lotsagarritzat izkutuan eukitzekoak dirala uste dute nere etxean.

-Min ematen dit entzuteak ere, Pako.

-Ala da, ba, Rosa. Ni jaio nintzanean...

Arratsak ur-ondoko zelai artan bere egoak zabaldu zituan eta Pakok errezago ixuri zituan bere ixilleko kontu aiek. Bukatu zuanean, illuna lurraren jabe zan eta mutillaren biotzak arantza zorrotz bat biotzetik atera ziotela uste izan zuan. Nexkak itzegin zuan:

-Eta ama bizi al dezu?

-Bai, Paraguay aldean bizi omen da, beste gizon-batengandik izan dituan sei seme-alabekin.

Neskatxari negar ixilla zerion, ainbeste ezbear bitza batean bilduak ikusita.

-Zer esaten didazu orai, Rosa?

Neskatxak bere burua mutilaren bularrean izkutu zuan itzik esateke.

-Zu ere lotsatu egiten al zera nere jaiotzaz, Rosa?

Neskatxak bere burua jaso ta begiak malkotan lausotuak zituala, erantzun zion bizi-bizi:

-Lotsatu? Zergatik, gero?... Ai, maite, eztezu zure bizitzan pozgarri aundirik izan. Eta ala ere, ez da zure bizitza okertu. Beste zenbaitek zure lekuan, lapurreta-ra ta bide galdutara joko zuan.

-Eztakit zergatik iraun dedan onela. Bear bada, nere amandrearen naigabea ta kezka zorrotzak amaren zabarkeriak baiño eragin aundiagoa izan dute nere geroko jokaeran.

-Orain nereago zaitut, Pako.

Laztan estu arek milla itzek baiño garbiago adierazi zuan biotz bien artean zenbateraiño lotura sortu zan:

-Orduan, lenbailen alkartu gaitezen.

-Nai dezunean, Pako.

-Osintxura eskatuko det nere bataio-agiria.

-Bearrekoa al da? Aiuntamentuan gure ezkontz-itza alkarri ematea naikoa degu.

-Ez, Rosa. Nere amandreak jakin dezake. Ta Eliza-ra gabe alkartuak bizi gerala jakingo balu iñoiz, ezten

berria sartuko litzaioke biotzean. Ez nuke nere ezkontza dala-ta aren azken urteak larriagotzerik nai. Gure gurasoak bezela, Eliza-bidez egin ditzagun gure itz-emateak.

-Nere aldetik eztago eragozpenik.

-Eta zure gurasoak?

-Nere gurasoak ongi ezagutu zaituzte urte auetan.

Ez dute galerarik jarriko.

Bereala asi ziran papelak inguratzen. Osintxu ta Bergaratik bialdu zizkioten bataio ta jaiotza agiriak. Orduan jakin zuan Egigurengoan jokaera. Agiri barruetan bere Martiñen seme legezko agertzen zan, baiña alboan beste lotsagarrikeri au zion:

«Oarra.- Aurra ez da Martiñen semea, baizik Mikolas anai gazteagoarena. Au ezkongia zan».

Pako sutan jarri zan aldaketa ori irakurri zuanean. Kanpaiak jotzeko gogoal zuten elizan eta Aiuntamentuan? Zergatik zabaldu bear zuten izkutu zegoen bere jatorria? Gauza egiña zegoen, ordea, ta onezkerola bearko zuan. Urrengo egunean Rosak bazuan esatekoa:

-Aizu, Pako; nere gurasoak ezagutu nai zaituzte.

-Ez al naute ikusi oraindik?

-Bai, baiña igandean gurekin bazkaldi bear omen dezu.

-Au ere ba al degu?

-Etxekoa zaitugu.

-Atez kanpoko oraindik.

-Etorriko zera, e?

-Zu ez ikustearren iges egiten ezpadet...

-Zaude ixillik.

-Asi al zera agintzen?

Gazte biak ego-egos egiñak zeuden alkarrentzako. Urrengo igandekoa nola joan zan esan bearrik ez. Euskaldun semea Galizitarren etxean oso ondo artua izan zan. Ama Isaurak bere eskua erakusten, alegin guziak egin zituan. Beren lurretatik etendako jende arek, jaioterritik urruti alkartzeko bideak asmatzen zituan.

Eztai-eguna erabaki zuten eta kristau-legez elizak artu zuan gazte bien maite-itza. Pakok andik laster amandreari idatzi al izan zion:

«...Joan dan larunbatean izan zan nere ezkontza-eguna. Elizakoa eginda gero, Aiuntamentukoa egin bear izan genduan. Emen geienak Aiuntamentukoa egin ezkeru, ez dute beste elizarako kezkarik izaten. Baiña zuri min ori ez emateagatik, Euskalerrian beze-

la, elizaz alkartu nai izan det aurrena... Basaburun onik al zerate?...».

Eskutitz ura Basaburun irakurri zutenean, amandreari negar gozoa zerion:

-Mutil ona, gizajoa. Jatorri negargarri ura izan ezpalu...

Urrengo larunbatean, an joango zan aitorlekuaren batera, bere aitorleari billobaren berri ematera. Mutila jatorra atera zan: ama okertu ezpalitz Ameriketa aldean... Ura zan bere arantza:

-Elizarik gabe beste gizon batekin eta onen sei seme-alabekin nastua Basaburuko alaba. Jauna, Jauna!

Eta aitorleari, estu ta larri, amar milla aldiz egindako galdera berrituko zion:

-Jauna! Zer egin nezake nere alabaren bizia zuzentzeko?

-Erregutu, Joakiña, San Agustiñen amak egiten zuan bezela.

Ta biotza estu-estu biurtuko zan Basaburu-aldera, bere arantza ura aldean zeramala, ta Errosario, arnasa estutuaz aldapan gora bidean zeriola.

Pakori aurrerako bizitza asko erreztu zitzaion. Rosak etxea txukuntzen zion eta bere esne-saltzaille



bizitzari jarraitu zion urten batzuetan. Poliki zetorkien dirua ta Rosaren gurasoekin artu-eman aundian bizi izan ziran. Orixe... zera... zeruak etziela seme-alabarik eman. Baiña zer zan ori, txikitatik ainbeste ezbear artean azitako gazte aientzat? Bearrena bazuten: etxea ta elkarrekiko maitasun bete-betea.

## **ETXERAKO AIZEAK**

Bitartean Paraguayn, an zebillen Juana bere sasi-gizon eta sasikumeekin. Beren goxoki ta inditar gozozaleei eskerrak ederki dirutuak zeuden, lentxeago esan degunb ezela. Gizonak etzuan laguntza aundirik sortzen. Juana zan etxea jasotzen zuana. Bizitza errez-tu zitzaienen, alkarri esan zioten:

-Juana, gure tartekoak nola dabiltzan ikustera joan bear genduke.

-Nere tartekoak, ez dute ni ikusteko gogo aundirik izango, Benito.

-Logroñora joango gera bizi izatera ta andik, nai dezunean,zure etxekoak ikustera joango zera.

-Elizaz ezkondu gabe ta sasiko seme-alabekin gaiñera, ez gaude agertze ederrak.

-Oiek guziak diruak edertzen ditu, Juana. Aberas-tuta agertzen geranean, aztuko zaizkie zenbait kontu.

-Ez nere amari. Orain gaiñera, aita il zitzaigunetik alarguntza bakarrean, nereko kezka biziagotuko zitzaizkion.

Seme-alabak etzuten eezetzik esan. Ameriketara egiñak zeuden gazteak, baiña lur berriak ikustea etzi-tzaien aspergarri egiten. Gaiñera, gurasoen jaioterriak eta txikitako lekuak ezagutzeak, azkure pixka bat sor-tzen zien. Aureak, bere erren ura izkutatu eziñik, senargai-amesak baztartuta zeuzkan. Orregatik, ama-rekin oso bat egiña bizi zan. Amak nora, arek ere ara egiteko etzeukan aitzaki-bearrik.

Ana esnatuago zetorrene ta Europako mutillen azkurea sortu zitzaion onuntza etortzea entzun zuane-ko. Beste laurak artean gazteak zeuden beren buruz ezer pentsatzeko. Aita zan etxe artanlotu eziñekoa. Errez irabazitako dirua, aisa gastatzen ikasia zegoen eta ez ari loturarik jarri. Juanak eutsi bear izaten zion, etxeak lur jo etzezan. Onela gauzak, egun batean Benito Montebideora joan zan eta Bilbora etortzeko zan Anboto itxasontzian etxeko guzientzako lekua arkitu zuan. Bere txartelak sakelean sartu ta aurrak

jostailuekin baiño pozago itzuli zan etxekoengana, azkenengo gertaketak antolatzeraz.

Bereala joan zan illabetea ta Ameriketara udazken- aize epelak bultzatzen zituala, atera ziran Montebide- oko kaitik itxas-zabalera. Etzan berdiña aruntza ta onuntzako bidea. Ogetaka urte aurretik Ameriketa- runtza atera ziranean, beste errukarri asko bezela, gelarik merkeenetan egin zuten arako bidea. Orain lenengo maillako gela dotorean; janari ta egon-leku apaiñetan zetozen Europaruntz.

Benitok Logroño aldeko bere errixka arloteak zituana gogoan. Gurasoak illak urte batzuek lenago. Arreba bat bizi zitzaion ta onen iru seme-alaba. Juanak bere ama zeraman aurrena buruan. Zer ote zion bere irurogei ta amar urtekin? Anai-arrebak, Basaburun Martiña aizpa zarrena zuan etxera ezkondua. Antoni ta Jesusa beren sendiak azi xamarrak zituztela, Berga- ran bizi ziran. Gazteenak ere, zabalduak zeuden. Aizpa gazteagoak Plaentxin eta gazteena, Anton, Ameriketara Montebideon agurtu zuten onuntzakoan.

Bilbon lurra jo zuteneko, Miranda aldera jo zuten. Andik Logroñora gero, ta Errioxako Uriburu ortan artu zuten etxe-bizitza. Benitoren arreba ikustera urrengo astean abitu ziran, Kalaorra ondoko errixka batera. An

etzuten aldaketa aundirik arkitu. Gazteak dena arkitzen zuten berri. Ameriketako aldean erri txiki aiek, oso besterik ziran, eta emengo erdera ere, odo donairu aldatua angoaren aldean.

Gerotxoago egin zuten Bergara alderuntzako ibilia. Juana ta beronen sendia etxekoen aurrean kondena-tutako jendea bezelatsu ziran. Elizarik gabeko ezkontza, alajaiña, ta sei sasikume ezkontza artatik. Bergaran jetxi ta Antoni ta Jesusa ikusi zituzten aurrena. Arrera otza izan zuten.

Urrengo egunean, Juanak bere ama ikusi bear zuala ta Basaburuko bidea artu zuan Antoni aizparekin. Gizona ta seme-alabentzako mendi-bide luzetxoazala-ta, Bergaran utzi zituan, bere basarrira igo bitartean. Ama Joakiñak estutu zuan bere besoetan eta gero negarrari eman zion. Negar arek itz askok baiño geiago adierazten zion Juanari, amaren barruko kezka larria, bere alaba elizaz ezkondu gabe bizi zalako. Noizbait itza atera zitzaion:

-Orrela bizi bear al den, alaba?

-Ameriketara ala bizi dira geienak, ama.

-Baiña i ez aiz Ameriketakoa. I, Euskalerriko mendi-alaba aiz.

An jakin zuan Juanak bere Egigurengo senar ake-  
tsa bizi zala ta Mikolas anai gazteak nola artua zeukan  
etxeko nagusitza. Bazkaldu zuten erdi-ixillik eta arra-  
tserako jetxi zan Juana Bergarara. Aldegiteko orduan,  
amak bere barruko eztena agertu zion:

-Juana, Jaungoikoarekin eta Elizarekin pakeak egi-  
teke ezingo aiz, ba, bizi. Eriotza, uste gabeen zetorren  
eta ordurako ire kontuak zuzentzea bearrezkoa izango  
den.

-Orain, beintzat, urrerago biziko gera ta alkar  
sarriago ikusiko degu, ama.

Amandrearen izarrak argi biziagoa bialtzen zuan  
zerutik gau artan.

## **GAZTEEN ALDIA**

Urrengo egunean Logroñon ziran berriro ta seme-  
alaba gazteak poliki-poliki lagunarte berriak arkitu  
zituzten. Ana izan zan aurrena adixkidea sortzen. San  
Mateo jaietan Logroñoko erriak bere egunik agirienak  
oi ditu urtean.

Gazteriak badu nun zoratu. Eta Anari orduantxe  
egokitu zitzaion dantzarako ta txoratzeko aukera.

Zezenetara ere joan bear zan. Ango jendearen deadarrak eta toreatzaileen arriskuak ziara bere onetik atera zituan Ameriketatik etorri berriak ziran gazteak. Baiña batez ere, gabeko musika ta gazte-dantza igo zitzairen burura. Ana etzan gelditu gau guzian. Mutil gazte arek izan ere, zoratu ez neskatxa? Mutilak eta dantzak, biak batu ziran Anaren biotza beratzeko.

-Goazen dantzara, Ana.

-Oraindik ere dantzatzeke indarrik gelditu al zaizu, Ernesto?

-Gaur lenengo eguna da oraindik. Oituko zera emengo legeetara, Ana. Ta nik onezkero, zu gabe ez det jairik.

Neskatxa bereala egosi zan giro artan. Mutillaren biotz-aldi bero arek, etzezakean besterik sortu. Andik aurrera igandero an zuan Ernesto lagun zintzoena baiño zintzoago beren lagunarte ta kate berri ura gogoratzen. Udaberriak lur gorrien jantzi berdea ta txorien kabigintzarekin dei gogorra jo zuan Anaren biotzean. Ernestoren leia etzan txikiagoa. Gazte biren maite-kanta ibillaldi bakoitzean loratuago ari zan jartzten:

-Ana, ez al dezu entzuten?

-Zer, Ernesto?

-Maite-kanta.

-Nun?

-Izadi guzian. Mendi ta zeru, landare ta izar, bate-ra ari dira gure maite-kanta jotzen.

-Ameslari al zera?

-Zure begiak jotzen nautenean, dena kantari jar-tzen zait barruan.

Kukuak entzun-arazi zuan bere kanta ezaguna. Gazte biak alkarri begiratu zioten. Onerako ala txarre-rako entzun ote-zuten txori aren deia? Neskatzak bere barruan arrada izkutu bat somatu zuan. Mutillak alga-ra aundi bat egin zuan, nexkaren ikara etenez:

-Kukuak zabaldu du albistea, Ana.

-Txori ori etzait oso atsegiña.

-Ba, orain albiste ona eman du guretzat, kukua entzuten duten alkar-maiteak, beren etzaiak urrean dituzte.

-Neri, Ernesto, zorigaitz-deia iruditu zait.

-Izarrak besterik diote. Ikusten izar bi aiek? Bes-teak baiño argi biziagoa dute. Gure izarrak dira.

-Ene! Iaiño beltz batek estali ditu. Gure zoria arris-kuren baten aurrean degu.

-Zure irudipenak dira, Ana. Ara berriz argi ta izar biak.

Etxe bietan gazte bien lagunartea ontzat eman zuten. Juanak bere ezkontza zorigaiztokoa zuen gogotan eta etzukean bere alabarentzat alako negargarrikeririk nai. Gauzak itxura ona zekarren eta urrengo udazkenerako erabakia gelditu zan gazte bien eztaijaia.

Aurrez papelak eta eliz-deiak gertu bear ziran. Alde bietakoak aurrez asi ziran papelak inguratzen. Anak Ameriketara eskatu bear zituan eta aurrena ibilli zan bear ziranak eskatzen. Erri-agiriak legez zetzen, baiña eliz-papelik etzan tartean. Anak amaren abizena besterik etzekarren. Andik agiri zan aita etzuala legezkoa. Ori Ameriketara etzan arritzekoa, baiña Logroñoako aidean oso lotsagarri jo zuten Anaren jatorria. Ernestok egin zituan alegiñak, baiña orduan okerragoa jakin zuten: ama ere, beste senar batekin aurrez lotua zala, ta etzegola legez zuzentzerik jatorri ura.

Etzekoen erasoak eratxi zuten mutilaren borondatea ta itzez esateko gauza etzalarik, Anari eskutitz batez agur egin zion bere biotza urratuaz. Anarentzat mundua bere gaiñera erortzea izan zan eskutitz ura. Bere gelan sartu ta negarrez eten bearrean joan zitzaion egun ura. Juanak bere okerraren ondoren ura



ikusita, egin zituan alegiñak alabaren biotza jasotzeko:

-Orra nere bildurak egi atera, ama.

-Neregandik asi itunan bideak okertzen. Ik zer unan nere kontuekin zer ikusirik? Baiña munduak ez tin errukirik emakumeontzat.

-Zerbaitek esaten zidan biotzera, nere etorkizunak zorigaitz beltzen bat bazekarrela.

-Urteak bearko ditun aztutzeko, baiña oituko aiz eure zoritxar-lañotan ibiltzen. Min diñat ire oker au neregatik sortu dala jakiñaz.

Etzion ezer erantzun amari. Begiak lengo malkoak legortuta, begirasun galdu batek illuntzen zizkion. Noizean bein zotin itoren batekin sorbalda-ikara sortzen zitzaion, baiña azkenerako bizia ere joan zitzaiola ematen zuan. An gelditu zan sor-gor inguruko esan guzietara!... Ixillago ta bildurgarriago jartzen ari zan Anaren egoera.

Erotzeko zorian zegoela esan zitekean. Eta ala zan. Bat-bateko bere maitasun-galtze arek, zentzua nastu bear zion. Jira ta bira, erabaki latza ari zan biotz artan egosten. Illunabarrak beltzagotu zituan neskatxaren burutapenak. Egun guzia bere gelatik irten gabe pasa ondoren, iñoren esanari erantzun gabe,

bat-batetan jaiki zan bere exer-lekutik eta atera zan kanpora. Amak etzuan pakerik eta atean gelditu zuan:

-Nora oa soiñeko arlote oiekin, Ana?

-Zer zaio nere soiñekoagatik iñori? Illunak ez du dotoretzerik eskatzen.

-Egun osoan ez aiz gelatik atera ta nora joan bear den orain?

-Neronek ere ba al dakit, ama? Aize pixka bat artu bearrean nago ta bide batez nere izarrei agur egingo diet.

Eta an joan zan kalean aurrera... Etzegoen izarrik. Zerua, Anaren barruko ilunaren erantzuna bezela zan. Goibel arek neskatxaren biotzean asmo beltza sortu zuan. An zegoen Ebro ibaia. Orduantxe zijoan aren gaiñeko zubia igarotzera. Zer zan bizia?... Askorentzat eten-gaeko zorigaitzezko kate bat besterik ez. Ase eziñeko milla egarri gogo barrenean garraxika eukitzea beti. Eta ona emen kate oiek etetzeko ta garraxi oiek ixiltzeko biderik errezena. Ibai au... ur oeik...

Ain zuzen ere, gizakume bat zetorren atzeratxoago zubi-aldera.

Eta gizakumearentzat, emakume gazte bat illunpetan eta bakarrik milla pentsamentu sortzeko bidea oi da:

-Jauna! Nexka ori ordu onetan emen orren baka-  
rrik!... Orixe pausoa daramana! Esan diteke ezta kiala  
nora joan... Edo-ta norbaiten zai dagoela... Eee!... Gel-  
dik!

Eman zion lasterrari. Nexka ura petrilletik ibaira  
begira egon ondoren, aren gorputza ibaira erortzeko  
zorian ikusi zuan. Mutillaren deadarrak geldi-arazi  
bearrean, neskatxaren erabakia aurreratu egin zuten.  
Gabaren illunpean neskatxaren gorputzak uretara  
erortzerakoan atera zuan otsa, entzun zuan gizaku-  
meak.

Eskerrak une artan laño artetik sortu zan illargiari!  
An zijoan neskatxa ur lasterrak eramana. Mutilla itxoin  
gabe jokatu zuan bere bizia. Urak oso beian zeuden  
zubitik, baiña azkar ibilli bearra zegoen eta an dijoa  
bera ere uretara neskatxaren ondoren. Bereala zuan  
neskatxaren soiñekoa bere atzaparretan. Kontu aun-  
diz eldu ta ibai-ertz aldera igari egin zuan. Ordu onean  
iritxi zan aren laguntza. Neskatxak etzuan itotzeko  
astirik izan eta mutillak deituta agertu ziran batzuen  
laguntasunakin Ana bere onera etorri zan.

Etxean egin zuten sarrera, etzan gozoa izan. Jua-  
nak batez ere, alaba egoera artan, soiñeko guzia bus-  
tita ikusi ta gertatua jakin zuanean, bere arnasa galdu

bear zuala ematen zuan. Urrengo, biaramoneko egunkariak zabaldu zuten gertaera aren berria izan zan. Ernestoren etxean arrada aundia egin zuan neskatxaren jokaera negargarriak. Mutilla artean Ana aztu eziñik zebillen, eta sortu zitzaion larri-aldiaz burutu ezinda, zoro bat bezela atera zan etxetik:

-Mundu madarikatua! Zer ikusi zeukan Anak bere jatorriarekin? Aukerarik eman al zioten berak nai zuan bidez mundura etortzeko?... Ta bere etxeko enizen onari zer zion, alako emaztea artzen bazuan ere? Ana errukarria! Ez, ez! Berarengatik etzuan alako azken illunik aukeratu bearke.

Burutapen aietan konturatu gabe Anaren etxe-aurrean arkitu zan; eta lengo lotsa ta begirapen guziak alde bat utzirik, jo zuan atea. Etzitzai burutik pasatzen ere, ate ura bere aurrean itxi zezaioketenik. Etxekoak ere, etzuten astirik izan mutilla atetik bialtzeko.

-Nun da Ana? -esan zuan Ernestok atea iriki zioteneko, ta itxu-itxuan jo zuan gaixoaren ondora.

Eta orra nola, gaizki bukatzeko arrisku beltz ura, berriro zorion eta pozetan gozatu zan. Andik aurrera, etxe artako gauzak bide onetik zijoazen. Ezkondu zan Ana Ernestorekin eta andik urte gutxi barru, beste

aizpa gazteagoak ere, beste ainbeste egin zuten. Auen senargaiak Ameriketako aizea zuten eta Venezuela aldera jo zuten biak beren emazte gazteekin. Dolores eta Juana Mari ere, beraz, Amerikak irentsi zituan.

Manolo gelditu zan artean ezkongai, baiña pare bat urte gerotxoago onek ere bere emaztea ekarri zuan etxera. Bazirudian gurasoak alaba zarrenarekin eta seme gazteenarekin beren bizitzari eman ziotela pakea. Baiña artean Juanarentzat eztiran bukatu korapilloak. Urrengo pausoa onerako izan zitekean.

Amandrea bere alabaren sasi-ezkontza ura nola zuzenduko asmaketan ari zan bere artean eta oraingoan zerua bere alde jarri ote-zitzaion sinistu ere egin zuan. Amandrearen izarra oso dizdizari agertu zan beste izarren artean. Egigurengo Martin, Juanaren legezko gizona, gaixorik ote zaneko berria jaso zuten Bergarako perietan.

## **GAITZAREN MENDE**

Urteak dira, gero, gigurenen sartu ez gerala. Juana andik bialdu zutenetik, ez genduan bertako berririk.

Mikolasek artu ote zuan etxeko nagusitza ta Martin bere gauza-eza nabarmendu zanetik, etxeko nagusitzatik atzeratua gelditu ote zitzaigun bakarrik. Ezkondu zan, ba, Mikolas eta ekarri zuan etxera bere emazte Erramona. Au Elosu aldeko basarri bateko alaba zan eta Egigurenen sartu zanetik, bere lanerako ta etxea eramateko eskua erakutsi zuan. Bata bestearen ondoren etorri ziran seme-alabak; lau nexka ta bi mutil, etxea aide-berritu zutenak. Martiñek mutil zar tankera osoa artu zuan eta bere andrea Ameriketara zuanik ere, etzitzaion bururatzen. Eizerako zaletasun arekin, inguruko mendiak arakatzen zituan, urrutira joateke; ezpaizan ibilli luzeak egiteko gauza gaztetan bezela.

Iñazi ta Tomas, guraso zarrak etzeuden lanerako. Orregati, Mikolas eta Erramonak zeramaten etxeko lanen pixua. Umeak azten zetozen neurrian, lanerako besoak ugaltzen asi ziran. Eta orduan asi zitzaizkion itukiñak etxeari.

Lenbizikoa Iñazi gaixotu zitzaien. Ama zarra etzan geldirik egotekoa ta indarrak aituta ere, an ibilliko zan sukalde-baztarrean edo oillotegian, naiz beste nunbaiten xiri-xara lanean. Eskuetan ikara-antza jarri zitzaion aurrenengo. Esaten zion bere Tomasek:

-Jarri zaite su-ondoan eta ikasi ezazu geldirik egoten; badezu ordua-ta.

Baiña Iñazik etzekian egoten. Beti esku artekoz erbait sortzen zitzaion, sukaldean ezpazan goiko gelatan, naiz atal-aurreko egur-txorta artean. Egualdiak lapur-arpegia zeukan eta zeruarekin ezer nai ezpalu bezela, goibelak laño-estaliz eguzkiari ate guziak itxita laga zizkion. Orduantxe zetorren Iñazi egur-txorta eskuetan zekarrela, atetik sukaldera. Etxeaurreko aterpetik aizeak orbel bat etxe barrura bialdu zien, zirristoa isten zan bitartean. Orbela anka artean sartu zitzaion Iñaziri ta bat-batetan egur-txorta eskuetatik lurrera joan zitzaion emakumeari.

Iñazi zabuka agertu zan sukaldeko ate-aurrean. Tomas, oi-zuanez, su-ondoan bere pipa erretzen zegoen eta artean ongi konturatu gabe, galdetu zion andreari:

-Emakume, zer zabilta?

Iñazik bi pauso aurrera egin zituan eta gero zerbait eldu nairik bere ezkerreko besoa luzatu ondoren, lurrera erori zan. Tomasek gorputzak lurra jotzerakotan atera zuan otsera, begiratu zuan ate-aldera, ta aren pipa aotik norabait joan zan.

-Martin! Mikolas! Nun zerate? Atozte ama jasotze-  
ra.

Mikolasen andrea azaldu zan mandioko ixkillare-  
tan bera ta bereala sartu zan Martiñ ikulluko atetik.  
Eldu zioten bien artean eta erraiñak galdetu zion larri:

-Zer dezu, ama?

Iñazik itz total batzuek egin zituan, baiña ezin  
zuan gauza garbirik erantzun. Kiñuka zerbait esan  
naia bazuan, baiña aren alegiñak alperrik izan ziran.  
Eraman zuten sukalde ondoko gelara ta Tomas, oiñak  
erdi-arrastaka, seme ta erraiñaren ondoren sartu zan,  
ainbeste urtetan bere emaztearekin berotu zuan gela  
artara. Gerotxoago etorri zan belar-zamarekin Miko-  
las.

Denentzat izan zan mingarri ezbear ura, baiña  
batez ere Tomasentzat, etxea buru-gaiñera erori bali-  
tzaio bezela izan zan Iñaziren gaitza. Sendagilleak  
perlesia zala esan zien, eta bada-ez-pada ere, apaiza-  
ri deitzeko. Sarri oi-danez, gaixoak argi-alditxoa izan  
zuan eta etxeakoak lasaitu ziran pixka bat. Tarte artan,  
Iñaziri, aspaldi aztuta zeukan oroipen zulatzailea nau-  
situ zutzaion. Mikolasi kiñu eginda, oe-ondora erakarri  
zuan. Semeak belarria gaixoarengana urreratu ta  
ozta-ozta entzun zion:



-Juana.

-Zein Juana, ama?

-Mar...tiñ...en an...dre...a.

-Ameriketara joan zana?

-Bai...eta...i...re se...me...a, a...rekin i...za...na.

-Ameriketara ura ere, ama.

-Ondo e...gin ote...genduan...ara...bi...al...tzea?

-Laga bitza kezka oiek, ama.

-Ezin... Nun da Martin?

Martiñekin egin zituan azkeneko itzak. Amasemeak zer erabilli zuten ezta kigu zeatz... Bereala toteldu zitzaion gaixoari itza ta apaiza etorri zaneko, etzan gauza ezertarako. Apaizak, kiñu ta gaixoaren esan-naia ikusita, barkapena eman zion. Goizik etzuan artu lñazik.

lñazirekin, etxe artako oiñarria galdu zala esan zitekean. Tomasek etzuan arrezkero egun onik izan. Bere alarguntzaren soiltasunak eratxi zuan gizona ta andre-zana beste mundutik deika balu bezela, arekin ametsetan zebilen gau t'egun etxeko bazter eta txo-koetan.

Egun euritsu batean earaman zituzten gorputz biak, sei illabeteren barruan; eta Martiñentzat etxea ustua gelditu zan. Amarekin izan zituan azken-itza aie-

gatik izan ote zan?... Ala bearrak okertu ote zizkion egunak?... Eztakigu, baiña gurasoak lurperatu zituzte-netik, Martiñ egunetik egunera galtzen asi zan. Bizkarrak okertu ta aurre-aldera makurtu zitzaion. Eizerako gogo aitu ta jaten zuanak etzion mesederik egiten. Mikolas eta Erramonak, etxe ta seme-alabekin naikoa arazo zerabilten, eta anai zarrari arreta geiegi artzeko astirik etzuten. Tximistak jotako arbolaren antzera, igartzen ari zan Martiñen sasoia. Ala, ezkondu zan eguneko ego-aizearen giro batek, basoan orbel-dantzak arrotu zuanarekin batean, galdu zuan bere arnasa mandio zarreko gela zokoan.

## **KONPONKETA BILLA**

Basaburun bazan norbait Martiñen gaixo-aldiari arreta aundiz jarraitzen ziona. Amandre Joakiña, Martiñen eriotza jakin zuanetik etzan lo gelditu. Deitu zion Juanari ta eman zion eriotzaren berri:

-Zeruak gauzak nai baño obeto jarri dizkin, Juana, ta oraintxe diñagu ire ezkontza legepean sartzeko aukerarik ederrena.

-Neregatik ez dago eragozpenik. Esango diot Benitori ta ikusiko degu zer dion.

Benitok naikoa lan zeukan jokorik-joko ta emakumetan denbora ematen. Arengatik etzan ezer egingo. Erakarri zuten Bergara-aldera ta denen artean pixka bat bigundu zuten, legezko ezkontzapean sar zedin:

-Papel guziak biltzen ditugunean, Arantzazun pake-pakean ezkonduko zerate, Benito.

-Bearrezkoa al da ori egitea?

-Izango ezta, ba? Ez al zerate kristauak eta beste guziok bezela bataiatuak?

-Orain arte ederki asko ibilli gera, ba, orrelakorik gabe. Ameriketari geienak elizarik gabe moldatzen dira ezkontzeko.

-Ameriketari Ameriketakoak eta emen emengo legeak gorde beariko dituzue jendearen aurrean itxuraz agertzeko. Ta Kristau legeak zer agintzen duan badakizu.

-Ameriketakoak ez al dira kristauak?

-Nolakoak jakin bear. Zenbait motxaille bezela jantzita ibilliko al zizkate, Benito? Ba, motxailleak ere jantziak etortzen dira, baiña etzera aien arlote-maillan agertzen.

-Tira, tira... Bearrezkoabada, ikus dezagun Elizak nola artzen gaituan.

Zerbait egingo bazan, Basaburukoak saiatu bear-ko zuten. Benitoren aldetik etzizaion kontu ari aize aundirik emango, beiñepein. Amandre Joakiñak alegi-ñak egin zituan Errioxa aldera joateke egon zitezen Benito ta Juana. Bitartean erriko apaizekin itzegin eta ezkontza-papelak nola inguratu iztezkean jakiten saia-tu zan. Papelak biltzeko astia ematen bazieten, Aran-tzazun zaratarik gabe burutu zitekean ezkontza ura.

Etxera ezkontuta zegoen alaba zarrenarekin luza-ro itzegin zuan Joakiñak:

-Martiña, ni nere urteekin enatxegon bide oietara-ko. Datorren domekan Bergarara jetxi bear den. Santa Marinako Maixuarekin" egon adi ta ia asmatzen degun biderik egokiena ta azkarrena kontu au garbitzeko.

«Maixua» Bergaran «parrokoa» esateko erabiltzen dan itza da. Beste errietan «bikarioa» edo «erretorea» esan oi dutena.

-Joango naiz, ama, ta zaude kezka gabe.

-Lotsagarria den Basaburuko alaba sasi-ezkontzan ainbeste urtetan bizitzea. Eta guzia, asieran oker joka-tu gendualako izan unan. Egigurengo maiorazgotzak

gure bideak aldatu zizkiñan eta orain arantza orren miñak etzidan pakean lagatzen.

-Okerra Juanak egin zuan. Anai gazteari entzungor egin balio, gauzak bere bidez joango ziran, ama.

-Iñor ez gaitun santu, alaba. Aren lekuan zer egingo genduan etzekiñagu. Neronek bialdu niñan otsoaren ataparretara ta otsoak bere lana egin ziñan Egigurrenen. Nere bizia ere pozik emango niken ezkontza ori garbitzearren.

-Al deguna egingo degu ta zaude pakean, ama.

Urrengo «domekan» martina Santa Marinako «Maixuarekin» egon zan Meza Nagusi ondoren.

-Zatoz datorren igandean, Martiña. Ostegunean Gazteiza joan bearra det eta obispaduan esango didate zer egin.

-Gure amak nai luke, beintzat, zerbait egitea, Jauna-ta...

-Emakume zintzoa zuen ama, gutxi bezelakoa ta Jaungoikoak kontuan artuko dizkio alegin auek.

# BASABURUKO BILLERA

Urrengo igandean Santa Marinako «Maixuak» sakristira eraman zuan martiña ta erabaki zuten eguna:

-Ama ta senide guziok bilduko al ziñakete etxean?

-Ze egunetan, jauna?

-Asteazkena ez litzake txarra, jai-erdia da-ta.

-Esango diet gaur Bergaran ezkondata bizi diran aizpei eta nik uste denok biltzeko bidea izango degu. Baiñan zer egin bear degu Basaburun?

-Ama Joakiña, bere urteekin eztago bide oietan gora ta bera ibiltzeko ta «geu» joango gera Basaburura guzoi bear diran galderak egiteko.

-Berok mendi-bide zakar oietan ibilliko al dira, ba?

-Mendiko aizeak eztigu kalterik egingo. Gotzaia-  
ren ordeko egingo duan abadea gurekin eramango  
degu ta beste pare bat abaderekin «neu» joango  
natzaizue.

-Jesus, milla bidar! Neke oiek guziak artu bear al dituzte ta orrenbeste abade jaun gure atariraiño erakarriko al ditugu?

-Zuen amaren pakeak eta aizpa Juanaren zuzenbideak merezi du orrenbeste.

Martiñak Bergarako kalera ezkondata zeuden bere aizpekin itzegin zuan basarrira abitu baiño lenago eta beste aizpei ere, abixua bialdu zien Plaentxira. Anai gazteena, Ameriketan zan eta ezingo zan inguratu beraren etxera. Beste guziak asteazkenerako itz emanda gelditu ziran eta eguna iritxi zanean, jo zuten zuzen eta goiz Basaburu aldera.

Arrateko Amaren eguna zan eta udazkenak bere erdoia zabaldua zuan zelai ta ostroetan. Antoni ta Jesusa agertu ziran aurrena Basaburun. Atari-txakurak bere zaunka zakarra jo zuan auzo-jendea ikusi zuanen. Andik pixka batera an ziran Plaentxiko alabak, eta amaiketarako abadeak bildu zitzaizkien.

Bezperako laño gorrien arira, eguna aizetsu jaiki zan eta baso-aldean bazan orbel-dantza. Anka artean nasten zitzaizkien ostro eroriak. Zugaitzak poliki-poliki erazten ari ziran.

-Emen al dira? Ez da makala aldapa oietan artu duten nekea.

-Noizean bein izerdi pixka bat botatzeak ez du kalterik egiten. Nun dezue ama?

-Or da sukaldean. Beude ementxe berealaxe aterako ditugu aulkiak.

Martiña ta Pedro etxeko bezela sartu ziran barrura aulkiak ekartzera. Itzulean ama Joakiña ekarri zuten berekin.

-Jaungoikoak egun on deiela, abade jaunok.

-Baita zuri ere, Joakiña, Pixkor?

-Alegintxoak eginda. Gure urteak ez dira sendatzeko.

-Eztezu oker aundirik. Oraindik lepoa zuzen daramazuz.

-Gureak aspaldi egin zuan. Orain seme-alabak dute itza.

Juana ta Benitori, egun aietan Bergaran egon arren, etzieten deitu. Ezpaiziran beren auzian juez izateko aukerakoak. Senideak erantzuten zutenetik atera bearko zan garbitasuna. Ego-aizea bitartean, mendibizkarrak garbitzen ari zan eta inguru guzia zoragari agiri zan begien aurrean. Abadeak jaiki ziran beren aulkietatik:

-Guziok alkartu al zerate?

-Emen gaude inguruetako errietan bizi geranok. Anai gazteena Ameriketara da-ta, ez du inguratzerik izango.

-Orduan goazen barrura.



-Lanean asi baiño lenago, salda bero pixka bat artu bearko dute, noski.

-Ori ere egingo degu eztarri leguntzeko.

Sartu ziran barrura ta goiko mandioan mai aundi baten inguruan artu zuten abade ta etxeakoak salda garbia. Ama Joakiña an zebillen urduri batera ta bestera, abadeak nola obeto serbituko. Alperrik esango zioten patxaran exerita egoteko. Joakiña etzan euliei begira egoteko jaioa. Bere bizi luzean, makiña bat atzera-aurrera egin zuan emakume arek. Egun ura aundia zan etxe artarako. Bere alaba okertuaren zuzenbidea erabakitzekoa bai zuten orduantxe.

Gotzai-ordeko etorri zan abadeak bere paperak atera zituan eta asi ziran bata ta besteari galderaka. Ama Joakiñak aurrenengo ta besteak urrenngo beren erantzunak eman zituzten eta guziak paperetan artuak gelditu ziran.

Billera luze joan zitzaien. Kanpotik «Egoiaren» bolarak alako burruna aldiak ateratzen zituan eta an esan zanik etzan iñun jakin; bildutako guziak zin egin bai-zuten, an esandakorik beiñere iñori ez aitatzeko.

Sukaldetik lapiko ta kaxuela-usai gozoa zabaltzen zan etxe guzira. Abadeak etziran goseak jetxi erri-aldera egin zutenean. Ama Joakiñak poz-pezik agur

egin zien ataritik. Egun aundia zan arentzat. Azkene-  
rako moldatuko ote-zuten, ba, Juanaren biziera?

Gauzak etziran errez zuzentzekoak. Ameriketara eskatu bear ziran agiri batzuek. Errioxara besteak. Ezkontza, Gazteizko Gotzaigoan lege-bidean jarri bear zan. Oiek danak naiko etzirala, paper aiek guziak bil-tzeak diru pixka bat eskatzen zuan. Eta orrelakoetan gerta oi dana: egarririk ez duanarentzat, ura edari txe-pela. Benito gogorikg abe zebillen arazo artan. Gauza gutxi bear zuan, beraz, atzera egiteko ta aitzakia berealaxe asmatu zien:

-Alako bearreko dan gauza egiteko orrenbeste korapillo? Eta gaiñera diru ori guzia agiriok iristeko? Zer, ba, diruak zuritzen al ditu ezkontzak, ala?

-Zaude, gizona. Norbaitek lan egin bear du zuen kontu nastuak garbitzeko ta aiek ere bizi bearra dute, guk bezelaxe.

-Ba, ba, ba!... Ori dirua ateratzeko bidea besterik ez da ta gu ederki asko moldatu gera orain arte. Nere-kin ez kontatu ortarako, Juana. Biar bertan Logroñora biurtuko gera ta ez aitatu neri geiago kontu au.

Alperrik izan ziran guzien esanak. Benito geroago ta burugogorrago jarri zan berean ta amandarearen pozak an gelditu ziran mandioko kakutik esegita.

Urrengo goizean Errioxa-aldera egin zuten Juanak eta onen gizonak. Amandrearen izarra, gau artan, laño-pean izkutatu zan.

## **BIZIBIDEAK ALDATZEN**

Urte aiek guziak Pakorentzat etziran geldirik egotekoak izan. Goiz artan, beti bezela azkar asko jaiki zan bere etxetxoan. Rosak prestatu zion gosari beroa ta an atera zan gure esne-saltzailleak bere goizeroko lanera.

Buenos Airesko auzotegi urruti artan etzitzaien okertu bizitza. Zeruak egunero bialtzen zien argiaren eta txorien poz-kanta. Baiña urterik ederrenak urtzen ari zitzaizkien. Gaztetasun-lorea bereala zimeltzen zaigu ta pako ta Rosak askotan oi-zituzten beren arteko jardunak:

-Pako, urteak daramazkizu esnea banatzen.

-Bai, Rosa. Zenbat joan ote zaizkit? Ogeitaka bai, beintzat.

-Urte askotxo ez al dira, egunero orren goiz jaiki ta egun-sentiko aize miña artzeko?

-Asi nintzanean bai sasoia!... Txoriak baiño ariña-go jaikitzen nintzan oetik.

-Aiek urteak, Pako.

-Gure eztaietako urteak, Rosa.

-Urte ederrak benetan! Baiña gure gazte-loreak joan zaizkigu. Beti ezingo zera lanbide auetan ibilli.

-Esne-saltzaille artean baditut lagun benetako batzuek; Lino bizkaitarra, Ganix lapurditarra, Anton asturiarra ta beste lau-bost guztiz jatorrak. Guztiok berdin samar goaz urtetan eta zerbait asmatzen ari izan giñan lengo igandean.

-Eta zer erabaki dezue?

-Datorren jairako berriz alkartzekotan gelditu giñan. Gure asmoak aurrera eramango ditugulakoan nago.

-Ai, alako bat, Pako.

Urrengo jaian elkarrengana bildu ziran zortzi lagunok eta erabilli ta erabilli, azkenerako beren diruak zertan arraxkatu asmatu zuten. Buenos Airesko kale-rik onenetako batean, urdi-erdi-erdian, toki bat ustutzeko asmotan zan, bere jabea, ta modu onean eskeintzen zuan iñork erosi nai bazukean. Oso alderdi ederrean zegoen bat dotore bat irikitzeko.

Pako, lendik zerbait ibillia zala barretan eta bera-  
ren gain jarri nai zuten edaritegia. Ganixek prestatuko  
zituan mokau ta sukaldeko lanak, eta Antonek era-  
mango zizkien diru-kontuak. Pakok, morroiak zaitu ta  
barreko aidea jendearentzat atsegin gordetzen alegin-  
du bearko zuan. Gabean Rosak jakin zuanean, pozik  
aditu zituan gorabera aiek. Andik illabetera, ekin zion  
Pakok bere lanbide berriari. Oraingoan, nagusi bezela  
izango zuan irabazia.

Eguna gutxitan bezelakoa izan zan Pakoren etxe-  
koentzat. Guraso zarrak ere berekin eraman zituzten  
barreko irikitze-jaia ikustera. Buenos Airesko «2 de  
Mayo» kalean izen aundia artu bear zuan bar berri  
arek. *Bar Basaburu* jarri zion izena. Euskal izen arek  
Buenos Airesko euskal jatorridun jendeari biotz-deia  
egiten zion eta erruz etorri ziran barreko ateak zabal-  
du ziranean.

Bereala, artarako deitua izan zan orkestina batek  
zabaldutuan aidean Arjentinako aide batzuek. Tokia  
bete-betean arkitu zanean, orkesta-oldegian iru txis-  
tulari sortu ziran eta euskal-jendea dardaraz jarriaz  
«Gerninako Arbola»ren doiñua aidatu zuten.

Rosa ta onen etxeok ere beren lurreko oroipen bat bearrekoa zuten eta Galiziko gaita-soiñuak barra ernarazi zuan berriro.

Pako bere lekutik morroien joan-etorria ta maietan jarrita zeudenen eskeak arretaz kontuan artzen, saiatzen zan. Ganixek sukaldean bere esku yaioa agirian utzi zien eta gaberako Basaburu barrak bere izena irabazia zeukan Buenos Airestarren artean. Denak alkarrekin joan ziran etxera. Ori bai, barra itxi zutenean, zortzi adiskideak eta aien etxetako lagunak elkarrekin apaldu zuten umorerik ederrenean.

-Asiera ederra izan degu, Pako.

-Sukaldean ederki lan egin dek, Ganix.

-Gaurko aparia irabazia diagu denok -bukatu zuan Antonek.

Gurasoak beren etxera eraman zituzten eta Rosa ta Pako sartu ziran noizbait berenean.

-Pozik, Rosa?

-Zoragarri atera da guzia, Pako.

-Biar astelena da-ta barra berandutxoago irikita ere, eztegu kalterik izango. A ze logurea dedan.

Eta ala asi zan urrengo bizibidea. Basaburu barra ederki ari zan lanean eta irabazian. Pakoren lanerako zintzotasunak eta begi argiak zuzen zeraman edarite-

giko martxa. Ala ere, goizeko jaikiera arek bazuan bere nekea. Bizi ziran kaletik Basaburu barrera bide luzetxoan egiten ziran eta lanerako bide ura aspergarria egiten zitzairen egunero egiteko. Denboraz, Buenos Aires erdian etxe-bizitzaren bat artu bearko zuten lanerako bidea laburtzeko.

## **AMANDREAREN KERIZA**

Ainbeste amets eginda gero, Benitoren zakarke-riak alegin guziak ondatu zituanean, amandre Joakiña-ri joan zitzaion bizi-poz guzia ta arekin batera osasuna. Gauzak ain eskura ekarri ondoren; apaizak etxe-raiño igo ta aiekin alako billera luzea izanda gero, gizon aren trakeskeriak etengo zuan, ba, ain gogoz prestatutako lege-ezkontza.

Alperrik izan ziran etxeko guzien ardura ta arretak. Sendagilleak etzuan gaitzik arkitzen gaixoagan:

-Biotza ondo dauka, biriak ere bai. Urdaillean ez du okerrik eta ala ere, beraka dijoa.

-Alabaren oker-bidea zuzendu eziñak eratxi du gure amaren osasuna.

-Baditeke, martiña. Biotzeko naigabeak gorputzari asko erasan oi diote. Eta larogei ta iru urte ere, ez dira aztutzekoak.

-Urteengatik iraungo zuan oraindik. Bere barruko etengabeko kezak eramango dute gure amaren bizia.

Urte artako Eguarrik, illunak joan zirn Basaburko senideentzat. Txingorra ta aize miña leiotatik intzirika sartzen ziran. Inguruko mendiak zartzaroko zuria zuten txapel eta elur-trumoi ta tximistak, madarikapen beltzen batek sortutako sorgin-jaia ziruditen.

Ama Joakiñak azkenengo jaiki-aldia Gabon-jaietan egin zuanetik, etzuan oerik ustü geiago. Otsailleko izotzak eratxi zuten gaixoaren azkeneko kemena. Lelo bat zuan beti bere loz-rrö ta amets-artean:

-Gure Juana!... Jauna!... Zer egin bear det?

-Zaude ixillik, ama. Ez al dezu, ba, zure aldetik zenezakean guztia egin? Ez da umea ta onezkero gauzak konprenitzeko urtetan da Juana.

-Ai, Martiña! Ez ote nuan neuk galdu alaba, gogotan zuan senargaia biotzetik eten arazita?... Ots egiozue. Etorri dedilla. Nere bizia aitzen ari zaidan da.

-Etzazu orrelakorik esan. Egualdiak samurtzen diranean, indarrak berrituko zaizkitzu, ama.



-Bada-ezpada ere, deitu egiozue lenbailen.

Urrengo egunean Logroñora idatzi zuten. Benitori etzion ikara aundirik egin berri illunak. Juana, ordea, alaba zan eta bere bizitza nastuko goraberak etzioten etxeko izaera ziara eten. Orregatik, bere alaba zarrena artu ta an agertu zan Basaburun urrengo astean.

Amaren gelan sartu zaneko, gaixoaren egoera larria nabaitu zuan. Orbel etsigaitz batek jo zuan orduantxe leioko kristala. Juanari barru guzia irauli zitzaion. Bere bizitzan orbelak markatu zizkioten ezbear-orduak. Trumoi ikaragarri baten ondoren, elurmaluta asi zan bideak galtzen. Gaixoaren abotsa ere elurrak jan zuala esan zitekean:

-Juana! Ordu onean etorri aiz. Oraintxe ez natxegon luzarorako.

-Ama, udaberriak piztuko zaitu.

-Jaunak zeruetan artzen banau, bai. Baiña orretarako ire bizibidea konpondu bear den.

Juanak etzuan ezer espero bere gizonaren aldetik, baiña amari bere kezka arintzearren gezur errukitsua ixuri zion:

-Bai, ama. Konponduko dira kontu denak eta zaude pakean.

-Agintze al didan egingo denela?

-Bai, ama. Guziak zuk nai bezela garbituko degu laster.

-Jaunak barkatuko al zidan ire bizitza okertua.

-Neuk okertu nuan, ama; zuk eztezu ortan eskurik sartu.

Gau aldera Joakiñaren biotza azken-jaikiak ematen asi zan. Arnasa geroago ta gorago gelditzen zitzaioin. Etxeko guziak inguratu zitzaizkion. Begi guziak malkoz itxutuak agiri ziran. Udalaitz-aldeak oiñeztarri baten argitan esantu ziran. Iru Intxortak zeruruntz eman zuten trumoi-erantzuna. Anboton galdu zan oiartzuna.

An gelditu zan Joakiña bere bizitza guziko kezka larriarekin, izara artean arnasa aituta. Elurra, bideak itxutzen ari zan egiñalean.

Ameriketako lurretan, gau artan Pako etxeruntz zijoala, zeruetara begira jarri zan larri:

-Ez al-tzan ura amandrearen izarra?... Bai, bai! Basaburun amandreak erakutsi zion ber-bera! Eta odol-gorritzko tantoa zirudian!... Zeiñen eriotza adierazten ote zion?

Urrengo egunean gorputz-bidean bera zerraldoa galdu zanean, Basaburuko etxea utsik gelditu zala

esan zitekean. Etxe artako espiritua ta argia berarekin zeramazkian amandrearen gorputz illotzak.

Osintxuko elizan egin zizkioten azken-otoi eta mezak. Andik bi egunera Juana ta bere alaba zarrena bi tanto beltz ziran aldapan bera elurretan.

## **GAINBERA**

Andik lau illabetera España-peko lurretan anai-arteko gerratea lertu zan. Errioxa-aldeak Euskalerria-rengandik etenda gelditu ziran. Guduak muga berriak sortu zituan alde bietako burrukalarien tartean. Naparru aldetik Errioxan sartu ziran gudarosteak garbiketa gogorra egin zuten Logroño inguruetan. Benito ta Juana, ari batean egon ziran bizia galtzeko. Eskerrak beren seme-alaben senar-emazteen familiei! Auetan baziran eskuitar aldekoak eta aien izenak salbatu zituan.

Beren sasi-ezkontzagatik ezkertartzat jo izan bali-tuzte, aien biziak etzuan xentimorik balioko. Baiña, esan degun bezela, Logroño-ko aidetarte balia izan zitzaien ekaizpean ez ondartzeko. Ala ere, sendi artako aldarrea, ama Joakiñaren keriza galdu zanetik amilde-

gian bera zijoan. Benitoren zakarkeri ta ajolagabeak etxea ondatzeko zorian zerabillen. Alabak ekartzen zizkion Juanari senarraren berri biurriak:

-Gure aita gaur ere zurrutean eta jokoan ondo narrutu omen dute.

-Ez niñan alperrik lan egin Ameriketa aldean, orain gure diruak jokoak eraman ditzan.

-Gure diruak eta izena omen dabiltz lokatzeta, ama.

-Zer din gure izenak galtzeko?

-Zera... dituan urteekin, nun-nai agertzen omen da emakume galduekin txorakeriak egiten.

-Ameriketan dagoalakoan ibilliko den orrela, zakarrio ori. Orren gaitzak ez din sendabiderik, alaba; ezpaidin zentzurik beiñere izan.

-Diruak aitzen zaizkionean zentzatu bearko du, ama.

Seme-alaba ezkonduak ederki bizi ziran bakoitza bere etxean. Baiña Juana ta alaba zarrenak, geroago ta bizimodu eziñagoa zeramaten gizon zentzu-labur arekin. Eskerrak ama-alabak alkarrekin ondo konpon-tzen zirana! Bestela, etzan giro Benitoren ondoan. Laster asi zan au diru-eske:

-Juana, irabazpide baterako diru-pixka bat bear det, ba...

-Jokorako bear al dezu? Ameriketatik ekarri zenituanak onezkero jokoan ugalduko ziran.

-Egun gutxiko kontua izango da.

-Bai, emakume ariñak dirurik gabe ikusi zaitzaten arte, juxtu-juxtu.

-Ez al didazu emango, Juana?

-Zertarako? Etxeko izena oraindik geiago loitan ito dezazun?

Benitok etxea ipurditik ateratzen zuan orrelakoe-tan, baiña Juanak bazekian zer egin. Alabarekin beren gelan sartzen zan eta gizonari bere piperrak egosten lagako zion. Ordu pare baterako, Benitoren trumoiak baretzen ziran eta an gelditzen zan arenugarbia.

«Lantzian bein» beste alabengana iges egiten zien, baiña bereala aspertzen zitzaizkion aien etxetan eta berriro an etsi bear izaten zuan bere etxean.

Bizimodu ura etzan atsegiña. Juanari gaiñera, Errioxako lurak etzion biotzera deitzen. Basaburuko ama zan emen lotu zezakean bakarra. Ura joan zane-tik, aizpak etxeko ardi beltzari bezela begiratzen bai-tzioten, loturarik etzuan iñorekin. Urteak ere aurrera zijoazkion. Gizonak diru ta etxeko ondasuna galdu

zuan ezkerro, geroago ta bizimodu okerragoa ematen zion. Ala ezin zitekean iraun... Eta orduan egosi zitzaion buruan berriro Ameriketarako asmoa. Bere alabarekin zegoela, eman zion oni bere barruko erabakiaren berri:

-Aurea, gure aitarekin burutzerik etzegon eta Ameriketara joango gaitun berriro.

-Ta biderako bear degun dirua?

-Senideen artean inguratuko diñagu.

-Emango al digute?

-Gu emen auetatik izkutatzearren bakarrik, pozik emango zigunate. Ez al den ikusten etxeko lotsagarri bezela naukatena? Zuek, Ameriketan jaiuok, eztakizue emen nola begiratzen zaien elizaz ezkondu gabe alkartzen diran giza-emakumeei.

-Ta nola ta nun bizi bear degu alde aietan?

-Montevideon bizi dan nere anai gazteena, Anton. Arengana agertuko gaitun eta ikusiko diñagu zer egin.

-Diru gabe agertzen bagera, eztigu arrera argirik egingo.

-Emen aiñean edozein lekutan izango gaitun, alaba.

-Ta aita?

-Emen dizkin seme-alabak eta bere aideak. Guk andik deitzen diogun arte, moldatu eziñik ez din. Guk bitartean pake pixka bat izango diñagu.

-Polita izango da Ameriketa berriz ikustea.

Ala erabaki zuten. Juanak gizonari pasa zion erabaki aren berria. Irurogei ta amar urterekin Ameriketarako bidea artzeko, etzan gogo makala bear. Benitok bere irurogei ta amalau urterekin, etzuan ezertarako ganorarik. Entzun zion emazteari eta an geldituzan ez otz eta ez bero, bere zozokerian.

Juanak etzuan bere barruan senarrari Ameriketara deitzeko asmorik. Aspertua zegoen azkenengo urteetan arek sortu zion bizi motzarekin. Egun argi batean, agur egin zion, beraz, Basaburko senide ta Logroñoako aide tarteari. Senarrak lagundu zien ama-alabei Bilboraiño. Juanari bere lenengo Ameriketarako joana gogoan berritu zitzaion. Orduko larria ta lotsa gorria, eta atzean lagatzen zuan semearen larritasuna. Seme ark orain berrogei ta amabi urte izango zituan.

Itxasontziko egunak aisa joan zitzaizkien. Itxaso zabalean begiak lasaitu; ontzian lagun berriak sortu; jai ta ikusgarri, orduak arindu ta ogei egunen buruan, Montevideon lurreratu ziran. Zuzenean anaiaren etxera jo zuten. Anton eta onen emazte ta seme-alabak,

ongi-etorri otza egin zieten emakume biei. Arpegian igarri zitzaien aien etorrerak sortzen zien kezka.

## **USTE GABEKO ZORIA**

Rosa ta Pakok beren Buenos Aires ertzeko auzo artan zeramaten bizia. Pako egunero bere lanera abiatzen zan eta Rosa an geldituko zan gaberarte senarraren zai. Irabaziak pozten zituan, baiña luzetara asperitzen asi ziran biziera arekin. Etxetik barrerako bide luze arek zailtzen zien bien lan ura. Goizean utzi bear etxea ta gaberarte alkar ikusterik ez:

-Pako, urteak aurrera dijoazkigu ta bizimodu au bigundu bearra degu.

-Neu ere makiña bat buelta ematen ari naiz kontu orri, Rosa.

-Buenos Airesen erdi-aldean bizi bagiña, eskurago jarriko litzaiguke barra.

-Ori da, ta orduan bazkaria etxean egin al-izango nuke. Bada-ezpada ere, paperetan datozen etxe-eskeintzak miatu bear ditugu, ia aukerarik sortzen zai-gun. Ala gelditu ziran gauzak eta Pakok betiko legean jarraitzen zuan bere lana ta Rosak etxeko ardura



artzen. Eguneroko paperen anuntzioak aztartzan ere, bazuan andreak bere egitekoa.

Etzan lenengoan aukera aundirik agertzen, baiña irakurri ta galdetu, egun batean iragarki au irakurri zuan «La Nación» egunkarian:

«Emakume eldu bat nai litzake andre urtetsu bat zaitzeko».

Itz auek irakurri zituanean, barruan poz-ikara bat jaiki zitzaion. Rosa berarentzat ez ote-zitekean lanbide egokia? Galdetzeak etzuan kalterik. Bereala luma artu ta bere burua artarako eskeiñiaz idatzi zuan. Erantzuna etzan luzatu. Agertu ziran etxekoandrea-rengana ta neke asko gabe artu zuten baiezkoa. Ta ederrena, berentzat etxe-bizitza izango zutela, atezaiaren etxapean. Baratze zabal baten erdian arkitzen zan jauregia ta ate-sarreran beste etxe bat zuan txikiagoa. Emen biziko ziran Rosa ta Pako egiteko ura beren gain artzen bazuten. Buenos Aires erdian alako txalet ederra ta aukerak ikusi ondoren, etzuten bi aldiz pentsatu bearrik izan. Urrengoa stean etxe zarra ustua ta etxe berrira jo zuten.

Amandrearen izarra Ameriketa aldean zebillen, Basaburun aren bizia aitu zanetik. Egun aietan iñoiz baiña argiago agertzen zan zeruetan. Bazirudian

senar-emazte biei etorkizunak bide argia erakusten zuela. Etxekoandreak ere, ain egosbera zan, Rosaren zintzotasuna ikusi zuanean, bere jauregian artu zituan lagunarte gosea bai-zuan.

Len pozik baziran, ordutik aurrera areago. Etxekoandreaken illoba ta aideak ere, oso pozik ziran Rosaren ardura ta garbitasuna ikusita. Pakok bere aldetik oso gertu zeukan barra ta lengo aldean asko arindu zitzaion goizeko jaikiera. Bazkaria ere, etxean egin zezakean orain. Beraz alde guzietatik bizitza asko arindu zitzaien.

Etzan artan gelditu beren adur ona. Uste gutxiena zutena: etxekoandrea, bi urtera il zan eta beraren azken-itzetan Rosa ta Pakori utzi zizkien irabazi aundiko paper eta azio mordoa. Etxekoandreaken aideak ere, oso borondate aundia erakutsi zieten, beste paper-sail ederra oso merke saltzen zietela. Onela, denbora gitxi barru, ardangelako bere zatia lagunei salduta, andik aurrera lanik gabe bizitzeko lain eskeratu zuten. Etxekoandrea il ezkerreko etxe aretan berentzako etzuten egitekorik eta orduan leku polit batean berentzako etxea artu zuten. Ala zeudela, egun batean Pakok karta bat jaso zuan. Gabean etxeratu

zainerako Rosak irikia zuan eskutitza ta Pakori eskeiñi zion irakur zezan:

-Ezetz asmatu norena dezun, Pako?

-Al dakit! Nundik dator?

-Ikusi seillua.

-Montevideotik? Osaba Antonena ote da, ba?

-Ez dezu asmatu, baiña zure odolekua dezu.

-Ia, ia! Ara berriz! Nere amaren eskutitza Montevideotik? Amandre Joakiña il zanetik, ez nuan nere etxe-koen berririk eta orain gutxien uste nuanaren eskutitz au erdi-erditik. Zer ote du?

-Zer izango du, ba? Anaiarekin asarratu dirala ta emen ditugula datorren astean zuen ama ta Aurea, zure ugazarreba.

-Orra azkenean gure ama ezagutzeko aukera nola sortu ziagun. Seme bazartuak jaso bearko ditu ama ta ugazarreba, iñolaz ere.

Urrengo ostegunean, iritxiko zirala esaten zion amak. Montevideotik Buenos Airesera atzera-aurreran zebillen itxasontzien orduak bazekizkiten eta an joan ziran Rosa ta Pako kaira, ama-alabei irtetzera. Asko itxoin gabe agertu ziran ama-alabak ontzitik lurrera jarri zuten mailladian bera ta etzuten kopla aundirik erabilli alkar agurtzen. Ontan, oso «estilo vasco» por-

tatu ziran. Bazekiten alkarren berri. Zer geiago bear zuten? Euskaldunok orrelakoetan gure sentimentuak azaleratzen lotsatu egin oi gera ta orregatik onen legorrak izaten dira gure alkarrekiko maitasun-agerpenak.

Ala ta guziz ere, amak bereala igarri zion Pakoren izaera onari. Irurogei ta amairu urte arte ezagutu gabeko seme arengan arkitzen zuan senidetan billatu etzuan arrera osoko giroa. Pakoren etxean etzuan amak beste etxetako bekozko illunik. Eta Rosaren biotz zabalak alderik alde zabaldu zizkien etxeko txoko guziak. Ainbeste errezelo txar eta ixil-izketa artean bizitako amak, egun pozgarriak ikusi zituan semearen ondoan.

Aureak ala ere, kezka apur bat sortzen zion Rosari. Emakume ezkongai ura Ameriketako lasaikerian jaioa ta azia zan aldetik, bere gizakume-griña asetzeke zegoen artean, eta Pako ugazanaia izan arren, aren begientzako edozein kanpoko gizakumeren tankera-koa agertzen zan. Emakume arraio arek, Pako anaia zuan aitzakiarekin, etzuan erdi-jantzirik agertzeko lotsarik. Bazirudian Pakoren ondoren zebillela.

Argatik eta denak etxe batean luzaroko pakerik etzutela izango igarrita, Pakok amari Montevideon

etxe bat artu ta bizitzeko diru-laguntza eskeiñi zion. Ala obe izango zan. Urtero alkar ikusiko zuten, ama-alabak Buenos Airesera lantzian bein agertuaz eta Rosa ta Pako Montevideora joanaz.

Bazirudian amandre Joakiña zerutik bere laguntza ta argia bialtzen asi zala, ta bere bizi guziko kezka larria izandako ama-seme aien izaera poliki-poliki konpontzen asia zala ilda gero. Artean Juanaren sasi-ekontza ura zegoen garbitzeke, ta gizona European eta andrea Ameriketara zala, kontu aren zuzenketa egitea etzan erreza.

## **KATEAK AUSITA**

Errioxa aldean, andreak Ameriketara aldegin zionetik. Benitoren biziera asko narrastu zan. Urteak ere aurrera ta seme-alabak beren etxetan naikoa lan aitararen arreta artzeko. Gaiñera, bere erruz diru guzia galdu zualarik, etzan bere burua gordetzekoa. Bazuan idazteko erreztasun pixka bat eta noizean bein argitaratzen zituan idaz-lanekin aizetu xamarra ta oso iritzia zan gizona.

Sosik ez eta ala ere, guziei mesede egiten ziolakoan maixu egin nairik bere inguruan. Berak zekian nola egin bear ziran gauza guziak eta besteaik mendean bear zituan. Era ortan etzegoen luzaro iñoren etxetan egoterik, eta ala zijoazen aren egunak: gaur alaba onekin, biar bestearekin, urrengoan semearenean. Emen zapuztu ta an agertu.

Ori naikoa etzala, noizean bein Juanaren aizpa ta senideetara ere agertu oi zan. Denak bildur zioten eta al zuten bezin laster astintzen zuten beren etxeetatik. Basaburu urrutitxo egiten zitzaion mendi goienean eta eskerrak orri; bestela, antxe presentatzeko ere etziztaion arpegiko azalik galduko.

Ala joan zitzaizkion sei bat urte. Gizona gaizki zijoan era artan. Eguarriak urrean ziran urte aretan eta egualdiak etzuan negu-itxurarik. Benito, beti bezin ipurtarin, bere seme-alabekin asperraldi bat izanda gero, Bergaran agertu zan Gabon-bezperan. Beti bezin Juan Tenple ta arro aspergarri zetorren.

-Emen diagu puska baterako -esan zuten Antoni-  
ren etxean. Oraintxe ain zuzen, Gabon-jaiak ondatze-  
ko. Ez ote degu euli au emendik uxatuko?

Jesusanean jakin zutenean, etziran Antonirenean baiño pozago. Aizpa biak batuta, zerbait asmatu zuten:

-Aizan, Antoni; ba al dakin zer egin bear genduken?

-Aditzeko natxegon, Jesusa.

-Ori Gabon-jaietan etxean eukitzea azkena den eta ez al degu obe guzion artean milla pezetako bat bildu ta emendik Errioxara bialtzea gizon ori?

-Joango al den?

-Bai atzeko otzagatik!

-Etzion gaizki asmatua. Emendik aldegitarren, eskeiñi egingo zionagu diru ori.

Erabaki bezela egin zuten. Benitok dirua ikusi zuanen, zer besterik bear zuan? Sartu milla pezetakoa sakelean eta Gabon-arratsaldean bertan or ziak Errioxa aldera. Logroñora orduko berandu zan eta alabaren etxean etzuten espero. Jo zuan etxera, ta ate guziak itxita. Etxe-aurreko errejak pasa bear ziran lenbizi etxera sartzeko. Aizea bat-batean otzera aldatua zan eta giro arekin ezin zitekean atean luzaro iraun.

Geiago burua nekatu gabe, erreja-gaiñetik salto eginda baratzean sartzea erabaki zuan. Gizajo arlote arek, etzituan bear bezela neurtu bere indar eta alme-

nak. Alde batetik bestera igaro-nairik zebillela, barrualdera egin naian, burni batetik esegita balia eziñik gelditu zan. Askatzeko alegiñak egin arren, etzuan ezer aurreratzen.

Etsi zuanean etxekoei deadarka asi zan. Auek lo betean arkitzen ziran eta kanpokoaren amesik ere etzuten buruan. Ala, ba, Benitoren deadarrak oso berandu iritxi ziran alabaren etxekoengana. Jaso zuteanean, Benito gau otz aretan ziaro gogortua arkitu zuten. Ordu artatik etzuan egun onik izan. Birietakoa ote zan, biotzak ez ote zion erantzuten, geroago ta okerrago zijoan aren osasuna.

Ala, bizi bezela, ezeren ajolarik gabe, Otsailleko goiz izoztu batean egin zuan aren biziak. Zentzua galduta gero egin zizkioten eliza-aldetik egin zezazkioekena eta an gelditu zan Jaunaren erruki-eske anda luzean.

## **AMANDREAREN IZARRA**

Ontzia ur-gaiñean irrista ixillean zijoan. Rosa ta Pako Montevideo aldera zijoazen amarekin pare bat aste egiteko asmotan. European negu-azkenetan ziran



sasoian, Ameriketan udazken-asiera zuten. Giro epeletan gozo zan zillarrezko ur geldiari begira egotea. Gabaz egingo zuten bidea ta apal-ondoan ontzi gaiñera irten eta izarretara begiak, egon ixillean urtu zuten gabaren lenengo zatia.

Buenos Airesko argiak urrutiratzen asi ziran. Aize epelak arpegietan jotzen zituala, mutu zijoazen senar-emazteak. Alako batean Pakok eten zuan ixil-aldia:

-Rosa, konturatzen al zera gure bizia zer izan dan.

-Ez dakit zer esan ere.

-Estuasun eta poz-aldien joan-etorri bat. Gure ontziak egiten duan bezela, Buenos Airestik Montevideora ta Montevideotik Buenos Airesa. Txandaka artu gaituzte naigabeak eta pozak.

-Ala da, Pako.

-Gure ontzia bezela, badirudi ur-samalda onek irentsi bear gaituala betiko, baiña ontzia ur-gaiñean beste lurralderaiño iristen da. Europatik aize galdu baten burrundan Ameriketara etorri giñanean, zeñek zaitu ote zuan gure ontzi-koskola?

-Goiko izar oiek darabilzkian borondate oneko Aita berak. Goazen lotara, Pako; gabeko aizea ozten ari daita.

-Oraindik ez, Rosa. Izar baten zai nago.

-Zein izar?

-Amandre Joakiñaren izar-zai. Nere estualdi guzietan agertu zaidan izarra. Eztakit zergatik, baiña biotzak miñen bat somatzen du aidean. Europa-aldetik zoritxar-kanta bat datorrela iduritzen zait eta lotara baiño len, amandrearen izarra ikusi nai nuke.

Zeruak aren itzak entzun balitu bezela, Sortaldetik izar berri bat agertu zan ozkarbi beltzean dizdizari. Izarrak odol-kolorea zeraman zero beltzean. Pakori biotzak jaiki-aldi gogorak jo zizkion. Amandreak esana gogoan zuan. «Etxekoren bat il zorian danean, nere izarrak odol-kolorea artu oi du».

-Rosa, an amandrearen izarra! Badegu zoritxarren bat.

-Zer ba?

-Ez al dezu ikusten ze argi gorria botatzen digun? Etxekoren bat il-zorian degu, iñolaz ere.

-Lotarako ordua degu. Laga itzazu burutapen oiek.

-Il-berria artzen degunean lagako ditut.

Loa etzan nai bezin paketsua izan. Gau ura Pakori amets larrietan joan zitzaion. Izerdi-patsetan esnatu zanean, egun-argia sartzen zitzaion leio-zirrindatik. Jaiki ziraneko ontzia Montevideo aurrean zan. Ama-

alabak aurreko astetik jakiñen gaiñean zeuden eta an zituzten kaian lurreratzeko orduan.

Etxean sartu ziranean, ama-alabentzako zekazkiten bezua bilduak zalbadu zituzten. Pakok amarentzat urrezko orratz bat zekarren:

-Tori, ama.

-Zer dezu au?

-Amandre Joakiñaren izarra.

-Bai polita.

-Izar orrek zaituizan nau nere estualdietan. Bart ere, Buenos Airestik gentozela, zeru-ertzean ikusi nuan lotaratu baiño len.

Izar iduriko orratz arek arri bitxi bat zekarren erdi-erdian. Itxaropen koloreko arri eder bat.

-Paparrean eraman zazu, ama. Bion bizitza-gidari izan da.

Jarri zuan bere biotz-gaiñean Juanak eta arrazkero indar berri bat nabaitzen zuan bere erraietan. Pakok esan zion:

-Izar ori bart oso gorri agertu zan eta orrelakoetan berri illunen bat sortu oi da gure inguruan. Zai nago, ama, ze ezbear ote degun oraingoan.

Eguardi-aurretik kableak ekarri zuan Benitoren ilberria. Ama-semeak, Basaburuko oiturak gogoratuaz, Aita gure bat errezatu zuten aren anima-alde.

-Ikuste al dezu ama? Amandrearen izarrak adierazten zigun ezbearra iritxi da.

-Zeruan gerta dedilla.

-Emen, ilda gero ere, amandrearen eskua agiri da.

-Bai, seme. Nere ezkontza lege-barruan sartzea galazten zuana zerura eraman du. Orain garbi nago lotura ortatik.

-Azkenengo kateak ausi ditu zerutik amandreak.

\* \* \*

Etxe-aurreko zumardian udazkenak zurrunbilloan zerabiltzan orbel-pilloak. Aizeak sorgin-dantza nastua arrotu zuan basoetan.

# IPUIAK

Ipui sariketak, 1961-garrenurtean asiziran. Donostiako Albiste ta Turismo Eralguntzak sortu zituan auek ere. Urte orretan sariketara iru ipui bialdu nituan; aurrenengo jartzzen dizkitzudan irurak; eta lenengo saria *Suge lana* izenekoak irabazi zuan.

Urrengo urtean, 1962-garrenean, berriro beste iru ipui bialdu nituan sariketarako, ta *Euria ari du* izenekoak jaso zuan bigarren saria. Urte ontakoak, azkenengo iru ipuiak dituzu.

Aundientzako ipuiak dira, ikusiko dezun bezela. Auetan ere, sermoi kutsuak kendu nai izan nizkion euskerari. Gaiak gordintxuak dirala esan dezake norbaitek, baiña gaurko gazteentzat ez det uste nabarmenegiak diranik. Eta nik beti gazteak ditut gogoan, euskera gure ondorengoan mingaiñetan gerorako gelditu dedin.

# SUGE LANA

Lagunak lagun, uraxe bai lagun benetakoa! Gure azkeneko gerratean, apaiz-lagun, kapellau, ibillia zan. Etzan gorrotoz itxututako oietakoa. Bazekian alderdi bietako akatsak eta argi-uneak ikusten.

Aren lana, batez ere, giza-biotzak ondoraiño neur-tzen eta orrela, al zuan onik geiena egiten, oi zan. Alkartzan giñanean, bion irizpideak batera ekartzen aritzen giñan. Aietako batean, nere laguna, (don Justo deitu dezaiogun, nolabait deitzeko), bere maira urre-ratu zan. Kajoi bat iriki ta andik aterata, papel batzuek eskeiñi zizkidan, esanaz:

-Tori! Giza-biotzak noraiño leize beltzak dituan jakiteko, badek or agiri on askoa.

Eskutitz sail bat zan; karta sail bat, alegia. Beste-rik gabe, exeri ta irakutzen asi nintzan... Gori-alde?... Zuri-alde?... Zertarako zauri zaarrak berritu? Alderdi bati Eguzki-alde deituko diogu lan onetan; eta bestea-ri, Ospel-alde. Bakoitzak asma beza ze aldetatik ze aldetara dabilzan eskutitzok. Erri ta giza-emakumeen izenak aldatu edo ixildu, ta or dijoakizue nik irakurria.

## **OSPEL ALDETIK EGUZKI ALDERA**

*Aznar-en Laura Nuria Andrea*

*X-en*

Nere Laura:

Egunak kezka larritan dijoazkit. Zuen berririk gabe, emen ari naiz nere buruari milla jira-bira ematen. Gerrateak alkarrengandik eten giñuanetik, ez det egun onik. Azkenean, Prantzi-ra dijoan ezagun bat inguratu zait, eta onen bidez, bialtzen dizuet eskutitz au.

Nolatan zerate? Gure koxkor biak ongi al dira?... Egunero irakurtzen ditut paperak, ezer garbirik atera ote-diteken igartzeko. Au nastea sortu zaiguna! Bildurrak eta gorrotoak, erabat, aizatu ditu egundoko berri nolabaitekoak. Ezta errez egia jakiten.

Naste au sortu zanean, guziok alde batetik izan bagiña... Zoritxarrez, ni nere eginkizunetara etorri berri nintzan X-ko uri aundi ontara, ta nere zorigaitzerako emen gelditu nintzan zuengana itzuli eziñik. One-lako estualdietan ez da errez nola jokatu asmatzen. Emen ibilli naiz egun batzuetan zoroarenak egiten. Jo alde batera, jo bestera; itzegin oni, deitu ari. Azke-

nean, orko gure etxearen ordezkariak, nere burua obeto gordetzeko lan lekua iritxi dit. Janariak banatzeko sortu zan Batzorde batean sartu naiz orrela (Batzorde, zera... Komisia esan nai det). Emen lan egiten det egunero zortzi edo hamar orduan, lanak eskatzen duan neurrian. Paperik iñorik eskatzen badit, nere lan lekuko agiria erakusten diet eta onela pakean uzten naute.

Eztira egun ederrak auetxek! Guzion bizia ari batetik esegita darabilgu. Gerra giro onek, errezeloa ta susmo txarra errez pizten ditu, ta guziok alkar zeletatzen bizi gera. Ta ni, nere etxetik urruti, ez-ezagu-nen artean, txarrantxa gaiñean etzandakoa baiño areago nabil, noiz arteko saltsa izango ote degun galdezka.

Au lana! Ta zuengana joateko bideak itxita! Ezta laburra egoera au!...

Laguna zai daukat eta bukatzera noa nere lenengo eskutitz au. Al dezuen bezin laser, Prantzitik zear, ia zuen erantzuna artzen dedan.

Gure txiki biei laztan asko; ta zuri, nere biotza zabal-zabalik. Erantzun zai irrikitzen gelditzen da, zure

XABI



## **EGUZKI ALDETIK OSPEL ALDERA**

*Xabier Aznar Jauna*

*X-en*

Nere Xabi:

Zure eskutitza oraintxe jasoak det. Au da lasaitasuna artu dedana, ongi zerala jakin dedanean! Guregan-dik aldendu zĩñanean, nori bururatu bear zitzaion one-lako egun estuak zetozkigunik? Gu lotan geundela, batenbat esna ibilli da, gerra bildurgarri au gertatzen.

Nereak naikoa eztirala, gure txiki biak albotik naikoa lor sortzen didate. Nork geldirik euki ume auek? Katakumeak baiño jolasgure ta zarata-gogo geiago dute biak. Eskerrak osasunez ongi diranari. Baiña auen galderak ez dute azkenik:

-Nun da aita?

-Ama, noiz dator aita?

-Zergatik ez da etortzen?

-Laster etorriko al da?

Jesus milla bider! Burua bere lekutik aterako luke-te ume auek. Xabitxo oso gogor dabil eta Lauratxok eztul pixka bat izan du, baiña joan zaio, Jainkoari esker-rak.

Zure orko estuasanak eztira makalak; baiña nereak ere, ez. Or bezela, emen ere, alkarren susmo ta bildurrez bizi gera. Ori berekin dakar gerrateak; alde guzietan etsairen bat jaikiko ote zaigun kezkatan, eta utsagatik galtzen da erne eztabillena.

Emen nagusi gelditu diranak, indar asko biltzen ari dira, ta nik uste, azkenean auek irabaizko dutela gudua. Orregatik, ni ere, nere aldetik neurriak artzen ari naiz, andik eta emendik ezaupideak sortzen. Noiz-bait alde ontakoak irabazi ta zauden erri ortara sartzten badira, norbaiten bearra izango degu, zu pakean utzi zaitzaten. Onelako unetan itz-erdi bat naikoa izaten da gizona ondartzeko. Zure bururik ez nastu beiñere odoletan. Al dezun izkutuen ibilli, ta emengoak orrunta elduko balira, ez iñori aitatu or izan dezun lan-leku ori. Obe orrelakorik iñork ez jakitea.

Nere burua obeto gordetzeko, gaixotegi batera joaten naiz astean iru aldiz. Egunero soldadu erituak datoz gudu-lekuetatik, eta mutil gizajo oiek zaitzen eta sendatzen, bada naikoa zeregin. Gaixotegi orretan ezagutu det kapitan bat, eta oso lagun egiñak gera alkarrekin. Nik -jakiña- urrutira begiratzen det, eta kapitan onen lagunartea egoki etorriko zaigu, zu ortik onez ateratzeko. Kapitanak, Alvaro Gartzia duizena.

Kontuan ar zazu, noizbait emengoak or sartu ta galdezka asten bazaizkitzu, kapitan orren izena emateko. Orrela eztezu kartzelara joateko arrixkurik izango.

Ume auek ez didate pakean uzten. Xabitxok zerbait ausi du, ta Lauratxo negarrez asia da. Banoa zer dan ikustera... Beti bezela, utsaren urrengoa. Ala ere, ixildu diranean, ezta ezer.

Xabitxok zaldi bat nai du, ta Lauratxok, ortik zatozenez, andera begi urdin bat ekartzeko, esaten dit. Badakizu, ba. Azkar-azkar erantzun nere oni.

Aurren eta nere laztan asko ta asko. Zure-zurea dezun

LAURA

## **EGUZKI ALDEKO X-tik X-ra**

*Aznar-en Laura Nuria Andrea*

*X-en*

Ene andre begiratua:

Zurea jaso det eta pozik irakurri ere. Senarraren berri jakin dezu azkenean. Ezta gutxi, gauden egunetan, guztiok arrixkuz inguratuak bizi baigera. Zorionez, gizonarengatik izan dituzun kezkek, arindu dira.

Nere aldetik ere, ez det okerrik, eta nabillen lanetan gordeago izango naiz aurrerantzean.

Estuasunak alde batera bota ditzakezu, beraz; eta orain zere buruari begiratu bear diozu. Erri ortan sartuta ezin zindezke egon. Zu bezelako emakumeak leku zabalagoak eta atsegiñagoak bear ditu, mundu onetan bere edertasunaren argia inguruan barreiatu al izateko.

Zure gaztetasuna ezin lotu zenezake, senarrarekiko kezketan. Beste asko gaituzu, zure ezaupidez poztuak eta denen artean neroni aurrena. Gure lagunartea geiago estutu bear genuke bion onerako.

Zure senarrarekikoa errez egingo degu. Gure soldaduak aruntza iritxi bezin laster, aren galdera egingo det, eta guzia ongi aterako da.

Datorren igandean X-en izango naiz eta egundoko dantzaldi ta jaia eratzekoak dira egun ortarako. Ortik gertu dezu erri ori, ta errez egin zenezake araiño bidea.

Agertzen bazera, gau osoan lagun izango nazu; eta bion artean sortu dan artu-eman pozgarri au, sendotu ta argituko zaigu, noski.

Poz orren itxaropenetan, ar zazu nere agurrik barrukoena. Zure ederrean zorabiatuta dezun

**OSPEL-ALDETIK EGUZKI-ALDERA**

*Aznar-en Laura Nuria Andrea*

*X-en*

Nere kuttun ori:

Zure erantzunak eztit poz txikia ekarri, Laura. Onik zerate irurok, eta Jaungoikoari eskerrak, gure etxeko zoriona oraindik osatzeko bidetan gera. Ezta gutxi egun negargarri auetan. Berriz ere, lagun bati eskerak, Prantzitik zear dijoakizu nere eskutitz au. Lengoa bezin zuzen iritxiko al zaizu.

Txiki biak aitaren galdezka dira, beraz? Noanean, zaldia ta andera nerekin eramango ditudala, esaiezu. Noiz izango ote da egun eder ori? Ez guk nai bezin laster.

Emengo kontuak, geroago ta estuago ta nastuago dijoaz. Ta utsagatik galdu diteke edozein. Beti bildurrez eta begi biak zabalik dirala ibilli bearrean gaude. Gauzak oker dijoazenean, susmo ta salaketak ere, ugatzen asten dira. Ala ere, nere aldetik ongi noa. Auzitegi ta odol-kontuetatik urruti nabil, eta onela

iñori kalterik egiteke, edozeiñen aurrean agertzeko ez det kezkarik. Nere jokaera garbia izan da ta gorroto bideetatik etena.

Zuk diozun kapitan orren izena gogoan izango det, noizbait zuen aldeko soldaduak uri ontan sartzen badira. Bitartean, zaitu itzazu ongi gure txiki biak. Diru-premirik ez al dezue? Ezer bear badezu, orko gure etxeko nagusiari eska zenezaioke.

Erantzun azkar eta berri asko emanaz. Gudua azkenera urreratzen ari dala uste det.ia, ba, guztiok lenbailen alkartzeko zoria izaten degun. Orduantxe bai laurok pozik.

Xabitxo ta Lauratxori milla musu. Ta zuri nere besarkadarik estuena. Oso-osorik zurea dezun

XABI

## **EGUZKI-ALDEKO X-tik X-ra**

*Aznar-en Laura Nuria Andrea*

*X-en*

Ene maite zoragarri:

Oraindik ezpaitan det X-ko gau-jai artako ezta. Nere zorionerako etorri ziñan nere deira, ta bion iza-

rrak argi egin zigun egunsentiak gabeko illuna uxatu arte.

Zuk eztezu merezi senar orren loturarik. Bizitza oberako egiña zera, maite; ta nere biotzak etorkizun argiena eskeiñi nai lizuke. Ez al zenduan garbi ikusi gau artan, alkarrentzako egin-egiñak gaudenik?

Bai, Laura. Nik, beintzat, garbi ikusten det atsegiñezko urre-bide argia biontzat. Eta gauzak eskura datozkigun ezkerro, zergatik ez jaso aukeran deguna? Zure gizon ori, bestaldean ainongi artu dutenean, gure etsaietakoa izango da, noski. Eztu merezi gure errukirik; ez orixe. Eten itzazu bein arekiko lokarri negargarri ta estuak, eta zatoz zure edertasunak eskatzen duan eguzki-argitara ta zabaldi atsegiñera.

Beti bere besoetan nai zinduzken zure

ALVARO

## **EGUZKI-ALDEKO X-tik X-ra**

*Justo Roman, Apaiz Jauna*

*X-en*

Adiskide:

Gerra bukatzera dijoala zirudik Gure bideak ez dituk berdiñak izan. I, bestekaldeko soldadu artean kapellau ibillia aiz, eta ni, kartzela ontako kapellau natxegok, gureak uri ontan sartu ziranetik. Denbora gutxi, baiña asko ikusi diat epe labur onetan. Atzo ikusi nuana, etzaidak beiñere aztuko. Makiña bat giza-jok galdu dik bizia, bere bidean zitalkeria ta makurkeria sartu dalako.

Egunak ituan, gure kartzela onetan zazpigarren gelan, itxura oneko gizon bat barruratu zutela. Joan nintzaion, eta oso minberatua arkitu nian. Kapitan baten izena eman zidakean, eta arek zekiala bere emazte ta etxeko berri. Etzekian asko gizajoak, kapitana ura zuala bere galtzaillerik amorratuena. Bere paperak ikustera joan nindukan, eta irakurri nuanak, nere barru guzia irakiten jarri zidakan. Alako belzkeririk enian ames egingo nere bizi guzian. Kartzelako gizajo ura nork salatu zuala uste dek? Bere emazteak, gizona! Ta emaztearen salaketa aregatik, galdua zegoan senarra. Beta geiago izan banu, zerbait egin al izango nian, baiña gauzak azkarregi joan dituk. Berandutxo jakin diat, emazte galdu ori, dalako kapitan orrekin itxutua dabillela, ta arekin bere griña-bidea ase al izateko egin diola bere gizonari egin diona.



Azkenerarte lagundu zioat senar zorigabeari. Ta gizajoak, bere andreari utzi nai zizkioan bere ondasun guziak. Neronek alda-erazi zioat erabakia, bere azken-agiria seme-alabatxoan alde egin zezan. Emaztea alda ditekela ta beste norbaitekin ezkondu, agian. Obe duala bere txikien etorkizunari begiratu ta aien alde utzi duan guzia. Onela egin dik. Emaztearen billaukeria etzioat aitatu nai izan. Bere azken ordua zertarako geiago mindu? Aitortza zirrarakorra uraxe! Gizon aren ondraitasuna, garbi asko agiri uan aren esanetan. Gaur goizean, egun-txintak ozta-ozta argitzen ginduala, eraman diate, soldadu taldearen aurre-ra. Azkenerarte, bere alboan egon nauk.

Nerekin esan dik Kredoa, agitz eta sendo:

*Sinisten det Jaungoiko Aita alguztidun,  
zeru-lurren egillea, eta aren seme bakar Jesu-  
kristo...*

*Pontzio Pilatoren mendean nekaldua,  
gurutzean iltzatua,  
illa!...  
Pum.*

Kartzelako ormak dardaraz eman ditek erantzuna. An gelditu dek errukarria lurrean... odoletan.

Polbora kez itxutua, biotza erdi bi, zabuka atera  
nauk andik.

Agur, adiskide. Enauk jarraitzeko gauza. Urrengo-  
an berri obeak izango al dizkik ire lagun minberatu

MILLAN-ek

# EZKONGAI ZAARRA

...ni, ezkongai zaarra naiz... Ori, mutil zarra poli-kiago esateko bidea besterik ezta. Badakizue, ba: ni mutil zarra naiz, eta nere brrogei ta amar urteak, nakak ditut. Orra guzia esan... Baiña, bai zera!... Ori ezta guzia. Ori, matazaren asiera besterik ezta. Eta orain, ari guzia jakin dezazuen, emen dator Niko, gure morroe zaarra:

-Nagusi jauna, lan guziak egiñak dira.

-Ederki da, Niko. Exeri zaitetz pixka batean.

-Morroeak ezta exertzeko betarik izaten, nagusi.

-Utzi zazu «nagusi» itz puztu ori, ta txikitan beze-la, esaidazu «Pelix».

-Ai, nagusi! Ez, ez... Ai, Felix! Urte aiek joanak ditugu.

-Orregatik, ba. Urte luze auetan, etxeko egiña zaude; ta koplatan ibilli bearrik eztegu alkarrekin. Tira, exeri ta berriketaldia bota dezagun patxaran.

-Badakit nora zoazen. Betiko leloari indarra ematera.

-Bai, Niko. Nere buruari eragiten asten naizen bakoitzean, nere kazketa su berean berotzen zait.

Emen naukazu, etxe aundi onetan, etxe uts onetan, munduan zertarako nagoen ere, asmatu eziñik. Mutil zar legor onek, eztu bere bizitzan elkor-bidea besterik.

-Burua berotzeko beta geiegi dezu, Pelix, eta orrek galtzen zaitu.

-Baditeke ori ere, Niko.

-Amaika aldiz esan nizun, nagusi... Ai, ez!... Pelix. Ezkondu egin bear zenduela zure sasoiari.

-Nere andregaia, Niko, txiki-txikitatik milla puska egin zidaten. Badakizu gure etxeko aidea nolakoa zan. Etxetik elizara, ta Jaungoikoak aparta emakumerik gure bidean sartu. Gonadun gauza orri urrutitik begiratzen erakutsi zidaten. Oso urrutitik, gaiñera. Emakumea ta deabrua, gisa bereko ziran guretzat. Emakume egarria nuela esan?... Lenago lurpean sartu! Orrelako lotsagarrikeririk nola iñori adierazi?

-Zure ama ere, emakumea zan, ba.

-Bai, baiña, ori ere, aztu eragiten ziguten. Ama, etzan emakumea guretzat. Ama, beste gauza bat zan.

-Arek, apaizetarako nai zinduan. Etzuan poz ori iri-txi.

-Gure errietan, izan ere, apaiza baiño goragokoriketan. Eta orduko batentzat, seme apaiza, amesik

zoragarriena zan. Baiña nik egin bear nuan apaiz, eta Meza berriko pozik enion eman amari.

-Min ederra izan zuan zure amak, Seminariotik irten ziñanean.

-Ori ere berandutxo egin nuan. Nere gurasoei min ori emateko billurez, erabakia atzeratu ta atzeratu, ta badakizu gero... Nere bizia orrela joan da beti: berandu esnatu, berandu jakin ezkontza-bideak nola ziran, eta berandu utzi nere apaizetarako ikasaldiak.

-Bazenduan neskatxarik pranko, ezkon-eskea egiteko.

-Baiñan txikitan txertatu zidaten emakumeekiko lotsak, ziara lotzen ninduan. Beiñere ez det jakin emakumeengana nola urreratu diteken. Ortan, moldakaitz purrukatua izan naiz beti, Niko.

-Gauza oiek aztutzeko, edari pixka bat aiñakorik ezta.

-Egia, ta nere muiñak zorrozteko, egoki etorriko zait, garagardo pixka bat.

-Bereala nator, Pelix.

-Ekarri biontzat. Zuri ere kalterik eztizu egingo-ta.

Entzun dezue nere morroiarekin izan dedan alkarriketa. Edari billa dan bitartean, bakarrik gelditu naiz berriro ta nere buruko garunak, lanean asiak dira lenez gain.

Ezkongai, bizitza guzian... Urik gabeko iturria bezela; okerrago, Jaungoikoak etxea jasotzeko bear dana eman, eta etxerik ez jaso; lur ederrak alperrean edukitzea bezelatsu; emaitzik gabeko landare edo zugaitzaren pare; ondorengorik utziko ez duan gizona.

Askotan pentsatu oi det: Jaungoikoagatik emakumerik gabe bizitzea, goragarri nola ote diteken. Jaungoikoak emandako begiak, belarriak, besoak, oiñak bizi guzian erabiltzeke gordetzea, goragarri ote liteke? Jaungoikoak orrelakorik nai al du? Ta zergatik nai izan bear du, gu seme-alabarik sortzeke mundu ontatik joatea?

Ba, ba!... Etzaitetze berotu nere kontu auekin. Neronek ere, zer diran ba al dakit, gero? Baiña burua duanak, burutapenak oi ditu, ta neri orrelakotxeak sortzen zaizkit nere ontan. Ain zuzen ere... emen dator Niko garagardoarekin, eta barkatu jaunandreak.

-Ari al zera orain ere, Pelix?

-Zer dezu, Niko?

-Zere buruarekin izketan ari al zeran, ba... Tira, edan zazu muiñak pixka bat argitzeko.

-Orrela egingo det, baiña zuk laguntzen didazula. Exeri ta bete zere ontzia edateko, Niko.

-Esana egiteko nago emen, eta ori ere egin bear-ko det.

-Jakiña, ba! Zaude... zertan nintzan, ordea? A, bai!... Zu edari billa ziñan bitartean, emakume bati nere itzala eskeiñi gabe, zergatik gelditu ote nintzan pentsatzen ari izan naiz.

-Onezkero alperrik dezu, ba, illetak jotzea. Gazte-tan ezkontza-bidea artzeko gatzik izan ezpazenduan, orain are ta gutxiago izango dezu, noski.

-Bai, Niko. Nere ordua igaro zan antziña; ta onez-kero, egindako kaltea ezingo det osatu... Amaika aldiz zoritxarreko emakume ezkongairen bat ikusten deda-nean, galdetu izan diot nere buruari: «Emakume ori ote zan nik poztu bear izan nukeana? Ta nere erruz galdu ote du, nere alboan izan zezakean zoriona?».

-Bizitzari geiegi galdetzea da ori, Pelix. Guk utzi ditugun bideak, ugariak izan dira, ta beste bide batzuetatik jo bagendu zer gerta zitekean, Jainkoak bakarrik jakin dezake.

-Zer dio Ixabelek?

-Muruaneko Ixabelek, ala...?

-Bai, Niko.

-Gaurko berririk ez tet, Pelix. Atzo, zerbait obeto zegoela entzun det. Orrek ere, zure gaitza du.

-Ala da, bai. Ni bezelaxe, bakarrik gelditu da. Guraso gaixoak zaitzen, joan zitzaion bere sasoa, ta orain soil bizi da ta ez ni bezela ondasunez ongi.

-Ez, Pelix. Ondasunik ez tio Jaunak eman, ezta osasunik ere. Bere bakarrean, naiko premi izango du.

-Beartsu ta gaixorik, ezta giro. Sendagillearekin egon zaitez, eta bear duana, gerok bialdu bearko diogu.

-Lengo astean ere, lagundu zenion bere estuasunean, eta poz izango du oraingo onekin.

-Orrelaxe egin naiko nuke emakume bakar eta zorigaiztoko guziekin. Aietako bat izan zitekean, ba, nere emazte; ta nere mozkeriagatik galdu zutena, beste bidez ordaindu nai diet... Baiña zertan zaude edateke, Niko?

-Zure buruauste oiekin nun nintzan ere, aztuta naukazu. Busti dezagun, beraz, zintzurra.

-Lagunduko dizut orretan... Bapo!... Edan degu biok eta jarraitzeko ederki gaude. Atzo, emakume eskale bat etorri zan atera ta aurrera sartu nuan...



Nork daki bera ote zan Jaunak nere seme-alaben ama izateko gordea zeukan andrea?... Ta nere epelkeriagatik ez ote zebilen aterik-ate eskale, nere etxekoandre izanbearrean?

-Zuk egiteko ezta asko. Oraindik adituko ditugunak! Orduan, emakume bakarrari zure izena eskeiñi etzeniolako, munduko emakume ezkongai guziei laguntzen ibilli bear dezu, ezta ala?

-Alatsu, Oso pozik joan zan gaixoa, egin nion arerra arekin.

-Alajaiña! Bapo jan eta diru-laguntza biderako artuta, etzan gaizki joan.

-Ala ere, badu naikoa berekin... Au mundua! Zenbat emakume errukarri diran baztarretan.

-Emakume ta gizakume asko errukarri alde guzietan, Pelix.

-Egia ori ere; baiña nik emakumeekin det nere zorra.

-Alako batean nastu bear zaituzte, nagusi.

-Berriz ere «nagusi»? Niko, nere urteetan, emakumeak naste gutxi sortu dezakete. Ezpainago xamurra.

-Kontuz ibilli, Pelix. Emakumeekin eztago arrixku gabeko urterik.

-Ongi da. Nere biotz oni zerrailen bat jarriko diot.

-Denen bearrean arkutiko zera, bide labain orretan... Eta edan degun ezker, noan nere azkenengo eginkizunetara. Beste pixka bat edan nai badezu...

-Ez, ez, Niko. Jaso ezazu guzia... Orrelaxe... Ederki.

\* \* \*

Joan da Niko, ta berriro bakarrik naiz nere buruausteekin... Azken-aldi ontan, leio orretxek sortu dit lana. Ortik, ordurik-ordu, aurrekaldeko etxean eta baratzean gertatzen dan guzia, zaitu bai-diteke.

Emakume ixilla ta saiatua orixe. Lanean aspergaitza; ta ikustekoa izan da urterik-urte, umezurtz gelditu zanetik, etxea nolatan jaso duan.

Emakume ori, zera... Aurreko etxean bizi dan Anjela da. Beti lanean ari dan errota. Diruz erosi eziñeko emakumea, gajoa. Bere bost anai txikirekin umerzurtz gelditu zan, eta arrazkero bera izan da mutil oien ama. Sukaldean eztanean, baratzean; baratzean ezta-nean, zapi jotzen... Gabean berandu oeratu; goizean egunsentiarekin jaiki...

Ara!... Oraintxe ere, egingo nuke sukaldean argia itzaltzeke egon baietz!... Noan leiora... Esanda bezela-

xe... Or ari da dalako Anjela ori, bere ontzi ta zapiak moldatzen... Onezkero etxekoak oeratuak ditu. Bereztat eztu oerako ordurik. Ori emakumea.

Noiztik ezagutzen det?... Urteak dira. Umezurtz gelditu zanean, biotzak esan zidan: «Orra etxea ondatu»... Baiña etxea, emakume orri eskerrak, etzan ondatu. Ta nola aurrera atera dituan bere anai txikian.

Gizajoak! Ez dute eskola aundirik izan, baiña arrebak lanean erakutsi die ondo, ta orrek ekarri ditu, neke ta izerdi, gaurko egoera jasora. Anai zarrenak ezkondu zaizkio banaka. Aien andreak izan dute zoria! Arreba orren ondoan urrezkoak egin bai-tira. Orrelako senar langilleak artutako emazteak, eztira bereala galduko.

Nere motzean, emendik ikusten nituan kontu oiek guziak. Baiña barruak ez ninduan erabakitzen, nere gogoa zan bezela, anai-arreba oien alde ezer egiteko. Nere betiko lotsak atzeratzen ninduan.

Alako batean, anai gazteena gaixorik zutela jakin nuan... «Oraintxe edo beiñere ez!» esan nuan nerekiko. Eta besterik gabe or joan nintzaion Anjelari. Baratzean ari zan... Eskual lenbiziko aldiz urretik ikusi nizkion... Aiek eskuak, Jauna! Lanean ongi laztuak, noski. Zaiñak nabarmen agiri zaizkio azal lanpetu aren

azpian. Ta artan joango da mundu ontatik; ezpaitaki geldirik egoten. Eskeiñi nion nere laguntza, ta etzuan entzun ere nai. Lotsa gorritan gelditu zan, zer erantzun asmatu eziñik.

Arrazkero noizean bein ixillik lagundu izan diot, eta aukera dedanean, itz bi egiteke enaiz aren etxe-aurretik pasatzen, Anaiak, bata bestearen ondoren ezkondu zaizkio. Gazteena etxean artu du, ta beti bezela, guzien etxekoandre bear lukena, etxeko nes-kame bizi da, bere lana guzien alde etengabe eskeiñiaz. Beste guziak bizimodu lasaian jarriak ditu; berak, berriz, betiko lorpean diardu, bere buruari, orren merezia duan atsedena ukatzen diola.

Egunak ziran Angelarik etxe aurrean ikusten ez nuala... Anjelak, ez agertzeko, zerbait bazuala, esaten zidan biotzak. Zai nengoen, eta gaur eguardian, sukaldeko leioa zabaltzen nabaitu det... Ai, Jauna! Aren arpegia!... «Emakume orrek badu gaitzen bat berarekin» -esan det nerekiko, eta luzatu gabe beraren etxera jo det. Su-ondoan arnasez bete ezinda zegoen. Ala ere, lanean.

Kosta zait nere laguntza arek onartzea. Bere lanez orain arte etxa jasotzen oitua, ta lotsagarri jotzen du iñoren laguntzaz baliatzea. Azkenean, jardunaren-jar-

dunez lertu zaio biotza ta, negarrari emanaz, bere burua nere bular-gaiñera bota dit. Aingeru bat bere amaren magalean bezelaxe itsatsi zait nere biotz gaiñean. Eztu griñarik agiri; baiña aren begirasunak ederki asko erakutsi dit, uraxe zala nere maitasunak poztu bear izan zukean emakumea.

Nere bizitzan, lenbiziko aldiz, emakumearen eskein garbi ura nabaitu dedanean, zeruko izar guziak lurreko lore denekin dantzan asi zaizkit...

Nere lotsa madarikatua!... Biotz-leize ura ondoraiño ikusi ta itz-erdirik esateko gauza enintzala, atzeratu egin naiz.

Anjela gaixoa!... Nere biotzak darion odola ikusiko bazendu!...

# ELBARRIAREN IPUIA

Bi gurpil aundiagoak ezker-eskubi, ta irugarrena txikiagoa aurrean zituan gurditxoak. Erriko kaletan zear aditzen zan deadarka:

-Elbarriaren ipuia! Nork entzun nai du elbarriaren ipuia.

Kale kantoi guzietatik zetozkion aurrak. Taldea mardultzen ari zan, eta jende txikiarekin zetozen aurzaiak eta ama bat baiño geiago, beren seme-alabaxoak zaitzeko aitzakitan; baiña, egia esateko, elbarriaren azkenengo ipuia aditzeko irrikaz. Ain politak ziran, eta ain ederki ateratzen ziran elbarriaren ezpaitatik.

An zijoan gizona, errege bat bezela, txiki-taldearen erdian, eskuz eragiñaz aurrera zeramala bere gurditxoak. Azkenerako, ain maite zuten aurrak, atzetik bultzaka laguntzen zioten plazarako aldapa igotzen. Eta an, intxaur zabal eta ostopetsuaren oiñetan gelditzen zanean, bazirudin antxiñako sasi-jainko aieta-koren bat kokatu zala intxaurpean.

Errira jeisten zan bakoitzean, ala gerta oi zan beti. Eta elbarria, bere ipui berria kontatzen asten zanean,

txori, asto ta bei adar luzeak ere, ixil-ixillik gelditzen ziran, aren itzik ez galtzeko. Erriko txikiak batez ere, ao-xabalka egoten ziran, aren esanetara, ta zeruak ere, aingeruak elbarriaren kontu zoragarriak entzun zitzaten, urdinguneren bat beti oi zuan ordu aretan.

Onela zabaldu ziran errian, bata bestearen ondoren, ainbeste ipui, mendiko aizeak ekarriak bezela. Asto erranarena, oillo lepa gorriarena, azeri maltzur eta oillar moko txuriarena, basaurde betortz bakardunarena ta otso beltzarena, txantxangorri ta arrano egalariarena, ta nik al dakit beste zenbat eta zenbat kontu, nexka-mutkoen zero ziranak.

Baiña ipuirik ederrena, elbarriaren bizitza bera zan. Ipui guziak baiño ukigarriagoa. Ipui guziak, ori bai ziran; ipui utsak. Elbarriarena, ez ala. Egi garbia ta biotz-barruraino sartzen zana.

Noiz ote zan?... Orain eun... berreun... urte?...

\* \* \*

Ara! Ikusten al dezue an gaiñean, tontor-tontorrean, basarri ura?

-Mendiak zeruari ikutzen dion gain artan?

-Bai, maiteok. Tellatu gorri arekin, badirudi basarria, mendiari jarri dioten txapela dala.

-Ene, ta bai.

-Ba... antxe bizi da gure ipuietako elbarria.

-Bakarrik?

-Ez. Badu andrea ta semea ere. Gaztetxoa oraindik, aitari basoan laguntzeko; baiña mutiko pijua bere amairu urterekin.

-Bai urruti bizi dirala irurak.

-Bai, enetxuok. Urrutitxo erri artatik, eta askoz urrutirago zuek bizi zeraten erri aundi auetatik. Irurak mendi-mendiko izena zuten. Aitak (artean etzan elbarri), *Arkaitz*; amak, *Iturri* ta biengandik sortutako semeak, *Erreka*.

Orra iru izen polit. Kontuan artu, gero! *Arkaitz*, *Iturri* ta *Erreka*... Udar, eguzkiak antxe ameten zion lurrari lenbiziko musua; eta illunabarrean, argia lotara zijoanean, an uzten zuan egunaren azkenengo urretantoa. Ori, udar eta egualdi ona egiten zuanean.

Baiña euri ta aizea neguan, izotz eta elurrarekin burrukan asten ziranean, errukarriak orduan *Izarpeko* kristau ta ardiak!... Orra! Esan dizut basarriaren izena ere, *Izarpe*. Izarrak bai zituan bere sapai, gau ozkarbietan.



Egoak baztarrak gozaten zituanean, ardiak aisa zebiltzan maldarik-malda. Mendiko belar zapalduga-bea bazkari zutela, aiek larre-aldiak! Zelairik-zelai zijoan artaldearen ezkillak soñua, zeruari eskerrak ematen. Nabarrek ederki zaitzen zituan albora gelditzen ziran ardiak, zaunkaz inguruak esnatuaz. Bego otso beltza bere basa-zuloan urruti! Etzuten aren aztarranik udara-aldean; ezta bearrik ere.

Damurik! Egun guziak etziran ala. Neguteak jotzen zituanean, etzan giro goi aietan! Egunak labur eta gabak luze, bazan antxe nekea ta lorra! Orduak joaten zitzaizkien aurreko mendi Gurutzeari begira; andik sortzen bai-zan argi unea.

*Iturrik*, amak, presta oi zuan mendirako ogi-arterkoa. Gazta, urdai zatia edo al-zana. *Arkaitz*, aita, goiz ateratzen zan artaldearekin eta *Erreka*, semea, mutiko sendoa bai-zetorren, asia zan noiz-beinka aitarekin artzaitzan. Ala egunak eta ala urteak.

Irurak osorik iraun zuten bitartean, poliki zijoazen *Izarpeko* gora-berak. Amak etxekoa, aita erdiekikoa ta semeak aldiz etxekoa ta aldiz ardiekikoa egiñaz, ederki menderatzen zituzten eskuarteko lan guziak. Inguruetako zugaitzak, pago, lizar eta aritzak, aientzat bear zan egurra oparo eskeintzen zuten. Nekeak-

neke, pozik bizi ziran *Izarpeko* guraso ta semea; irurak mendian jaioak eta mendian esiak ziranez, beko aide-rik etzuten atsegin.

Batez ere, beren etxea maite zuten. Ura bai-zan guraso zaarren arnasa ta itzala, gizaldiak zear mamitua. Orma zarretako arri bakoitzean, aurretikoen lan eta izerdia gordea zuten. Artegian, artaldearen aterpe ta beroa nabaitzen zan, gabetako ta neguko orduak beee! gozoz beteaz. Etxearen be-alde erdia, artegiak artzen zuan. Beste erdia, sukalde ta labe aldeak betetzen zuten; ta goian zeuzkaten lo-gelak eta mandioa.

Zenbait gizonen lekuz eta ondasunez ase eziña! *Izarpeko* guraso ta semeak etzuten alako gaitzik. Beren etxea naikoa zuten munduko aberatsenak baiño zoriontsuago bizitzeko. Kutizi gabeko biotzak, zeñen gutxi bear duten pozik izateko! Mendiko aize garbiak, etxe ondoko baratzatxoa, ta ardiensne ta gazta, bizigarririk ederrenak ziran iru menditar aientzat. Danez gain, iruren arteko alkartasun eta maitasun sakona zitzairen, ondasunik bikaiñena.

Onela zijoazkien egunak, asteak eta urteak. Noizean bein errira jetxiaz, alde guzietan ongi artuak oi ziran, eta sukalde guzietan izaten zuten alkiren bat; baita mokau beroa artzeko lekua ere.

-Sartu, sartu barrura, Iturri! Erri aldetik, beraz?

-Bai, Malen. Etxerako zerbait inguratu bear.

-Ta onik al dira gizona ta semea?

-Oeak ozten ditugu, beintzat...

Iturri, aztu ezpazaizu, Izarpeko amaren izena dezu. Urrengoan, gizona, Arkaitz, jetxiko zan, gaztasasoa zala-ta, etxerako bear etzutena, errian saltzera. Arkume garaiak ere, bere lanak sortzen zizkien, eta semea, Erreka, azten zetorren bezela, aitaren lagun izango zan aurrerantzean arkumeak errira jetxi bear zituztenean.

Erritik mendi aldera begiratzen zutenak baziran:

-An -esango zuten- Izarpen piztu dute sua. Begira, nola dijoan tximinitik gora ke-mataza.

Orrela igartzen zuten Izarpen eguneroko lana ta osasuna bide onez zebiltzala.

Laiñoak tontorra izkututzen zuanean, etzegoen alakorik. Egun aietan, Izarpe erritarrentzat galdua gelditzen zan, eta urdiña zeru-jabe egiten etzan artean, basarria ere, itxu egongo zan inguruko berri jakiteko. Urte artan ere eroso ziran kontuak. Izarpeko guraso ta mutillak, beren zoriona osatzeko, etzuten iñoren bearririk. Irurak osasunez, irurak mendiko aidez indartuak.

Giroak lagunduta, zuzen eta goiz asi ziran arku-meak jaiotzen. Ardiak oparo ematen zien esnea ta gaztak egunero zeuden su-gaiñeko kea artzen. Artzaiak ezin eskatu urte oberik. Zelaiak belarrez gozo ta aberats, eta basoak eguzki orduetan itzal preskua eskeintzen zien beroari iges egiteko.

Arkaitz, larrerik-larre zebillen bitartean, Iturrik etxea ta etxe ondoko lorategia zaitzen zituan arreta aundiz. Eztizut len ezer esan, baiña Iturriren biotzean, loreak berebiziko lekua zuten. Mendiko lore guziak ezagunak zitzaizkion. Lore txuriak, orixkak eta gorriak, denak bere izenez ezagutu ere. Ta politenak bere lorategian aldatzen zituan. Etxeko orma zarraren ondoan, bai lorategi ikusgarria! An zeuden lili txuriak, larrosa gorriak, krabelin, kukuprakak... lore txuri-gorri, more argi ta illunagoak, konta-ala. An ikusten zan Iturriren eskua ta biotza.

Izarpe, zeru txiki bat zala, esan zitekean. Izan ere, lurrean etzan erreza alako zorion eta pakea arkitzerik. Baiña lurreko egoerak ez izan betikoak, eta uda eder baten ondoren, udazkenak arrotu zizkien Izarpe aldean sarkaldeko aizeak. Eta udazkenaren atzetik, eldu zan negutea. Uste baiño lenago laiñotu ziran gailurrak; kazkabarrak Izarpeko atari aldea goiztxo zuri-

tu, ta goiko ta beko aizeak, auts koloreko laiko pilloak inguratu zizkieten otzaren lagun.

Gero, elurrak estali zituan bideak. Basoa aguretu zan, adar erantziak elur maluta zuriz jazten zirala. Zelai ta aitzak, maindire zuri aren azpian, illak ziruditen, eta otso beltzaren aztarranak, inguruan agertu ziran.

Eguna joan eta eguna etorri, luze zijoan elurte ikaragarri ura, ta izotzak gogortuak zeuzkan errekalde ta maldak. Nork burutu Izarpen? Poliki-poliki etxean gordeta zeukaten apurra, bereala aitu zan. Kristau ta abere, jatekorik gabe, argalduta zebiltzan. Besterik ezean, ardiren bat il bear izan zuan Arkaitzek; baiña ardiak ere, goseak zeuden eta laster gaitzak eraman zituan sail bat. Bizirik iraun zutenak, argalak eta erdi gaixoak gelditu zitzaizkien.

Bitartean, Iturrik, Arkaitz eta Errekari zerbait gordetzearren, bere buruari ukatu egiten zion bear zuan janaria ere. Udaberria sortu zanerako, oso galdua zegoen ama gaixoa. Bere lorategia zaitzeko ere, gauza etzala, bularretik gaixotu zan zearo.

Konturato ziraneko, berandu zan. Gaitzak aren biri biak ondatuak zeuzkan ordurako, ta Maiatzeko Gurutze egunean, aitu zan emakume errukarriaren bizia.

Senar eta semeak jantzi zuten Iturriren gorputz illa; ta gero, inguruko zelaietatik bildutako lorez estali zuten emazte ta amaren zerraldoa. Antxe, orma ondoko lorategian –ain maite zituan lore aien tartean–, lur eman nai izan zioten.

Deitu zuten apaiz jauna, ta lurra bedeinkatu zuan. Errian egin zituzten illetak, goenekoak izan ziran. Lorategian obia, euri ta aizetatik gordetzeko, aterpe-txoa jaso zuten aita-semeak, eta an gelditu zan amaren gorputz maitea, zurezko Gurutzearen babesean. Izarpeko sendia, len bezin osorik gelditu zala esan zitekean. Arkaitz eta Errekak obia beti lorez edertua zeukaten, eta aman antxe lotan zutela, zeritzaien.

Baiña etxea etzan ez osorik gelditu. Sukalde ta inguruan, emakumearen eskua palta izan zan andik aurrera, ta aita-semeak basotik edo artzaitzatik nekatuta eltzen ziranean, etxea otza ta gauza guziak ipurdiz gora arkitzen zituzten.

Arkaitz, bere emaztearen eriotzak oso mindua utzi zuan. Erreka, bere amasei urterekin, artalde gutxirua-ren ondoren ateratzen zan geienetan. Ama zana lorezale bezela, semea txori-zale purrukatua zan. Larrerik-larre zebilela, mendi ta basoko txori guziak ederki asko ezagutzen zituan. Beti, aientzako jan-ondarren

batzuek zorroan sartu ta aterako zan. Txoriak ikasiak zeuden, eta iñungo zugaitz adar eta sasi artetatik, an inguratuko zitzaizkion artzai gazteari, jateko pozean. Mutillak bazekian txori bakoitzari bere txorro-txioz otsegiten. Orregatik, artalde ingurua txori-kantaz alaitua izan oi zan egun guzian. Artzai txakurra ere, Nabar, oitua zegoen lagunarte artara, ta txoriak etzioten bildurrik aren zaunkari.

Erreka, aitz muturretara igo ta bere artalde ta txoriekin, mendiko errege zan goi aretan. Gaztetxo artean, zoritxarrez, eta arriskurik etzuan ikusten. Andik sortu zitzaion etxeari urrengo ezbearra. Egund eder bat zan. Basoa bere apaingarri guzian zoragarri agiri zan alboko maldan. Zelaiak lroetan eta eguzki erraiñuak mendia urre argiz josia zeukaten. Erreka, aitzik-aitz ta larrerik-larre zebillen edertasun aien artean. Txori lagunak eta bere ardiak ondoren zituala, luzatu zitzaion arratsaldea... ta illunak, etxeratu baiño lenago, aurea artu zion.

Txoriak beren adarretan lotaratu ziran, eta Erreka, bere artalde ta txakurrarekin, erreka-zuloak eta aitz arteak zear, etxerako bidean zetorren.

-Fiii! Fiii! -jotzen zien ardi txuriei.

-Nabar! Ardi ori ekarri! -urrengo txakurrari deika.

Illunabarra oso aurrera zijoan, eta bere kezka arekin, mutillak aitarengana lenbailen agertu nairik, etzuan bear zan betarik artzen. Bazan bidean aitz arte estu bat. Ardiak bultzatuaz, txakurra axaxatuaz, geroago ta itxuago zetorren gaztea.

\* \* \*

Aita etzan asieran larritu. Noizean bein, atarira irten eta zelai bide aldera begira jartzen zan.

-Nun luzatu ote zaio gure mutillari bere egona? Kabiren bat edo perretxikoak izango zituan gaur ere, orduak igarri gabe onela joateko.

Artan joan zitzaion illunabarra, ta ardian txintzarri otsik ez baztarretan:

-Nabar! Nabar! -dei egin zion zakurrari; baiña deiak etzuan zakur zaunkarik esnatu.

Apari legorra, zegoen lekuan utzita, jo zuan bide-tan zear erreka zulo ta aitz arte soilletara. Geroago ta larriago zijoan gizajoa, txistu zorrotza joaz, belarriak ardi zintzarri edo zakur zaunka zai ernetuaz. Basoak eta aitzak, bere txistu soiñua besterik etzuten ematen. Erantzunik etzan iñun. Alako batean, etsita gero-ra, zerbaiten zantzua urrutira:



-Fiii! Fiiii! -jo zuan txitua, arnasa entzuteko geldituaz.

Bai... Aitz ondotik zetorren Nabarren zaunka otsa. Artzai makilla lurrean gogor tinkatuaz, eman zion lenaz gain laisterketari:

-Erreka! Erreka! -oiu egin zuan bere indar guziz. Semeak erantzunik ez.

-Ai, ene! Galdua det, noski, mutilla.

Urreratzen eta agitzago Nabarren zaunka eta uluak. Ardiak ere, beren zintzarriak dantzatzen asiak ziran.

Artan, egunsentiaren argiak esnatu zituan txoriak, eta eman zioten guziak batera kantatzeari. Aita nastua zebillen, nora jo asmatu eziñik. Oraintxe alde ontatik, oraintxe aruntzatxeago iruditzen zitzaizkion ardi ezkillak ta txakur uluak.

Txoriak etzuten zalantza aundirik izan. Egoak zabaldu orduko, ikusi zuten jaten ematen zien artzai gaztea, ta denak arengana jo zuten txorro txioka bizian. Ala arkitu al izan zuan azkarrago aitak Erreka gizajoa.

Aitzean irrist eginda, pendizean bera eroria zegoen mutilla. Zentzurik gabe, baiña artean bizirik.

Arkaitzek igurtzi zion arpegia bere semeari; ta onek, aren ikutura, begiak zabaldu ta begirasun larriz jaso zion pixka bat bere burua.

-Aita.

-Seme! Nola erori aiz?

-Berandutu ta illun...

Erantzun zion ozta-ozta Errekak. Biotza erdi bi, jaso zuan semea lurretik eta artu etxerako bidea. Iturri ondoan, geldiuena egin zuten. Antxe mutillaren arpegia busti ta preskatzen egon ziran. Bide guzian, artzai gazteak ain maite zituan txoriak zerbait igarri baliote bezela, txio larrietan lagun egin zieten. Nabarrak ere, uluka aidea urratuaz jarraitzen zien ondoren eta ardi gaixoak, gau guziko egoeraz izututa, bee! zetozen bidean.

Aita gizajoa!... Etxean sartu zanerako, semearen gorputz illa besterik etzuan besoetan. Bidean zekarrella aitu bai-zitzaion Errekari bizia!... Ta an eten ziran Arkaitzen artzaitzarako gogoak.

Deitu apaiza ta amaren ondoan lurperatu zuten semea, bientzako aterpea zerbait zabalduaz. Errian esan bearrik ez. Illetak eta ezagunen naigabea oso biziak izan ziran. Aitak bere erabakia artua zeukan ordurako. Etxea etzijoan uztera, ez; an bai-zituan bere

biotzeko puxkak eta guraso zaarren eskuz jasotako orma urtetsuak. Mendiko gizona zan, gaiñera, ta nola jetxi erri aldeko zuloetara? Ez, antxe eramango zuan, bakarrik izanda ere, bere azkenengo bizialdia. Baiña bizikera aldatuaz.

Labe aldean, alako lekutxo bat itxiko zuan, ardi pare bat gordetzeko laingoa. Sukaldea ere, beretzat bakarrik etzuan ain zabala bear. Beraz, aren zatia ta artegia, baselizatxo bat egiteko artuko zituan. Mandioan beste ainbeste egin zitekean: beretzako gela ta gorde-lekutxo bat utzi ta beste guzia, elizatxoari emango zion.

Elizatxoan, Gurutzeko Jauna jarriko zuan aldare gaiñean. Apaizarekin itzeginda gero, onek oso ontzat artu zion bere asmoa, ta ala egin zituan lanak. Etxeko orma, illobia zegoen aldera ideki ta onela, amasemeen gorputzak, elizatxo alboan, kapillatxo baten antzera sortu zuan tokian gelditu ziran ondo gordeak. Ermita, Maiatzeko Gurutze egunean zabaldu zan lenbizi; andrea il zitzaion urteburuan, ain zuzen; eta andik aurrera, Arkaitz, ermita zai ta bere maiteen lur-gordetzaille bizi izan zan.

Egun batean, elizatzoko kanpaia jo ta jo asi zan. Errian bildu zan gizataldea ta jo zuten mendi aldera... Arkaitz, perlesiak jota, gerritik bera elbarri arkitu zuten. Errira eraman nai izan zuten gizajoa, baiña arek iñola ere ez jetxi nai. Antxe mendian eramango zituan bere gaitzak uzten zizkion egunak. Orduan norbaiti elbarriarentzat gurditxoa egitea bururatu zitzaion. Erri guzian dirua bildu ta eskeiñi zioten alako polit bat. Besoak ongi zeuzkan Arkaitzek eta aiekin eragiñaz, bidean aurrera egin zezakean nai zuan aldera bere gurdi aretan. Onela jeisten zan arrazkero, errira zijoan bakoitzean. Aurrenengo erriko plazara joango zan, aurrez inguratua. An, intxaurpean bere ipuia kontatu ondoren, etxe guzietako limosnak ekartzen zizkioten aurrak, eta gero berriro bere mendiko kabira bidean galtzen zan...

Orra nun datorren gaur ere, bere ipuia bukatuta, aurrez inguratua. Guziak kantari datoz erriko irteraraiño, elbarriari lagunduaz. Onek, aurrei agur egiñaz, artu du bere etxerako bidea...

Kontu auek aspalditxo ziran. Gerora, elbarria il eta bere emazte ta semearen ondoan sartu zuten Gurutze Santuko ermitatxoan. Onela iraungo zuten betiko

batuak, mundu onetan ain alkarrenak izan ziran iru maite aiek.

Eta orain, Maiatzeko ta Agorreko Gurutze-egunetan, apaiz eta agintariak aurrena direla, erri osoa anizaten da, Izarpeko gizonak sortutako Gurutze Santuko Ermita xarrean. Eta iñork ere ez du andik irtetzen, aurrez alboko kapillatxoan iru Aita Gure esan gabe.

# EURIA ARI DU

## ***Itz bi aurretik***

*Alain Robre Grillet-en nobelak irakurri ezpadituzu, nere ipui au, irakurleari «arpa jotzeko» idatzia dala, uste izango dezu.*

*Baiña Alain Robre Grillet, Prantziko nobelagille sonatuenetako bat dezu; ta oraingo idazkera berrizale aitatuenetakoa, ala ere. Ameriketan bertan, onen izenak, alde batetik besteraiñoko arrada eman du.*

*Era berri auek, euskal-saillean erakusteko egiña det, beraz, onoko nere ipui au. Bada-ezpada ere, jakiñaren gaiñean jartzen zaitut; irakurten asi ta zakarretara bota ez dezazun nere lan au. Irakurri, arren, azkenerarte; ta gero, nai badezu, neretzat gelatxo bat eska dezakezu... Santa Agedan.*

Du... da... da... du... Ari du... ari da... ari da... ari du... Euria ari du... Euria ari da... Euria txirrioan... Euria, goian dana beian...

Leioa itxia dago... Leilatillak iriki dituzte... Euria, goian dana beian!... Kristalak lausotuta daude... esku-muturrez garbitu ta kanpora begira... sudur bat ikusten det kristalean itsatsita... sudur-punta, zapal-zapal agiri da kristalaren kontra.

Gela, ezta aundia. Lo ta lan, bertan egiten ditu. Mai bat leiotik urrean. Bi liburu mai-gaiñean, eskui-aldean: *Alain Robre Grillet* dute azalean egillearen izena. Bata, «Zeleta-ola», (goi ta beko erderetan; «*La Jalousie*»=«*La celosía*») da; ta bestea, «Igaz Marien-band-en», erderatan: «*La année dernière à Marienbad*»=«*El año pasado eb Mairénbad*»)... Leioa, maitik ezkerretara dago.

Iru silla daude. Bi, mai ondoan, alde bietara bana; ta irugarrena, kama-turka alboan. Oinpekoa, (alfonbra, alegia), maiztua agiri da, ta ertzak listuak ditu. Ormetan, bi kuadro zar. Markuak, urrea janda dute tarteka... Atzo, etzan autsik kendu ta, bai maiak eta bai kuadruak, esku-markak agirian dituzte. Ate bat du trantsitura... Orain, atea iriki da. Emakume ixil bat agertu da atean. Ez da gaztea; ezta zar-zarra ere... Ogei ta amalau urte ba ote ditu?... Eztakit. Emakumea leio aldera dator. An dagoen gizakumearen ondoan jartzen da... Kristala lausotua dago. Eskumuturrez kristala garbitzen du. Sudurra, kristalaren kontra jarri du. Kanpotik, bi sudur-punta agiri dira kristalaren kontra zapalduta. Begira daude.

Orain, emakumeak gizakumeari begiratzen dio. Emakumea, ezkerreko aldetik dago, gizakumea eskui-

tik. Gizakumea, kanpora begira dago... Emakumeak, gizakumeari ezkerreko sorbaldatik tira ta berari begira jarri dakion bultz egiten dio... Gizakumea, emakumeari begira dago orain.

Emakumeak, bere burua gizakumearen bularrera botatzen du. Gizakumeak, itsatsi zaion gonadun gauza arekin zer egin eztaki... Emakumeak, besoak lepora botatzen dizkio. Zotinka asten da... Gizakumeak, bere beso biak zintzilik dauzka. Emakumearen zotiñak entzuten ditu; baiña aren negarra nola ixildu, eztaki...

Orain, emakumea beragandik pixka bat alderatu egiten du... Badirudi, emakumea koipezko gauza bat bezela dala gizakumearentzat. Onek, arekin mantxatzeko bildurra bai-luan, pixka bat atzera egiten du.

\* \* \*

Orain, arnasa artzen du. Emakumeak ez, gizakumeak. Gero, eskuz sudurreko bustia, kristalak egotzi diona, txukatzen du... Emakumea, ixiltzen ari da... Ixildu da. Ezta negarrik entzuten... Gizakumeak, arnasa luzea artu du. Emakumeak, musu-zapia atera ta zintz



egin du. Orain, begiak igurtzitzen ari da... Kanpoan, euria goian dana beian... Ez da aterrunerik.

Tratsiturako atea txirtiriki dago, ta alako «kirrink» otsa atera du... Emakumea, bizi-bizi atera dioa ta irikitzen du... Ixkillaretan bera, zaku mutur bat izkutatzen ikusi du... Gizakumearengana itzuli ta ajola gabe onela dio:

-Katua zan.

Euria ez da gelditzen... Gizakumeak, leiatilla pixka bat batu du, ta gogorik gabe dio:

-Euria ari du.

Emakumeak, eztarria garbitu ta bere gogoia urrutian balu bezela, ixilka esaten du:

-Euria ari da.

Gizakumeak, leiatilla eskutik utzi ta zorrotz begiratu dio, esanaz:

-Euria ari du.

Emakumeak, musu-zapia gordeaz, ate aldera jotzen du. Andik gizakumeari esaten dio:

-Euria ari da.

Ta atea iriki ta trantsitura dioa.

Gizakumeak, ate aldera begira dagoela, bere artean dio:

-Euria ari da... ez, euria ari du... Nola?... Euria ari du... euria ari da... Zer ajola dio?... Ari du... ari da... ari da... ari du.

Gizakumea TO da... emakumea, ÑO.

\* \* \*

Leiotik ezkerretara, apala zar bat agiri da, liburuz betea. Tarteka, utsuneak ere ikusten dira, ta aietan amalaunak nabarmen.

TOk, leioa utzi ta alki bat artu du. Alkia mai aurrean laga, ta bertan exertzen da. Mai erdian, eskribitzeko makiña bat du. Kentzen dio tapa, ta lurrean laga du. Makiña ez, tapa bakarrik... Gero, eskuiko kajoia iriki ta papel batzuek ateratzen ditu... Orain, makiña beregana urreratzen du. Papela makiñan nola ipiñi asmatzen asi da. Ipiñi du. Eragin dio pixka bat gurdiari. TO, orain, makiñari ematen asi da... Kristaletan, kazkabarra danborra jotzen ari zaigu... TOk, begiak makiñan josiak ditu. Beatzak, azkar dabiltz teklak sakatzen. Papela mota beltzez betetzen ari zaio. Letrak, ezkerretik eskuira dijoaz. Makiñaren gurditxoa, eskutik ezkerredera. Taka-taka ta... taka-taka, ta... papera, erdiraiño bete du... TO, gelditu da.

Arnasa artu bearrean da. Makiñan ari dala, arnasa artzea aztu egiten zaio, ta noizean bein, makiña utzi ta arnasa aundiak artzen ditu, biriak betetzeko. Orain, arnasa artu du. Berriro, makiñari eragiten dio... Kristalak berriro lausotu dira. Kanpoan jasa itxua ari du. Kazkabarrak, gogor astintzen ditu artaburuak... Taka-taka ta... ka... Papela bete du. Orain, papela makiñatik kentzen du... Orain, arnasa artu bearrean da berriro... Zutitu da ta beso ta anakak luzatzen ditu, arnasa artzeko... Berriro exeri da. Papel berri bat artu ta makiñan sartzen du. Papela berdintzen ari zaigu. Ongi dago... Makiña, eskuitik ezkertera... Letrak, ezkerretik eskura... Ttانتو beltzak papela illuntzen... Papela, ttانتو beltzez betetzen... Taka-taka ta...

-Zer det?... A! Arnasa artzea aztu zait. Orain, arnasa artu bear det. Ari naiz artzen... Zutik!... Orain, besoak jaso... arnasez bete... Jetxi besoak... luzatu anakak... artu arnasa... biriak bete... Orain, exeri... Zertan nintzan?... A, bai!... Taka-taka ta!... Zer da sukalde ortan?

\* \* \*

Sukaldean ÑO ontziak garbitzen ari da... ÑO baka-  
rrik dago ta kristalak, sukaldeko lurriñez lauso-lauso

agiri dira... Gelatik, TOren makiña otsa dator... Taka-taka ta... ta-taka!... ÑOk, arraskarako aurreko mantala jantzi du... Besoak, besaterak jasota, agirian ditu. Beso-ondoak, guri-guriak agertzen zaizkio... Ontziak uretan dauzka. Sartu eskuak, eta banan-banan garbitzen ditu ontziak. Gero, sukaldeko zatarra eskuetan artu ta ontziak legortzen ari da... Orain, apaletan ipiñi... Arraska aldea ustutzen...

Orain, atea ixil-ixillik iriki da. Atean, mutil gazte bat degu. TONI du izena... TONik, ÑOri begiratzen dio. Onek, txanbra arin bat su soiñean. Txanbrak, lepo aldean atzetik eta aurretik, iriki aundia du... ta bai bizkar aldera, bai papar aldera, illargi betea aiñako aragi sailla bistatzen zaio emakumeari... TONI, atean dago, aurrera egiten ausartu gabe... ÑOren lepaldea ta besondo guriak begiz jaten ari da. Gosea nabari du begi ondoetan... ÑO, ontziak apaletan jartzen ari da.

Artan, TONI aurreratzen da. ÑO, urretik ikusi nai du, baiña ez dio ikutzen. Bildur da ta nai du... ÑOk asarre begiratzen dio. Ontziak apaletan jarri ditu... Gelatik TOren makiña otsa dator... Taka-taka! taka-ta!... Alboan, sukaldeak beste ate bat du. Traste lekua an dute. Zakuz, janariz eta ontzi zarrez betea dago toki ura. Illun dago traste lekua. Leiorik ez du... TONik ara

begiratzan du. ÑOk, ez dio kasorik egiten... Euri jasa, ixiltzen ari da ta makiña otsa agitzago dator eskritoriotik...

ÑO, josten asten da... TONI, trantsittuko atetik entzuten jartzen da. Ez da makiña otsa besterik aditzen... TONI, berriro, sukalde erdira sartu ta ÑOri begira dago. Ezpaiñak estutzen ditu irrikaz... ÑOren oiñetan belaunikatzen da, ta emakumearen oiñak bere eskuetan estutzen ditu... ÑOk bultz egiten dio atzeratu dedin. TONI, atzeraka erortzen da lurrera. Ezin da egon. Begiak, gosez josiak ditu ÑOren sorbaldetan... Euriak eman dio berriro len baiño areago kristalak dantzatzeari. Bat-batean, ÑO alkitik jaiki da. Trantsittuko ateruntz egiten du... Iriki du atea ta entzuten jartzen da... Makiña otsa gogor ari da, ixilla urratzen... Itxi du atea, ta traste lekura dijoa pauso azkarrean. Apala ta zaku artean, bada an txoko bat, aukerakoa kristau bat zutik artzeko. An sartzen da... TONI, ero bat bezela ondoren dijoakio... Txokoan emakumearen tranbra argia nabaitu du. Joan zaio gaiñera... Besoak artu dizkio. Ezpaiñak emakumearen beso ondotan, lepa gaiñean, musuan itxasten zaizkio. Ustegabean, ontzi batzuek lurrera botatzen ditu... Azkar-azkar, sukaldera dijoa mutilla... Musu-zapiz, matraillak eta

ezpain aldeak igurtzitzen ditu. Trantsittuan, pauso-otsak aditzen dira... Bat-batean azaltzen dira, ÑO traste lekurako atean eta TO trantsitukoan. TO, begira-begira gelditzen... TONI, zaku bat bizkarrean artu ta kanpora irtetzen da... ÑOk bere aria artu ta josteari ematen dio urduri. TONI ta ÑOk, arpegiak gorrixkatuta dauzkate... TOK aopean dio:

-Atzo ere, emen zan TONI.

ÑOk, begirik jasotzeke, berekiko bezela esaten du:

-Katua zan.

TOK, ez dio kentzen begirik... Orain, ÑO, ari billa asten da. Jostarratza, papar aldean soñnekoan sartzen du. Aria billatu du. Jostarratza, paparretik artu ta aria sartzen dio. Asi da berriz josten... TOK, atea itxi ta bere gelara aldegiten du.

Euriak, eman dio berriz kristalak jorratzeari... TO, leiora dijoa... Kristalak lausotuta daude. Esku muturrez garbitzen du zati bat. Orain, kanpora begiratzen du. Sudurra, kristalean itsatsita dauka. Sudur punta zapal agiri da kristalaren kontra.

Kristaletan bera, txirrioka dijoaz euri-tantak. Ezta ezer ikusten... TO, leioa utzi ta kuadroei begira jartzen da. Kuadro bat, bestea baiño aundiago ada. Biak, alkarrekin zer ikusi pixka bat badute. Kuadro aundian,

gizakume bat agiri zaigu, belarretan etzanda. Begiak, aurreko zingira uretan josiak ditu. Emakume bat du berari begira. Gizakumeak, ez du aren arretarik. Emakumearen begiak, gizakume egarria nabarmen dute... Baiña gizakumea, ez da konturatzen.

Kuadro txikian, beste kuadroko emakumea bera da belarretan etzana dagoena. Begiak aurreko mendietan josiak ditu. Mendiak, tontorreatan, elurrez zuri-tuak ikusten ditu. Emakumeak, bere gonak, belaunetik goraxeago jasoak dauzka konturatu gabe, ta atzeko arbola itzalean izkutu dagoen gizagazte batek, aren gona barrenak agiri lagatzen duanari, irrikaz begiak zorrozten dizkio. Gaztearen atzean, erensuge ikaragarri bat bistatzen da. Ao aundia, zabal-zabalik du, mutilla irentxitzeko. Mutilla, ez da konturatzen. Jan bear du gizajoa... Ontan, zarata batek bere erdi lozorrotik ateratzen du TO... kuadroa, ormatik lurrera erortzen da, iskanbilla aundiz. Kolpeak, marko puxketa bat ausi dio... Erensugea an dago, ao aundia zabalik.

TO, lurrera makurtu da. Kuadroa, eskuetan artu ta berriro orman jartzeko asmoetan asten da. Baiña ezin diteke. Orman, len iltzea zegoan lekuan, zuloa besterik ez du arkitzen... Nun ote da iltzea?... Asi da billa...

Zerua, ñoiz baiño goibelago jarri da, ta ezin da gela barruan ezer ikusi.

Orain, ÑO, zarata aren otsera, etorri da. Iriki du atea ta TOk esaten dio:

-Ez da izan katua. Berez erori da.

ÑOk ez daki zer esan nai dion. Zerbaiten billa ikusten du TO, ta sukaldera dioa argi billa. Ekarri du argia ta TOri laguntzen asi da lurrera begira:

-Ona emen nun dagoen.

Maiaren anka ondoan zegoen iltze zarra, bere erdoi ta guzti... Jaso du ÑOk. Orain, TOri ematen dio. Artu du onek eta lengo zuloan sartu nai luke. Maillu bat balu... ÑO, berriro sukaldera dioa, traste lekutik maillua ekartzera... Trantsittuan, pasatzerakoan, zaku muturra ixkillaretan bera izkututzen somatzen du... Orain, badator mailluarekin.

Kuadrua, berriz, lengo lekuan dago... Egualdiak, argi aldia du, ta ÑOk, eskuan zerabilen argia itzali du. TO, kuadruari begira gelditu da, ÑOren berririk ezpalu bezela... ÑOri, kuadroko erensugeak bildurra ematen dio ta TO andik kendu nai luke. Joaten zaio TOri ta sorbaldatik tiraka, berari begira jartzen du. TOk, koipezko zerbait balitz bezela, ÑO berarengandik alderatzen du.



Atea txiritiriki dago ta alako «kirrink» otsa atera du. ÑO, bizi-bizi atera dioa ta irikitzen du... Trantsittuan zalaparta ixilla entzuten da... Ixkillaretan bera, zaku mutur bat izkututzen ikusi du... TOrengana itzuli ta bestela bezela esaten dio:

-Katua zan.

TOK, galdu du kontua. Ezta egunik, ezta ordurik... Aurrean, makiiña ura du zai. Exeri da ta asi da berriro... Taka-taka!... taka-ta!... ÑOK atzetik larri begiratzten dio. TO, gelditu da bat-batetan... Beatzak aidean ditu... Aopean izketan asten da:

Orain zer egin bear det?... Makiñan eskribitu?... Ala arnasa artu?... Idatzi dezadan!... Ez!... Arnasa artuko det lenago.

ÑO, ixil-ixilka atera da sukaldera. Barrua minbera du. TO ez da konturatu noiz atera dan emakumea. Laster illunak jango du, euriak galdu ez duana. Istil otsak ez du ordurik kontatzen laga... Orduak galdu dira.

TONI, anima galdua bezela dabil trantsittuan batera ta bestera. Bi ate zirriztotatik argi aria dator. Traste lekura dioa ixillik. Txoko artan du berak maite duan usaia. Gero, ezer ez! Joan da eguna! Makiña otsik ez da TOren gelatik. Ontzi zaratarik ere ez sukaldetik.

TO, oerako erazten ari da. Silletan utzi ditu erropa batzuek, eta makutsik leio aldera egiten du... Euri zaparradak, illunean aundiago dirudi. Kristalak lauso daude. Esku muturrez garbitu du eskui-aldeko kristal bat.kanpoa, erensugearen aoa da, beltzaren beltzak sakondua. Ez du ezer ikusten, baiña antxe dago sudurra kristalean zapal-zapal duala. Arnasa artu... arnasa artu... bizi!

Ontan, atea ixil-ixillik iriki da ta norbait dator leiora... ÑO da, erdi erantzia ta oerako bata luzea gaiñetik jantzia. Ez du itzik egiten... ez begiratzen... An jar-tzen da TOren alboan, onen ezkerretik. Kristala, lausotua dago. Esku muturrez garbitzen du. Sudurra, ezkerreko kristal baten kontra jarri du. Bien arnasa baka-rrik aditzen da etxe barruan. Kanpotik, erasoaren txis-tua dator aizearekin.

Eztago atzorik, ez gaurrik, ez biarrik... Orduak... gezurra dira!

\* \* \*

Nor dabil illunpean?... Trantsittu barrenean du ÑOk bere gela. Aruntza dijoa norbait. Alperrik da begiak zorroztea. Ez da ezer ikusten. ÑOren gela

atean geldirik dago keriza bat. Belarriak atean josiak ditu. ÑOren arnasa aditu nai luke, baiña ez da ezeren txintarik. Beste egunetan ederki aditzen zuan, ba... Sartuko ote naiz?... Orduan konturatu da, TOren gelako atea txirtirika dagoela... TONlri, an bularrean, ezkerreko saiets aldera, min zorrotz bat jarri zaio. TOren gelako leioan, bi sudur daude kristalaren kontra zapalduak. Illunak, ikara ematen dio ÑOri... Orain, TOri begiratzeko dio. Ezkerreko sorbaldatik tira ta berari begira jartzen du gizakumea. ÑOk, bere burua TOren kolkora botatzen du. Orain, zotinka ari da. TOK, eztaki gonadun gauza arekin zer egin. Badirudi, ÑO, koipezko gauza bat dala TOrentzat. Onek, arekin mantxatze-ko bildurra bai-luan, pixka bat atzera egiten du.

Orain, arnasa artzen du... ÑOk ez; TOK... Gero, kristalak egotzi dion bustia, sudurretik eskuz txukatzen du. ÑO, ixiltzen ari da. Ez da negarrik entzuten. TOK, arnasa luzea artu du. ÑOk, sudur zapia atera ta zintz egin du. Orain, begiak igurtzitzen ari da... Kanpoan, euria goian dana beian...Ez da aterrunerik.

Bat-batetan, galdu da etxeko ixilla... Trantsitturako ate-ondoan, egundoko danbatekoa izan da. ÑO ta TO, au aurretik, ateruntz dijoaz, zer ikusiko. TONI, ate ondoan lurrean dago luze-luze.

Eldu kontuz eta kama-turkara eramaten dute. Bien artea, etzan dute kontu aundiz. TO, belaunikatu da ta TONiren eskua artuta, ixillik gelditu da.

-Sendagillea ekarri beariko degu -esan du ÑOk.

-Alperrik da! -erantsi dio TOK-. Odolak kolperik ez du zaiñetan.

-Il da! -dio intziri batean ÑOk.

Eta bereala, oe gaiñean, gaztea zerraldo dagoen parez-pare, kuadro txikia ormatik zintzilik ikusten du:

-Erensugea! Erensugea.

Ta zapi bat artuta, kuadrua estaltzera dijoa.

Tximista batek, argitu du zerua alde batetik beste-raino... Laiñoetan, millaka erensuge dabiltz burru-kan... Aien orrua dirudin trumoi ikaragarri batek, dar-daraz ipiñi du etxe osoa.

ÑO, igesi atera da andik. Atetik irtetzerakoan, lepoa jirata, zurrumurru batean, onela esan du:

-Euria ari da.

TOK, ildakoaren ondotik zutituta, erantzun dio:

-Euria ari du.

Gero... illunak irentsi du ÑO... Andik pixka batera, emakumearen gelako ate otsa aditzen da... TO, ilda-koari begira dago oraindik, eta konturatu gabe, bere artean esan da esan ari da, lena berriz, lena berriz:

-Euria ari da... ez... euria ari du... Nola?... Euria ari du... ez... Euria ari da... Zer ajola dio?... Ari du... ari da... ari da... ari du... Da... du... du... da...

TO, gizakumea da. ÑO, emakumea.

# TA ORAIN, IPUIEI ESKERRAK... BIZI GAITEZEN

*Euskeraz lanean asi orduko, itz asko sortu bearra degula, konturatzen gera. Ta ipuiz lertu baiño lenago, lan ontarako bear ditugun itz erabakiak ar ditzagun. Erderazko «inspector» eta «policia» euskeraz nola esan?*

*...Nai badezu, erderaz bezela; baiña garbi-zalea bazera, aukera itzazu auetatik:*

*-Inspector = Miatzaille, Barneatzaille, Ertzain-Buru, Ertzain-Nagusi.*

*-Policía = Ertzain, Errizai.*

## **1963-go Garagarrillak 30**

-Aurrera, aurrera, Ertzain-Buru jauna!... Gaizkilleen giza-iltze ta orrelako zoritxar aidetan nolako pozik ibilli oi naizen bazeneki...

-Kontuz ibilli zaitezke, ba, Vargan jauna; bide oiek ezpaitira aixa ibiltzekoak.

-Ba, ni, txibia bere xaltxan baiño gozoago ibiltzen naiz orrelako gertaera artean. Batez ere, gaizkillearen

iñosokeri baten bidez agirian jartzen diran ilketa bikain oiek, pozetan igari jartzen naute. Zuk, Moris jauna, maiz iango dituzuorrelako arazoak?

-Ain zuzen ere, esku artean det orrelako gertaera bat. Eta egun guziko nekez jota, oera noan orduan artzen ditudan urrutizkin dei oiek, enaute bat ere pozten. Ta zuri ere, Vargan jauna, orrelako ordutako deiak, elizuteke gozamen aundirik ekarriko.

-Ezetz? Bai orixe! Baiña ortarako, iltzailea nor dan ez dedilla iñundik agertu al izan, eta eriotza jator emana izan dezagula. Epai maikoak, berriz, ezeren susmorik gabe, bide okerretik billa, asi ditezela. Bestela, eztu ortan sartzerik merezi.

-Gaizkilleari geitxo eskatzea litzake ori.

-Ez naiz beti orren garestia, Moris jauna. Batzuetan, oso gutxi eskatzen diot. Ori bai, ez dedilla erdiipurdikoa izan. Baiña zozoterdi bada, asko pozten nau. Goi-Ameriketako Sarkaldeko kontu oiek, esate baterako, bei-zai arteko burrukak, abelgorri-lapurretak eta alkar iltzeak, kontatzen dituzten liburu oiek irakurtzen asten banaiz, azkeneraiño irakurri bear izaten ditut.

-Ba, zure zalekeri oiek entzunda, eztaikit zer esango luken psikiatra batek, gogo-zale batek. Zure gazta ori atzekoz aurrera egiña ote dan edo...

-Nolanai, zenbait idazleren buru argia ezin ukatu-ko dezu. Ura da ura irudimena! Liburuan goratu naiduan gazteari ematen dion eskua! An dezu, bere etsaiz betetako ardangelan, Jainko txiki bat bezela, tapa-tapa atetik barrura sartzen... Uste gitxiena danean, ango zalaparta! Gure gaztea, begiak itxita ere, bere etsai guziak iltzen asten da. Andik laster, Jesus batean garbitzen ditu gorroto dioten guziak; bera, berriz, iñork ikutu gabe aterako da ainbeste sutunpa artetik.

-Ikusten dedanes, Vargan jauna, zure zalekeri oiek, geitxo aizatzen zaituzte.

-Ta oso gogoko ditut beste zenbait kontu ere: sudur-punta apur bat gora begira duten emakume zoragarri oiek, eta katu-atzaparretan erori dan xaguarren antzeko garraxi biziak egiten dituzten irrati kontu oietako neskatxa ikaratiak, eztitan jartzen naute.

-Ori, guzi ori, gure etxetik urruti dabilkigunean, oso ederki dator; baiña ezbear oietan zere burua iñoiz nastua ikusten badezu, ez det uste opil gozotzat joko dituzunik. Agian, orduantxe sendatuko ziñake gaitz ortatik. Eta asiko banintza, asi... estuasunen bat aixa sortuko nizuke.



-Asi, asi! Orrelako barru-ikara-gose bai-nazu, Moris jauna.

-A, bai, e?... Ba... or dijoakizu esteak larrituko dizkitzun galderatxo bat. Zu, Vargan jauna, nundik bizi zera?

-Oso ederki! Ederki baiño ederkiago asmatutako galdera! Jolasteko galdera oberik ezin asma zenezakean, Ertzain-Buru jauna.

-Ongi da, baiña erantzun azkarra da nik eskatzen dizudana. Zu nunik eta zertatik bizi zera?

-Ipuietatik, nere adixkide argi ori; ipuietatik, ain zuzen ere.

-Erantzun orrek gatz gutxi duanik, ezin ukatuko dezu, Vargan jauna.

-Orixe da, ba, egia, Moris jauna. Badakizu... gauden egunotan, oso modako jarri zaizkigu ipui-leiaketak. Euliak eldu zai bazaude, or piztuko zaizu muiñetan aldrebeskeriren bat. Zure burukoa papeletara alda ezazu; bialdu gero zure sorkari ori leiaketa-auzitegira. Saria eskuratzen badezu, ipui-iturritik pixka batean bizi zaitezke.

-Orrela gatz geiago du, baiña oraindik motz gelditzen da zure garbiketa. Ipui-sariak neurrian bai datoz, eta urtea lzuea baita, aietatik jateko. Etxeak itukin

asko ditu, Vargan, eta legorrak aisa galtzen dizkigu jarioak.

-Ala da bai, Ertzain-Buru jauna; baiña leiaketak alde guzietan ugaltzen ari dira, ta egitik baiño ipuitik jatea egunetik egunera errezago egiten ari zaigu.

-Urte ontan ere, ziria sartzekotan al zera?

-Ori nabil, Moris jauna. Egunak eta asteak tximista batean bai dijoaz, eta ipuiak agertzeko ordua urreratzen ari bai zait. Nere egiteko au bururatzen eta burutzen, lanik asko izango det.

-Beno, beno! Orea prestatzen ari zerana, argi dago, ta labea oztu eztakizun, bakarrik laga bearko zaitut.

## **1963-go Uztak 10**

Sargoriak burua astundu dit, eta garunak giro ontan ezin dute lanik egin. Ipui batentzako gaia bear nuke, ta bero onek ilda uzten du asmamena. Argi txinta bat sortuko balitzait... Baiña, bai zera!... Bada-ezpada ere, or dator -ain oker ere- nere lan-ordua ostutze-ra, nere lagun Borrás.

-Kaixo, Bargan.

-Kaixo, Borrás.

-Lanpetua ikusten aut... Eskiribitzen, ala?

-Psss!... Emen ari nauk; baiña gaur etziok girorik.

-Ik nobeletara jo bear uke.

-Gezurak irten dik! Nobela batek buru-alde argia bear dik eta lan ordu asko agortzen dizkik. Gero, saririk irabazten ezpadek, alperrik galdutako ainbeste egun gelditzen zaizkik atzean.

-Zertara jo bear dek, ba?

-Turismo-Biltzarrak Euskal-Asterako sortu duan sariketarako ipui bat asmatu nairik, ari nauk larri. Ontan saririk jasotzen ezpadet ere, galdutako orduak ez dituk ainbeste.

-Oso begiratu ikusten aut ire ele-eder lanetan, Vargan.

-Bizi bearrak agintzen dik emen, eta zentzuz jokatut bearra zegok.

-Ta ze gai aukeratu dek?

-Oraindik ezer ez; eta ezer asmatuko dedanik ere, etzekiat.

-Orretan?...

-Ara, Borrás! Mundu au ipui-utsa danik, ez al dek beñere entzun? Ori orrela dela, gaia aixa zetorkiguk

nun-naitik. Begien aurrean dekena artzak. Inguruan darabilkikena konta zak, eta orra ipuia.

-Ez abil ain oker ere, Vargan. Ta esku artean aparteko etorririk ez duanarentzat, eztek eldu-leku txarra.

-Esango nitek! Orrela izan ezik, nolatan ager nindekek aurtengo leiaketara?... Ori, zerbait tartean dedala, gaiñera. Oraintxe, ain zuzen ere, izan berri diat emente Moris Ertzain-Burua.

-Onuntza natorrela, ibai-aldeko auzoruntz antxintxika zijoakan; ta oso xelebrea iruditu zaidak.

-Enauk bat ere arritzen. Esan didanez, poliz-arazo batekin burua berotua omen zeramak-eta.

-Itz-erdika itzegiten zian... Poz geixo zeramanak, ala ere... Kontu orrek, auts aundiak arrotuko omen dizkik, eta badakik, oientzako nolako aldea dan kanpaia goitik jotzea.

-Noren susmoa ote ditek, Borrás?

-Aren erdizkako esan eta itz illunekin, ez dek errez jakiten.

-Ipui-utsa ori ere; ipui utsa! Beren buruari aize emateko ta mailla batzuek gorago igotzeko gogo galanta oiek.

-Ipuiak aitatzen ditukan ezkerro, arira zetorrek ari entzuna. Eriotz ortan izkututzen dan iltzaillea, orixe

omen dek; bere burua oso argitzat duan ipui-zale bat. Baiña arek dionez, Interpolen atzaparretan erortzeko ari-arian omen zebillek oraintxe.

-Ipui-zale bat, beraz, e?... Neroni izan nauk, ba, Morisekin ipuiak aitatu ditudana.

-Ze ipui, ostera?

-Euskal-Asteko leiaketarako sortu bear ditudan ipuiak, Borrás. Ta egia esateko, nere buru au elkor samar arkitzen diat gai polit bat sortzeko.

-Bai, baiña arek aitatu didan ipui-zalea, beste ipui-mota baten ondoren zebillek, iñolaz ere.

-Ala bada, lenbailen garbitu dedilla kontu ori. Ia nere ipuirako gai ohea ematen didan.

-Sariren bat jasotzen badek, an izango nauk txalotzeko. Ori, bustitzekoa izango uke, baiña ez Urumeako ur usteletan, Donosti Zarreko txuloren batean bai-zik.

## **1963-go Uztak 20**

-Egun on, Vargan jauna. Min det berriro zure lanburutsu ori galaztera etorri bearra.

-Gizona! Zu beti orren egoki ordurako, Ertzain-Buru jauna.

-Ain ordurako ere, Vargan jauna, ain ordurako.

-Ta nere etxean zu artzeko poz bizi au, nori zor diot, jakin al baditeke?

-Iñori ere ez, Vargan jauna. Kontutxo bat nere eskuetan jarri didate ta garbitasun txiki bat eskatu nai nizuke. Ortarako, zu baiño egokiagorik ezpaidet. Emen nazu, beraz, berriro zure aurrean.

-Buruz eta jator jokatu dezu, Moris jauna. Ta nere garbitasun zai zauden ezkerro, emen nazu borondate osoz zure esanetara.

-Eskerrik asko, Vargan jauna. Ta orain garrantzi gabeko galderatxo bat. Zenbat urte daramazkizu iri onetan?

-Zortzi bat gutxi gora-bera.

-Ta aurrez, nun bizi izan ziñan?

-Londresen... Parisen...

-Ta Ameriketean, noski?

-Ala da. Ameriketean ere bai.

-Panaman?

-Baita.

-1925-garen urte inguruan, oker ezpanago?

-1923-garrenean, Moris jauna. Bi urteren okerra zenduan.

-Ara berriz! Urte ori ez da nere kontuetan ain zuzen ere etortzen.

-Ze kontutan, gero, atrebentzia ezpada?

-Itxoizu pixka bat, Vargan jauna. Oraindik pikoak eltzeke baitaude. Azkenengo xeeteasun batzuek besterik ez degu bear ari guziak lotzeko. Gaurkoz, aski degu; ta zure ipui ori atzeratu badizut, barka zaidadu, arren.

-Zure agerpenen irrikatan naukazu. Ai, oiek nere ipuiari gatza txertatzeko aukerakoak balira.

-Berealakoan naiz emen. Agur, Vargan jauna.

## **1963- Daguénillak 4**

Gauzak gainbera dijoaz nere bidean. Oraintxe sartu berri naute iriko polizi-kartzelan. Arnasarik artzeko betarik gabe gertatu da guzia. Moris Ertzain-Buruak azkenengo aldiz ikustatu niñuanetik, nere bizi-tzak eta ipuiak mailla goiena artu dute.

Gaur goizean, nere lan-gelan sartu daneko, besterik gabe, itz auek ixuri dizkit nere musura:

-Ibarguen jauna, legearen izenean, lotua gelditzen zera une ontan bertan.

-Ai, Moris jauna! Au, gaztaiñak danboliñean tiroka astea bexelaxe da. Baiña lenbizi nori izketan ari zitzazkion jakin bearko degu. Ikusi eziñeko iratxoren bati ari ez bazatzaizkio, gure itzak ez dute zentzurik.

-Etzaitez alperrik entzungor egin. Ertzaingoan (komisarian, alegia), poliki asko esango dizue, zein dan Erroman Ibarguen Alfayate; zein zan lentxeago David Moarales, ta lenago Fernand Duval.

-Oi! Au, nere ames guziak baio liluragarriagoa det! Goazen, goazen.

\* \* \*

Ta emen naukazue giltzapetua ta galderaz josia ta itoa. Nere bizkar, bi eriotz, lau lapurreta, bi etxe-bizitza ate ausi ta gezur-bidez bein dirua kentzeko alegiñak, ditut.

Ta okerrena, nere ipuia bukatzeko epea, lau egun barru betetzen zaidala. Onen gai aukerakoa eskuetan dedala, ezingo det nere lan ori burutu. Makurra, gero, nere zoria.



## 1963-go Daguenuillak 6

Gaur galderaz lertu naute. Bata bestearen ondoren, ertzain talde bat, etengabe nere gaiñean euki det, galdetu ta galdetu... Izenpetzeko egin ditudan txarkeri guziak. Goiz eta arratsalde, ez didate pakerik eman. Eskeintzak, zemaik, gozo ta garratz, azpijorran eta itzetik eldu nairikan, an ari izan zaizkit nere aldartea ta giroa ondatzeko asmotan.

Orain arte, aien eraso guziak gaindu al izan ditut; eta aiek erantsi dizkidaten okerrak, auts eta uts galditu dira. Emen, barruko giroari eustea da onena, ta kemenik galdu ezik, sortzen diran egoera ta esanak, geroago ta biziago jartzen dute xaltxa.

Azkenenerako, nere burua egundoko txarkeripean nastua ta baitua iksutea iritxi det. Ezta jai makala! Nere lanak eta gaizkiñak, bikain izkutatuak omen ditut eta Interpol osoa ondoren dabilkit erbi-txakurrak bai liran, usaika.

Arnasa artzen uzten didatenean, gertari guzien ari ta goraberak lotzen saiatzen naiz. Epea bukatu baiñon len askatzen banaute, nere ipuirako oso egoki etorriko bai-tira. Bi egun auetan, iñorekin itzik egiteke nau-

kate, baiña nere gibel ederrari eskerrak, patxara ta giro ederrean iraun det orain arte. Bakardade onetan, orduak egun biurtzen dira, ta egunak aste oso. Itzalak uxatzeko, kanta edo olerkiren bat esan bearrean arkitzen naiz. Gau t'egun, argi illun baten azpian zaudela, garaia nola urtu, asma bearra dezu.

Eskerrak, Moris Ertzain-Burua tarteka emen azaldu zaidanari! Aren asmoa, nere adorea galtzekoa zan; baiña gezurrak irten dio!... Gaizkilleen azpikeriak argitaratzen zaildua dago, baiña nerekin ez du lanik izan. Azkenerako, ni kezkapecan larritu nairik, biar Auzitegian nere txarkeriak aitortu bearko ditudala, esan dit.

## **1963-go Dagueenillak 7**

Biar, ipuiak bukatu ta agertzeko azkenengo eguna! Au ikusia dago. Aurtengo leiaketa ontara ezin-go naiz azaldu. Auzitegi aurrean, zin-egiñak, juraduak, noski, errudun aitortu naute. Ustegabeko egi-itxuradun koxka batzuek bide dirala, nere burua gaizkilleztat joa izan da.

Auzi luze aspergarri baten ondoren, nere begiak itxi zaizkit, eta artu nau loak. Nere lozorroan, berritu

zait auzia. Zer da au?... Nere oker guziak iatatuaz, eriotz, lapurreta, etxe-ate urratuak eta eztakit nik zenbat makurkeri geiago arpegira botatzen dizkit epaika-riak. Orrenbeste txarkeriren jabe egiten nautela, urka-mendirako epaiaz bukatzen du bere jarduna. Bi egun barru, nereak egin du. Biar gabeen sartuko naute «kapillan»; urrengo egunsentian, nere biziak jai du. Au da egoera lilluragarria! Juezen uste oker bategatik, bizia galtzekotan nago. Gertakizun bitxiagorik.

Orain, aldatu zait amesa. Beste epaikari batzuek, ipuien sariketa egiteko batuak ikusten ditut. Arnasa geldituaz, itz auek entzuten ditut:

-«Lenengo saria, "*Ta orain, ipuiei eskerrak... bizi gaitezen!*", izenburu duan lanari ematen diogu...».

Lenengo saria irabazi det!... Egundoko parre-algaratan lertzen naiz. Urkatua il-bezperan, amar milla pezeta oiek emango didaten laguntza, ezta makala izango.

Aurrean det Urkamendia! Borreroa an dabil, bur-  
nia nere lepoan sartu nairik. Ontan... egundoko giltza  
ta zerralla zaratak esnatzen nau nere larrian. Moris,  
Ertzain-Burua det atean:

-Zorion, Vargan jauna, zorion! Ustegabeko gertaera batek, urkamenditik salbatu zaitu. Ari batean egon da guzia.

-Ai!... Ortan, ez al nazue urkatu bear?

-Iñola ere! Oraintxe arrapatu dute Pensilvaniako lurraldean gaizkille bat. Alakotxe zure antza du. Bizkiak zeratela, esan diteke. Ona eman gizon orren argazkia. Ez al du zure arpegi ber-bera?

-Ain ber-bera ere!... Ori ikusita, zure ibillera ta epaikarien joakera, garbi azaltzen zait. Baiña, au da lana! Orain, ez al naute il bear?

-Tira, tira! Utzi itzazu alde batera ziriketa beltz oiek. Ezpaitegu denbora arpa-jotzen galtzeko astirik. Ateak zabalik dituzu, Vargan jauna, ta etxera itzuli zaitzke nai dezunean.

\* \* \*

Bat-batetan, egundoko ukabilkada ematen diot maiari:

-Baiña, gaur ez al da, ipuiak agertzeko azkenengo eguna?

Jaiki ta banoa tximistan etxera... Nere papalak berrikusten ditut. Aldaketak aldapan bera idatzi ta

arratsaldeko azken-orduetan, or noa aizeak eramanda bezela, ipuiak erakutsi bear diran lekura.

Nere paperak eskuetan ditudala, lan-gela isteko ordua jotzen du ormako ordulariak.

-Tori!... ta «Orain» saria jaso dezadala, ta «*Ipuier eskerrak... bizi gaitezen!*».

# ATEA NOLAKO, ZERRAILLA ALAKO

Ai, lengo jai zar aien usai betea! Gerora «jaiardi» biurtu ziranak! eta gaur, kalekumeontzat «astegun buruzuri» geldituak! Basarri-auzoetan bakarrik gorde dute antxiñako egun aien lurriña; ta orregatik, lagun zarrok oso gogoko izan degu egun oietan, noizean bein, erri txiiren batean alkartzea.

Mai baten inguruan giñan zortzi bat adiskide; denok, gizakume (ori esan bearrik ez), eta denok tipula baiño benagoak eta Aita Santua baiño katolikoagoak. Baiña, ala ere, euskaldun jator geran aldetik, alako azpijorrrarako aidez zirikatatuak. Maiko lagunon artean, bazan mutil zarren bat, eta ikusia zegoen giro artan zer sortu zitekean.

Jatordu asieran etzan neurririk galdu, baiña bazkaria aurreratzen ari zala, poliki-poliki gizon aien «por-malidadea» berdoxkatzen asi zan. Pixka bat birbiztu ziraneko, makutsik et jan-edanetik ondotxo, ekin zioten alkarri zirika, geroago ta nabarmenago.

Geienak ezkonduak eta seme-alaba azidun gurasoak ziranez, mutil zarrari erasotzen zioten, arpegian «arpa-jotzeko» irri-parre gaiztoa, agiri zutela.

Egaztia azkenetan zan orduko, ta Pelix neurririk ederrenean arkitzen zan «ziri-jaia» asteko. Alako batean, aurrean zeukan mutil zarrari bota zion botatzekoa:

-Emen gure artean, guziok geron uztarria jasoak gaituk. Adan eta Ebari Jainkoak agindua bete diagu. Seme-alabak azi ta erantzutekog audek: «Jauna! Zure esanetara zintzo jokatu degu: azi ta ugaldtu gera gure ondorengoetan». Baiña gure artean, uztar-bei izaterik nai izan ez duan bat badiagu, ta orrek zer erantzun bear dio Jaunari, Aren aurrera ager dediñean?

-Egoki esana, Pelix! Jainkoak garbi asko eman ziguk gizaemakumeoi geron uztarria jasotzeko agindua. Baiña batzuek, entzungor egiñaz, ezkontza egunik etzigutek eskeiñi nai izan. Sakela ez ustutzeagatik-edo, or zeudek legortea baiño elkorrago porru-landare bat bera ere beren bizitzan emateke. Zer diok, Tomax? Ez al dek inguruan aldarera eramateko neskar tajuzkorik?

-Mutillok, ixillik egotea obe izango dezue. Zuen ezkontza-lan orri ez aize geiegi eman. Aspaldi igarrita

bai-natxegok, ezkontza arazo ori, Jainkoak giza-ema-kumeen bizkar parre egiteko asmatua dala-ta.

-Etzak astakeririk esan, Tomas. Zenbait emakume alboan igarotzen zaikanean, begiak nola zorrozten ditukan ezpageneki bezela... Ik beste zerbait izango dek izkutu.

Nik izkutukoak, Andrex? Zuek bai, gizajuok! Beti parregure aundia eman izan zidatek, zuek seme-ala-bak mundura ekartzeko artu bear izaten dituzuten izkutuko lanak. Orrenbeste bertso ta goraipamen maitasunari azkenean xelebrequeri ortan bukatzeko? Alde egizue aurretik, mutillok.

-I ere *Igela*-renak esaten asi al aiz, Tomax? Eztiagu besterik bear oraintxe, onenbeste guraso zintzoen aurrean.

-Ez asi emen praille aiderik artzen, Andrex. Paris-ko *Igela* asi zutenak, euskal-umorea gorde izan balute, askoz arrera ohea izango zitekan. Euskaldunok etziegu bildurrik gordinkeriei, baiña zikin-aldetik jo bearrean, gai orrek duan alderdi parregarriari begira oi zioagu, ta orrela ezтик gaitzik, batez ere lagunarte batean aztartzten danean.

-Ta zer dek ik, mutil zar antzu orrek, parregarririk, euskaldun guraso kristauoi arpegira botatzeko?



-Zera... Ez al zaizue beiñere burutikpasa, seme-alabak beste nolabait ekarri bear genituzkela? Esate baterako, elkarri bertso bana botata-edo izan balitz...

-A, kaiku zarra! Ta bertsolari etziranak, zer egin bear zitekan ondorengoak ekartzeko?

-Uztapideri-edo bertso bana eskatu ta elkarri bota gero.

-Iñoso alena! Ire amari ez al diok legerik, ala?

-Nere amak, nai ta nai ez, Jainkoak ipiñi zion legea bete bearra izan zikan. Baiña jainkoak lege ori jarri zuanean, gure kontura parre egin nai izan zuala, ez didazue ukatuko.

-Ba, ba!... Naikoa diagu ortik! Ezurrak gogortu ta oiñak baldartzen zaizkikanean, emakume-eske nolako intziriak egingo ditukan ikusten natxegok, ire gaixo aldian lagun dakikan.

-Alperrik ari zerate! Nik bide oiek aldatzen ez diran bitartean, ez diat emakumerik bear alboan. Ta kontu au erabakitzeke, begira apaizak zer egiten duten, begira ongi: besteok ezkontarazi ta berak mutilzar gelditu. Arrapaitzak oiek!

Giroa loditzen ari zan lagunartean eta euskal pozgiroak, jatorduko ondorena ta kea lagun dituanean, ustegabeko xelegekeriak sortu oi ditu. Egun artan

ere, maikide guziak, leiaketa bat asmatu zuten; gizon serio aiengandik inork espero ezin zezakean leiaketa.

Bakoitzak ipui gordiñen bat kontatu bear zuan. Ori bai; kontu gordiña izan arren, txukun kontatua bear zukean, eta etzuan lizunkeri asmorik arrotu bear. Kontu gordiñena ta paregarriena asmatzen zuanak, irabazia zukean joko. Etziran makalak atera jolas artan gure gizon santuok. Guzien ipuiak entzun ondoren, Andrexek kontatutako ipui au jo zan bikaiñena bezela, maikideen iritziz eta erabakiz:

-Adiskideok! Batenak eta bestearnak entzun ondoren, ez nauk asteko gauza ere. Entzutekoak jalki dituzue, alajaiña! ta zuen mailla ontzeko egiñalak egin bearrean nauk. Orra, ba:

Ba omen-ituan nunbaiten, senar-emazte batzuek, «atea nolako, zerraila alako» ziranak. Ipuiak eztik adierazten nun da nola etorri ziran munduontara; baiña susmo txar batek zionez, aiek ere, beste guziok bezela etorriak, nunbait. Zera, gurasoen alegiñez, gure mutilzarrak guziori nabarmendu digun bidez.

Askoz gutxiago zioke ipuiak, nola elkartu ziran zorioneko andre-gizonok. Otsa danez, ezkongaietan, elkar galtzeko bildurrez, maiz besotik eta lepotik ongi elduta ibilli oi omen ituan bidetan eta illunpetan...

Aien maite-miña!... Egunik ezin pasa elkar ikusteke. Ta elkar ikusi ezkerro, ezin eten elkarrengandik. Bi usapal elkarri urrumaka bezelaxe, gizonok.

Ala kontuak, egun gogoangarri batean, «ez si ta ez no», aldara aurrera igo zitekan biak eta apaizak, oi duan tenorean, bedeinkatu omen zizkian, gure Eliz Amak agintzen digun molde ta gisan.

-Patixi! Emen aldamenean dezun Xegundo au, senartzat nai al dezu?

-Bai, jauna.

-Xegundo! Emen alboan dezun Patixi au, emazteztzat nai al dezu?

-Bai, jauna.

«Bai» auek, batez ere Patixirena, oso ixillik emanak izan omen ziran, eta orregatik, baziran ezkontza ura legezkoa ez ote zan bildurrez bizi ziranak. Baiña guk eztegu iñungo zalantzarik ortan. Patixi ta Xegundok jator jaso zuten eliz-gizonaren bedeinkazioa, ta onek sendotu zuanbien eriotzaraiñoko katea. Arrazkerro, Patixi Xegundorena zan eta batez ere, Xegundo Patixirena oso-osorik.

Patixi Xegundorena ote zan orretan, ez datoz denak batera. Xegundo Patixirena zan ala ez... ontan bai, idazle denak batera datoz. Ezkondu ziranetik

Patxirik bere mende gorrian artu zituan Xegundo ta Xegundoren ondasun eta alderdi denak. Etxe artan ikusia zegoen zeñnek zituan giltzak... giltzak eta galtzak! Amaika aldiz entzun bear izan zuan gizon arek:

-«Xegundo»! Nun da «Primera»?

Besterik gabe, adierazia zegoen etxe artako burubidea.

-Gizona! -esan oi zioten sarri-. Nori bururatzen zaio, ba, Xegundo izena artzerik? Patxirik zure izena entzunda, zer egingo zuan, bistan zegoen, ba. Zera... bera etxean «aurrena» jarri.

Alakotxe une txarrak pasa-arazten zizkioten auzokoak gure gizonari.

Orrez gaiñera, arritzekoa gerta zitzaien gure senar-emazteoi. Apaizak elkarrenganako baimena eman zien ordutik, lengo elkar galtzeko bildur ura txoritara joan zan.

Gizona! Len, egunbat elkar ikusteke ezin pasa; ta orain, egun oso bat ezin pasa elkarrekin. Jakiña! Len etzuten elkarrekin etxe batean bizitzerik, eta arratsean bakarrik elkar urrumakatu zezaketen; baiña orain, egun osoa elkarri begiratzeko zutela, esan bear zituzten legunkeri guziak agortu zitzaizkien, eta orratx!... Konturik ez bata besteari esateko. Jauna!

Beste arritzeko kontu bat ere gertatu zitzairen. Ezkondu arte, dena pekatu bai zan, izkutuka ibiltze arek, neurriak galdu ezta ere, bazuan bere xaltxa. Baiña orain, apaizak baimena eman zientetik, kontu arek bere gatz guztia galdu zuan bientzako. Egia esateko, aurrengo egunak etziran aztutzekoak, baiña egin bear guziak buruz ikasi zituzten ezkerok, jolas arek etzuan iñorentzako bixigarririk. Orregatik, iñoiz itxurak egiteko, elkarrekin ibiltzera ateratzen baziran, bein ere etziran len bezela elkarri itsatsia joaten. Bein, gazte lotsagabe batzuek bien artean zeramaten tartea neurtu zuten, eta beti, gutxienez, bata besteagandik pare bat metrora alderaturik ibiltzen ziran bidean. Xegundok, orrez gain, este negargarrikeri bat zuan etxean: bere izenak ekarri zion zoritxarra, alegia. Beti bere etxean «bigarren» izan bear ura, ta Patrixi, berriz, «aurrelari».

Xegundo ta Primera, beraz, lenbizi epeltzen eta gero ozten joan ziran, elkarren artu-emanetan. Primerak Xegundoren jabe osoa izate iritxi zuanetik, zer geiago bear zuan? Eta Xegundo, Primeraren atzaparretan erori zanetik, nola poztu zitekean?

Azkenetako, ozten-ozten ari zirala, elkarrenganako «frigorifika» izateraiño iritxi ziran, edo nere lagun

batek obeto esaten zuan bezela esateko: elkarrengana «jeroglifiko» egiñak gelditu zitzaizkigun.

Ai!... Baiña orduantxe zabaldu zan mundu berri bat Xegundorentzat. Lenbizi, «Primera»ri iges egitearren, lagun en aitzakiak asmatzen asi zan gure senar martiria. Asieran, lagun oiek, galtzadunak oi ziran, baiña konturatu gabe, gonadun lagunak inguratzen asi zitzaikion.

Ordurarte, bere Patrixi beste gonadunik zanik ere, etzitzaion bururatu; baiña mundu ontako gauza guzien alda-bearra! Urteak aurrera ta Patrixi gizenago ta beste emakume batzuek liraiñago agertzen ziran inguruan.

Bereala, erri txikietan oi dana, ta aundietan palta ez dana: maixiaketak eta miztorren lanak Xegundoren bizitzan nasten asi ziran. Gu, ordea, ez gera mingainliztor oietakoak, ta senar gizajoari eztiogu narrurik urratu nai. Gure iritzian, len bezin garbi irauten du Xegundoren izenak. Patrixirentzat ere, etzan bere Xegundo aiñakorik. Aisa menderatzen bai zuan esku-ra zeukanean, eta emakume batentzat ba al da menderatutako senarra baiño jostailu bitxiagorik? Patrixik, beraz, etzuan bere Xegundo saltzeko asmorik.

Ala ere, baziran emaztearen gonapekotan sartzen ziran ziraun-mihiak ere. Auek ziotenez, Xegundo aiñakorik etzuan beretzat Patrixik; baiña beragoko mailan, noizean bein, besteren bat ba ote zuan zurrumurrua bazebillen mingain luze batzuen artean.

Guk ezer eztakigu ta ixillik egotea izango degu onen. Ta guk baiño askoz gutxiago daki Ximonek. Onenbeste berriketekin, ez dizuet esan Ximon nor da ere. Barkatu, ba, baiña Ximon, Patrixik ta Xegundok elkarri bertso bana botata sortutako seme-txortena besterik ez da. Ta etxe artan, ama «Primera» ta aita «Xegundo» ziran ezkerre, erriak Ximoni «Tertzero» gaitzizena jarri zion. Orra, ba, nola osatuta gelditu zan etxe artako irutasuna.

Ximonentzat, gurasoak ziran mundu guzia. Etxe artan ezer okerrik gertatzen zanik norbaitek esan balio, lepoa jarriko zukean zetzaren alde. Aita zan jainko txiki, ta ama jainko aundi; ta ala bete zituan bere emezortzi urteak.

Eta urteekin batera, gaztetako elgorria eldu zitzaion. Elgorri ura, Lasueneko Txaro gerta zan. Andik aurrera, gurasoez gain, nexka mela ura asi zan Ximonen biotzean aurreneko alxia artzen, eta andregaiari erriak «Cuarta» gaitzizena ezarri zion besterik gabe.

Xegundok bere semearen berririk jasotzeko etzuan iñungo kontakatillurik, eta ala, mundua bizkar gaiñera erori zitzaion egun batean, bere semeak uste gitxiena zuan berria eman zionean. Ximonek, soldaduzka urteak urreratu zitzaizkionean, aitari, -ziplo!- esan zion:

-Aita, ara ba... zera... Lasueneko Txaro det nere biotzaren jabe, ta... Xegundori arnasa gelditu zitzaion bat-batean. Alegiñak egin zituan mutillari beronen elgorria sendatzen:

-Txaro esan al dek?... Jainkoak aparta! Nexka ori etzaik iñola ere komeni... Ire aitak bazekik ezkontza berri ta iretzako askoz aukera ohea arkitu eziñik eztiagu.

Baiña mutillak etzuan bere puxka ura biotzetik botatzeko gogorik, eta aitak, etsi zuanean, bere txistua iru aldiz irentsi, eztarria lau-bost bat eztul eta karrazpioz garbitu ta bere indar guziak bilduta, esan zion semeari:

-Ximon, gauzak okerrago jarri baiño lenago, gauza bat esan bear diat. Gizon egiña aiz, ta gaur jakin-arazi bearrean nauk iri, nere bizitzako ixilleko bat. Gizonen artean maiz gertatu oi dana dek, baiña oraingoan min



diat ortik iri datorkikan ezbearra ta naigabea. Ara, ba... Txaro orrekin ezin inteke iñola ere ezkondu.

-Zergatik ez, aita?

-Nere alaba ixillekoa ta ire arreba dalako.

Orduan, Ximoni erori zitzaion mundua bizkar gaiñera. Bere aita zuan jainko txiki arek, alako irristada bere bizitzan? Biotz erdibi, eten zuan, ba, bere lagunarte ura ta «Cuarta» negarrez utzi ta «Quinto» joan zan soldaduzkara. Eskerrak alde egite ari! Elgorria poliki-poliki sendatu zitzaion, eta oi dana, beste nexkaren bati bertsoak egiten asi zan soldaduzkatik itzuli bezin laister.

Eta berriro iritxi zitzaion adixkide berriaren kontua aitari adierazteko eguna:

-Aita... orrela ta orrela... Intzaneko Malenekin asia naiz, ba, ta oraingoan ez det uste okerrik izango degunik.

Xegundori berriro mundua gaiñera zetorkiola irudititu zitzaion, eta eskuak burura eramane zitan, esanaz:

-Motel! Motel! Ezta apropos billa ibilli baintza ere!...

-Au ere ba al degu?... Jesus, ba...

Ximonen gaiñera erori zan laño beltza...

-Noren semea naiz ni, gero? edo obeto esateko: nolako aita det nere sortzaille?

Artan, bere biotzeko takatekoak baretu xamartu ziranean, erabaki zorrotz bat artu zuan:

-Ez det andragairik nai.

Gizajoa! Etzekian asko bere biotzaren berri! Urtea igaro baiño len, kontu bitxi bat gertatu zitzaion gazteari. Ikusten al dezue or datorren ille-arro ori?... Bai, orixe! Ugarteneko Pili, ain zuzen ere... Ba, nexka aretxek izan erriko gerririk estuena ta xumeena! Besterik gabe, esana dago, bere irugarren «koxka» agirian jar tzera joan bearra izan zuala aitarengana; etzion lan ederra eman aitari bere irugarren aingeru arekin!

-Baiña, seme! Nere alaba guziei usaia artzen asia al aiz?

Mutilla bero-bero eginda, amarengana joan zan. Patrixik irri-parre arekin artu zuan semea:

-Zer dek, mutill, kopeta orrekin? Trumoia jo al dik?

-Trumoia esaten al ezu? Ta ez txikia ere! Bada, gero, au.

-Zer da au ta zer ez da au?

-Zer izango da, ba? Gure aita orrek ez duala lotsarik eta bearrik ere! Orrela ta orrela joan natzaio ta bein da berriz eta irugarrenez, kanta bera jo ez dit, ba.

-Orrek estutze al au?... Ago pakean eta exeri adi patxaran. Ik zer uste dek? Aita orrela ibilli danean, ni lotan egon naizela, ala?... Ik nolako aita daukekan jakingo dek; baiña nolako ama dekan, ezta urrik eman ere! Ai, Ximon, Ximon! ezkondu nintzanetik, ni izan nauk emen azkenengo itza esan duana, ta ire aitaren erromeri oietan ere, nere neurriak artua nauk. Iri gertatzen zaikana, aspaldi ikusten nian etortzen eta bada-ezpada ere, erantzuna gertu neukakean.

-Baiña ama, zer esan bear diot orain Piliri?

-Etzak orren kezkarik izan, mutill!... Begira...

Eta Patrixik begiak txirtiriki ipiñiaz, kiñu gaiztoz botatzen dio semeari:

-Pili aitaren alaba izango dek. Ta zer? Izan dedilla nai badu. Baiña i, Ximon... -eta ori ire amak ongi zekik zer esaten duan- i... ez aiz berarena!!

Xiplo!!!

# IRRATSAIO TXANGOAK

*Euskeraz nola esan «Guiones radiofónicos»?... «Irrati-ariak» edo beste onelako zerbait esan ditzake. 1960-garren urtean Donostiako Albiste ta Turismo Eralguntzak euskal-irratsaio leiaketa sortu zuen.*

*Aurreneko jarri dizkizudan Irrati-Ariak, urte artan lenengo saria irabazi zuten. Berrito urrengo urtean, 1961-garrenean, beste leiaketa bat zabaldu zuten. Urte ontan lenengo saria irabazitakoak dira azkenengo lekuan jarri ditudan Irratirako Ipui Antolatuak.*

*Nere asmoa auetan, euskerari sakristai eta konbentu-usaia kentzekoa izan zan. Gazte-gaiak batez ere, sortu nai nituan nere lanetan. Prasadun eta gonadunak, naikoa sermoi egiñak ditugu euskeraz. Ortik beti ugari izan du gure izkuntzak. Euskerakale-jabe egin nai badegu, gaztediari atsegin zaizkion gaiak arrotu bearko ditugu euskal lanetan.*

# TXANTXANGORRIA

*(Musika-laguntzarako, jo bezate «Jan Juan Anteportaletaña»).*

**IZTUNA:** *(Emakumea).*- Ipuietara jo nai degu gaurko onetan.

**IZTUNA:** *(Gizakumea).*- Eta asteko, entzun ezazue...

**IZTUNA:** *(Emakumea).*- Txantxangorria!

**GIZAKUMEA:** Ipui unkiagarria! Bitarte ontan musika ixilpean ariko da.

**EMAKUMEA:** Selma Lagerlofek moldatutako ipuia.

**GIZAKUMEA:** Ta gaur guk irratirako antolatua. Indartu bedi doiñua, esaleak arnasa ar dezan.

**EMAKUMEA:** Bijoia gure aide-orratzetan...

**GIZAKUMEA:** Txantxangorria!

**EMAKUMEA:** Txantxangorria!

**GIZAKUMEA:** Jainkoak gure lur ontako abereak egin zituanean, bakoitzari bere koloreak, bere margoak eman omen zizkion:

**JAINKOAK:** Atoz, arrosa eder ori. Gorri-gorria izango era. Atoz, lili. Txuri-txuri izan zaitez.

**EMAKUMEA:** Eta orrelaxe gauza guziak. Ontan ari zala:

**JAINKOAK:** Ene! koloreak aitu zaizkit. Eta oraintxe nengoen pentsatzen, txoritxo berritxu bat nola sortu.

**GIZAKUMEA:** Eta txoritxoa Jainkoaren eskuetatik bereala atera zan:

**JAINKOAK:** Txoritxo maite ori! Zuk Txantxangorria izango dezu izena. Soiñua bizi-bizi. Gero txoritxioak.

**EMAKUMEA:** Txantxangorria txoro-txioka joan zan aidea egoez urratzen; eta iturri ta errekatan begiratzerakoan, bere burua batera kolorerik gabea, zearo nabarra, grisa, zala konturatu zan. Biurtzen da, ba, triste Jaunagana: Txorro txio batzuek entzun bitez.

**TXANTXANGORRIAK:** Jauna, nola egin nazu kolorerik gabea? Nere lepapean lumatxo gorri batzuek nai nituzke.

**JAINKOAK:** Txoritxo maite ori! Lumatxo gorri oiek, zerorrek irabazi bear dituzu. Soiñua oso minbera bedi.

**GIZAKUMEA:** Joan zan txoria Jaunaren albotik, itun eta goibel:

Nola irabaz ote nezake nere lumatxoak gorrixkatzea? Emendik aurrera ezte pakerik izango, nere amesa bete arte.

**EMAKUMEA:** Eta ala... urteak eta gizaldiak joan zitzaizkion txori gaixoari, lumatxo aien egarriz beti goibel eta kezka. Txorro txio itunak. Soiñua ere goibel.

Urte askoren buruan, Jerusalem iritxi zan Txan txangorria, ta bere kabitxoa egiñaz, an zegoen umeak azten. Txorikumeak amari galde egiten zioten:

Amatxo, zergatik egin gaitu Jainkoak onen nabar eta kolore gabeak?

Ai, nere umetxoak. Neronek ere, orixe det nere kezka ta naigaberik aundiena. Jainkoak esan zidan, neronek irabazi bear nuela nere lepapeko lumak gorrixkatzea.

Ta nola irabaziko dezu, ama?

Orixo eztaikit, umeok. Txorro txio ta soiñu zirrarakorra.

**GIZAKUMEA:** Baiña... ze jendetza dator aldapan gora, istilu ta ardailla? Ene! soldadu gogor batzuek, iru gizakume dakarzkite gurutzetan jostera. Ta or dator Jesus, lapurren erdian, lapurrik

aundiena bezela. Txoritxo errukiz betea dago Jesusi begira. Gerotxoago iltze zorrotzez eskuoiñak josita jaso dute Gurutzean Jauna. Soiñu zaratatsua ta nastua.

Ai! ta eskuoiñak zulatzea naikoa eztutela, Jesusi burua arantzez koroatu diote. Txantxangorriaren zotiñak! Zer egingo ote du?

**EMAKUMEA:** An dabil Jaunaren inguruan, urbiltzeko bildurrez. Alako batean Jesusi alboratu zaio, ta bere buruko koiro mingarri artatik, arantza bat mokoaz ateratzen dio. Arantza txulotik, odol jarioa sortu zan, eta txantxangorriari paparazpiko lumak gorritu zitzaizkion odolez. Soiñu pozkarria.

Jesusek Gurutzetik itzegin zion txoriari:

Txoritxo maite, gaurtik aurrera zure lepapeko lumatxoak gorri-gorriak izango dira. Soiñua biziagotzen.

**GIZAKUMEA:** Kabira itzuli zanean, umeak poz-txioka artu zuten:

Ama, ama! Bai gorri politak dituzula zure lepaazpiko lumak.



Ai, umetxuok! Nere gorritasun au bereala galduko da, iturri ta errekatako uretan bustitzen naizeanean. Soiñua zalantzakoa.

**GIZAKUMEA:** Baiña txantxangorria iturri ta errekatan busti arren, bere luma aiek gorri bizi iraun zioten. Eta arrazkero, txantxangorriaren umeak azten diranean, denak an dituzte lumatxo gorri politak.

**EMAKUMEA:** Orra nola gorritu zitzaizkion txantxangorriari bere lepapeko lumatxo txikiak. Berriro «SAN JUAN ANTEPORTALETAÑA» entzun bedi.

**EMAKUMEA:** Bukatu da ipuia... (*Txio-txio bizia entzun bedi..*).

**GIZAKUMEA:** Txantxangorria!

**EMAKUMEA:** Lepa-gorria!

**GIZAKUMEA:** Aidea urratzen ikusten dezuena.

**EMAKUMEA:** Jaunari buruko arantza atera ziona.

**GIZAKUMEA:** Ta arrazkero lepape gorrixka agertzen duana.

**EMAKUMEA:** Ta ipuiarekin, bukatu da gure irrati-txangoa. Soiñua gora ta bera.

**GIZAKUMEA:** Urrenarte, agur irrati-entzuleok.

**EMAKUMEA:** Gabon, adiskideok.

**GIZAKUMEA:** Loak artzen nau.

**EMAKUMEA:** Zaudete pakean.

# GAZTE AIZEAK I

## MATILDE TA ZEZILI

**ASIERA:** *(Eresia: Gaztetasunak bai nerabila...)*

**EMAKUMEAK:** Ta orain...

**GIZAKUMEAK:** Urratu beza aidea, gure saio berriak;  
*(Eresia gora ta bera...)*

**EMAKUMEAK:** Or dijoakizue... GAZTE AIZEAK!

**GIZAKUMEAK:** Gazte-aizeak!

**EMAKUMEAK:** Neska-mutillak bere sasoian!

**GIZAKUMEAK:** Elgorria dutela biotzean!

**EMAKUMEAK:** Ta gaurko saio ontan, entzun: MATILDE  
TA ZEZILI!

**GIZAKUMEAK:** Matilde ta Zezili! *(Eresia gora ta bera...)*

**KONTATZAILLEAK:** Lengoan, bizi-bizi ari ziran elkarrekin Matilde ta Zezili; bi Mari-Puntta modamodakoak: *(Eresia gora ta bera...)*

**MATILDE:** Ago ixilik, Zezili. Ori ezten legea. Ori gizon petralen batzuek beren alde asmatutako txatxukeria den.

**ZEZILI:** Baiña, Matilde; nola joango gaitun, ba, oitura orren kontra?

**MATILDE:** Ederra kontua! Mutil bati neskaxa bat gustatzen ba-zaio, joan da -zapla!- arpegira botatzen zion bere barruko gogoaa... Ta neskaxa bati mutil bat gustatzen ba-zaio, ezin ezer adierazi. Mutil kaiku oiei burura etorri-zai egon bear guk, ezer aurreratzeke.

**ZEZILI:** Orrela den kontua, Matilde.

**MATILDE:** Ba... ezten orrela izango nerekin, Zezili.

**ZEZILI:** Ez aiz, baiña, mutillei aurea artzen asiko!

**MATILDE:** Bai! ta ez naun ixillik prijitzen egongo, Zezili.

**ZEZILI:** Ire gustoko norbait ba al-den?

**MATILDE:** Zerbait egin bearra zegon; eta amua bota gabe, ez naun geldituko.

**ZEZILI:** Neska, irekin ibiltzen ere, bildurtu egiten naun.  
(*Eresia gora ta bera...*)

**KONTATZAILLEA:** Urrengo jaian, an dijoaz neskaxa biak, zein baiño zein, erriko pasiera-lekura. An dabiltz gazteak, nexka ta mutil, elkarri begiak zorrozten. (*Eresia gora ta azpipe...*)

**MATILDE:** Ikusten al-den ura, Zezili?

**ZEZILI:** Zein?... Altzibarreneko Niko?

**MATILDE:** Ber-bera! Orixe bear diñat, itoko ezpanaiz.

**ZEZILI:** Iretzat zegon!... Aize onak dizkin mutillak.

**MATILDE:** Ba... aize ta guzti bear diñat.

**ZEZILI:** Mokau goxoegia aukeratu den, Matilde.

**MATILDE:** I mikatz-zalea al-aiz, Zezili? (*Eresia gora ta bera...*)

**KONTATZAILLEA:** Nolabait asi bear zuala, Matilde'k, eta an ezertan ez asteko, Zezili'k... Baiña ortaraketxe zegoen Matilde! Gora ta bera dabiltzala, ustegabeen mutillak, eta ondotxo neurtuta Matilde'k, mutil taldearen aurrean, bidea itxita, aurrera eziñik gelditzen dira nexka biak. Ain zuzen, Niko pare-parean du Matilde'k. Mutillak tentari:

**NIKO:** Baratze batean al-gera?

**MATILDE:** Ze baratze ta porru, gero?

**NIKO:** Onelako loreak aurrean izateko...

**MATILDE:** Etzaude zu lore txarra. Orrelakoak esaten al dizkiezu neskatxa guziei, Niko?

**NIKO:** Guziei, ez. Zu bezelako pertxentei bakarrik.

**MATILDE:** Orduan, ez nau ezerk arritzen...

**NIKO:** Zerk etzaitu ezer arritzen?

**MATILDE:** Jendeak aotan artzea.

**NIKO:** Ni?

**MATILDE:** Zu ta orrelako loreak entzun bear dizkitzun neskatzak.

**NIKO:** Zein neskatzek, Matilde?

**MATILDE:** Ez emen asi iñoso plantak egiten, Niko.

**NIKO:** Egia! Ez dakidala ezer ere.

**MATILDE:** Ederra dago, ba, jendea ixillik egoteko!

**NIKO:** Baiña, zer esan du jendeak, eta zeñi esan dio?

**MATILDE:** Onoko oni; emen nagoen oni. Beraz, ezer ikusi baiño len berriketan asten ba-dira; emen ikusten ba-gaituzte, zer ez dute esango?

**NIKO:** Zuri berriketak, eta neregatik? Nola izan da ori?

**MATILDE:** Zezili, goazen. Geiegi luzatu degu egon au.

**NIKO:** Zaude, Matilde. Ori ezin diteke erdizka utzi.

**MATILDE:** Bost ajola dizue mutilloi, nexka errukarri-  
engatik!

**NIKO:** Zuk uste baiño geiago, Matilde.

**MATILDE:** Pikuak ez dira lbeltzean etortzen, Niko.

**NIKO:** Nai al-dezu gauza bat, Matilde?

**MATILDE:** Zer?

**NIKO:** Jendeari musuan emateko, gaur arratsaldean elkarrekin ibilliko gera.

**MATILDE:** Jolas polita zuretzat, Niko; baiña ez nere-  
tzat. Neskatzok, asko galtzen degu gezurrez-  
ko jolasetan.

**NIKO:** Jendearen kontura parre egingo degu. Atozea arratsaldean Zezili'rekin eta egundoko jostaketa asiko degu elkarrekin.

**MATILDE:** Ederki eman ere!

**NIKO:** Zergatik ez? Bostetan ementxe itxoingo dizut.  
(*Eresia gora ta bera...*)

**KONTATZAILLEA:** Joan ziran, bai, neskatxak. Besterik nai al-zuan, ba, Matilde'k?... Etziran joan, baiña, bost-bostetan. Ordu laurdentxo bat mutilla zai euki ta gero, noski... (*Eresiak, jo beza «MAITIA NUN ZIRA?» biziago*). Ta jolasean asi zana, benetan bukatu zan andik sei illabetera.

\* \* \*

Elizako eztai-meza bukatu ondoren, Zezili'k txokora deitu Matilde, ta galdetu zion:

**ZEX:** Zorioneko al-aiz, Matilde?

**MATILDE:** Nola ez, Zezili?

**ZEX:** Pozten naun. Eta gauzatxo bat jakin nai niken...

**MATILDE:** Ze gauzatxo, Zezili?

**ZEX:** Niko'rekin lenbiziko aldiz itzegin genduenean, gogoratuko aiz, nola esan ionan, norbaitek berriketan jardun zuala bioi buruz.

**MATILDE:** A, bai!... Asmaketa polita!

**ZEX:** Nola asmaketa? Gezurra al-unan, ba, guzia?

**MATILDE:** Gezurra... gezurra... Amua nolabait bota bear nitxionan Niko'ri-ta...

**ZEZILI:** Eta bete-betea arrapatu unan arraia, Matilde.

**MATILDE:** Zertarako asi nintzala uste unan, ba?

**ZEZILI:** Orra bertan itxura gabeko trastea! (*Eresia bizi-bizi...*)

**KONTATZAILLEA:** Eta lagun biak parre-algara batean joan ziran, gertu zegoen ezta bazkaritan mokau goxoak jatera. (*Eresiak bete-betea jo beza «Maitia, nun zira»...*)

**BUKAERA:** (*Emakume ta Gizakumeak...*)

**EMAKUMEAK:** Eta ontan bukatu da gure saio berria... Gazte Aizeak!

**GIZAKUMEAK:** Gaurkoa: MATILDE TA ZEZILI izan da.

**EMAKUMEAK:** Urrengoan, beste GAZTE AIZEAK ekarriko ditugu.

**GIZAKUMEAK:** Urrenarte, ba... Bizi amesak, eta jan azak!



# GAZTE AIZEAK II

## GORROTO BIDEZ EZKONDUA

**ASIERA:** Aurrekoa bezela asi... (*Eresia*, «Lurraren pian sar nindaiteke» izan diteke.)

**GIZAKUMEAK:** Ta gaurko saio ontan, entzun: «Gorrototo bidez ezkondua»!

**EMAKUMEAK:** «Gorrototo bidez ezkondua»! (*Eresia gora ta azpipe...*)

**KONTATZAILLEA:** Landola apain batean gera... Ofizina dotore batean, alegia. Ikuste al-dezu neskatxa ille kixkur ori?... Irene du izena, ta bere ofizioa, taki-meka da. Eskribitzeko makiña aurrean du, ta or aritzen zaigu egun osoan taka-taka, taka-taka... (*Entzun bedi makiña-otsa...*)

Ames bat du biotzean: an beste txoko artan, beste mai batean, lanean ari dan gizaseme gazte ura: ENDRIKE... (*Eresia gora ta bera...*)

Mutil ura, narru zarra baiño legorragoa zaio neskatxillari, ta Irene'ri eztio arreta pittinik ere artzen... Jaiki da neskatxa bere papelekin eta

ba-dijoa Endrike'gana: (*Makiña-otsa aditu bedi ta pauso otsa ere bai...*)

**IRENE:** Emen dauzkatzu gaurko kontuak.

**ENDRIKE:** Ia ikusi?... Ostolaza'ri bialduak... Otamendi'ri salduak... Almaceneko irterak... Gaur, lan aundia degu.

**IRENE:** Ba-dakit. Egunero lan aundia degu.

**ENDRIKE:** Beste papel aukeratuak beste batzuk dituzu. Argi ibilli, laster izango degu emen landolako nagusia-ta. (*Eresia gora ta bera...*)

**KONTATZAILLEA:** Au guzia, begirik jasotzeke esan dio Endrike'k Irene'ri. Neskak, papel berriekin exeri da berriro bere makiña aurrean. Makiña-otsa berriro...)

Neskak ondoan, beste mai batean, ordezu Migel, mutil azkarra bere lanerako ta azkarra goa Irene'ren barruari igartzeko. Entzun zaizu:

**MIGEL:** Etzazu negarrik egin, Irene. Kaiku orrek ez du merezi-ta.

**IRENE:** Eztet negarrik egiten, Migel.

**MIGEL:** Zer dira, ba, bi begietatik irristan dijoazkitzun malko-intz oiek? Gezurra dirudi!

**IRENE:** Zerk dirudi gezurra?

**MIGEL:** Bi begi euki ta geiago ez ikustea. Endrike on itxu dago, zu bezelako izarra aurrean ez ikusteko.

**IRENE:** Ta neri zer?

**MIGEL:** Zuri asko, Irene. Ta nik konponduko det oker au.

**IRENE:** Etzaite sartu iñoren etxean, deitu gabe. (*Eresia gora ta azpipe...*)

**KONTATZAILLEA:** Baiña ba-zekian Migel'ek zer eta nola egin gauzak. Endrike'k, izeba neska zar bat du, tipula baiño miñagoa. Beti ari zaio mutillari:

**PILLOMENA:** Nun izan zera?... Zer egin dezu orren berandu etortzeko?... Nor zenduen lagun?... (*Eresia gora ta bera...*)

Ai!... Ia aztu nintzan. Izeba onek, Pillomena du izena... Izeba aspergarriagorik!... Leporaiño egiña du bere illoba Endrike. Ta illobak naikoa du izebak au agintzea, okerrekoa egiteko. (*Pauso otsak bidean...*)

Migel'ek ba-daki Pillomena nun arkitu... (*Errosario marmarra elizan...*) Errosariotik irtetzerakoan, an du mutilla zirikalari:

**MIGEL:** Gabon, Pillomena.

**PILLOMENA:** Ala zuri ere, Migel. Nola joan zaizu eguna?

**MIGEL:** Ala, ala. Alboko Mari-tente orren makiña otsarekin, belarriak gortuta.

**PILLOMENA:** Zein Mari-tente?

**MIGEL:** Txomin txikiñeko Irene, emakumea. Aize batzuek ba-ditu neskatxa orrek!... Ezta markesaren alaba ba-litz ere.

**PILLOMENA:** Zer diozu?

**MIGEL:** Entzuten dezuna. Eta bada-ezpada ere, kontuan jartzen zaitut.

**PILLOMENA:** Zer ba?

**MIGEL:** Endrike'ren ondoren asia da-ta.

**PILLOMENA:** Nere illobaren ondoren?

**MIGEL:** Bai, Pillomena. Neskatxa ori etxean sartzen ba-zaizu, erruki zaitut.

**PILLOMENA:** Orrela, beraz. Zaude, zaude. Nik artuko ditut neurriak. Eta eskerrik asko, Migel. (*Eresia gora ta bera... Gero atea irikitzen eta isten...*)

**KONTATZAILLEA:** Etxera iritxi zanean, bereala inguratu zitzaion Endrike apaltzeko amorro biziz. Pillomena, ordea, neska zarra izaki, ta apal aurrekoa ematen asi zitzaion illobari:

**PILLOMENA:** Endrike!

**ENDRIKE:** Zer degu, izeba?

**PILLOMENA:** Ze moduz lantegian?

**ENDRIKE:** Beti bezela.

**PILLOMENA:** Zein lagun dituzu bertan?

**ENDRIKE:** Dakizkitzunak, izeba. Ezta berririk sartu.

**PILLOMENA:** Ta nexka ori? Nola du izena?

**ENDRIKE:** Irene?

**PILLOMENA:** A, bai! Txomin txikiñeko Irene. Zer tanke-rako nexka dezue ori?

**ENDRIKE:** Ez diot geiegi begiratu. Eztet uste betokerra danik.

**PILLOMENA:** Baiña... nolako aidea du? Langillea, zuzena, umilla?

**ENDRIKE:** Eztu burrukarik egin nerekin, izeba.

**PILLOMENA:** Ta... ez al-da geitxo aurreratzen diran aietakoa?

**ENDRIKE:** Ez. Bere maiean exerita geldirik egoten da.

**PILLOMENA:** Ai, mutil auek!

**ENDRIKE:** Zer degu mutilok?

**PILLOMENA:** Bi begi ezer ez ikusteko, ta lenengo aurrean jartzen zaizuen neskatxak engañatze-ko.

**ENDRIKE:** *(Maia ukabillaz jotzen du asarre):* Izeba. Etzaitez asi.

**PILLOMENA:** Nola ez asi? Gero, markesa aideko neska-txa aizeti batek burua berotu dezaizula, ta gure etxeko pakea galtzera etorri dakigula.

**ENDRIKE:** Aizu, izeba. Irene'k eztu aizerik, eta eztulik ere eztu egin nere aurrean. Etzaite, beraz, aparia garrazten asi beti bezela.

**PILLOMENA:** Ori da! Asi zaite mukizu auei bidea erakusten, gero lotxabekeriak jasotzeko. (*Maia ipintzen, edaten... entzun bedi...*)

**KONTATZAILLEA:** Azkenerako biak mutu bukatu zuten jardun aldia. Izebak Irene buru-arintzat joaz; eta Endrike'k, ordurarte gogoan etzuan neska-txa urrengo egunetik arreta geiagoz begiratzeko asmoa artuaz. (*Landolako zaratak... makiña-zarata, tiki-tak...*).

Biamamonean, Migel'ek ixillik Irene'ri belarrira esanzion:

**MIGEL:** Irene!

**IRENE:** Zer dezu, Migel?

**MIGEL:** Gaurtik, kontuak ziara aldatuko zaizkitzuenen.

**IRENE:** Ze kontu?

**MIGEL:** Zure ta Endrike'ren artekoak. Atzo Pillomena'rekin itzegin nuen.

**IRENE:** Ta zer esan zenion?

**MIGEL:** Zu, aizetia ziñala, ta kontu artzeko Endrike'ri, zuk engaña ez dezazun.

**IRENE:** Ta ori neri esatera al-zatoz orain? Etzaude lagun ederra naste oiek neri sortzeko.

**MIGEL:** Ikusiko dezu, Irene. Orain, dena sedia baiño legunago joango zaizu. Pillomenak berotuko zion burua, ta izeba zure kontra jartzea naikoa du Endrike'k, bera zure alde jartzeko.

**IRENE:** Diabrua zera benetan, Migel.

**MIGEL:** Laster ikusiko dezu, Irene. (*Eresia aldagarri: «Itxasoa laño dago»*)

**KONTATZAILLEA:** Egun artan, Irene bere papelekin Endrike'gana joan zanean, onek lenbiziko aldiz begiak jaso zituan neskatxari begiratzeko. (*Eresia gora ta bera...*)

(*Makiña-otsa. Irene'ren pauso-otsa gerotxeago...*)

**ENDRIKE:** Azkar egin dezu lana, Irene.

**IRENE:** Etzegoen lan aundirik ere.

**ENDRIKE:** Ia ikusi... (*paperak ikuste-otsa*). Ederki!... Egon... Auxe pixka bat zuzendu bearra dezu.

**IRENE:** Ekatzu. Bereala egingo det.

**ENDRIKE:** Zaude. Neronek zuzenduko dizut istan batean. (*Makiña-otsa... gero eresia gora ta azpipe...*)

**KONTATZAILLEA:** Pillomena geroago ta erreago zebillen bere illobarekin. Egunero ba-zuten ezpairen bat:

**PILLOMENA:** Orain ere or ibilliko intzan?

**ENDRIKE:** Ez nago geldirik egoteko nere ogei ta bost urterekin.

**PILLOMENA:** Ta nexka petral ori alboan?

**ENDRIKE:** Nexka petral orrek, zenbait neskaxa zintzosteko jantziko lituzke.

**PILLOMENA:** Utsa aurrez kontuan jarri izan ezpanu...

**ENDRIKE:** Orretxegatik argi ikusten asi nintzan, ba... (*Eresia gora ta bera...*)

**KONTATZAILLEA:** Lantegian, Migel'ek parre gaizto asko egiten zion Irene'ri:

**MIGEL:** Zer esan nizun, Irene?

**IRENE:** Geroago ta gaiztoago zaude, Migel.

**MIGEL:** Laster, Endrike'k gorroto izango nau.

**IRENE:** Zergatik, gero?

**MIGEL:** Zelotan daukat mutilla, zure ondoan lan egiten dedalako.



**IRENE:** Au gaiztoko! Zu bezelako endredatzaillerik ezta inguruan sortu.

**MIGEL:** Asarre al-zera? Senargaia eskura ekarri dizut, eta oraindik berriketan ari zera.

**IRENE:** Pillomena'k jakiten ba-du, larrutuko zaitu. (*Ere-sia gora ta bera*).

**KONTATZAILLEA:** Baiña Pillomena'k etzuen ezer jakin. Eta andik urtebetera, denak aldare aurrean ziran. Irene ta Endrike alkarri eskuak emanda. Pillomena ta Migel, ezker-eskui, aita-ama bitxi zituztela. (*Organuan eztaimartxa...*)

Pillomena'k bere barru-barrutik zotinka esaten zion Jesus'i:

**PILLOMENA:** Jauna! Jauna! Illoba auek eragiten dizki-guten okerrak!... Pakean bizi giñana, orain neronek lagundu ezkontza au burutzen! (*Eztai-martxa bizi...*).

**KONTATZAILLEA:** Eta bere begietatik, bi malko-anpolai zerizkion izeba gajoari.

**BUKAERA:** Aurrenengoan bezela... (*Eztai-dantzako soinñuren bat jarri diteke.*)

# GAZTE AIZEAK III

## ZORIONEKO KAZKARREKOA

**ASIERA:** Lenengoan bezela... (*Eresia*, «Neska zarrak joaten dira Madalena'ra...»)

**KONTATZAILLEAK:** Aldako'neko Anbrux, mutil zar purrukatua, eguzkia artzen degu Zumardiko alki batean exerita. Aurretik igarotzen zaizkion neskatxa gazteak tentatzen du bere griña. Ain zuzen ere, or dator neskatxa pertxenta bat. Anbrux'ek ez dio ixillik pasatzen utziko:

**ANBRUX:** Nundik nora, Kaxilda?

**KAXILDA:** Urkiola'tik, Anbrux. Ura da toki zoragarria!

**ANBRUX:** Ta Santuak zer dio?... Buruakin ez?

**KAXILDA:** Zu bezelako mutil zar alprojekin ez, beintzat. (*Eresia gora ta bera*: «Neska zarrak joaten dira...»)

**KONTATZAILLEA:** Anbrux an gelditu zan bere alkiari parre gaiztoz kantatzen:

«Lenago zergatik akordatu ez...»

Kaxilda'k mutil zarra bere kantetan utzi ta etxe aldera egin zuen. Gero... eskuan kontu aundiz zekarren paketetxoa zabaldu ta salako arasa gaiñean ipiñi zizun barruan zekarren gauzaxoa.

**KAXILDA:** Ai, nere Aita San Antonio Urkiola'koa! Zuk iritxi bear didazu neri mirari aundia. (*Eresia gora ta bera...*).

**KONTATZAILLEA:** Gauzatxo ura, San Antonio'ren zilarrrezko iruditxoa zan. (*Eresia otoitzerako gisakoa...*)

Biaramonean, Kaxilda'k, bederatziurren polita egin zuen. Onela zan asiera. (*Eresia gora ta bera...*)

**KAXILDA:** Aita San Antonio bedeinkatua!... Arren baiño arren! Senargaia iritxi zaidazu lenbailen... Al dala, ez dedilla betokerra izan. (*Otoi-eresia gora ta bera...*) Aita gurea, zeruetan zaudena... (*Otoi-eresia...*)

**KONTATZAILLEA:** Bigarren Aita gurea, onela zetorren: (*Otoi-eresia...*)

**KAXILDA:** Aita San Antonio bedeinkatua! Al dala, berrogei urtetik berakoa izan dedilla... Aita gurea, zeruetan zaudena... (*Otoi-eresia...*)

**KONTATZAILLEA:** Irugarren Aita gureak, aurretik txortan au zuen:

**KAXILDA:** Aita San Antonio bedeinkatua! Jaungoikoaren aurrean balia zakizkit!... Neretzako senargai, Seroreko Anjel izan dedilla!... Aita gurea, zeruetan zaudena... (*Otoi-eresia...*)

**KONTATZAILLEA:** Bederatziurren arek, etzuen arrazkeroko azkenik izan. Gaur bukatu ta biar berriro asi. Kaxilda'k etzizuen egunik galtzen. Eta bederatziurrena bukatzen zanean, Santuari mun eta mun, ba-zigun pixka baterako lana. (*Leioa irikitzeke zaratak...*)

Gero, bere Santu on eskuetan artu ta leiotik begiratzerara joan oi-zan, eskatutako senargairik sortzen ote zitzaion ikustera.

(*Eresia:*

*Ai, Luxe, Luxe, Luxe! Errotapian, errotapian...*

*Ai, Luxe, Luxe, Luxe! Errotapian Mari Luxe...)*

Astearte batean, Santuari berarizko otoi eta eskari beroak egin ondoren, beti bezela, leioa zabaldu ta begira zegoela, orra nun irrist egin-da, eskutik kalera erortzen zaion bere Santu artua. (*Eresi urduri ta nastua*).

**KAXILDA:** Ai, ene bada! Nere Santu bedeinkatua! (*Eresia berriro bizi...*)

**KONTATZAILLEA:** Erio-suerrean, kalera jeisten da bere Santua jasotzera, ta ikusten duanak, lurrean josita uzten du... Burutik odola dariola, ta zentzu gabe, an dago lurrean Seroreko Anjel, bere eskarietan aitaturako senargai gogokoa. Parean egokitu mutilla ta Kaxilda'ren eskutik eroritako San Antonio'k buru-erdian jo giza-joa... An zegoen urrean Kaxilda'ren San Antonio, Anjel'en odolez gorriturik, baiña oso-osorik... Mirari aundiagorik!

**KAXILDA:** Ai, baiña! Zer egin det nik?... Atozte, atozte laguntzera mutil oni! (*Entzun bitez Kaxilda'ren kurrixkak. Eresi biziren bat tartean.*)

**KONTATZAILLEA:** Kaxilda'ren kurrixketara inguratu zan jendea, ta jaso zuten mutilla neskatxaren etxera. An ziran estuasunak! Garbitu zioten eritari buruko odola ta Kaxilda'k bere biotz osoa jarri zuen mutilla esna zedin. Ujentu ta igurtzi, Anjel bere onela etorri zan alako batean. Kaxilda, mutillaren errukiz urtu bearrean zegoen. Barkatzeko, arren; ustegabeen erori zitzaiola Santua, ta Jaungoikoagatik, zai-

tzeko ongi bere burua, oker aundirik sor etzekion... Artan eraman zuten mutilla bere etxera.

*(Eresia:*

*Askok egiten dio San Antonio'ri,  
egun baten jua da bestean etorri.)*

Urrengo egunetan, Anjel'en berri jakiteko aitzakiz, egunik utsegin gabe, an joaten zan mutillaren etxera gure neskatxa.

**KAXILDA:** Ta?... Nolatan da Anjel? Obeto al-dago?... Gizajoa! Ta burua?... Zauria sendatu al zaio?... Sakabi'ko Pi Iñazi'k badu orretarako ujentu aproposa... Emen ekarri dizuet. *(Eresia gora ta bera...)*

**KONTATZAILLEA:** Gero, aurrera eramaten zuten, Anjel'en oe-ondora. Kaxilda'ren biotza, argizaria bezela urtzen zan orduan: *(Eresia gora ta bera...)*

**KAXILDA:** Zer moduz, Anjel?... Buruan miñik bai?... Egin nizun egitekoa!... Ezin naiz aztu... Nere esku txaldun auek!... Leioa isten ari nintzala erori etzitzaidan, ba, eskutik!... Bai, oso polita da. Urkiola'n izan nintzanean erositakoa det. *(Eresia gora ta bera...)*

**KONTATZAILLEA:** Ta orrela egunero. Bidean etxerakoan-edo, Anjel'enerakoan, an arkitzen zan Anbrux, mutil zarra. Bereala zuen zirika:

**ANBRUX:** Urkiola'ra al goaz, Kaxilda?

**KAXILDA:** Zaude ixillik, pardel ori!

**ANBRUX:** Ta zer dio Anjel'ek?

**KAXILDA:** Obeto egingo zenduke zerorren etxeari kargu artzea. (*Eresia gora ta azpipe...*)

**KONTATZAILLEA:** Anbrux, ez titan gelditzen zan, eta Kaxilda'k purruztaka aldegiten zion. Zertan luzatuko degu kontua?... Ainbeste joan-etorrik, ondoren ederrena izan zuten Kaxilda'rentzat. Anjel bereganatu zigun, eta egun zoragarrri batean, biak aldare-aurrean elkartu ziran... (*Eresia: Eztai-martxa...*)

Anbrux'ek, ezkonberriak elizatik irtetzen ikusi zituenean, parre gaiztoz ingurukoei esan zien: (*Eresia gora ta bera...*)

**ANBRUX:** Utzi pakean San Antonio'ri! Orrek ba-zekik mutillak noiz buruan jo... Bada-ezpada ere, kontu mutillok, neska zarren leiopetan pasa!

**BUKAERA:** Lenengoan bezela... Buka diteke «Neskazarrak joaten dira Madalena'ra» eresiarekin.

# GAZTE AIZEAK IV

## EMAZTE EIZEAN

**ASIERA:** Aurrenengoan bezela... (*Eresia: «Xarmangarria zera, eder eta gazte».*)

**INA:** Zer din, ba, neska orrek bestek eztegunik?

**ATXUN:** Orrek? Ezer ez. Arroa galanta ori! (*Eresia gora ta azpipe...*)

**KONTATZAILLEA:** Onela ari ziran bi neskatil gazte, maixiaketa bizian... Ain zuzen ere, orduantxe zetorren kalean barrena, Aingeru Galtzairuneko seme gaztea. (*Eresia gora ta bera...*)

**INA:** Ikusten al-den, zein datorren, Axun?

**AXUN:** Zein, gero?... Aaa!... Aingeru ikusi al-den?... Beste mutil bat, guretzako alperrik sortua, Ina.

**INA:** Begiz jo al-den?

**AXUN:** Zertarako? Euskaldun mutillak, txurrutean bakarrik diñate beren gogo.

**INA:** Ez denak, beiñepein. Ba-ditun, bidetan zear, oso txoratuak dabilzan batzuek ere.



**AXUN:** Oso bakanak, Ina. Geienak, parean pasata, kiaukeriren bat esateko bestetarako eztitun.

**INA:** Aingeru, zuzen zetorren, ba, guregana, Axun.  
(*Eresia gora ta bera...*)

**AINGERU:** Kaixo, gazte pare! Asmatu baietz, zertan ari zifñaten...

**AXUN:** Kaixo, Aingeru! Asmatzaille sartu al-zera?

**AINGERU:** Asmatzeko gauzak errezak diranean, bai.

**AXUN:** Ia, ba, gaurko gure jarduna asmatzen dezun.

**AINGERU:** Zuen? Entzun ba-nu bezelaxe.

**AXUN:** Au den au argi-iturri, Ina!

**INA:** Mutil denak berdin, Axun.

**AINGERU:** Zuek nai dezuena esango dezue; baiña eun bosti, zuen izketa zertaz zan asmatu baietz.

**INA:** Orrenbeste erronka jo gabe, esan ezakean, Aingeru.

**AINGERU:** Orratx, ba, Ina. Zuen jarduna, nexka bat maixiatzea edo mutillen bat aotan artzea izan dala, egingo niken itxu-itxu lepoa.

**INA:** Erretzen, erretzen...

**AINGERU:** Bete-betean asmatu dizuet, ezta ala?

**AXUN:** Mutil auek beti artabero. Beren burua nesken aurrean jakintsu egiten.

**AINGERU:** Eta neskok, mutillen aurrean mokoak arrotzek jasotzen. Kontu ikutu erreginkume auei!

**AXUN:** Zaude ixillik, Aingeru! Zurruterako bestetako ez dezue zuek begirik-eta.

**AINGERU:** Izan ere, goxoak jartzen zerate, itz-erdi bat iñork esaten badizue-ta.

**AINGERU:** Nolakoak esaten dizkiguten, Aingeru... Kalkukeriak aditzeko ez gaude.

**AINGERU:** Eta gero; markesa aide bat artzen dezue, etxetik irten orduko...

**AXUN:** Zuek ere, mutillok, nesken aurrean, alako aizeak jotzen dituzue...

**AINGERU:** Beno! Kontuak kontu, zer zan zuen izketa?

**INA:** Ara emen galdera-modua! Iri esango diagu!... Gure kontuak guretzat.

**AINGERU:** Orren ixillekoak al-dituzue? Berriz ere, mutillak iges egingo dizue...

**INA:** Mutillak? Ez edozeiñi... Ba-dituzue zuek ere, neska batzuek alako gozabera dituzuenak.

**AINGERU:** Ara bertan! Zein, zein da neska ori?... Baten batek itzala egiten al-dizue?

**INA:** Itzala? Ez gabiltz eguzki-gose... Ori mutillak esan bear dezue.

**AINGERU:** Zer, gero?

**INA:** Zera!... Zuen arro-aizeak noizean bein, eta zenbait nesken aurrean, ederki galtzen dituzuela, Aingeru.

**AXUN:** Egia dion, Ina... Mutil auek ere, makurtzen bazekiñate.

**AINGERU:** Garbiago itzegiten ezpadezue, Axun, len aiñean geldituko naiz. (*Eresia gora ta azpipe...*)

**KONTATZAILLEA:** Artan jarraitu zioten neska-mutilok puska batean, bakoitzak bere alderdia zaituaz, eta besterenetik gordez. (*Eresia gora ta bera...*)

Ta saltsa ontan sartu geran ezkerro, bi neska aien aotan zebillen neskatxa nor ote-dan ere, argitu bearko dizut... Baiña aurrez, mutil-talde baten erdian sar gaitezen, auen esanak ere jasotzeko: (*Eresia gora ta bera...*)

**PELIX:** Kaixo, Aingeru! Pil-pillean al-abil?

**AINGERU:** Nungo pil-pillean, Pelix?

**PELIX:** Neska-eztitan, Aingeru. Begirik ez degula uste al-dek?

**AINGERU:** Geiago esaten ezpadek, barau natxegok, eta sartu gaitezen bar ortara.

**PELIX:** Neskak pareka dituanak, ezтик zurruta bearrik.

**AINGERU:** Erorrek esaten dituk denak, Pelix.

**PELIX:** Nik... eta Joxe'k eta Martiñ'ek eta emen gauden guziok.

**AINGERU:** Ta zer dek, ba, guziok esaten dezuen ori?

**PELIX:** Lengoan luzaro egon intzala Ina ta Axun'ekin.

**AINGERU:** Ori al-uan guzia?

**PELIX:** Uka zak, al ba-dek, Aingeru.

**AINGERU:** Zer uka bear diat, Pelix?

**PELIX:** Neska biak nolako arpegi gozoa jartzen zikaten!

**AINGERU:** Entzun ba-zenie...

**PELIX:** Zer zioten, ba?

**AINGERU:** Mutillok, arro-aize aundiak erabiltzen ditugula, baiña zenbait neskatxen aurrean, ondo makurtzen gerala.

**PELIX:** Zein nexken aurrean?

**AINGERU:** Untzaiñ'eneko Yolanda'ren aurrean da...

**KONTATZAILLEA:** Mutil guziak txistu luzea jo zuten Yolanda'ren izena entzun zutenean. Aingeru'k galdetzen die:

**AINGERU:** Zer dezue?... Orren txistu luzea merezi aldik neska orrek?

**MARTIN:** Ederra aitatu dek, ba, Aingeru. Nexka orri, ako azeriaren mats-aleena gertatzen zaiok.

**AINGERU:** Erorrek esango dek, zer dan mats-aleei gertatzen zitzaiena, Martin.

**MARTIN:** Goregi zeudela eskuz eltzeko... Mokau ona dek ori. Aingeru.

**AINGERU:** Ba, nik ez diat ixkillara bearrik izango dagoen lekura igotzeko.

**MARTIN:** Ezetz?... Ago, ago! Yolanda dek, gero, neskatxa orren izena, ta ba-zekik oso gora igoa dagoela.

**AINGERU:** Jetxi-arazi egingo diagu, ta kito.

**MARTIN:** Samurra zegok neskatxa!

**AINGERU:** Poliki-poliki egosi egingo diagu. Ia orrela biguntzen dan.

**MARTIN:** Eun amarri, ezetz ireganatu uso ori.

**AINGERU:** Ba-ziak, Martin!

**MARTIN:** Entzun al-dezue, lagunok?

**AINGERU:** Denen aurrean esan diat. Beraz, egiña zegok trabesa.

**MARTIN:** Galdutzat jo zak ire dirua... Motellak! Onek txurruta bat merezi dik. Oraingoa nik ordaintzen diat. Aingeru'k gerotxoago ordainduko zidak guzia, trabesa galtzen duanean. (*Eresia gora ta azpipe...*).

**KONTATZAILLEA:** Onela esanaz, aurrean zeukaten ardangelara sartu zan mutil taldea. (*Eresia: «Matsaren orpotik dator mama gozoa».*)

Urrengo igandean, Meza Nagusi ondoren, gazte-jendea an zebillen betiko ibil-lekuan, atzera ta aurrera; nexkak, beren lepo tenteak mutillen aurrean erakusten; eta mutillak, nexken sorginkerietara beren begiak zorrozten. Yolanda'k an zuen bere erregin-tokia. Mutil guziak bere edertasunez txoratuak zeuzkala, konturutzen bai-zan; eta aien itz eta loxinkaz, aspertuta, etzuen iñorentzat erantzun gozorik. (*Ibiltarien itz-zarata ta iskanbilla entzun bedi...*)

Aingeru'k bere aldetik, jo zuen beste iñork artu etzuen bidetik. Nexka ari, etzizaion, aren ustez, bigunkeriz ez loxinkaz eraso bear. Aren biotzeko atea zabal-erazteko, oso besteraka jokatu bearko zan. Ta ala, gora ta bera zebiltzala, neskatxa bere parean jarri zitzaioneko batean, bota zion botatzekoa: (*Berriro ibiltarien otsa ta zaratak...*)

**AINGERU:** Agur, itxusi!

**YOLANDA:** Orra gure eder-ispillu! (*Eresi biziata zarata aundia...*)

**KONTATZAILLEA:** Artan gelditu zan guzia. Baiña ura izan zan asiera ere... Andik aurrera mutillak zituen aukerak, ederki artzen zituen, gaztelu ura bere gogora ekartzeko: (*Ibil-lekuko zarata...*)

**AINGERU:** Aizu, Yolanda. Etzaite nere aurrean jarri. Ikusten zaitudan bakoitzean, erleren batek eldu didala, iruditzen zait.

**YOLANDA:** Nundik ibilliko ote gera, ba, markeskume onek aizea ar dezan. (*Eresia gora ta bera...*)

**KONTATZAILLEA:** Itzak zorrotzak zituzten elkarrenganako; baiña begiak gezurtatzen zuten, aoak ziotena... Ala joan zitzaien egosten, izkutuan zeukaten elkar-miña. Mutil lagunak, beti zirika zituen Aingeru'k: (*Lagun arteko marmarra...*)

**PELIX:** Zertan dek ire izarra?

**MARTIN:** Goitxo eskuz arrapatzeko, ezta ala?

**JOXE:** Eztaiak mindu egin al-zaizkik, Aingeru? (*Eresia gora ta bera...*)

**KONTATZAILLEA:** Ba-zan gazte artean esamesa ta jakiteko azkurea. Yolanda'k beste ainbeste

zuen nexken aldetik: (*Nexka lagunen abotsak eta istillua...*)

**INA:** Aingeru'k ez tin begirik kentzen, Yolanda.

**AXUN:** Aize otza al-dago Galtzairu'neko etxe aldetik?

**INA:** Ai, ene ba!... Usoa saretan nastu dala, uste diñat.  
(*Nexka-zarata berriro...*)

**KONTATZAILLEA:** Aingeru'k bere bidea zuzen zera-man. Itzetan gogorkeria ta begietan ez tia jar-tzen jarraitu zuen: (*Eresia gora ta azpipe...*)

**AINGERU:** Yolanda: aundia izango litzake, gero, gu biok elkarrekin lotzea... Burugabekeri aundia-gorik asmatu al-diteke?

**YOLANDA:** Ara bestea! Ezta eskutik elduta, aldare aurrera eraman ba-nindu ere!

**AINGERU:** Astakeri galanta egingo nuke, orreatik, ortaraiño iritxiko ba-nintza...

**YOLANDA:** Au mutil itzontzia!... Emakumerik berri-txuena ere, aspertuko luke. (*Eresia gora ta bera...*)

**KONTATZAILLEA:** Esanak onela zijoazen; baiña bio-tzak, samurtzen zetozen... Egunak joan, egu-nak etorri, Aingeru'k aldatu zuen bere jokabi-dea, ta zuzen-zuzen eraso zion Yolanda'ren askenengo ateari: (*Eresia gora ta bera...*)



**AINGERU:** Yolanda: ziaro zoratu bearrean naun.

**YOLANDA:** Zer dek, mutil?

**AINGERU:** Nere kazko onetan, irekin ezkondu bear dedala sartu etzaidan, ba!

**YOLANDA:** Ederki eman ere!

**AINGERU:** Eroa bear din, gero, mutil batek irekin elkar-tzeko!

**YOLANDA:** Oakit emendik, artabero! (*Eresia gora ta bera...*)

**KONTATZAILLEA:** «Oakit» arek, «atorkit» aidea zuen; eta Aingeru, geroago ta ausartago zebillen neskatxaren gaztelua menderatzen: (*Eresia gora ta bera...*)

**AINGERU:** Yolanda: noiztik ago nerekin txoratuta?

**YOLANDA:** Amonarik ez al-dek, Aingeru?

**AINGERU:** Aundia egingo niken, ba, ik nai denala ta beste gabe, eztaietara ire besotik joango baintza!

**YOLANDA:** Erorrek esaten dituk denak... Irekin joango litzaken neskatxak ere, benetan burua galdu bearko likek aurrez. (*Eresia gora ta bera...*)

**KONTATZAILLEA:** Udaberria lurraren jabe zan. Baso aldea, txori jai betebetea. Odolak irakin berriak zituen zaiñetan; aidea sorgintzen ari

zan. Eta onela eldu zitzaien gure gazte biei, beren zoro-aldiaren ordua: (*Eresia: «Itxasoa laño dago»*).

**AINGERU:** Yolanda, zoratu al-aiz zearo?

**YOLANDA:** Ta i, Aingeru, zertan aiz ire ames eroetan?

**AINGERU:** Santa Ageda'ko bidean, Yolanda.

**YOLANDA:** Orduan... neretzat ere lekua eskatuko al-dek?

**AINGERU:** Yolanda... bizitza guzian gorrotatuko aut!

**YOLANDA:** Eta gorroto ortan urtuko dek gure bizia.

**AINGERU:** A, ze kazkarrekoa merezi denan, maite!

**YOLANDA:** Ik eman al aiñakoa, nere!!! (*Eresia: «Zar-mangarria zera, eder eta gazte»...*)

**BUKAERA:** Betikoa...

# IRRATIRAKO IPUI ANTOLATUAK

1961'garren urteko leiaketan  
lenengo saria jasoak.

## IPUI GUZIENTZAKO ASIERA

*(Musika: «Erregiña ta saratsa»... gora ta azpipe...)*

**GIZAKUMEA:** Euskalerriko jakintza zaarra!

**EMAKUMEA:** Gure aurretikoen jakituri etsigarria!

**GIZAKUMEAK:** Atera ditzagun kutxa zarretik, zapi zuri  
usaitsuak bezela, antziñatik gure erriak gorde  
dituan kontu zaarrak.

**EMAKUMEAK:** Aiton-amonen gogoak piztu ta aurren  
belarriak ernetzen dituzten ipui gazi-gozoak!

**GIZAKUMEAK:** Atarian negua da.

**EMAKUMEAK:** Aizeak txistu. *(Entzun bedi aize-txis-  
tua...)*

**GIZAKUMEAK:** Kazkabarrak soiñu. *(Kazkabar otsa  
gogor...)*

**EMAKUMEAK:** Eta sukaldean egurrak su. (*Egur igarrak erretzen txir-txir...*)

**GIZAKUMEAK:** Eta gaztaiñen danboliña itzul-iraulka garretan.

(*Aditu bedi gaztaiñen dunba-otsa ta danboliñaren eragiña...*)

**EMAKUMEAK:** Gabon inguru?... San Anton, bixigua on?... Kandelario?...

**GIZAKUMEAK:** Ipui-giro!... Kontu zaarrak aidean!

(*Doiñua gora ta bera...*)

*Gero, aida bedi musika ipui bakoitzerako...*)

## **IPUI GUZIEN BUKAERA**

(*Buka ipui bakoitzaren azken-doiñua ta berriro «Erregiña ta saratsa».*)

**EMAKUMEAK:** Itxi dezagun gaurkoz gure kutxa zaarra.

**GIZAKUMEAK:** Aurrak logale dira.

**EMAKUMEAK:** Aiton-amonak, oeratzeko ordua dute...

**GIZAKUMEAK:** Su-txingarrak estali, ta urez busti ditu amak.

**EMAKUMEAK:** Katua, bizkarra arrotu ta nagiak ateratzen gelditu da.

**GIZAKUMEAK:** Egunak eman du berea.

**EMAKUMEAK:** Euskal sukaldean, argia itzali zaigu.

**GIZAKUMEAK:** Aidean dabiltz joandako gizaldien itzalak.

**EMAKUMEAK:** Gaba nagusitu zaigu.

**GIZAKUMEAK:** Illuna da jabe.

**EMAKUMEAK:** Jaungoikoak gabon dizuela, euskal irrantentzuleoi! (*Musika iltzen-iltzen...*)

# UGAZALABA

**ASIERA:** Ipuietakoa... *(Soiñua gora ta azpipe...)*

**IZLARIA:** Ba-zan bein, beste asko bezela...

**EMAZTEAK:** Patxi, ni ba-noa, baiña or gelditzen zaizu gure alaba... Zaitu zazu ongi!

**SENARRAK:** Ai, nere Eujeni! Zer egin bear det nik zu gabe? *(Il-kanpaia entzun bedi... Soiñua illuna gora ta bera...)*

**IZLARIAK:** Orrela joan zan mundu ontatik Eujeni gai-xoa, ta Patxi bere alaba bakar eta gaztearekin gelditu zan alarguntza tristean. *(Soiñua gora ta bera...)*

**IZLARIAK:** Ikusten al dezue neskatxa lirain ori? Orixe da Lierni, Patxi'ren alaba bakarra. Urrezko neskatxa, baiña gaixoa umezurtz gazteegi gelditua.

**LIERNI:** Ai, nere ama maitea, nola joan ziñan ni baka-rrik utzita? *(Soiñua negarti gora ta bera...)*

**IZLARIAK:** Alabari etzitzaion aztu ama zanaren gozoa; baiña Patxi oker zebillen etxea gobernatu ezi-ñik, eta gizonen kontua... poliki-poliki joan

zitzaion burutik etagero biotzetik andre zana-  
ren oroipena.

**PATXI:** Onela ez nabil ongi. Gure etxeak andre baten eskua bear du; bestela, zikiñak jango gaitu. Alabarentzat ere, ez da gaizki etorriko ama berri bat. *(Soiñua gora ta bera alai...)*

**IZLARIAK:** Ta esan bezela, jantzi beltzak baztatu zituanean, beste andre batekin ezkondu zan. Eztai-soiñuak etzion, ala ere, alaba gaixoari poz aundirik sortu bere biotz minberatuan.

**PATXI:** Ba-zan zure bearra, Uxebi, gure etxe ontan. Emendik aurrera zuk txukunduko dizkiguzu baztarrak, eta alaba Lierni'k lagunduko dizu eginkizunetan. Atoz, Lierni!... Ama berria, eka-  
rri dizut, umezurtz bizi etzaitezen.

**IZLARIAK:** Baiña Uxebi, andre berria, sorgiña zan, eta bere barruko zaputza bereala agertu zuan bere ugazalabarekin. Batez ere, Patxi'gandik alako alaba itxusia izan zuanetik. *(Soiñua asarre girokoa gora ta ber...)*

**UXEBI:** Zer det au? Nere alaba onen itxusia ta neska petral ori geroago ta ederrago agertzen da. Erakutsiko diñat nik ire aizeak gordetzen.

**IZLARIAK:** Orrela ari zan egunetik egunera erreago sorgin zarra bere ugazalaba galtzeko asmotan... Alaba maiteago ta ugazalaba gorrotatuago. Sorgin madarikatua etzan bizi. (*Soiñua gora ta bera amorroz...*)

**UXEBI:** Lierni! Nun abil, neska? Beti bear ez dan lekuren batean sartuta ikusten aut. Lanak ez au i galduko, ez.

**LIERNI:** Zer dezu, ama? Zuk esandako ogeak egiten ari nintzan.

**UXABI:** Ogeak egiten orrenbeste denboran? Noizko bukatuko dizkiñagu orrela etxeko eginbearrak?

**LIERNI:** Esandako guziak bukatuta daude.

**UXABI:** Ba... emen ez diñagu alper-zorririk bear eta emango diñat nik eguna betetzeko lana. Tira, etzan lorik artu ta oa saskia bete marrubi ekartzera.

**LIERNI:** Marrubiak negu beltz onetan? Nun arkituko ditut, ba?

**UXABI:** Al denan lekuan. Esnatu, esnatu egin bear den ire sasoi orrekin. (*Soiñua gora ta bera...*)

**IZLARIAK:** Lierni gaixoa; Atso sorgin arek asmatzeko ere, etzan asko. Negu gorrian, bazter guziak



zurituta zeudela, nun arki zezakean marrubirik?... Baiña ugazamaren kopeta ikusi ta etzegoan etxean gelditzerik. Atera zan nexka errukarria ta ba-zijoan basoan barrena... *(Soiñua pausoei jarraituaz bezela taka-taka, taka-taka...)*

**LIERNI:** Nora joango ote naiz egualdi bildurgarri onekin?... Ai, nere ama maitea bizi izan ba-litz! Ez niñuan arek bereala egualdi onekin mendira bialduko. Nun zaude, ama, zure alaba onela utzita? Arren, zeru ortatik lagun nazazu! *(Soiñua itxaropentsu gora ta bera...)*

**IZLARIAK:** Amak zeruetatik entzun ba-lio bezela, orra nun agertzen zaion urrutira txabola bat.

**LIERNI:** Ene! Nere ama gaixoak entzun dit eskaria. Ara nun ikusten dedan txabola bat. Araxe joko det laguntza-eske. *(Soiñuak elurretako pausoak lagunduaz gora ta bera...)*

**IZLARIAK:** Esan da egin. Elurretan bere oiñak sartzen zirala, jo zuan txabola aldera bere otzikarak eta nekeak uzten zion neurrian. Laister, baiña ez berarek nai bezin azkar, jo zuan txabola atea: *(Dan, dandan!...)*

Barruan pauso otsak eta atea zabaltzeko krisketa  
otsa aitu ziran. (*Pauso otsa ta atea irikitzen  
entzungo da...*)

Zabaldu zan atea, ta iru gizon agertu zitzaizkion  
Lierni'ri. Onek otzikaraz itzegiteko ere, etzuan  
indarrik. Ala dio gaixoak:

**LIERNI:** Egun on, gizonok!

**GIZON-ABOTSA:** Baiña zer zabiltz elurretan eta soñe-  
ko arin orrekin?

**LIERNI:** Amak bialdu nau marrubitara.

**GIZAKUMEAK:** Ze ama dezu ori, gero? Neguaren bio-  
tzean otzak galtzeko zorian eta marrubitara  
bialdu?

**LIERNI:** Nere ugazamak bialdu nau.

**GIZAKUMEAK:** A! Ori besterik da. Sartu, sartu pixka  
bat berotzera, ta marrubiak ere erakutsiko  
dizkizugu gero.

**LIERNI:** Eskerrik asko, jaunok.

**IZLARIAK:** Sartu zan nexka barrura, ta ongi berotu  
ondoren, gizon aietako batek esan zion:

**GIZAKUMEAK:** Ekatzu saski ori ta ortxe, txabola  
atzean degu naikoa marrubi saski ori betetze-  
ko. Bereala naiz emen. (*Ate-otsak irtetzeko ta  
sartzeko. Bitartean soñua gora ta bera...*)

Ikusten nolako ederrak bildu dizkitzudan! Eta orain irurok esku-erakutsi bat bezela, gure oparia eskeiñiko dizugu.

**IZLARIAK:** Lenengoak onela egin zion bere oparia:

**1. GIZAKUMEAK:** Esaten dezun itz bakoitzeko, urrezko ontza bat eroriko al-zaizu oiñetara!

**IZLARIAK:** Bigarrenak onela itzegin zion:

**2. GIZAKUMEAK:** Geroago ta ederrago izango al-zera!

**IZLARIAK:** Eta irugarrenak:

**3. GIZAKUMEAK:** Ildakoan aingeruak zeruetara jasoko al-zaitue! (*Soiñua bidean aurrera egitekoa, alai ta bizi...*)

**IZLARIAK:** Etxera iritxi zanean, ugazama ao bete ortzekin gelditu zan.

**UXABI:** Jainko maitea! Iñoiz baiño ederrago dator gure neska gorrotagarri ori. Ta au naikoa eztala, saskia marrubiz betea dakar: eta beraren itz bakoitzeko ontzako urreak erortzen zaizkio oiñetara! (*Soiñua indar aundian eta nastua... Gora ta bera...*)

**IZLARIA:** Amorro biziz eraso zion Lierni gaixoari:

**UXABI:** Orain ere, egin den ik sorginkeriren bat. Nundik ator, Lierni?

**LIERNI:** Iru gizon atera zaizkit eta aiek erakutsi didate marrubien tokia. Gaiñerakoa begien aurrean dezu. *(Soiñua bizi-bizi gora ta bera...)*

**UXABI:** Nun da nere alaba?... Xerapi!... Xerapi!

**XERAPI:** Zer dezu, ama?

**UXABI:** Eztakizu asko zer egin digun Lierni'k. Onela ta onela, txabola bat arkitu du mendian eta an iru gizon. Ta orain saski bete marrubirekin eta itz bakoitzeko ontzako urre bat dariola agertu zaigu... Oraintxe da gurea! Jantzi itzatzu soiñekorik onenak eta txabola artara bialduko zaitut, Lierni bezela edertu ta aberastua itzuli zaitezen.

**IZLARIAK:** Etzuan bi aldiz esan bearrik izan alabak. Bere apaingarri guziak jantzi ta amarengana gertu zanean, onek bere ugazalabari deitu zion, esanaz:

**UXABI:** Lierni, orain nere alaba Zerapi'ri lagun egin bear diozu gain artaraiño, ta andik erakutsiozu ikusi dezun txabola nun dagoen. Gero, zu etxera etorriko zera, ta Zerapi joan dedilla bakarrik txabolara. *(Soiñua gora ta bera... Bidean pauso-otsak mendi aldera arrutiratzen.)*

**IZLARIAK:** Esan bezela, mendi gaiña zapaldu zutenean gazte biak, Lierni'k erakutsi zion Zerapi'ri txabola urrutira, ta gero banatu ziran nexka biak. Zerapi, txabola aurrera iritxi zanerako, atejoka asi zan: *(Ate-oska: Dan!... dan!... dan!...)*

**XERAPI:** Ez ote dago iñor barruan?... Bai! norbaiten pausoak onuntza datoz. *(Entzun bitez pausok, eta atea irikitzen...)*

**GIZONAK:** Arratsalde on, gazte!

**IZLARIAK:** Ta arekin, beste gizon bi agertu ziran atera. Orain da nerea! esan zuan berekiko Xerapi'k.

**GIZAKUMEAK:** Zer dakarzu etxe ontara?

**XERAPI:** Ara, ba. Nere amak saski onekin marrubitarra bialdu nau, ta emen nenbillen nora-ezik, elurretan negargarri.

**GIZAKUMEAK:** Marrubitarra? Ez al-din ire amak naikoa, ire aizpari emandakoakin?

**IZLARIAK:** Ta iru gizonak, etzioten Xerapi'ri marrubirik erakutsi. Aren orde, iru opari eskeiñi zizkiten, zein beiño zein galgarriagoak:

**1. GIZAKUMEAK:** Esaten denan itz bakoitzeko, zapo bat eroriko al-zain!

**2. GIZAKUMEAK:** Egunetik egunera itxusiagoa izango al-aiz!

**3. GIZAKUMEAK:** Ildakoan, inpernuko txerrenak beren zuloetara eramango al-aute!

**IZLARIAK:** Amarengana, saskia utsik eta zapoak zerizkiola agertu zanean, aren amorroa!

**UXABI:** Au ere ikusi bear genduan! Neska demonio orren deabrukeriren bat degu au... Nik erakutsiko diot orri, bi ta bi zenbat diran!

**IZLARIAK:** Urrengo egunean, ibaia otzaren otzez izoztua zegoen. Orixe besterik etzuan nai ugazama sorgiñak. Dei egin zion Lierni'ri:

**UXABI:** Aizan, Lierni. Orrelako sorginkeriak egiteko gauza aizenan ezkerro, artu itzan mataza auek, eta oakit ibaian jo ta garbitzera. Ta kontu elur onekin oiñetakorik jantzi! Oiñutsik joateko ere, ez ago i sasoi txarrekoa, bai, ta etxeko soiñeko naikoa den lan ortarako.

**IZLARIAK:** Itzik etzion erantzun Lierni'k. Ba-zekian alperrik izango zana-ta. Otzak ikaraz atera zan ibai aldera, ta bertako ur jelatan matazak jo ta garbitzeari eman zion... An zegoen gaixoa bere bakarrean malkoak egosten. Ontan, zaldun eder bat alboratu zitzaion, eta nexkaren esku izoztuak eta soiñeko arlotea ikusirik, errukiaren errukiz galdetu zion:

**ZALDUNAK:** Zertan ari zera, nexka maite?

**LIERNI:** Amak mataza auek garbitzera bialdu nau ibai ontara.

**ZALDUNAK:** Ibaira, dagoen egualdi onekin? Ze ama dezu ori?

**LIERNI:** Nere ugazama.

**ZALDUNAK:** Ba-nengoen, ba! Biotza bear du ama benetako batek bere alabari onelako lanik emateko... Baiña, zaude, zaude! Emendik aurrera eztezu orrelako nekerik izango. Atoz, nere etxera, ta nere amak alaba benetakotzat artuko zaitu. *(Soiñu alaia gora ta bera...)*

**IZLARIAK:** Ta nola diran kontuak!... Zaldun ura errege bera zan!... Nundik sortu diteken gure zoriona! Erregek Lierni berarekin artu ta etxera eramán zuan. Andik egun batzuetara, egundoko eztaiak izan zian erregeren jauregian, eta Lierni erregin egiña gelditu zan. *(Soiñua ezta girokoa, gora ta bera...)*

**UXABI:** Xerapi! Oa ibaia ikusten dan mutur ortara ta ikusi zan Lierni'k zer egiten duan onenbeste denboran.

**IZLARIAK:** Joan da Xerapi ikustera, ta ibaian etzan Lierni'rik agiri. Andik laster zabaldu ziran Erre-

ge-etxeko berriak alde guzietara, ta ugazama lenez gain, inbidiz erretzen jarri zan... Baiña zer egin? Lierni, bere lenengo semea izateko zegoela, ugazama ta onen alaba nolabait sartu ziran erregeren jauregian, eta nola ezta-  
kit, bera izentatu zuten erregiñari aurgintzan laguntzeko.

**UXABI:** Xerapi! Oa inguruak ikustera, ta ia nun diran errege ta onen ama.

**XEAPI:** Oraintxe ikusi ditut, aur jaio berriarekin lorategian daudela.

**UXABI:** A, bai? Orduan goazen oraintxe erregiñaren gelara ta igarriko zion neska lotsagabe orrek nor naizen ni.

**IZLARIAK:** Besterik gabe, an dijoaz ama-alabak. Uxabi'k amorro biziz Lierni gaixoa ogetik atera ta ibaira bota zuan. Aren lekuan, orra nun sartzen duan erregiñaren ogean bere alaba Xerapi... Etorri da errege, ta ezta-ki zer egin.

**ERREGIK:** Nor ote da nere emaztearen ogean dagoen emakume itxusi, zapo-jario ori?

**IZLARIAK:** Ontan txori bat txioka asi zan, esanaz:

**TXORIA:**

Txintxin, txirikitin txoria



txaritxo txilibitaria.  
Zalduna ero dijoa,  
ibaian andre gaixoa.

**IZLARIAK:** Kanta aren bitartez, jakin zuten nun zegoen erregiña. Jaso zuten azkar asko uretatik, eta ugazamaren lan beltza jakin zutenean, labean erre zuten sorgin ura; ta aren alaba itxusia, itxasoan ito. (*Soiñua indartsu ta luze baraipen doiñuz...*)

Esaten dizuet nik... gaiztoa eztala beiñere ongi ateratzen. Bere okerrean galtzen da azkenerrako. Zuzen ibilli, maiteok, eta kontu iñori inbidirik izan! Bekaizkeria, giza-arteko izurria!

# ALKARTUAK

**ASIERA:** Ipui guzientzako... (*Doiñua: «Artolak dauka»... Gora ta azpipe...*)

**EMAKUME ABOTSA:** Bein batean, Bizkai'ko lurretan, ba omen zan gizon aberats bat, bere etxean pakerik etzuana... Mundua ikusi nai... Ta mundua etxe barruan ezin sartu. Orratx!... Beruari eragin eta eragin... berotu zan azkenerako: (*Soiñua gora ta bera...*)

**ABERATSA:** Ba-noa munduan zear, zer ikusten dedan begiratzera. (*Doiñua gora ta bera...*)

**EMAKUME ABOTSA:** Biderako bear bearrekoa artu ta atera zan etxetik. (*Atea isten eta bidean pau-soak entzun bitez...*)

**ABERATSA:** Ze aldetara joko ote det?... Noan bide ontatik!... Zerbait ikusteko bidea izango det, noski... Ara! baso artan norbait agiri da... Ia zertan ari dan. (*Doiñua bideari laguntzekoa, gora ta bera...*)

**IZLARIA:** (*Emakume abotsa komeni da Izlari onen esanetarako*). Basora iritxi zanean, egurgille bat ikusi zuan, egundoko egur pilloa lotzen. Orta-

rako, eldu zion aritz sendo bati, sustraitik atera ta lokarri bat ba-litz baiño errezago, eskuz biurritu zuan aritza ta arekin lotu bere egur-txorta aundia.

**ABERATSA:** Kaiso, adiskide! Zertan ari gera?

**EGURGILLEA:** Agirian dago nere lana. Egur-pillo au etxera eramateko, lotzen ari naiz.

**ABERATSA:** Gizona! Eztezu indar makala, aitzia orrela okertzeko! Atoz nerekin eta zure indar oiekin egurretan baiño geiago irabazteko bidea sortuko dizut.

**EGURGILLEA:** Ongi da! Itzetik artzen zaitut.

**IZLARIA:** Ta besterik gabe, egur txorta bertanbera utzi ta batu zitzaion gure aberatsari. (*Doiñua gora ta bera...*)

Gizon biak aurrera ta aurera ba-zijoazen... Igaro zituzten erri batzuek eta aietako batera urreratzen ari zirala, orra nun arkitzen duten beste gizon bat gora begira:

**ABERATSA:** Egun on, lagun! Egualdiari begira, ala?...

**BEGIRALEA:** Ez, jauna, Egualdiak ez dit kezkaik ematen. Beste zerbait det or goitik itzultzekoa.

**ABERATSA:** Or goitik?

**BEGIRALEA:** Bai. Oraintxe ordubete, dunba bat, tiro bat, jaurtiki det, eta beste ordubete barru jetxiko da nik jaurtitakoa.

**ABERATSA:** Gizona, gizona!... Orrelako doaia ba-dezu, atoz gurekin, eta etzera gaizki izango.

**BEGIRALEA:** Ezta gaizki esana. Berealaxe naiz zuekin.

**IZLARIA:** Eta iru gizonok, andik pixka batera alkarrekin ziran bidetan barrena... (*Doiñua gora ta bera...*)

Ta orra nun arkitzen duten beste gizon bat, bere belarriak lurrean josita entzuten bezela zegoena.

**ABERATSA:** Kaixo, gazte! Zer egiten dezu or belarriak lurrari emanda?

**ENTZULEA:** Nik, nere belarri auei eskerrak, munduko berri guziak jakiten ditut. Baiña ala ere ba-det gauza bat oraindik ikasi gabea.

**ABERATSA:** Ze gauza?

**ENTZULEA:** Gariak ernetzerakoan nolako otsa ateratzen duan.

**ABERATSA:** I ere egoki etorriko aiz guretzako. Utzi zak lurrari galdezka egote ori, ta ator gurekin.

**IZLARIA:** Eta ura ere batu zitzaien... Or dijoaz laurak aurrera bidean... *(Soiñua gora ta bera ta pauso otsak bidean...)*

Eldu dira ola zar baten aurrera, ta an ikusi zutenak, geldi-arazi zituen gure bide lagunak. Ola aretan, gizon bat bere sudur zulo bat beatzez estali ta beste sudur-zulotik aizea botaka ari zan. Lagunetatik zarrena joan zaio ta galde-tzen dio:

**ZARRRENAK:** Zer ari gera, konpañeo?

**AIZE-EMAILLEAK:** Sudur-zulo bakarretik botatzen dedan aizearekin, alboko ola onetxen gabi ta ardatza erabiltzen ditut. Zulo bietatik aize-ematen asiko ba-nintza, ola au sustraitik atera ta aidean zear jongo litzake.

**ZARRRENAK:** Motel! motel! ez aiz makala. Gurekin etorri nai al-dek? *(Soiñua gora ta bera ta pauso-otsak bidean aurrera...)*

**IZLARIA:** Eta ala, ugaldu zan beste batekin lagunentzako taldea... Ala kontuak, joan da joan da joan... Erregeren uri nagusira iritxi dira bost lagunok. Etziran ixillik egotekoak, eta kaletan barrena sartu ziranean, asi ziran erronka jotzen ezkereskuitara:

**ABERATSA:** Zama jasotzen gu aiñakorik ba-da, betor bide-erdira!

**EGURGILLEAK:** Prakadunik ba-da, aurreratu bedi emen!

**BEGIRALEAK:** Anka bikorik ba-lego, joka beza gurekin!

**ENTZULEAK:** Probintzian iñor ba-da!...

**AIZE-EMAILLEAK:** Munduan gauza danik ba-da!...  
*(Mar-mar aundia entzun bedi ta soiñua gora ta bera...)*

**ERREGEK:** Zer da kale ortan orrenbeste zarata ateratzeko?

**MORROIAK:** Bost gizon dira, Jauna. Ta oiu aundiak egin dituzte.

**ERREGEK:** Zer bear dute?

**MORROIAK:** Uri ontan zama-jasotzaillerik ote-dan galdetzen dute. Ta berak aiña jaso ezetz, diote.

**ERREGEK:** Joan adi kalerik-kale ta jo zak pregoia. Uriko gizon indartsuenak bildu ditezela nere jauregi aurrean. *(Soiñua gora ta bera. Gero, danborotsa ta pregoi-oiua...)*

**MORROIAK:** Aditzera ematera noa, gure uri nagusi ontan bost gizon agertu dirala, ta erronka jotzen digutela, ia nork jaso dezaken berak aiña zama. Orregatik, Errege Jaunaren agin-

duz, etorri ditezela Errege-Jauregi aurrera uri ontako gizonik indartsuenak, eta joka dezatela bost gizon oien kontra, nork zama aundia-goia jaso. (*Marmarra ta jende otsa... Soiñua indarrean bukatzeraiño.*)

**IZLARIAK:** Bildu ziran uriko gizonik aipatuena, beren indarrak gure bost lagunekin neurtzeko... Erregek, urre ta zillarrez betetako zaku batzuek saritzat ekarrarazi zituan aurrera. Zaku ikaragarriak ziran, eta irabazteko aiek jaso bear zituzten jokalaria. Errege-etxeo oiulariak, deadar egin zien:

**OIULARIAK:** Or dituzue zaku oiek, bata baiño bestea astunagoak. Asi bereala, ia nor gelditzen dan nagusi jokoan. (*Marmarra geitzen... Oiu batzuek: Ia, Patxi! Irea dek joko!... Ogei bosti Patxi'ren alde!... Ba-ziak... Soiñua gora ta bera...*)

**IZLARIAK:** Patxi ta bere lagunak, denak uri artakoak, banan-banan jaso zituzten zakuok, txikienetatik asi ta astunenetaraiño. Onek errezago, arek nekezago. (*Txalo aundiak eta oiuk: Ori dek gatza!... Etzegok i bezelako ardatzik!...*)

Uriko gizon indartsuak bukatu zutenean, Errege-  
ren ordezkioak oiur egin zien gure bost lagunei:

**ORDEZKOAK:** Orain zuen txanda da! Ia ontzen dezuen  
uriko gizonen marka.

**IZLARIAK:** Aurreratu zan aritza sustarretik ateraka  
arkitua izan zan laguna, ta zaku guziak batera  
artu ta bizkarreratu zituan, jendeak «Amen»  
esan baiño lenago. Ango txaloak!

*(Txalo biziak entzungo dira... Ta oiur biziak: Ori dek  
besoa!... Txapeldun dek kanpotarra!... Soiñua  
ta oiurak nasi...)*

**ORDEZKARIAK:** Errege jaunaren aginduz, kanpotarrak  
jasoko ditu beretzat zaku guziak, duten urre ta  
zilarrekin! *(Txalo ta oiurak berriro...)*

**IZLARIAK:** Artan, bukatu zan jokoa ta gure bost gizo-  
nok, artu zuten etxerako bidea. Zakuetan,  
beren bizitza guzian aberats izateko lain diru  
bazeramaten. Baiña ainbeste dirurekin bidean  
joatea, etzan arriskurik gabeko lana, ta bada-  
ezpada ere, lurrean belarriak jartzen zituan  
arek makurtu ta entzun zuan, ezer okerrik ote-  
zetorkien jakiteko:

**ENTZULEAK:** Adiskideok! Galduak gaituk!

**ABERATSA:** Zer, ba?



**ENTZULEAK:** Erregek soldadu talde aundia bialdu digure billa. Gaiñean dizkiagu laster. *(Soiñua bizi-bizi ta naste aundian...)*

**TIRODUNAK:** Etzaitezte bildurtu, lagunok. Gauden ementxe geldirik, eta gero ikusiko diagu nor zein dan. Emen dituk! Ez bildurtu! *(Zaldi azkarren otsa... Gero, tiro ta dunba zarata...)*

**IZLARIAK:** Eskopetadunak zaldizkoak iritxi-ala, bere txispaz jo ta lurreratzen zituan lasai. *(Berriro zaldi-zarata ta tiro-otsak...)*

**TIRODUNAK:** Mutillok! Auek joan dituk. Etzigutek geia-go kezkarik emango. Itxasoan aurrean diagu, bai, ta arrapa gaitzatela berriz. *(Soiñua larri ta azkarra... gora ta bera...)*

Bost lagunak, ontzi bat beren kontura artu ta jo zuten itxasoan aurrera. Zapiak aizez puztuta, ba-zijoazen olatuak gainduaz... Baiña lurreko zarata guziak entzuten zituanak, etzuan geiegizko pake-usterik. Jarri zan, ba, entzuten eta bereala deadar egin zien lagunei:

**ENTZULEAK:** Ez poztu azkarregi, mutillok! Emen dizkiagu berriz ere, erregeren ontzietan millaka gudari. *(Aizea ta arraun-otsak entzun bitez... Soiñua larritzen...)*

**IZLARIAK:** Baiña an zegoen, aize-emaillea, ta etsaiak inguratu zitzaizkionean, asi zan sudurzulo bietatik aizea astintzen... Ura ardailla sortu zuana erregeren ontzietan! Errege bera ere an baitzan; sudurzuloetako aizeak jaso zituan egundoko ekaitzak, eta olatu asarre aien azpian, an galdu ziran errege ta bere mendekoak. *(Deadar larriak, aize-erasoak... olatu arroak... dunba ta oiuk...)*

Onela, bost adiskideok alkarren laguntza batu zutelako, irabazitako urre ta zillarrarekin ederki bizi izan ziran andik aurrera.

*(Soiñuak poza dariola bukatzen du gure kontuzarra...)*

**BUKAERA:** Ala ba-zan, ezpazan, Bitoriko plazan sagu xarra dantzan...

Ipui guzientzako bukaera emen azkenerako.

# AMEN

**ASIERA:** Ipui guziena bezelakoa... *(Doiñua: «Mendekoste Bestetan», gora ta azpipe...)*

**IZLARIAK:** Euskalerra oso elizkoia dalarik, ba-du gure jendeak alako umore xeble bat apaizen bizkar parre-murrixka egiñaz, bere barrena lasaitzeko. Esan oi dana, urrutitik ikusten deguna, oso aundi jotzen degu, baiña artu-emanen sortzen ba-zaigu berarekin, jaso genion alki goiti artatik berealaxe jeisten degu. Sakristau ta eliz-mutillentzat ere, orrela oi da apaiza: kanpotik dabilzanentzako baiño txikiagoa, gixonagoa. Eguneroko beren artu-emanetan, alderdi onak eta aulak elkarri ikusten bai-dizkiote. Ta asi gaitezen nolabait gure kontu zarrak aztartzan... *(Doiñua gora ta bera...)*

**APAIZAK:** Dominus vobiscum.

**SAKRISTAUAK:** Et cum spiritu tuo. *(Organua elizan...)*

**IZLARIA:** Erri artan ere, beste askotan bezela, ba-zan eliza, ba-zan sakristaua, ta ba-ziran emakumeak ere... Nun ez emakumerik? Zerutik asi ta inpernura bitartean, beti degu emakume-

ren bat maixeatzen edo errezatzen... (*Entzun bedi emakume biren errezo-otsa: «Aita gurea, zeruetan zaudena...» «Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia...»*)

**IZLARIA:** Nun gera?... Erri ontan eliza aiñakorik ezta ikusteko, ta antxe sartu gera besterik ezean... Illuntxo dago ezer ikusteko... Aldaretako Santu iduriak itzalarekin alako arrada berebizikoa sartzen digute zaiñetan... Beti bezela, otoitzez aspertu eziñik, or ari zaizkigu bi emakumetxo beren «Aita gureak» zerutarren artean banatzen:

- 1. EMAKUMEAK:** Aita San Jose'ri eriotz on bat egokitu dakigun. «Aita gurea, zeruetan zaudena...»
- 2. EMAKUMEAK:** «Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia...».

**1. EMAK:** Aita San Antonio'ri, gure txerria senda dedin:  
Aita gurea...

**2. EMAK:** «Emaiguzu gaur gure eguneroko ogia...»

**1. EMAK:** Ama Santa Ana'ri, gure alabak gorde ditzan:  
Aita gurea...

**2. EMAK:** Emaiguzu gaur gure eguneroko... (*Entzun bitez giltza-otsak eta norbaiten marmarra...*)

**SAKRISTAUAK:** Emakume arraio oiek noiz aterako ote-dira?... Ez ba! Ez naiz geiago zai egongo! Sakristau opizioa baiño aspergarriagorik! Norberaren andrea etxean naikoa ezpalitz bezela, elizan erriko emakume guzien txorakeriak entzuten egon bear! Azkenean, orreatik, badijoaz kanpora. Noan ni ere, besteren bat sartu baiño len... Iñor ba al-da elizan?... (*Ixillu-nea*)... Iñor gelditzen al-da elizan?... (*Giltza-otsa isterakoan. Gero doiñu illuna goraberan*).

**IZLARIA:** Itxi zuan sakristauak elizako atea... Eliz-atarian Jerbaxi ta Protaxi, errezoetan errian txapeldun ziran atxotxo biak, an zeuden beren mingaiñei lasai-aldi bat ematen, elizan «Aita gure»z ongi ase ta gero...

**JERBAXI:** Ene! ta bederatziak dira. Etxera joan bearko det.

**PROTAXI:** Zaude pixka batean... Eztakizu asko!...

**JERBAXI:** Zer? zer?...

**IZLARIA:** Eta berriro atxotxo biak mataza askatzen asten ziran... Agur eta agur alkarri egin ondoren, ezin atertu itz-jarioa... Ta ala utzi zituan bertan sakristauak:

**SAKRISTAUAK:** Gabon, andreok.

**JERBAXI:** Ala zerorri ere Jainkoak! Anjelatxo sendatu al-zan?

**SAKRISTAUAK:** Aspaldi astindu zituan gaitzak.

**PROTAXI:** Ta emaztea?

**SAKRISTAUAK:** Ongi, Jaunari eskerrak.

**JERBAXI:** Aizu, Dionixio, egia al-da?...

**SAKRISTAUAK:** Barkatu, andreok, baiña gaur oso presa aundia det. Biar arte, Jaungoikoak nai ba-du. *(Pauso otsak urrutiratzen...)* Atso demonioak! Bertan lotu ez nautenean! Deabrua ere, nastuko luteke bere erretolika orrekin. *(Doiñua gora-beran arin... Gero, soiñu geldia...)*

**IZLARIA:** Atso biak, eliz-atarian gelditu ziran artean:

**PROTAXI:** Esaten ari giñana... Etxetxo'neko Sinfo'k semea izan ote duan, zabaldu da.

**JERBAXI:** Zaude ixillik!... Aingeru arpegi orrekin! Nork esan bear zuan?

**PROTAXI:** Gaurko gazteak! Dakizuna... errespetorik ez dago etxetan.

**JERBAXI:** Gu ere gazteak izanak gera, ba...

**PROTAXI:** Bai ta oraingo auen txorakeririk gabeak, ala ere.

**JERBAXI:** Esango nuke!

**PROTAXI:** Baiña orduan, errespetoa zegoen etxetan, errespetoa, Jerbaxi.

**JERBAXI:** Bai, Protaxi. Eztaude begira gure gurasoak!

**PROTAXI:** Gurasoak? Bai, orixe! Ordu onean joan ziran. Bestela, ikusten ditugunakin, berriro lurpera biurtuko lirake. (*Eliza barrutik zaratak datoz...*)

**JERBAXI:** Aizu, Protaxi. Ez al-dezu zerbait entzun?

**PROTAXI:** Baietz esango nuke!

**JERBAXI:** Eliza barruan zirala esango nuke.

**PROTAXI:** Ezta elizan izango. Dionixio'k garratz asko deadar egin du atea itxi baiño len. (*Zaratak berriro...*)

**JERBAXI:** Ixo! ixo! Elizan dira, bai, zaratok! (*Zaratak urreratzen datoz... Alako pauso-ots antzeman eziñekoak dirudite... Azkenean, elizako atea barrutik danba batean jotzen dute...*)

**JERBAXI:** Aitaren eta Semearen eta Espiritu Santua-  
ren...

**PROTAXI:** Jesus milla bider! Deabrua dabil, iñolaz ere, gure elizan!

**JERBAXI:** Etzazula deabrurik aitatu emen eta ordu onetan. (*Berriro zaratak eta ateari danbateko*

*aundia barrutik...)* (Soiñua bizi-bizi ta nastuan jo bezate...)

**IZLARIA:** Atso biei, joan zitzaien berriketarako gogo...  
Oinak arindu zitzaizkien bigarren danbateko ura entzun zutenean, eta erio suerrean izkutu ziran berealakoan eliz-ataritik. Zuzen-zuzen bikarioaren etxera jo zuten estu ta larri:

*(Apaiz etxeko atean joka:)*

**PROTAXI:** Dan! dan! dan!... Don Joxe Migel! Don Joxe Migel!

**APAIZA:** Nor ote-da orain ere, ordu onetan deika?... Egun guztian gaixorik egon dan norbaitentzako sakramentu eske izango da norbait orain ere.

**JERBAXI:** Don Joxe Migel! Don Joxe Migel! *(Ate-joka)*  
Dan! dan! dan!

**APAIZA:** Ba-noa!... *(Atea zabaltzen...)* Zer dezue, androk?

**JERBAXI:** Ai, eztaki asko, bikario jauna!

**PROTAXI:** Danba, danba, danba ta bun!

**JERBAXI:** Purgatorioko anima bedeinkatuak!

**PROTAXI:** Aita San Jose glorioso!

**JERBAXI:** Ura da baiña!



**PROTAXI:** Inpernuko txerrenak gure elizan sartuak dira, nunbait.

**APAIZA:** Ze naste izketa dezue, emakumeok? Paketu zaitezte ta itzegin dezagun patxaran.

**JERBAXI:** Ai, Bikario jauna! An eztabil gauza onik. Pro-taxi ta biok eliz atarian geunden, ezeren ames txarrik gabe, alkarrekin betiko kontuak esaten... Eta ontan, eliza barrutik zarata batzuek entzun ditugu. Aurrenengo, aldare nagusi inguruan ziruditen zaratak, baiña gero... Or dator norbait ate ondora, ta danba, jo dute barrutik indarrean.

**APAIZA:** Ez al-diozute deitu, nor dan jakiteko?

**PROTAXI:** Ai, ene! Pauso aiek etziran kristau batenak. Nola deituko genion, ba? Naikoa izan degu onuntza iges egiten.

**APAIZA:** Ez al-ziñaten, gero, norbait maixeatzen ari?

**JERBAXI:** Ez, jauna. Etxetxo'neko Sinfo'rena oni esaten bakarrik.

**APAIZA:** Ai! Orduan etsaia inguruan izango zenduten, noski.

**PROTAXI:** Ni, pekatari au, aitortzen nazaio Jaungoiko Alguztidunari... Barka bezait nere mingain luze au erabillia!

**APAIZA:** Tira, tira! Goazen lenbailen Dionixio'rengana.  
Etsai ori lenbailen atera bear degu elizatik.  
(*Musika nastua ta kezkatia gora ta bera...*)

**IZLARIA:** Besterik gabe, an dijoaz apaiza ta emakume biak sakristauarenera. Jo ta jo atea... Noizbait atera zaie leiora Dionixio.

**DIONIXIO:** Nor da?

**APAIZA:** Atoz azkar, Dionixio. Gure elizan Txerrena sartua izan bear du, ta konjurua egingo degu bion artean.

**DIONIXIO:** Inpernuko Txerrena elizan? Ai, ene! Ortan ezin lagunduko diot, jauna. Nik ezpaidet iñoiz konjurorik egiten ikasi.

**APAIZA:** Gizona! Nik esaten dedanari, «Amen» erantzutea besterik eztezu egin bear. Orrenbeste ezin egiñik eztezu.

**DIONIXIO:** Ai, baiña!... Neri etsaiak ez dit bat ere bildurrik. Askoz obe du, beti errezotan ari diran emakume oiekin joatea. Oiei bildur geiago artuko die.

**JERBAXI:** Atoz, arren, azkar, Dionixio.

**DIONIXIO:** Otzi giltzak, Jerbaxi, ta konpon zaitetze zerok bikario jaunarekin.

**APAIXA:** Baiña ez al-zera lotsatzen emakume argal batzuek baiño bildur geiago agertzen? Zer esan bear du erriak, ori jakiten ba-du? Ezer gertatuta ere, an izango gera laurok. (*Musika bizia ta bat-batetan kolpera gelditua...*)

**IZLARIA:** Ala kontuak, atera zuten, orreatik, Dionixio bere etxetik, eta an dijoaz eliz aldera illunetan, eta anima ta arnasa ari batean zutela, zer ikusiko... Urbildu ziraneko, an ziran berriz zaratak. (*Entzun bitez pauso arlote batzuek eta noizean bein atean kolpea...*)

**JERBAXI:** Jesus'en Pasio Santua! Libra gaitzazu!

**DIONIXIO:** Bijoia atera, bikario jauna. Nik emendik erantzungo diot. (*Entzun bitez bikarioaren pausoak ate alderuntz...*)

**APAIZAK:** In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti...

**DIONIXIO:** Amen.

**APAIZA:** Oremus... Deus qui nobis potestatem dedisti invisibiles potestates debellandi... Per Christum Dominum nostrum.

**DIONIXIO:** Amen.

**IZLARIA:** Apaizak ur bedekatuaz elizako atea ongi busti ondoren, sartu zuan giltza zerraillean... Etsaiak zai-zai egon bear zuan barruko aldetik

iges irtetzeko. (*Zerrail otsa atea irikitzerakoan...*)

Illunpeak bildurra ezurretaraiño sartu zien emakume ta Sakristauari. Au asi zan atzeraka-atzeraka, zer gerta begira. Artan... (*Egundoko dandatekoa ta emakume ta sakristauaren garraxiak entzungo dira...*)

**IZLARIA:** Ai, ba, milla demonio! Atea iriki zuanarekin batera, zerbait atera zan elizatik. Zerbait arek-nork asmatu zer zan illunpe aretan-artu zuan apaiza berarekin eta an dioja gure bikario errukarria tximista batean eramana. Bere larritasunean, asi zaio sakristauari laguntza-eske:

**APAIZA:** Dionixio! Dionixio! Atoz laguntzera, deabruak bere atzaparretan eramane nazan baiño lenago! (*Berriro emakume garraxiak...*)

**IZLARIA:** Leku onean zegoen ordurako sakristaua. Bere ikarak egoak emanda, an dioja igesi bizian. Bitartean apaiza bere deadar larrietan asi zan:

**APAIZA:** Dionixio! Dionixio! Lagun zaidazu!

**IZLARIA:** Sakristauak, bere oiñei atsedetik emateke, estu ta larri erantzuten dio:

**DIONIXIO:** Amen!

\* \* \*

**IZLARIA:** Urrengo egunean, ba-zan algara ugari sukalde baztarretan. (*Parre-algara aundiak entzun bitez...*)

**EMAKUME ABOTSA:** Ja, ja, ja!... Entzun al-dezue atzo gabekoa?

**ASKOK:** Zer? zer? zer?...

**EMAKUME ABOTSA:** Ja, ja, ja!... Ezin naizela egon. Lertu bear naizela parrez.

**GIZAKUME ABOTSA:** Baiña zer dezu parre zoro oiekin, emakume?

**EMAKUMEAK:** Bart gabea... elizan... Ja, ja, jaaa!!

**GIZAKUMEAK:** Esatekoa esango dezu noizbait.

**EMAKUMEAK:** Ai, Jesus! Au esteetako miña! Eztakizu asko bart zer gertatu dan elizako ateetan!... Oraintxe kontatu dit Jerbaxi Asponekoak.

**GIZAKUMEAK:** Orren parregarria al-da?

**EMAKUMEAK:** Ezin parregarriagorik asmatu... Intxuneko akerrak, illunabarrean artegitik iges egin omen zuan, eta or zebiltzan nun ezkutatu ote zan, asmatu eziñik... Bitartean akerra iñork

ikusi gabe, sartu da elizan... Sakristauak beti bezela, atea isterakoan, bere oiua egin zuan deadarka: «Ba al-da iñor elizan?»... Baiña alperrik. Akerrak txintik ere ez erantzun, eta an gelditu da giltzapean... Aspertu danean, asi da eliza barruan aruntz eta onuntz... Ain zuzen, eliz-atarian zeuden Jerbaxi ta Protaxi, erriko xaltxak elkarri trukutzen, eta akerraren pauso-otsak entzun zituztenean, inpernuko txerrena besterik izan zitekeanik, etzitzaien bururatu... Jo dute andre biak apaizarengana, ta onek, kostata, artu du berarekin gure sakristaua... Konjurua bota ondoren, bikario jaunak atea zabaldu du, ta bat-batetan, akerra sartu zaio sotana artean eta an darama gure bikarioa bere adarretan katiatua... Ene bada! An zer gertatu zan? Andre biak garraxika... Bikarioa Dionixio'ri deika... ta Dionixio laisterka bizian igesi ta bikarioari: «Amen! Amen! Amen!» erantzunaz, bikarioak anka artean inpernu guzia zeramalakoan... Ai, Jesus!... Ja, ja, jaaaa!! (*Soiñua indar guzian bukatu...*)

**IZLARIA:** Ta ala ba-zan, ezpazan, Bitori'ko plazan, erdi-erdiko losan, xaguxarra dantzan! (*Eresia indarrean bukatu...*)

**BUKAERA:** Ipui guziena...

# DOMINISTIKU

**ASIERA:** Ipui guziena... (*Soiñua: «Bolon bat eta bolon bi...», gora ta azpipe...)*

**IZTUNAK:** Ba-ziran, ba, aiek ere... senar-emazte pijuak, alajainkia! (*Soiñua gora ta bera...)*

**EMAKUMEA:** Izenak esango al-ditugu?... Mari Joxepa ta Peillo, ez oillar eta ez oillo. Ta okerrago zana: ez alabarik eta ez semerik... Onetxek galtzen zuan aien zoriona...

**GIZAKUMEA:** Urtea... urte bi ezkondu zirala, ta Mari Joxepa beti melar. Peillo, berriz, alakotxe sabel zorroa erakusten.

**PEILLO:** Ai, Mari Joxepa! Zuk bear zenduke, nik dedan aurrekalde arro au.

**MARI JOXEPA:** Ai, Peillo! Neronek eskuan ba-nu!... Ez naiz gutxi aritu, errezo ta kandela. Aita San Antonio Urkiolakoa, balia bekit!... Aita San Jose doatsua, arren, seme bat lenbailen!... San Pazifiko bedeinkatua, erruki guri!... Baiña emen eztator alerik gure etxera. (*Soiñua gora ta azpipe...)*



**IZTUNAK:** Emakume batzarretan ere ba-zituan Mari Joxepa'k lagun artuak. Aietako bat, zera... Patxiñeko Maiñixi...

**MAIÑIXI:** Onik al-zerate, Mari Joxepa?

**MARI JOXEPA:** Oker aundirik eztegu.

**MAIÑIXI:** Ta?...

**MARI JOXEPA:** Ezer ez oraindik, Maiñixi... Auxe da gure etxea illuntzen duana. Nere erreguak ezteute tutik ere balio.

**MAIÑ:** Ba-dira, ba, belar batzuek...

**MARI JOXEPA:** Belar eta sustar guziak agortuak ditut aspaldi.

**MAIÑ:** Ortarako, ilbera bear du, baiña... Ilberan batu belarrok, ilberan egosi ta artu, eta zera ere, ilberan egin.

**MARI JOXEPA:** Ilberak eta ilgorak alperrik izan dira guretzat, Maiñixi. *(Soiñua gora ta bera...)*

**IXTUNAK:** Gizonak zakarragoak ziran Peillo'rekin. Ako kirten ura ikusten al-dezue?... Bai, orixe... Urruzkiñeko Ximon... Peillo ikusten duaneko, or asiko zaio:

**XIMON:** Bejondaikela, Peillo! Andreari aurea artuta, ala?... A ze martopillak egin ditezken ire aurrekalde orrekin!

**PEILLO:** Goseak al-aiz? Gure txerri-askan arkituko dek puska bat. (*Soiñua gora ta bera...*)

**IZTUNAK:** Onela ziran senar-emazte aien solas-aldiak. Eta auzoan ongi bai-zekiten aien miña ta akatsa nundikoak ziran... beti ere, ba-zuten inguruan zirikatzailleren bat.

**MARI JOXEPA:** Nundik zatoz, Peillo? Gaur ere izan aldezu norbait?... Jakiña! ardangelako lagun zabar oien artean sartuko ziñan-da... Alperzorri oiek lana auzoan, eta miztorra aoan izango zuten.

**PEILLO:** Ez, Mari Joxepa, ez nintzan ardangelan... Bidean natorrela arkitu det lagun jaxo bat.

**MARI JOXEPA:** Ikusi ba-nu bezela... Egingo nuke Ximon Urruzkiñeko zala tartean!

**PEILLO:** Asmatu dezu, Mari Joxepa. Ximon zan gaurkoa ere... Baiña bereak eta bi entzunda joan da, arranoak ezpaitu! (*Soiñua gora ta bera etsi-samar...*)

**MARI JOXEPA:** Gureak egin du, Peillo!

**PEILLO:** Ez al-zaizu gelditzen santuren bat?

**MARI JOXEPA:** Zeruetako santu guziak pasatu ditut... baiña, alperrikan denak.

**PEILLO:** Onela bearko degu, orretan. (*Soiñua luze ta geldi gora-beran...*)

**IZTUNAK:** Senar-emazte biak izketa oietan ari zirala... (*Zarata aundi bat eta aize-burrunda bat-batekoa entzun bitez*).

**MARI JOXEPA:** Ene. Peillo! Zer da au?... Egundoko erre-usaia entzuten det.

**PEILLO:** Ala da... Auxe txerri erre usaia!... Ta kez bete da sukaldea. Zapi zarren bat utzi al-dezu su ondoan?

**DIABRUA:** (*Abots lodi ta izukorrez:*) Ze zapi zar arraio, gero?... Neroni naiz.

**IZTUNAK:** Senar-emazte biak, ao bete ortzekin gelditu ziran, ke artetik atera zan abots larri ura adi-tuaz... An zeukaten aurrean, alako gizontxo xistrin bat. Aren sudur-kakoa ta aren arpegi azal ximurrak, etziran esatekoak, eta botatzen zuan kiratsa!

**MARI JOXEPA:** Ama Santa Ana, Arrukoa!

**IZTUNAK:** Aitaren egitera zijoan andrea, baiña gizontxo agertu berri arek gelditu zuan esanaz:

**DEABRUA:** Ez al zera aspertu zeruetara deika?... Ongi ikusia dezu, ba, andik ezer ez datorrela.

**IZTUNA:** Peillo, artean ixillik egona zan, bere onera etorri ezinda, baiña alako batean, bere senean jarri ta galdetu zion bixitalariari:

**PEILLO:** Aurrena, ez ate otsik, eta ez krisketa-zaratarik, emen sartu zeran ori, nor zeran jakin dezagun.

**DEABRUA:** Zuen alperrikako eskariak entzuten aspertua dagon zuen lagun bat.

**PEILLO:** Izenik ez al-dezu?

**DEABRUA:** Bai, jauna, ta ongi ezaguna, gaiñera, baztarrretan.

**PEILLO:** Nor zaitugu, ba?

**DEABRUA:** Ni, deabrua.

**MARI JOXEPA:** San Pedro'ren abarkak! Deabrua gure etxean!

**PEILLO:** Esaten nuan, bai nik, erre-usai ori etzala parte onekoa.

**DEABRUA:** Etzaudete zuek iñoso pare makala! Erregu ta erregu alperrikan zeruetara. Ez al-dezue ederki asko ikusten, andik ezer ez datorkizuela?

**MARI JOXEPA:** Andik ezpada, nundik etorriko zaigu, ba?

**DEABRUA:** Neronengandik, emakume. Aurreko dendan ezer billatzen ez danean, jo beste dendaren batera. Ori da zentzuzko jokaera alde guzietan.

**PEILLO:** Zer aiz, ba, i Jainkoarekiko?

**DEABRUA:** Ura aiña edo geiago... Tira, naikoa da berriketaz, eta emen jokatu egin bear da.

**PEILLO:** Zer da jokatu bearreko ori?

**DEABRUA:** Ez al-zerate seme-eske gau ta egun?

**PEILLO:** Ori da gure gogoia.

**DEABRUA:** Ba... tratu egiña. Semea izango dezue, baiña aren anima gero neretzat izatekotan. Itz ematen al-didazue? (*Soiñua zaratatsua... gerora ixiltzen...*)

**IZTUNA:** Bederatzi illabeteak joanak ziran, eta seme ederra bularrean zuan Mari Joxepa zoriontsuak. Etzan ixillik pasatzeko gertaera. Urren-go egunerako, zikiro gizendu bat ekarri zuten etxera, ta senide ta ezagun, bazkaritara deituak ziran. Urren-go egunean iltzekotan, sartu zuten zikiro ori ukulluan. (*Soiñua gozo ta itxaropentsu...*)

Zikiroa iñork ikusi ezpalu, ezer ez... Baiña or zegoen koxka, ba. Norbaitek begiak ongi zorroztu

zitian, Peillo'k zikiroa bere etxean sartu zuanean. Eta begi aiek, Txipillo'renak ziran... Txipillo nor dan? Erri guzian ezaguna dan alper alproja aundi bat. Bereala asmatu zuan arek esku lana:

**TXIPILLO:** Au dek aukera, Txipillo! Ba-gera edo ez gera. Emen zeruak sortzen zidak egundoko mauka. Peillo'k sartu duan zikiro ori, gaur gabeen ostu ta kito. Peillo'k bere seme jaioberriarekin naikoa ba-dik pozteko. *(Soiñua gora-bera nastua indartsu ta samurrago...)*

**IZTUNAK:** Esan bezela, Txipillo'k bere itza zintzo asko bete zuan. Peillo'nean lo zurrunka zeuden ordurik egokienean, an dijoa gure mutilla ukullu aldera soka lodi bat eskuetan duala... Iriki du ixil-ixillik atea ta... *(Zarata aundi bat eta musika zakarra aidean...)*

**DEABRUA:** Kaixo, Txipillo!

**TXIPILLO:** Deabruak aurea artu neri?

**DEABRUA:** Zer uste uan, ba, ik? Lo egongo nintzala?

**TXIPILLO:** Zer dek emen egiteko?

**DEABRUA:** Ik zikiroa, beiñepein. Ezta ala, Txipillo?

**TXIPILLO:** Ta deabruak zeren gosea ote lezake etxe ontan?

**DEABRUA:** Nik, jaio berriaren anima nereganatu bear diat. Eta onezkero bideak legunduak zeuzkeat. I nerea aut, eta begira nola izango dan gauza. Kontu iñori ezer esan, Txipillo. Aurrak iru «Atxi!» egingo dizkik eta doministiku!» iñork esaten ezpadu, aurra il eta nerea diat. *(Soiñua naspilla aundikoa, gora ta bera...)*

**IZTUNAK:** Artan kontuak... andik pixka batera, aurrak goian sudurretako premiren bat somatu zuan bere baitan, eta ukulluan garbi-garbi aditu zan aren «atxi!» bat... Txipillo'k berekiko esan zuan:

**TXIPILLO:** Lenengo «atxi!» egin dik aurrak... Au ere ba-dek, ba, istillua. Zikiroa nere etxean obeto zegok emen baiño, bai... baiña aurra deabruak inpernura eramatea, gauza beltza uke.

**IZTUNAK:** Andik denbora laburrera berriro aurrari lenagoko premi berbera sortu zitzaion, eta ukuillu gaiñean, aurraren lo-gelan, aditu zan bigarren aldiz: «atxi»!.

**DEABRUA:** Aditu al-dek, Txipillo? Aurra bereala nere atzaparretan izango diat.

**TXIPILLO:** Ez al-diok orrelakorik egingo Peillo'ri!... Eta Mari Joxepa'k artuko duan min zorrotza...

**DEABRUA:** Tratua tratu oi-dek, eta nik nerea orrelaxe egiña diat. Irugarren «atxi!» aditzen dedan bezin laster, aurrarenak egiña dik.

**IZTUNAK:** Txipillo etzegoen trankil. Berak jakin zer egin bear zan, eta deabruari aurrak galtzen utzi,... Bera alproja izango zan, baiña alakorik... Bere barruan zerbait sortu zitzaion bat-batean, eta geiago itxoin gabe, esaten du dea-darka:

**TXIPILLO:** «Doministiku!» zikiroa galtzen ba-det ere. *(Zalaparta bizia ta musika zaratatsua...)*

**IZTUNAK:** Ura zan deabruaren amorroa!... An joan zan igesi, atzeko otzagatik! Goian, esnatu ziran Peillo ta Mari Joxepa, ta or datoz ukuillura, zer ikusiko.

**PEILLO:** Zer milla demonio pasatzen da emen?

**TXIPILLO:** Ederretik libratu zerate, Peillo!

**PEILLO:** Ta ik zer egiten dek emen, Txipillo?

**TXIPILLO:** Ara ba; gauzak diran bezela. Emen etorri nauk, zikiroa nere etxera eramateko asmotan. Ez dek asmo zuzena, baiña egia aurrena. Emen zegoan deabrua, zuen aur ori inpernura eramateko uste osoan. Baiña nik jakin diat arengandik, zer egin bear zan aurrak aren



eskuetatik askatzeko, ta orregatik deadar egin diat: «Doministiku!» Onela galdu dek deabruaren lana.

**MARI JOXEPA:** Ama Doloretakoa! Orrenbestean gelditu geranean, ezta ezer. Peillo, ba al-dakizu zer bururatu zaidan? Txipillo'k orrelako lan ona egin digun ezkerro, zerbait merezi duala.

**PEILLO:** Ederki esana... Txipillo! To gure zikiroa ta gure izenean egin zak bazkari ona ire etxean.

**IZTUNA:** Txipillo'k bi aldiz esan bearrik etzuan izan. Artu bere zikiroa ta aste artan egundoko eztaiak egin zituan aren kontura. (*Musika alai ta ariña gora ta bera indarrean...*)

# BIZIRIK ZERRALDOAN

**ASIERA:** Ipui guziena...

**IZTUNA:** *(Doiñua: «Artizarra zeruan»...)*. Ezkurrakoa bear zukean, ba, arek ere... Entzuten alde zue? *(Entzun bitez aizkora kolpeak pagaduan...)* Or ari da Ezkurra'ko Patxi Kontra, pago adarrera igo ta bere alkitzat duan adarra bera ebakitzen. *(Entzun bedi berriro aizkora lana...)* Pago ondoko orri ere, begiratu egin bearko diogu. Or du Patxi'k bere astoa, egur-zamaz ongi astundua, etxera itzultzeko amesetan. *(Asto arrantzak urra bedi aidea... Doiñua gora ta bera...)*

**PATXI:** Aska gosea al-duk? Ago, ago pixka batean adar au ebaki arte, ta bereala nauk irekin, Nabar. *(Asto arrantzak berriro...)*

**IZTUNAK:** Entzun dezue Nabarr'en musika gozoa... Onezkero igarriko zenioten Nabar, gure egurgillearen astoa dala. Ala deitu bai-dio Ezkurra'ko semeak... Nabarr'ek, ostera, zama ura bizkar gaiñetik kentzeko gogo bizia zuan, eta naiago zukean arek garagarrik irabazten

astea. Patxi'k aurreratu samarra du bere lana. Ontan... (*Bidean mando baten perra otsak adi-tuko dira...*)

Mandazai bat dator bidean urreratzen:

**MANDAZAIA:** Eup, adiskide!

**PATXI:** Kaixo, Mandazai. Bideak legor al-dira?

**MANDAZAIK:** Bideak legor eta lepoak bustiak lanetik bizi geranok... Baiña zer ari zera or?

**PATXI:** Adar auxe moztu nai nuke, zama osatzeko.

**MANDAZAIK:** Gizona! Zerori gaiñean exerita ariko zera, ba? Laster lurrean zera adarra baiño lenago.

**PATXI:** Mandazaia egurgilleari erakusten, e? Zoaz pakean zere bidean, mandoari eskola ematen.

**IZTUNAK:** Patxi'k iñoren esanari begiratu? Ortarakotxe zegoen gure Eskurra'ko seme yayoa. Zerbaitetik zeukan jarria gaitzizen ura: Patxi Kontra. Mandazaiaren esanak aizkora kolpez ito zituan, eta an joan zan aurrera mandoduna, Patxi adar gaiñean utzita. (*Aizkora otsak berri-ro...*)

Baiña mandazaiak ba-zekian zer esaten zuan eta alako batean: (*Adar ots aundia entzungo da, ta gizon garraxia...*)

Or dator gure Patxi Kontra adarra baiño lenago lurrera, mandazaiak esan bezela.

**PATXI:** Demontre! Mandazaiak zian arrazoia... Arek esan bezelaxe, adarra baiño lenago erori lurrera. Nundik ote-zekian arek neri gertatuko zitzaidanaren beori?... Ia, ia!... Ezurrak osorik zeuzkeat, beintzat, eta ba-natxiak gizon jakintsu orren billa. (*Laisterketa aditu bedi*).

-E, adiskide!... Mandazai!...

**MANDAZAIK:** Zer dezu?

**PATXI:** Asmatu egin didazu, zer gertatuko zitzaidan. Zuk esan bezelaxe, adarrak baiño lenako jo det lurra.

**MANDAZAIK:** Ori nere mandoak ere jakiña zeukan.

**PATXI:** Eztu maixu txarra ikasteko... Ta barkatu esanak... Baiña orren jakintsua zeran ezkerro, ni noiz ilko ote naizen ere, ba al-dakizu?

**MANDAZAIK:** Ikusiko ba-nu bezela.

**PATXI:** Deabrukeria! Ta nola jakin dezu ori?

**MANDAZAIK:** Egurgille buru-gogorak agirian dute beren azkena.

**PATXI:** Neronek ere, ordu ori jakitea nai nuke, ba...

**MANDAZAIK:** Baiña kontuak ongi atera, e?

**PATXI:** Egingo det alegiña.

**MANDAZAIK:** Ba, begira... Asto orrek, zamatuta dijoala, iru aize-bolara atzekaldetik botatzen dituan orduan, zureak egin du. An ilko zera besterik gabe. (*Doiñua irrizkoa... gora ta bera...*)

**IZTUNA:** Joan zan ala bere etxera, ta ustu zuan astoaren gaiña. Egunak eguna ekarri zuan ondoren, eta asteak astea... Eta gure Patxi Kontra'ri joan zitzaion burutik mandazaia'k esana. Aldi luze edo laburra izan zan, eztakit, baiña egunen batean, atera zan beste askotan bezela mendian gora bere astoarekin. (*Bidean astoaren oin-otsa ta Patxi'ren zantzuak...*)

**PATXI:** Aurrera, Nabar, aurrera! Zaartu al-aiz?... Gaur ongi zamatua etorri bear dek, ba, ta ez atzera gelditu. (*Soiñua tipi-tapa tipi-tapa...*)

**IZTUNA:** Iritxi ziran basora, ta berriro asi zan Patxi adarrak moztu ta Nabarr'i egur-zama leporatzen... Astoa ler zorian zetorren etxera bidean, eta barrua etzekarren pakean. Basoan jandako belarrak ere, aizetu zizkion nunbait, bere esteak, eta an zihoan asto gizajoa, bizkarreko ta estetako zama paketu eziñik. Alako batean, aizeak kanporako bidea eskatu zioten, eta an

dijoa aize beroa, trumoi txiki baten antzekoa. Patxi Kontra larritu zan, mandazaiaren esana gogoratuta:

**PATXI:** Astoa zamatuta zijoak, eta bota dik aurrenengoa. Oraindik beste bi bota arte, ba-diat bizia. *(Doiñua gora ta bera larri antzean...)*

**IZTUNA:** Baiña arrazkero, Patxi etzijoan lengo lasaitasunean. Astoa etxera orduko, zamaz arindu ta etzegoen arriskurik. Etzan laburra bidea. Patxi kezketan ba-zijoan, astoa etzijoan obeto bere zama astun arekin. Aldapak gora ta bera, ta esteak berriro aizez betetzen. Lau ankadun errukarriak, beste larrialditxo bat somatu zuan bere barrenean, eta atzekaldea lasaituaz, or dijoakio bigarren trumoa kanpora. Len kezketan ba-zan gure Ezkurra'koa, oraingo onekin galdu zuan bere pakea.

**PATXI:** Ordu laurden baiño lenago bigarrena?... Au dek au! Bat besterik etzaidak gelditzen oraintxe. Etxean ba-nintza! Doiñua larriagotzen... Bidean asto anka otsa...)

**IZTUNA:** Patxi ari batean zijoan, bere barruko larritasunez. Astoa aize aiek bota ezkerro, lasaiago. Eta -jakiña!- esteak sosegua artzen zutela ta

lengo bidetik gogo. Bigarrena bota ondoren, irugarrena atean jarri zitzaion, eta zebillela-zebillela, aidea urratu zuan irugarren aizealdiak. Patxi'k, mandazaiaren esana itxu-itxuan sinistuz, bere azkena eldu zala uste izan zuan, eta besterik gabe -punba!- erori zan lurrera... (*Musika, illetak jotzekoa... Gora ta bera...*)

An gelditu zan gure Patxi Kontra lurrean luze-luze. Astoak, berea eginda, aurrera jarraitu man. Etxeko atera eldu zanean:

**ANDREAK:** Ene! Astoa bakarrik dator. Zer egin otezaio gure gizonari?

**IZTUNA:** Eman zion negarrari, ta auzokoak aren karraxiak entzunda, jo zuten mendi aldera, astoak ekarritako bidean aurrera... Bereala ziran Patxi eroritako lekuan:

**BATEK:** Gizon au illa dago!

**BESTEAK:** Ez det uste, ba...

**IRUGARRENAK:** Ain illa eze...

**GUZIAK:** Illa! illa! (*Soiñua illun eta geldia... gora ta bera...*)

**IZTUNA:** Jaso dute lurretik eta ba-daramate bidean etxeruntz... *(Bidean, eramailleen pauso otsak...)*

**ANDREAK:** Ai, nere Patxi zoritxarrekoa! Ai, nere bizia!  
*(Negar eta zotiñak.)*

**IZTUNA:** Ekarri zuten zerraldoa ta sartu zuten bertan gure Patxi. Elizkizunak eta illetak egokiak izan ziran. Etxekoak negarrez urtu ziran, eta auzoak lagundu zion alargun naigabetuari bere doluan. Azkenik, zerraldoa bizkarrean zutela, atera ziran gorputz-bidean aurrera. Baiña Patxi'k azkenerarte ezpaiak sortu bear zituan, eta bide gurutzera iritxi ziranean, norbaitek deadar egin zuan:

**BATEK:** Goiko bidetik!

**BESTEAK:** Ez orixe! Beko bidetik duk oitura!

**BATEK:** Goitik esan diat, eta goitik bear dik!

**BESTEAK:** Ez, jauna!

*(Istillu aundia entzungo da,  
batzuek «goitik» eta besteak «betik» diotela.)*



**IZTUNA:** Ezpai arek etzuan azkenik izango, gutxien  
usten zuten batek abots bildurgarriz itzegin  
ezpalu, esanaz:

**ZERRALDOAK:** Ni bizi nintzala, betik joaten nindukan.

**IZTUNA:** Nundik eta zerraldotik atera ziran itz aiek...  
Ango iskanbilla! Ango zalaparta! (*Istillu gorria  
entzun bedi ta guziak igesi...*)

Zerraldoa zeramatenak, utzi zuten lurrean eta ige-  
sari eman zioten. Ondoren zetozenak, etzuten  
esan bearrik izan... Eta gure Patxi'ren illetak  
an bukatu ziran. (*Musika indarrean bukatu  
luze ta jolasti...*)

**BUKAERA:** Ipui guziena...

# AZERIAREN ZORIA

**ASIERA:** Ipui guziena... (*Doiñua: «Bonbolontena, ene laztana...», gora ta azpipe...)*

**IXTUNAK:** Ba omen zan, ba, nunbaiten... Nun ote zan?... Naparroa'ko mendi goietako basoren batean, noski... Beste asko bezela, azeri bat bizi omen zan... Bizi ba-zan, ezpazan, gure kontua alako goiz batean asi zan... Azeri jauna, bere kabian lo zegoen, bere ezur-argiak atsedenari ematen. Egun argiak begietan jo zuanean, orra! (*Arrausi luzea entzun bedi...)*

Esnatu da gure azeria, ta aoa kanabete zabalduaz, arrausi luzea egin du. Ondoren, bere burua pilosopo aizez bete ta esan du:

**AZERIAK:** Arrausi onek, zalantzarik gabe auxe esaten dit: gaur zorioneko izango naizela. (*Musika jostaria gora ta bera...)*

**IZTUNAK:** Nagiak astindu zituanean, kabitik atera zan alai. Basoa txori kantaz soiñu bizitan zegoen... Bereala janari billa joan zan basoan barrena... Etzuan bide luzerik egin bearrik izan. Aren sudurren usnarra, urruti iristen bai-zan. An du

begien aurrean, koipez betetako maskuri bat, puxika bat. Gure pilosopoak berriro itzegin zion bere buruari, esanaz:

**AZERIAK:** Nere goizeko arrausi arek zoriona zekarkidala, uste izan diat, baiña koipe pillo au artzen ba-det, egun guzirako tokoloa egingo zaidak nere urdaillean... Noan aurrera, ta gauza obेरik arkituko al-diagu! (*Doiñua bideko ibilliari laguntzekoa... gora ta bera...*)

**IXTUNAK:** Esan bezela, an dijoa tipi-tapa, tipi-tapa, basoan aurrera. Ta alako batean, orra nun jar-tzen zaizkion begien aurrean, zerri-ama ta onen zazpi-zortzi bat zerrikume guri-guriak. Aoa txistuz bete zitzaion, bazkari aren aurrean, eta luzatu gabe zerri-amari diotsa:

**AZERIAK:** Egun on, zerri-ama! Ume ederrak dituzu nere gosea asetzeko. Jaiki naizenetik, orrela-kotxe zerbaiten amesetan nenbillen, eta nere zorionerako Jaunak nere bidean ipiñi zaitu, iñolaz ere. (*Soiñua bizi-bizi ta larri gora ta bera...*)

**IZTUNAK:** Urde zorigabea, bere umeen azkena ikusi ta zerbait asmatu bearrean arkitu zan:

**ZERRIAK:** Egun on, azeri jauna. Nere umeak zuretzat onen aukeran etortzeak, poz aundia ematen dit; baiña kontura zaitez, eztitut garbitzera eraman, eta dauden bezela, zikin eta narras, eztaude iñork jateko. Zaude pixka batean, eta or bertan degun potzura eramango ditut garbi-garbi eginda jan ditzazun. Orrela askoz obeto sartuko dira zure esteetan.

**AZERIAK:** Ongi da. Goazen osin ortara, ta lenbailen nere gosaria egiteko pozetan nago. *(Musika, zineko marrazki bizietan jotzen dan oieta-koa...)*

**IZTUNAK:** Potzu ertzera eldu ziraneko, azeria zerrikumeak banan-banan garbitzen asi zan. Bitartean, zerri-ama etzegoen lo. Joaten zaio atzetik azeriari, ta bultz egiten dio muturrez eta an dijoa gure azeri gosea putzu ondora. *(Azeria uretara erortzen entzun bedi... Gero, zerrien zalaparta bizia ta kurrinkak igesi...)*

Ene, ba! Gure zerri-amak bere ume-taldea artu ta igesari eman zion, azeria putzuan itotzeko zorian utzita... Andik atera zanerako, zerriak urruti ziran azeriaren agiñetatik. Au, ao bete

ortzekin an gelditu zan bere gosea ase eziñik.  
Uretan blai eginda, berekiko onela esan zuan:

**AZERIAK:** Merezia artu diat. Nork egin nau ni zerriku-  
meen garbitzaille? Berriketarik gabe ito ba-  
nitu, besterik nian gaurko gosaria!... Baiña,  
tira... oraindik egun luzea zeukeat aurretik eta  
urrengoan erneago ibilliko nauk. Noan aurre-  
ra! (*Musika bideko joanari laguntzen... gora ta  
bera... tinka-tinka...*)

**IXTUNAK:** Azeriak bere gosea ixiltzearren, eman zion  
kantatzeari:

**AZERIAK:** (*Kantari*).

Labiru, labiru len, labiru, labiru len.

Labiru, labirulena, labiru, labiru len.

**IZTUNAK:** Orrela kontuak, bideak gora, bideak bera,  
gure azeri jauna begiak zorroztuaz, an dijoa  
bere mokaua nun arkituko. Bat-batean, egitxo  
batean egundoko mauka agertzen zaio: (*Beor  
irrintziak entzun bitez...*)

Entzun al-dituzue?... An ditu aurrean, beor-ama ta  
onen beorkume ederrak. Azeriak eztu aukera  
au galdu nai, ta bereala deadar egiten dio  
beorrari:

**AZERIAK:** Neretzak zerate!

**BEORRAK:** Zer egin bear diguzu?

**AZERIAK:** Jan egin bear zaituztet.

**BEORRAK:** Ni jan? A ze nolako mokaua, nere aragi zar elkor au!

**AZERIAK:** Ortan arrazoi dezu. Beorkumeak jango ditut, zu pakean utzita.

**BEORRAK:** Ori besterik da; baiña jaten asi baiño lenago, nere umeak iltzen ez ikusteko, norabait aldegin nai nuke. Eta aurrez, emen ankan sartu zaidan arantza bat aterako ba-zenit ortzekin...

**AZERIAK:** Ori laster egingo degu. *(Doiñua gora ta bera...)*

**IZTUNAK:** Beorrak jaso zuan bere anka, azeriak ikus zezaion arantza, ta onen muturra parean ikusi zuanean, egundoko ostikadaz ortzak ausi ta zentzu gabe utzi zuan lurrean. Aren antxintxikada umeak aurrean artuta! *(Anka zalaparta igesi entzungo da...)*

Azeria, bere onera etorri zanean, bakarrik arkitu zuan bere burua; mutur mindua miiz gozatuaz, esan zuan berekiko:

**AZERIAK:** Nork sartu nau, izan ere, ni mediku lanetan? Ederra eman zidak beor gezurti orrek! Obe

nian, bai, lenengo arkitu dedan koipe-maskuria ustu ba-nu!... Enauk bereala, berriz, kopletan ibilliko. Arrapatzen dedanari ortzak sartu ta kito! (*Bideari dagokion musika gora ta bera...*)

**IZTUNAK:** Onela gauzak, eman zion berriro bideari. Luzatu gabe, an zuan eskura auntz zar maltzurra. Bereala eldu zion:

**AZERIAK:** Nerea aut!

**AUNTZAK:** Zer egin bear didazu?

**AZERIAK:** Jan, ezur eta aragi. Gose luzea bai-diat.

**AUNTZAK:** Ni jan? Ba-zegok goxoagorik errota ortan. Or zeuzkeat nik nere antxume samur-samurak... Nai ba-dek ekarriko dizkiat bertara.

**AZERIAK:** Ongi zegok; baiña azkar ibilli. (*Musika bizi-bizi ta urduria, gora ta bera...*)

**IZTUNAK:** Auntzak antxumeak ekarri? Ortarakotxe zegoen! Joan da esan dio errotariari nor daukan atarian, eta onek artu du ixil-ixillik bere txispa zarra... Leio batetik begiztatu du pizti zarra ta... (*Tiroa entzungo da...*)

An utzi zuan lurrean muturrez bera gure azeri saloa. Auntzak eta antxumeak, dantzan egin zuten aren gaiñean, eta errotariak, Erri-Etxera

eraman piztia ta sana jaso zuan. Gero emazteari eraman zion, ta etxe artako guziak bapo apaldu zuten gau aretan.

Ta ala ba-zan, kalabazan, orra guzia esan. (*Musika indarrean eta luze bukatu...*)

**BUKAERA:** Ipui guziena bezela...



# **IRRATI ANTZERKIA**

# IZARREN BIDETAN

## Ekiñaldi bakarra - Lenengo Agerraldia

### 1.- KATI TA IGON

*(Oiala jasotzerakoan, neska-mutillak, alde banetatik sartzen dira. Nexka, eskui-aldetik, eta mutilla ezker-aldetik. Aurrekaldean, pixka bat albora, mikro-soiñu bat dago zutikako baten muturrean. Beste aldean, zerbait atzeratxoago, mai txiki bat, paperez eta beste lanerako gauzez betea. Emen ere, mai-gañean mikrosoiñu bat.)*

**KATI:** Ai, au bizitza illuna! *(Antzi luzea egiten du...)*

**IGON:** Aidea, izarrak utzitako argi-autsez betea zegoen. *(Beren kaleko lepokoa, esku-larruak, txapel eta kapelak eta gaiñerakoak esegi-leku batetik zintzilik uzten dituzte.)*

**KATI:** Ametsetan bizi zera, Igon.

**IGON:** Ametsak, egoak dituzte, kati; ta nai degun lekura eramaten gaituzte. Begira, begira! Leioaldera egiñaz, laiño argi arek, goiz-agurra bialtzen digu.

**KATI:** (*Ondoratuaz...*). Ta ez al dezu ikusten odolgorriz jantzia datorren beste ura?

**IGON:** Gorri bizi orrek, odolaren irakin pozgarria dakar. Egun berria, maitasun-lurriña, lore-izkuntza, eztaiak aidean.

**KATI:** Bideak, larrak artuak dauzkagu; maitasuna, zauriz urratua: loreak, arantzez itoak; eztaiak, eriotz larriz minduak.

**IGON:** Aur-jolasez beteak daude etxeak.

**KATI:** Arnasaz bete ezinda utzi det amona etxean. Eriotz-laiñoz lausotuak zituan begiak.

**IGON:** Ai, kati! Orrela, eztezu bizi-eztirik beiñere gozartuko.

**KATI:** Zure ametsak, eskuetatik igesi dijoazkigun itzalak besterik ez dira. Eguneroko burruka astera goaz, Igon. Aidea giza-emakumeen zorionegarriz astundua dago.

**IGON:** Nik egoak ditut biotzean. Goizero, egunsentiari argi berria xurgatzen diot. Iturrien kantik, ixuri gozoan datozkit muiñetara. Basoak ostoz

aberastu dira; ta txorien kantak, ez dute itzalen kezkarik. (*Bitartean, bildu bitzate mikrosoiñu-ondoan, mai-batean-edo, beren lanerako paper eta lan-tresnak.*)

**KATI:** Erlojoak, zortzirak gaiñean ditu, Igon... Gure lanburrukan sartzeko ordua degu. Etxetatik, gure soiñu ta esan ariñak jasoko dituzte; gure biotzetan, eguneroko lan itoak, esan bear larriak, tarterik gabeko arretak, galduko digu goizeko poza. (*Erlojoak, zortzirak joko ditu... Dandaneke bakoitzak, mutillari arpegia argitu ta neskatzari naigabea zorrozten dio. Au, burua makurtzen geroago ta geiago; mutilla, burua geroago ta jasoago duala ta ames-girotan bezela...*) (**BAT-BATEAN...** *Soiñu-alaiak urratzen du aidea...*)

**IGON:** (*Zutikako mikrosoiñu aurrean izketan:*) Egun on, jaun-andreok!... Entzun, entzun!... Emen E.A.K. 20, ARGIBIDE irratia!... Egunak ez du illunik ez biotzak itzalik!

**KATI:** Egun on, irratentzuleok!... Entzun, entzun;... Emen ARGIBIDE erradioa! Argiak, laiñoak ditu etsai; eta zorionak, naigabea oe-lagun. Egun berriak, kezka berriak!

**IGON:** Orain aste gera, gure lenbiziko saioa, egun-argiari gure agurra bialduaz. Bazter guziak, eguzki-urrez jazten ari dira; ta etekoak, maindire artetik atera nai genituzke soiñu alaiz. *(Entzun bedi: «Jaiki, jaiki, etxekoak...»)*

*(Orain mutillak, maira alde egiten du, ta an zerbait idazten edo paperak begiratzten egon ondoren, kanpora irtetzen da. Nexka bakarrik mikrosoiñu-ondoan.)*

## **2.- KATI BAKARRIK**

**KATI:** Entzun dezue, egun-argiari jo diogun goiz-agurra: «Jaiki, jaiki»... Orain... Zeruko Erregiñari bijoakio gure biotzetako arnasa! Or dioa aidean... ANGELUS!... AINGERUAREN AGURRA!... *(Asi bedi: «Aingeru batek Maria'ri...» Gora ta bera soiñua, azpipe jarraituaz... Doñua xotildu ta nexkak onela dio:)*

**KATI:** Zer du amaren biotzak, gure oroitza onela gozatzeko? *(Eresia tartetan indartu ta ixilduaz...)*  
Zer du amarik-ezak, umezurtzen begiak orrela lausatzeko? *(Eresia gora ta bera...)*

Zerua, zeru oso izateko, Jainkoak Amarik ezti-  
na eman digu kristauoi. (*Eresia tartetan beti,  
indartuaz eta ixillagotuaz...*)

Ta euskaldun biotzak, ba-daki zer dan Abe Mariko-  
a-ren gozotasuna.

Eguzkia errege da zeruetan, eta soro-erdian, txa-  
pela eskuan duala, Anjelus errezatzen du  
nekazari zailduak.

Lanak, zeruko usaia artzen du, ta bekokiko izer-  
diak goitik darion intza dirudi. (*Eresia gora ta  
bera...*)

Zeruko Amaren gogorapenak, urrezko argia zabal-  
tzen du zelai ta mendietan. (*Eresia indar-  
tuaz... Mutilla, nextkaren ondora etorriko da  
berriro, bertsoak biak txandan esateko:*)

### **3.- KATI TA IGON**

**IGON:** (*Eresiak azpitik lagunduak:*)

Mendi-axala, goiz-argiz zillar, egun-atari  
denean;

lotan zegoen baso-itxala txori-soiñuz esna-  
tzean;

mendi-gallurra, eguzkiaren laztan berroz gorritzean...

nere gogoan zaitudala, Ama, asten naiz ni otoitzean.

**KATI:** (*Eresia indartu ta xotilduaz:*)

Eguzki jaunak, urre ta sutan, galda-jaia due-  
nean;

zeru-gaillurra argi bizitan irabazi ondorean;  
egun-erdian, lana utzita, itzal-gose naize-  
nean...

kanpai-otsera, Ama laztana, berriz zaitut bio-  
tzean.

**IGON:** (*Eresia gora ta azpipe:*)

Arratsaldera, egun-argia logaletzen zaigu-  
nean;

eguzki jaunak argi-opilla ogera daramanean;  
illunabarra, Ama Maria, laiño gorritan gal-  
tzean...

nere lanari agur egiñaz, otoi dagizut pakean.

**KATI:** (*Eresia tartean gora ta azpipe...*)

Gau amak lurra maindire beltzez izkututzen  
digunean;

sasi ta lore, illunpe bildur, kuxkurtzen zaizkigu-  
nean;

txori-soiñurik, Ama Maria, basoak ez due-  
nean...

Zuri otoika lo artzen det nik, Ama, zure maga-  
lean!

*(Eresia gozo-gozo berritu ta indartu...*

*Gero ixillago... Urrutitik...*

*Abe Marikoaren kanpai-otsa dator.*

*Entzun bedi kanpaia.)*

**KATI:** Atertu dira gizonen lanak eta kezkek. *(Kanpai-otsa berriro...)*

**IGON:** Griñak pake-aldia dute. *(Kanpai-otsa biziroa-go...)*

**KATI:** Ames dagi aurrak... Ba-zala bein erregin bat...  
*(Kanpaia urrutira.)*

**IGON:** Nazaret-eko errixkan... *(Berriro: «Aingeru batek Maria'ri...»)*

**KATI:** Eta tximeletak... *(Eresia indartuaz...)*

**IGON:** Eta aingeruak... *(Eresia bete-betea...)*

**KATI:** AGUR, Maria, graziaz betea... *(Eresia indarrean bukatu: «Aingeru batek Maria'ri...»)*

*(Argiarekin jolas egin diteke Anjelus-saio ontan.)*



\* \* \*

*(Soiñua aldatu bizi-bizi... Gora ta bera...)*

**IGON:** Orain, Zeruetatik lurrera jetxiaz, gure sukaldetako lanei, poz pixka bat txertatzeko...

**KATI:** Bijoia aidean... «MAITE!»

**IGON:** «MAITE!», euskeraz abestua. Gure biotzak aukeratutakoari esateko itz eztia.

**KATI:** Maitasuna! Jainkoak zeruetatik lurrera jetxiarazi zuan

indarra!

**IGON:** Maitasuna! Mundua darabilen ego-aize barneatzaillea!

**KATI:** Entzun: «MAITE!»

**IGON:** Soiñu-joille... *(izena esan.)*

**KATI:** Abeslari... *(izena esan.)*

*(Asi bedi «MAITE»...)*

*Mutillak neskaxaren eskua*

*berearen artean artuta, entzuten du.*

*Poliki-poliki, neskaxaren burua,*

*mutillaren sorbalda-aldera makurtzen da.  
Biak, maite-giroz entzuten geldituko dira.)*

Gabak zabaltzen ditun  
izarren bidetan,  
zure irudi maitea  
dator ametsetan.  
Egunak galtzen ditu  
izar eta amesak.  
Ala ondatzen nau ni  
zu nerekin ezak.  
Maite; Eguzki eder,  
eguardi beteko argia!  
Neke-miñen artean  
nere zorion iturria!  
Noizbait illuntzen ba-da  
nigan zure irudi eztia,  
kontu egizu, Maite,  
galdu dedala nik bizia.  
Maite!

**KATI:** Igon, ametsa dirudi!

**IGON:** Ta nolako ames ederra, Kati! (*«Maite» bukatze-  
rakoan, berriro asten dira izketan.*)

**KATI:** Entzun dezue...

- IGON:** «MAITE», euskeraz abestua. (*Doiñua aldatu... Arin-arin bat...*) Oiñak dantzan asten zaizkit... Zertan gaude emen soiñua dantzatzeko, Kati?
- KATI:** Ego-aizerik ez da sortu oraindik, Igon.
- IGON:** Baiña emen biotzean sortzen ari zaidana ikusiko ba-zendu, Kati...
- KATI:** Zer dezu arri-koskor orretan?
- IGON:** Ari zait biguntzen... Eztakizu asko, Kati...
- KATI:** Zer eztakit?
- IGON:** Zurekin dantzatzeko dedan amorro bizia!
- KATI:** Ai au aize-buru! (*Asi bedi «Arin-arin» bat.*)
- IGON:** (*Nexka besotik eldu ta erdira darama...*) Atoz nerekin, luzatu gabe... (*Biak dantzan leiatzen dira.*)
- KATI:** Soiñua bukatzera dijoa. (*Dantza utzi. ta mikro-soiñura dijoa.*)
- IGON:** (*Lepoa Kati'ren atzetik luzatuaz:*) Entzun dezue...
- KATI:** «Arin-arin!» (*Kati'k iges egiten du kanpora.*)
- IGON:** Arrapatuko zaitut, Kati. (*Ura joan dan aldera deadarka.*)

#### 4.- IGON BAKARRIK

*(Doiñua aldatzen da, ta  
Igon mikrosoiñura dator presaka:)*

Irrati arraioa! Eztu betarik ematen nexka-ondoren biotza bialtzeko ere. *(Mikrosoñuan orain:)* Zuekin... ARGIBIDE irratia! E.A.K. 20; ARGIBIDE erradioa!... Ameslari guzien irratia!... Biotz maitale guzien laguna!... Zuekin ARGIBIDE irratia!

Eta orain asten da, gure antzerki-saioa; gure teatro-sailla: *(Abotsa aldatuaz, jolasti:)*

Gure sukaldetako etxekoandre guziak bear duten sendagailua... Ankak zuzentzeko, makilkada bat berna-ezurrean!... Sendabide au asmatuu duten sendagilleak, millaka ta millaka makilla bialdu dizkigute gure irrati-entzuleen onerako... Salgai dago sendakindegia guzietan... botika guzietan... Makilkada bakoitza duroan!... makilla, utsean ematen da... Botika baztar guzietan... ankak zuzentzeko, makilkada bat berna-ezur-ezurrean!... Eztago geiago

errenik!... Er betokerrik!... Eskatu gaurtik...  
«Makilixka» sendagaia!

Orain emen ditugu zuekin... GAZTE-AIZEAK! Jarrai taldeko lagunak esanak... (*Soiñua indartu ta xotildu...*) Gure gaurko teatro-saillean, Amillaitz'en GAZTE-AIZEAK entzungo dituzue... Zuen aurrean dira:

Matilde, (*antzelariaren izena...*). Zezili, (*izena...*). Niko, (*izena...*). Iztuna, (*izena...*). Jarrai-taldeko gazteak, beren lanetarako prest... Jaunandreak!... AIDEAN, GAZTE-AIZEAK! (*Igon'ek alde egiten du kanpora ta mikrosoiñura iztuna aurreratzen da... Soiñua: «Maitetasunak bainerabila» edo beste maite-kantaren bat.*)

## **5.- IZTUNA. GERO, MATILDE TA ZEZILI**

**ITUNAK:** «Daka» etxeari eskerrak, gure teatro lanari asiera ematera goaz. Aurretik esan nai dizuegu, Daka etxea dala MAKILIXKA sendagaillua asmatu duana. Oni eskerrak, millaka dirala anka zuzenduak, betoker sendatuak. Eta

orain, besterik gabe zuekin... GAZTE-AIZEAK!  
(*Soiñua indartu ta ixildu...*)

Neska-mutillak bere sasoian... Elgorria dutela biotzean!... (*Soiñua piztu ta il berriro...*)

Lengoan, bizi-bizi ari ziran elkarrekin, Matilde ta Zezili. Bi Mari Punta moda-modakoak. (*Soiñua gora ta bera... Atzean, Matilde ta Zezili azaitzen dira alkarrekin izketa bizian:*)

**MATILDE:** Ago ixillik, Zezili. Ori ez den legea. Ori gizon petralen batzuek beren alde asmatutako txatxukeria den.

**ZEZILI:** Baiña, Matilde; nola joango gaitun, ba, oitura orren kontra?

**MATILDE:** Ederra kontua!... Mutil bati neskatxa bat gustatzen ba-zaio, joan da, zapla! botatzen zion arpegira bere barruko gogoia... Ta neskatxa bati mutil bat gustatzen ba-zaio, ezin ezer adierazi. Mutil kaiku oiei burura etorri-zai egon bear guk, ezer aurreratzeke.

**ZEZILI:** Orrela ditun kontuak, Matilde.

**MATILDE:** Ba... ezten orrela izango nerekin, Zezili.

**ZEZILI:** Ez aiz, baiña, mutillei aurea amen asiko!

**MATILDE:** Bai! ta ez naun ixillik prijitzen egongo, Zezili.

**ZEZILI:** Ire gustoko norbait ba al-den?

**MATILDE:** Zerbait egin bearra zegon; eta amua bota gabe ez naun geldituko.

**ZEZILI:** Neska, neska! Irekin ibiltzen ere, bildurtu egiten naun. *(Bijoaz.) (Eresia gora ta bera...)*

**IZTUNAK:** Urrengo jaian, an dijoaz neskatxa biak, zein baiño, zein, erriko pasia-lekura. An dabiltz gazteak, nexka ta mutil, elkarri begiak zorrotzen. *(Soiñua indartu ta xotil gelditu...)*

*(Berriro Matilde ta Zezili atze-aldean agertzen dira...)*

**MATILDE:** Ikuste al-den ura, Zezili?

**ZEZILI:** Zein?... Altzigarr'eneko Niko?

**MATILDE:** Ber-bera! Orixe bear diñat, itoko ezpanaiz.

**ZEZILI:** Iretzat zegon!... Aize onak dizkin mutillak!

**MATILDE:** Ba... aize ta guzti bera diñat.

**ZEZILI:** Mokau goxoegia aukeratu den, Matilde.

**MATILDE:** I, mikatz-zalea al-aiz? Zezili? *(Eresia gora ta bera...)*

**IZTUNAK:** *(Neska biak beren artean ixillik diardue izketan...)*

Nolabait asi bear zuala, Matilde'k; eta an ezertan ez asteko, Zezili'k... Baiña ortarakoxe zegoen

Matilde! Gora ta bera dabiltzala, (*Pasia-lekuan neska-mutillak alde batetik bestera ikus bitez.*)... ustegabeen mutillak; eta ondotxo neurtuta, Matilde'k, mutil-taldearen aurrean, bidea itxita, aurrera eziñik gelditzen dira nexka biak... Ain zuzen ere, Niko pare-parean du Matilde'k. Mutillak tentari diotsa:

## 6.- LENGOAK ETA NIKO

**NIKO:** Baratzeren batean al-gera?

**MATILDE:** Zer baratze ta ze porru, gero?

**NIKO:** Onelako loreak aurrean izateko...

**MATILDE:** Etzaude zu lore txarra. Orrelakoak esaten al-dizkiezu neskatxa guziei, Niko?

**NIKO:** Guziei, ez. Zu bezelako pertxentei bakarrik.

**MATILDE:** Orduan, ez nau arritzen ezerk...

**NIKO:** Zerk etzaitu ezer arritzen?

**MATILDE:** Jendeak aotan artzeak.

**NIKO:** Ni?

**MATILDE:** Zu ta orrelako loreak entzun bear dizkitzuen neskatxak.

**NIKO:** Zein neskatxek, Matilde?



**MATILDE:** Ez emen asi iñoso-plantarik egiten, Niko.

**NIKO:** Egia! Ez dakidala ezertxo ere.

**MATILDE:** Ederra dago, ba, jendea ixillik egoteko!

**NIKO:** Baiña, zer esan du jendeak, eta zeïñi esan dio?

**MATILDE:** Onoko oni; emen nagoen oni. Beraz, ezer ikusi baiño len, berriketan asten ba-dira; emen ikusten ba-gaituzte, zer ez dute esango?

**NIKO:** Zuri berriketak, eta neregatik? Nola izan da ori?

**MATILDE:** Zezili, goazen. Geiegi luzatu diñagu egon au.

**NIKO:** Zaude, Matilde. Ori ezin diteke erdizka utzi.

**MATILDE:** Bost ajola dizue mutilloi neska errukarrioen-gatik.

**NIKO:** Zuk uste dezun baiño geiago, Matilde.

**MATILDE:** Pikuak ez dira Ilbeltzean etortzen, Niko.

**NIKO:** Nai al-dezu gauza bat, Matilde?

**MATILDE:** Zer?

**NIKO:** Jendeari musuan emateko, gaur arratsaldean elkarrekin ibilliko gera.

**MATILDE:** Jolas polita zuretzat, Niko; baiña ez nere-tzat. Neskatxok, asko galtzen degu gezurrez-ko jolasetan.

**NIKO:** Jendearen kontura parre egingo degu. Atozea arratsaldean Zezili'rekin eta egundoko jostaketa asiko degu elkarrekin.

**MATILDE:** Ederki eman ere!

**NIKO:** Zergatik ez? Bostetan ementxe itxoingo dizut.  
*(Bijoaz kanpora.) (Eresia gora ta bera...)*

**IZTUNAK:** Joan ziran, bai, neskatzok. Besterik nai al-zuan, ba, Matilde'k?... *(Niko agertzen da berri-ro alde guzietara begiaa...)*

Etziran joan, baiña, bost-bostetan... Ordu laurden-txo bat mutilla zai euki ta gero, noski... *(Neska biak azaltzen dira, ta Niro'rekin izketa ixillean izkutatuko dira alde batera... Soiñua berriro bizi...)*

Ta... jolasean asi zana, benetan bukatu zan andik sei illabetera. *(Soiñua luze... Bitartean Matilde andregai-soiñekoz edo buruko agerгарrien batekin jantzi bezate... Eztai-soiñua entzun bedi eliz-barruan...)*

## **7.- LENGUAK, NIKO GABE**

*Elizako eztai-Meza bukatu-ondoren, Zezili'k txokora deitu Matilde, ta galdetzen dio: (Orain agertu bitez antzokian biak.)*

**ZEZILI:** Zorioneko al-aiz, Matilde?

**MATILDE:** Nola ez, Zezili?

**ZEZILI:** Pozten naun. Eta gauzatxo bat jakin nait niken...

**MATILDE:** Ze gauzatxo, Zezili?

**ZEZILI:** Niko'rekin lenbiziko aldiz itzegin genduanean, gogoratuko aiz, nola esan ionan, norbaitek berriketan jardun zuala bioi buruz.

**MATILDE:** A, bai!... Asmaketa polita!

**ZEZILI:** Nola asmaketa?... Gezurra al-unan, ba?

**MATILDE:** Gezurra... gezurra... Amua nolabait bota bear nitxionan Niko'ri-ta...

**ZEZILI:** Eta bete-betea arrapatu unan arraia, Matilde!

**MATILDE:** Zertarako asi nintzala uste unan, ba?

**ZEZILI:** Orra bertan itxura gabeko trastea! (*Eresia bizi-bizi...*)

**IZTUNAK:** Ta lagun biak parre-algara batean joan ziran, gertu zegoen eztai-bazkaritarako ostatura. (*Parre-algarak entzungo dira... Gero soinu indarrean bukatu.*)

Entzun dezue, jaun-andreok, Amillaitz'en GAZTE-  
AIZEAK! Jarrai-taldeko antzezleriak, teatrogii-  
lleak eman dizuete saio au.

Matilde, (*antzezleriaren izena*)...

Zezipi (*izena*)...

Niko (*izena*)...

Iztuna (*izena*)...

Soiñu ta zaratak...

Eta eztegu emendik aldegin nai zuei auxe gogora-  
zi gabe: Anka okerrak eta errenak sendatzeko,  
ezta berna-ezurtean makilkada bat artzea  
bezelakorik. Sendagaillu miressgarria, senda-  
gaillu azkarra, utsegiten ez duan erremeioa...  
MAKILIXKA!... Eskatu botika guzietan. Makilka-  
da bat berna ezur-ezurtean... Makilla utsean  
emango dizue.

Gu gera!... Atzerreka'ko Foil Bergé!... Mundu  
osoan ezaguna! Zer dira gure aldean Paris'ko  
Lido ta Newyork'o Metropol?... Utsa, ezer ez!...  
Gu gera... Atzerreka'ko Foil Bergé.

(*Soiñua indartu...*)

*Ba-dijoa Iztuna ta berriro or dator Kati.)*

## 8.- KATI; GERO IGON ETA EZTAITARRAK

**KATI:** Entzun dezue... Jarrai taldeko antzezleriak esanda, GAZTE-AIZEAK. Emen E.A.K. 20, ARGIBIDE irratia...

**IGON:** (*Laisterka mikrosoiñura etorrira Kati'ren atzetik, lepoa luzatuta, onela esango du:*) Lixiba jotzeko... okerrena, OMO!... Zapiak ikatz biurtzen ditu istan batean... SUTIL!... zikintzaille ixil!

**KATI:** Zuekin, ARGIBIDE irratia... (*Soiñua, nolanaikoa tarterako...*)

**IGON:** Biotz alai guzien irratia!

**KATI:** Gogo lanpetu guzien aringarri!

**IGON:** Ta neska-mutillen eztaiak aitatu-berri geran ezkerro, urra dezagun aidea, ezta-soiñu berriz... Kanta berriak euskeraz!

**KATI:** Entzun!... IRU ALABA!... rumba aidea...

**IGON:** Rumba aidea... Aprika-aldeko soiñu-aide beroa!

**KATI:** Soiñu-joille... (*izen-abizenak*).

**IGON:** Abeslari... (*izen-abizenak*).

**KATI:** «IRU ALABA» aidean!... (*Asi rumba...*)

**IGON:** Orain ez dizut barkatuko, Kati. Nerekin dantzatu bearko dezu rumba au. (*Eztaitarrak atzealdean dantzari agertuko dira...*).

**KATI:** Itxoizu pixka bat... Emakumeen leporako apain-garririk egokiena...

**IGON:** Arkakoxo-tantoak!... Ia oraintxe, Kati!... (*Besotik eldu ta badarama dantzara nexka.*)

## 9.- KATI TA ICON

(*Doiñua bukatzerakoan, eztulka norbait. Igon, nexka utzita mikrosoiñura dijoa lasterka:*)

**IGON:** Eztula ta eztula, norbaitek ba-dula... (*Eju! ta eju!...*)

**KATI:** (*Mutillaren ondora joana:*) Eztula kentzeko biderik zuzenena...

**IGON:** Lepoa ebakitzea!... Ritx eta kito!... (*Eskuz, lepoa ebakitzeko kiñua egingo du.*) Ori da sendagaillurik onena!... Senda-etxetan agintzen duten sendagaia!

(*Doiñua indartu ta ixillagotu...*)

**IGON:** Kati, ez al-dezu ametsik egiten?

**KATI:** Bizitza, estuegia daramagu amets egiteko.

**IGON:** Neri ari zait, ba, amets bat gabero-gabero, itzul-  
inguruka buruan.

**KATI:** Nolako ametsa?

**IGON:** Pozezko ametsa, Kati... Zaude, zaude!... Izar  
bat agertzen zait oso goi... Ba-nago ta ba-  
nago... ta izarrak dei egiten didala iruditzen  
zait... Ontan, laiño biurtzen naiz eta aize bizi  
batek bultzata, ba-noa gora ta gora... ta izarra  
gorago... Alako batean, eskua luzatu ta izarra-  
ren jabe egitera noala... ametsa bertan bera  
galtzen zait...

**KATI:** Amets bitxia orixe!... Ta izarrak zeren antza du,  
Igon?

**IGON:** *(Besoia nexkaren lepa-gaiñetik jartzen duala:)*  
Eztakit, ba; baiña oso oker ezpanago, izarra  
besartean det oraintxe.

**KATI:** *(Mutillaren besoetatik lepoa askatuaz:)* Igon,  
nungoa zera?

**IGON:** Amets errikoa, Kati; ta bizitzari, bere ederra  
eskatzeko egarria det biotzean.

**KATI:** Eztezu euskal-mutillen antz aundirik.

**IGON:** Zer, ba?

**KATI:** Euskal-mutillak ez dutelako neskatxentzat orrelako itzik... Ardoa ta tripa-festarik ba-da, an dituzu gure mutillak; baiña emakume bati itz samurak esateko, eztago alako traketsik.

**IGON:** Orrenbesteraíño?

**KATI:** Gutxitxo esan det oraindik... Ezagutu nuan mutil bat... Bere andragaiari esaten zizkion itz gozoenak auek oi-ziran: «oraintxe tripakiak jango nituzke, ba!...» Kaiku zarra, alakoa! Ori da nexka bat urtutzeko bidea!

**IGON:** Nexkari malko gozoak aterako zizkion, noski?

**KATI:** Ba-dira areagoak, Igon. Ba al-dakizu erri batean neskak nola loxinkatzen dituzten?... Itz gozo auek esanda: «Ederra aiz, txarri ori!»

**IGON:** Ta erri ortan ba al-da ezkontzen dan neskatxik?

**KATI:** Ez mutil kankaillu oiek merezita, baiña ba-dakizu... Jainkoak ipiñitako legea dala-ta, ezkondu egin bear, ala ta guziz ere... Ta kontu neskatxen bat mutil erdaldunekin ezkontzen ba-da!... An ditu guziak gaizki esaka... Zer egingo dute, ba, euskal-mutillak alako trauskillo jarzen ba-zaizkie neskatxei?

**IGON:** Erdaldunen bat begiz jota al-dezu, Kati?



**KATI:** Merezi bai, beintzat, ardoarekin ezkondata bizi diran ainbeste mutil kaikuk!

**IGON:** Ene bada ta!... Gure jardunean, olerki-ordua iritxi zaigu...

Asi gaitezen lan ontan ere, Kati... Ikusiko dezu nolako bertso goxoak ditudan gaur zuri botatzeko!

**KATI:** Ez gero tripakirik aitatu!

**IGON:** Biotza xaltxan eskeiñiko dizut. (*Laisterka mikro-soiñura dijoa... Nexka ere ondora dijoakio...*)  
-Emen ARGIBIDE irratia!... Biotz maitale guzien laguntzaille!...

**KATI:** Zuekin, gure olerki-ordua!

**IGON:** Bertso-saioa! (*Soiñua aldatu... gora ta bera...*)  
(*Kati'ri belarrira:*) Asi zaite zu lenbizikoarekin...  
(*Papelak aukeratzen ari da...*)

**KATI:** Entzun lenbizi...

**IGON:** Amillaitz'en «ARGATIK!»! (*Soiñua azpitik gozo...*)

**KATI:** «ARGATIK!»...

Eguzkitara zabaldutako zapi urdin zan zerua,  
Izarraiz'tik Ernio'ra;  
argia, urrezko ogean, etzatera zijoan  
Keixeta-aldera.  
Argatik alkar maite izan gendun

iñular-girora.

Eguzkia, odol zan, arrats-malkoetan;

laiñoak gorri ziran, argi-zotiñetan.

Argatik gure biotzak

lenengo miña

izan zuten egun artan.

Zerua, auts-kolore, ego-aldeetik;

argia zikin zetorren, zeru-sapaitik.

Argatik gure ametsak,

lausotzen asi ziran

atsalde artatik.

Zerua goibel, aizea nasi;

argia, ekaitz-bildur,

joan zan igesi.

Argatik gure maite-usteak,

(zorion-azi),

gau aretan ziran ausi. (*Soiñua indartu ta xotil-*

*du...*)

**IGON:** Kati, zer dira malko oiek?... Bertso illunegiak aukeratu dituzu, izan ere. Pozezkoak bear ditugu, pozezkoak!

**KATI:** Barruak lagundu bear du orretan ere, Igon.

**IGON:** Eta nere barrua, argitan dago zure ondoan.

**KATI:** Entzun orain... Amillaitz'en «IRRISTAN»!

**IGON:** «IRRISTAN»!...

Biok giñoazela, besotik bidean,  
begiak urdiñean;  
sagar ustel batean  
irrist egin niñan;  
ta nerekin ankaz gora  
zalapartan,  
laster intzanan lurrean.  
uste gabeko laztan aretan,  
izarrak nastu zitzaizkigunan  
oiñetan!

**KATI:** Ai, zoroko! Nork asmatu dik ori?

**IGON:** Biotza nik bezela zuan batek... Ia bota urren-  
goa!

*(Soiñua illun eta geldia orain...)*

**KATI:** «EZTEK ATZOKOA»...

Bart nere gelan sartu intzanean,  
negarrez billa nindukan.  
Ire arpegi maiteak, izu-ikara,  
ildakoen itxura artu zikan.

Baiña, exeri adi... Eztek atzokoa  
nere malkoa.  
Ik eztakik, maitea,  
zein leize sakona dan nere gogo;

Etzaidak galdetu. Ailperrik uke.  
Eztik iñork galdetzen,  
zenbat ur-tanta ditun itxasoak.  
Alperrik dek, izarrak zenbat diran  
kontatzen astea.  
Beti zegok, zeru beltzean, arutzago...  
beste bat gordea!

**IGON:** Baiña, Kati!... Berriz ere, negarrari eman  
diozu!... Zabalduiozu atea pozari!... *(Soiñua  
jolasti ta pozgarri...)*

**KATI:** Bijoa ondoren, Amillaitz'en «DEIA»!

**IGON:** «DEIA»!...

Lendik zetorrenan deia:

**KATI:** Aizak, i!...

**IGON:** Burua liburutan nastua niñan.

Aren otsa kezketan galdu unan.

-Urrutitik berriro:

**KATI:** Aizak, iii!...

**IGON:** Etxean opor-aldiak poza zerionan.

Udaldia, itxasoa, mendia nizkiñan.

-Berriro urbillago:

**KATI:** Emen ni!!!

**IGON:** Ta agertu intzanan!!!

*(Soiñua pozez lertzen gora ta bera...)*

Kati!... Konturatzen al-aiz?... Biok, i ta to ari gaitun!... Eta gero esango diñate, i ta to aritzea, ijito-izketa dala!... I'ka ere, gozo itzegin ziteken, bai!

**KATI:** Ala dek, Igon!... Baiña oraindik ez diat nere beazun guzia ustu. *(Soiñua geldiro ta itun berriz...)*

**IGON:** Ustu lenbailen barruko illuna, ta eman leku argiari...

**KATI:** Zer ederragorik, al ba-nu?...

**IGON:** Irratentzuleok, KATI, gure izlari yayoak...

**KATI:** Bere naigabea ustuko dizue, Amillaitz-n ILLUN-BARRA esanaz:

**IGON:** «ILLUNABARRA!»

**KATI:**

Etzekiat zer duan illunabarrak...

Ezcuturen bat gordea ba-dik,

laiño gorrixken arrebak.

Atsaldearen negarra!...

Zerua, auspez dagon katillu-barrua,  
argi-intziritan zijoak galdua.

Ta ni, aren aurrean, laiño-lits bat nauk,  
beltzean urtua.

Utziok arratsari estaltzen mundua!

Biotzak negar egiteko,  
naiago dik ezkutua!

*(Soiñua indartu ta xotildu...)*

**IGON:** Ta orain, biotz-arantzak aizatzeko, esan deza-gun biok beste au.

**KATI:** Ia ikusi?... Zuekin orain, IGON, iztun bikaiña...

**IGON:** Ta KATI, eguzki egiña! (*Soiñua ameslari...*)

**KATI:** Entzun... «AIN URRUTI TA AIN URBIL»...

**IGON:**

Au izan den gure gurpil.

Iru urte dizkiñagu, alkarren albo lanean.

**KATI:**

Nik ire gose biotzean.

Ik, nere egarri ixillean.

**IGON:**

Begiratu niñan bildurrez beingoan.

Ik, bestera begiratu unan.

**KATI:**

Begiratu idakan beste bein bildurrez.

Nik, jetxi nizkian begiak samiñez.

**IGON:**

Ain urruti ta ain urbil!

**KATI:**

Iru urte onen ixil!

**IGON:**

Asperen bat nik.

**KATI:**

Ik: gaixo al-ago?

**IGON:**

Burua astun diñat. Ez diñat geiago.

**KATI:**

Itzegin nai uan; baiña sorgin batek  
alda zian ire itza:

**IGON:**

Aidean laiñoak zeuden.

**KATI:**

Ain urruti ta a!n urbi!.

**IGON:**

Orrek din gure biotza il!!

*(Soiñua indartu ta pozera aldatu...)*

**KATI:** Igon... oraintxe sendatu nazu.

**IGON:** Zabal dezagun poza aidean zear, Kati.

**KATI:** Gaur da gure biotzen eguna.

**IGON:** Betoz estai-soiñuak! Bijoa illuna! *(Soiñua pizkor  
eta ezti... azpitik lagunduaz...)*

**KATI:** Entzun orain:...

**IGON:** «AMESTI!»

**KATI:** «AMESTI!»

**IGON:**

Laiño gorrixka baten / nai zinduzket atxi,  
ta izarrik gorenean / izkuta zu, Kati;



an neretzat bakarrik / zaitzadan amesti;  
ene jostaillu zeran / biotzeko antsi.

**KATI:**

Zure biotz-lapurren / bildurrikan gabe;  
kate gozoz lotuak, / alkarren mirabe;  
biotzak eztaietan, / maitezko bi labe;  
antxe argitan biok / gindezke poz-jabe.

**IGON:**

Zeruko Jauna bedi / gure poz-ikusle.

**KATI:**

Ez beza iñork zeleta / gure maite-zale.

**IGON:**

Ez iñoren bekaitzak / jan gure logale.

**KATI:**

Ixil-ixillik biok...

**IGON:**

Amesti!...

**KATI:**

Maitale!!!...

*(Soiñua indarrean...*

*Papelak artu ta aidera botatzen dituzte.)*

**IGON:**

Nastu bitez aidean!

**KATI:**

Gure biotzak bezela!!!

*Antzoiala bera.*

AZKENA

Donostian, 1963'go IIbeltzak 17

**OLERKIAK**

Euskaldunok bertsotarako beti izan degu alako zaletasun apur bat. Aspaldi asiak giñan lan onetan, baiña 1950-garren urte alderarte, ez nuan ezagutzen erderazko azkenengo olerkarien lanik. Konbentu zaar bateko kapellau nengoen aldi aretan; mendi aldean eta alako «bohemia» antzeko girotan.

Ordukoak izan ziran, nere ustez, sortu zaizkidan olerkirik onentxoena. Erderaz, Machado ta gerokoak irakurri berri nintzan. Juan Ramon, Alberti, Alexandre, Gerardo Diego ta beste aien sasoikoen lanak, bertso libretan iritxi zutena erakutsi zidaten; eta orduan ekin nion *Bertso libreak* egiteari. Zer aterako ote zait era berri ontan?

Lenengo nuertitz urratuak, Iparragirreri egin nizkion. Urretxun izan zan leiaketa batera bialdu nituan, (eztakit ze urte zan), eta bigarren saria eman zidaten sariketa aretan. Beste lan batengatik, (au lengo era zaarrera egiña), lenengo saria irtxi nuan, beste iru olerkarirekin batean. Lauron artean banatu zuten lenego sari ori.

Gerora sortu ziran *Donostia* ta beste olerki askatuak. Xorta bat olerki gure ikastoletako aurrentzat ere ondu det. Or ikusiko dituzu.

Mirande zuberioarra, Aita Xalbatore Mitxelena, Aita Xanti Onaindia eta Aurre-Apaiztar Balendin, izan nituan lenengo nere aldi aretan olerkari-lagun. Gerora gazte-sail ugaria sortu zaigu olerkari. Gure orduko «banguardismoak» jo ta pasa dituzte gazteok. Azkenengo, gure Arestik jo digu txitua. Eta gure gazteok, gizarte-gaia oso artua dute beren olerkietan.

Aien ondoan, gure olerki auek, aide zaarregia izango dute norbaitentzat. Gabriel Zelaia ta Blas Oteroren alboan, oso lengoak gera. Ala ere, nik emen utzi nai izan det, nere alea. Euskerak aurrerago egiten badu, pozik artuko degu gerokoa ere.

# **LENENGO SAILLA**

*Euskal-Ikastoletako Aurrei eskeiñiak*

# KANPAITXOAK

Kantari ari dira  
kanpaitxo biak;  
kantari tilin-talan  
torre txoriak.  
Goiz eztaietan dagon  
kanpantorriak,  
gogoz xurgatzen ditu  
argi izpiak.

Aingerutxoak beren  
josta laguna,  
zerura jaso dute.  
-Poz da eguna-.  
Izarrez josiko da  
gabaz illuna;  
zeruetara baita  
gure kuttuna.

Lorea galduta utsik  
seaska otza.

Aren alboan miñez  
gure biotza.

Aur lapur eldu ziagu  
gaur eriotza.

Amaren magalera  
jetxi da izotza.



# ARGI KANTA

Argia koxk eta kaxk  
dabil gallurretan;  
lurruna dariola  
lurra ibaietan,  
aidea zuri-urdin  
degu zeruetan;  
zelaiak jai digute  
lore-eztaietan.

Argia koxk eta kaxk  
errekak esnatzen;  
sapaburuak dabiltz  
zingiran jostatzen,  
ur-ertzeko belarrak  
aiei begiratzen,  
iturritxo zertzeta  
denak maixiatzen.

Argia koxk eta kaxk  
zoroko gaiztoa.  
Gure aurrak amari,  
par-irri gozoa.  
Argia ta Potxolo,  
bikote xaloa;  
biak argitzen dute  
amaren kolkoa.

# UDABERRI ABESTIA

Udazkenean amets  
dut nik Udaberri.  
-Jo danbolin soiñua  
ta bigundu gerri-  
Berdeak itxaropen  
mendi, baso erri.

Loreak irri dagi  
bere kukulluan.  
-Jo ta dantza, gazteok,  
danbolin soiñuan-  
Urak itxaropena  
erreka puztuan.

Itxas aize eguna  
gorantzika dator.  
-Jo danbolin soiñua,  
ta dantzatu gogor-  
Lañoak urdiñean  
itxaropen jator.

Dena da murmur gozo,  
dena margo musker.

-Soiñu ta dantza, gazte,  
bizitza bai eder!-  
Itxaropen girotan  
lore guziak ler.

Soiñu, usai, kolore,  
elkarrekin ezta.

-Jo danbolin soiñua  
ta eman dantza jai-  
Irrak bildu dira  
Itxaropen poz zai.

# OILLOTXO TXURIA

Oi, oillotxo txuria!  
oillotxo jostuna!  
Josi ta josi aren  
lan egun astuna.

Norentzat ari zera,  
oillotxo txuria?  
Nere txitoarentzat  
egiten jantzia.

Sasi artean dauka  
egoa lotua.  
Nork askatuko ote-du  
ankatxo nastua?

Negar ta negar dago  
malkotan urtua.  
Malkotan gelditu da,  
gaixoa, itxutua.

Nun da nere aria?  
Nun det jostarratza?  
Iñork ez du entzuten  
aren dei garratza.

Zabiltza jira-bira  
itzulinguruan;  
arkituko dituzu  
saskitxo onduan.

Itzul-inguru dabil  
oillotxo txuria.  
Txorabiotan galdu  
bear du burua.

# SUA TA TXIMELETA

Egan dabil tximeleta,  
ziru-zira;  
su-mingain bati  
begira.  
Aizeak txiru-liru  
gar argira.  
Kontu, tximeletatxo,  
jira-bira!  
Zer zenduke egatxoak  
erreko balira?

Itxu dabil tximeleta,  
ziru-zira;  
su gorriak jo dio  
begira.  
Bein da berriz, txoraxka,  
gar argira  
joanaz, ega ariñak  
jira-bira,  
su-mingain gorri artan  
galdu dira.

Ikusi ta ikutu,  
ikusi ta txoratu;  
amaika gizon  
jolas orretan  
munduan dira  
ondatu.



# ERREKATXO KANTARIA

Errekatxo kantari,  
gulu gulu gulu;  
aurtxoak inguruan  
jostatu oi-degu.

Gulu gulu gulu gu,  
gulu gulu gulu,  
errekatxoak an du  
bere zurru-murru.

Aurtxoak lore bana  
dute eskuetan;  
bildua inguruko  
zelai ederretan.

Orra nil arros gorri,  
orra nik lilia,  
erreka jolasari  
gogoz eskeiñia.

Ur lasterrarekin  
doaz guziak...  
larrosa gorri eta  
lili txuriak.

Oa errekatxo,  
lorez jantzia!  
Ametsez bete dek  
iri bizia.

Loretxoak -ai, ene!-  
gulu gulu gulu...  
uretan -ai, gaixoak!-  
ondata zaizkigu.

# ESNE SALTZAILLEA

Bidean zijoan pinpirin-pirin  
esne-saltzaille liraiña,  
esku batean ontzia...  
Bazirudian panpiña.

-«Esne onekin txanpon mordoxka  
berealat det egiña;  
txanpon oiekin oillanda ta arrautz  
eta antxume ariña.

Ardiak ere erosi eta  
artilla saldu auzuan.  
Ai, zenbat diru bilduko dedan  
urte gutxiren buruan.

Nere diruen otsa zabaldu  
bezin laster, inguruan  
Errege-seme batek artuko  
nau emaztetzat onduan».

Esne-saltzaille liraiñarekin  
ametsak doaz bidean:  
-«Erregin-etxe zoragarria  
eskeiñiko dit dotean.

Morroi-neskame ta ainbat soiñeko  
izango ditut etxean.  
Nik baiño zori ederragorik  
eztu izango iñork lurrean».

Pozaren pozez salto ta brinko,  
asi da nexka gaixoa,  
ta irriks egiñas lurrean ausi  
zaio ontzi lurrezkoa:

-«Ai, nere oillanda ta ardi!  
Ai, Erregin-soiñekoa!»  
Orrela galdu oi-da munduan  
ametsak jasotakoa.

# UMEZURTZA

Kale zokoan illun da gogor euria;  
ate ondoan aur bat da otzak josia.

Umezurtxoak aterpe epelik iñun ez;  
Aingerutxoa aren ondoan negarrez.

Ipar aizeak kale zokoan intziri;  
euri ur tantak oiñazez malko itzuli.

Ama zerutik semetxoari begira:  
-«Aingerutxu oi! Ekark semea zerura».

-«Aurtxo maitea, amarengana igo nai?»  
Aurtxo gaixoak Aingeruari: -«Ene, bai».

Egan da egan zeruruntz Aingerutxoa.  
Egan da egan, arekin ume gaixoa.

Zeru bidean izartxoak aiengana:  
-«Bai ume ederra zerura gaur dijoana!»

Zeru atean ama laztana bien zai.  
Seme kuttuna bere besotan artu nai.

\* \* \*

Kale zokoan illun da gogor euria.  
Ama-semeak goian betiko zoria!

# GABON AMESAK

Elur zuria mara-mara mendi goian.

Elur zuria mara-mara gau guzian.

Aita San Josek estalpetxo bat nai luke.

Andre Maria, aren lagun atez-ate.

-Etxe onetan txokorik bai al dezute?

-Toki guziak bete zaizkigu. Zoazte.

Jose doneak bere biotza erdi bi.

Andre Mariak begi biak malko-iturri.

Senar-emazte doneak mendi aldera.

Aingeru onak arrituta aien begira.

Mendi aldean, aitzulo zar irikia.

Jainkoarentzat, ze nolako jauregia!

Askatxo bat du Jesusek bere seaska.

Asto ta idia aldamenean arnaska.

\* \* \*

Elur zuria mara-mara mendi goian.

Elur zuria mara-mara gau guzian.

Ta Jesus onak seaskatzat arri otza?

Oge bigunen zale geranok, au lotsa!!



# **BIGARREN SAILLA**

*Nere olerti-aideak, izan zuan alako aize bolara.  
Aize artan sortuak ditut ondoren dijoazen olerkiok.  
Nere urre-aldiko lanak dituzu eta orregatik  
nere olerkirik onentxoena, nere ustez.*

# ARGATIK

Eguzkitara zabaldutako  
zapi urdin zan zerua  
Izarraiztik Erniora.  
Argia urrezko ogean,  
etzatera zijoan  
Keixeta aldera.  
Argatik alkar  
maite izan gendun  
iñular girora.

Eguzkia odol zan  
arrats malkoetan;  
lañoak gorri ziran  
argi zotiñetan.  
Argatik gure biotzak  
lenengo miña izan zuten  
egun artan.

Zerua auts kolore  
ego-aldetik;  
argia zikin zetorren  
zeru-sapaitik.  
Argatik gure ametsak  
lausotzen asi ziran  
atsalde artatik.

Zerua goibel,  
aizea naasi;  
argia, ekaitz-bildur  
joan zan igesi.  
Argatik gure maite-ustek,  
-zorion-azi-  
gau aretan  
zira ausi!

# DONOSTIA

Ulia mendian nago.  
Begiak, gaba janari.  
Illuna luze, katuak marru,  
txoriak, jai ixillari...

Mirari!  
Lamiñak zapatari!  
Taka, taka, taka!  
Orratx buru gorri,  
orratx buru txuri;  
zeru zola urre tantoz  
josten ari.

Donosti!  
Gabaren altzoan azti!  
Etxe-kaletan argi berriak  
driz-driz begiari.  
Izarrak nun ote-dute  
gau ontan erromeri?

Begi-laiñeza ote?  
Zerua lekuz aldatzen  
ari ote-dan, det kezka.  
Goi argiak ote-datoz  
lurrera igeska?  
Lurra, ispillu zabalean  
asi ote goi lapurtzen?  
Ez da erreza asmatzen.

Gau sorgiñagorik!...  
Nun da zeru? Nun da uri?  
Goiak bea, ala beak goia  
du inbiri?  
Zein da egi? Zein ispillu?  
Au sorgin katillu!

Argi goia, ari bea.  
Zutik ote-nago?...  
Etxetatik kea;  
zeruak, laño autsa.  
Badute alkarren antza.  
Bitartean gogoak zalantza.

Zeru sapaia  
nun ote-dedan  
asmatzen nabil urduri.  
Ortzea sabelez gora itzuli?  
Donosti buruz-bera ote-jarri?  
Zorroztu dezadan begi.

Alperrik dut, Gabak  
bere ezkutua  
ganduz estali du.  
Nere korapilloa  
ezin dut askatu.

\* \* \*

Bat-batetan, ametsa,  
oro zait mamitu.  
Zerua aoz gora jarrita,  
Donosti egiña dezu!  
Donostia auspez itzul ezkeru,  
sortu dezu zeru!!

# GIZON-ERRI

Nundik sortu aiz? Zer dakark?

Erri baten arnasa  
igan elurtu dek.

Urte joanen amesa,  
guraso zarren mataza,  
erio-aizez eten-zorian  
genekusan negargarri.

Jaiki intzan arrigarri,  
begietan sorgin-argi,  
gogoan ezkutu ixil,  
biotzean, erri osoa  
ekarren irekin.

Ez uan bizi kezkarik,  
ez intzalako gizon uts.

Gizon bakoitzak, bizi laburra;  
laster dek lur-azpian auts.

Baiña i, gure erria intzan  
aragi egiña.

Argatik ire lurriña,  
ez uan irekin galdu.

Aurrean aut gure mendien  
orratz goietan. Lañoak,  
ire usai ditek; egoak,  
ire izena zekarrek.  
Iparragirre! Zein Maitagarrik  
soindu iñukan?

Nungo aideak doiñu biurtu au?  
Zelai ta malkor,  
ire soiñuz pozkor;  
ta gabaren etxe illuna,  
eresiz astundu dek.

Gernika! Aritza lege!  
Ostro bakoitza, Euskalerriko  
oitura burutua;  
gure izate-muiñean  
sakon errotua.  
Sustraiak euskal-lurrean  
odoltzeraiño sartuak dituk;

besoak zabal aidean,  
besarkada eskeinka



mundu osoari. Munka,  
ire oiñetan auspez nauk.

Ago! Ez adi zapuztu  
ur zikin nastuan.

Munduan,  
izan adi aizena:  
sendotasuna erroan,  
zuzentasuna gerrian,  
zintzotasuna buruan.

Agur, Iparragirre!  
Orain oake pakean!  
Lurrak ez dik iretzat  
arrik.

Geroaren magalean,  
iraupena dek oetzat.  
Euskalerrian  
bizirik  
zebillek ire irudia.

I, ez aiz gizon, ez.  
I aiz, gure erria!

# SIÑISTEZAREN ILLUNA

Argi galderaz  
urratutako  
nere gau-bidetan noa,  
itxas-ogerik  
beñere ez duken  
ibai-uretan itoa.  
Nork daki nere  
etor-egunak  
nun luken bere zantzoa?  
Nun duke nere  
zalantza onek  
azken-portuko leloa?

Etorkizun beltz!  
Zer duk neretzat?  
Poza?... Ezaren zuloa?..  
Iratxo illun!  
Akulu zorrotz!  
Kezka-ezten otz!  
Nere inpernu!!  
Geroa!!

# EZTEN ATZOKOA

Ezten atzokoa  
nere malkoa.

Bart nere gelan  
sartu intzananean,  
negarrez billa nindunan.  
Ire arpegi maiteak,  
izu-ikara,  
ildakoen itxura  
artu ziñan.

Baiña exeri adi.  
Ezten atzokoa  
nere malkoa.  
Ik eztakin, maitea,  
zein leize sakona dan  
nere gogo!

Ez zaidan galdetu.

Ailperrik uke.

Eztin iñork galdetzen

zenbat ur-tanta

ditun itxasoak.

Ailperrik den

izarrak zenbat diran

kontatzen astea.

Beti zegon zeru beltzean

arutzago,

beste bat gordea.

# ILLUNABARRA

Etzekiñat zer duan  
illunabarrak.  
Ezcuturen bat  
gordea badin  
laño gorrixken arrebak.

Atsaldearen negarra!  
Zerua, auzpez, dagon  
katillu-barrua,  
argi-intziritan  
zijoan galdua.  
Ta ni, aren aurrean,  
laño-lits bat naun,  
beltzean urtua.

Utzion arratsari  
estaltzen mundua.  
Biotzak negar egiteko,  
naiago din ezkutua.

# NORK DAKI?

Tximistak

izenpetu du ekaitza.

Trumoa,

aren morroe oska.

Deadar egin zun:

«Itxasoa! Itxasoa!»

Ola-gizonik

zarrena,

aitz joka ari da

malluka.

-«Itxoizu!

Aizu!... ta zu!... ta zu!»

# ARROPUTZ

Ni,  
neri,  
neretzat,  
neregatik.

Ta mundu guzia  
atzetik.

# KITTARRA

Sei burni-ari zintzilik.

Pin!

pon!

pun!

pan.

Lau tanta belarrietan.

Istil-otsa gogoetan...

Ire kolkoa,

Udaberri den loretan.



# DEIA

Lendik zetorrenan deia:

-«Aizak, iii!...»

Burua ikasketan

nastua niñan.

Aren otsa, kezketan

galdu unan.

Urrutitik berriro:

-«Aizak, iii!».»

Etxean opor-aldiak

poza zerionan.

Udaldia, itxaso,

mendia nizkiñan.

Berriro urbillago:

-«Emen ni!...»

Ta agertu intzanan.

# AIN URRUTI TA AIN URBIL

Ain urruti ta ain urbil!  
Au izan den gure gurpil.

Ogei urte dizkiñagu  
alkarren albo lanean.  
Nik, ire gose biotzean;  
ik, nere egarri ixillean.

Begiratu niñan bildurez beingoan;  
ik, bestera begiratu unan.

Begiratu idanan beste bein bildurrez;  
nik, jetxi nizkiñan begiak samiñez.

Ain urruti ta ain urbil!  
Ogei urte onen ixil!

Intziri bat nik. Ik: -«Gaixo al ago?»  
-«Burua astun diñat. Ez diñat geiago».  
Itzegi nai unan, baiña sorgin batek  
alda ziñan ire itza: -«Aidean lañoak zeudek».

Ain urruti ta ain urbil!  
Orrek din gure biotza il!

# EKAITZA

Nai aña jolas  
egin den nerekin.  
I, nere katu;  
ni, ire xagu.  
Utzi, artu,  
negar, poztu.  
Gaur: «Ator!»  
Biar: «Agur!»  
Orain samur;  
gero uxkur.

Gaur arte itxu  
netxegonan, Mari:  
ni, ire begietan;  
i, besterenetan.  
Biotzak dezaken  
maitasun guzia,  
igan ustu niñan.  
Ik, nere biotza  
esku-artean arturik,  
irri ta parre,  
biurritu idanan.  
Ta biotz gaixoa  
odol tanta gabe  
elkor utzi didan.

Itxas asarreak  
ur geldia astinduz,  
zaldi bustiak  
sortzen zekin.  
Aien erasoz  
ertzeko aitzak  
apar zuriz jazten dizkin.  
Ezten pakerik  
zelai urdiñean;

zeru orru,  
tximistak aidean  
zorigaitza idazten din.  
Ala naun ik gezur-itzez  
zoratzeraíño irakin.

Maite galdaz sortu itunan  
amaika olatu nastu.  
Ur medietan iraulka beti,  
galdu niñan nere zentzu.

Ta orain... itxas irakin ontan,  
-ez ontzi ta ez erruki-,  
bakar-bakarrik gelditu gaitun  
burrukan, ekaitza ta ni!!!

# GIZONA

Nor aut? Nork jarri au azpikoz gora?  
Zuaitz parregarri!... Bi adar tinko,  
oiñak lurrera. Aien gain trinko,  
enborra doakik argi auzora.

Enbor-gerri-mutur, buru-pillota,  
lur gose orde, egurats billa,  
(amets ta burutapen-maratilla)  
ire azi-gordaillu ta errota.

Ezker-eskubi, beso biak sustrai,  
aizea astinduz, bizia edaten.  
Zuaitz bat dirudik zerutik jaten  
ipurdiz gora... Goian ote dek jai?

# GOIZ ETA BERANDU

Gure izar biak lengoan

alkar jo zigutenan.

Nork zekin izar biak

nora joango diran?...

Ire izarra goraka zetorrenan.

Nerea, beraka zijoanan.

Eten den betiko gure begi-soka;

gure zillar-lorrazak

baziazan alkarri bizkarka.

Ta i... egun argi bi intzanan,

nre bide illa esnatzen.

Ta ni... antzi bi niñunan

amets galdu bat urratzen.

Zergatik etorri ote-nintzan

onen goizo bizi-maira?

Zergatik agertu intzanan

orren berandu lur-bazkaira?



Ai! ez euki bear ik  
urte batzuk geiago!...

Ai! ez euki bear nik  
batzuek gutxiago!...

# GOGO AMILLA

Nere baitan nabil. Gogo-enparantzan,  
ezpai-ardailla det dantzan.

Ulermena det irakin,  
gauzen muiña nundik  
ote-diteken jakin.

Gezur? Egi? Izate? uste-uts?...  
Onenbeste galderaz buru-kabia  
det zaputz.

Nagon! Nere begiak zer dakus?  
Nigandik ate dagon mundua  
noren eskuz

sartzen zait begi-ogean?  
Zer kinema det, beti aldatzen  
barnean?

Zubi ezkututik bitartez, oro  
atxi oi-det ariñ; baiña  
zer det idoro?

Nik ikuste uste dedana,  
nigandik alde,  
ala ote-da emana?

Ala, nere begiak iñun eztana,  
sortzen ote-dabiltz?  
Irudipen-uts ote dana?

Maitasun! Gorroto! Poz! Iguiña!...  
Zaldi azkarrak aztal didate  
biotz-muiña.  
Zer det adiskide? Zer etsai?

Zerk nauka maite dedanaren  
ate-zai?  
Nork bultzatzen dit gogoia,  
iguin dezadan nere  
etsaiaren albo?

Badu pozak iturria;  
baiña maiz etetzen zait aria.  
Samiñak, etxe zabala;  
atsegiñak, berriz, oso meia du azala.

Nora noa? Adimen-zurrunbilloan,  
zorabio det. Garunetan naspil.  
Espai... Zalantza... Ote-ka naiz murgil.  
Nere egazkiña, egak ausita,  
gogo-leizean zait amil.

# MAITASUNARI GORROTO

Ez adi gelditu gure atean  
Oakit aurrera. Zertarako aut,  
Maitasun, biotz-eden, etxean?

Ordu onean jo dek nere atea!  
Biotza zakarretara, ustel-gai,  
jaurti nian. Ez egon nere zai.  
Pake-lapur,  
arpegi gozo, gibel txakur,  
ematen dekan ezti-edena,  
oiñaze miñagoa sortzearren  
eskeiñi oi-dek.  
Erruki gabe ixurtzen dakik  
beazun-eztena.

Ama bat eman idaken, argi-uts.  
Ni samintzeko, erio-mende,  
biurtu uan ezur eta auts.  
Zertarako niñukan erri baten seme?  
Onen ederrez txora ondoren,  
eten nedin zori gabe?

Maitasun! Gorroto aut!  
Eskein gezurtiz,  
amaika aldiz  
itxutu nauk.

Maitale eziñen egarriz  
zirika niñukan, aiek irriz  
utzi ninzaten minbera.  
Ire aolkuz lege guziak  
jaurti nizkian leizera.

Jainkoa Bera maitatzen ere,  
ez didak utzi pakean.  
Oben irrikaz nere bizia  
josi dek, inpernu-keizez  
gal zedin nere zoria.  
Zertan ago gel nere atean?  
Nere burua sasi zuri dek,  
urteen buruz sugai utsa.  
Ala ere, gezurti alen!  
maite gazteen eskeintza  
egiten ez aiz lotsatzen.

Oa emendik, eden galgarri!

Ta kontu  
nere biotzean sartu!  
Berriro emen somatzen baaut,  
madarikatu!  
naiz nere bizia galdu,  
nere biotza labain zorrotzez  
erdi-erditik urratuz,  
ilko aut nere eskuz!

# BURU-ERROTA

Ai, nere Errota!

Buru-Errota!

Millaka gogapen  
ditut alkar-joka.

Etxeak, etxeak, etxeak,  
sorgin-tren iduri igeska;  
gizonak, mendiak, ibaiak,  
txakurrak... oro ditut kezka.

Dantza zoro batek arabil,  
usu aldatuz jolas-neska.

Ai, nere Errota!

Buru-Errota!

Etengabea dek  
ire ames-miña.

Urrutiko ibilli, dirutza  
errezak, bizitza ariña,  
aginte zabalak, jakintza  
azkarra dek ire iriña;  
erromeri nastu batean  
gardozten abil ire griña.

Ai, nere Errota!  
Buru-Errota!  
Itzul da berritzul  
inpernu-batzarre;  
gorroto, bekaitz, arrokeri,  
lizunkriak gorazarre;  
gerra, eriotz, lapurretak,  
gurpil biurriari: arre!  
Pekatzuko zurrunbilloan  
itotzen nauk jolas ta parre.

Ai, nere Errota!  
Buru-Errota!  
Nun dek ik atsedeen  
artzeko etzana?  
Gogapen, ames, pekatuak  
sortzen dek beti ire lana;  
bizitza gorrotazi didak,  
ikusiz ire gaitz-iorana.  
Arnaska, itoka daramak  
egonik gabeko edana.



Ai, nere Errota!  
Buru-Errota!  
Zeruan kakotu  
bearreko inguma,  
Jainko Beraren oiñetara  
jaso zak ire erresuma;  
otoitz eta ilduraz oakit  
erioaz birtute-bilduma,  
zeruko iriñez ogituta,  
dezadan Jaunaren eskuma!

# AMA

Neguko gau beltz luzetan,  
bisutsa nagusi danean,  
Ama det buruan,  
Ama biotzean.  
Baso erantziak, dardara;  
akelarre-soiñu aizeak,  
mendebala astintzen adarrak,  
-olarru-beso asarreak-.  
Erausiak ebaki ditu  
maldako belar ta oteak...  
Orduntxe artzen nau biziro  
amaren besarte-goseak.

Ai, baiña, aspaldi batu ziran  
neretzat amaren begiak;  
gorputz gaixo ura artu zun  
illobiko arri-azpiak;  
ta nik, oroipenez minbera,  
bustiaz maindire zuriak,  
gau-bela dagoit amari,  
igurtziz begi negartiak.

Amaren oroiz  
gau det biotzean,  
elurra gogoan;  
ezin det ixildu  
negarra kolkoan.

Amaika kezketan zailduak  
amaren lan-ordu luzeak!...  
Nere aurtzaroko goiz-argi,  
beti pronto bular beteak.  
Nere loa ziatzeko rne,  
nigan tinki begi maiteak.  
Min det amaren arpegia  
estali bearra lurpeak.

Tan... tan... tan...  
istil-otsak illunpetan.  
Tan... tan... tan...  
nere biotzak penetan.

Kanposantuan nor ote dabil  
ildakoen loa zaitzen?...  
Keriza beltzak ikusten ditut

gabeko antziak aitzen.  
Nere amaren ezur soilletan  
arrak beren lana amaitzen.  
Nere biotza karra-karra antxe  
dagola dirudit galtzen.

Negu gabetan  
amaren gose  
Amarik gabe  
gaua... bai luze!

# BIDE ERTZEKO BELARRA

Bidean ninjoala ikusi aut.

Ez iñudan gogoan.

Aldapan gora nentorela,  
albora begira nian.

An engoan,

bide ertzeko belar bakan,  
madarikapen mendean,  
lur zapaldu elkorrean,  
autsez zikindua.

Nork dik ire oroitzik?

Bidean dijoazenak,  
ez ditek ire errukirik;  
ezpaiditek aintzakotzat  
ire bizi erkin ori.

Amaika aldiz nerau ere,  
igaro izan auk albotik;  
baiña gaur arte ez nauk oartu  
ire etxe aurretik  
nenbillenik.

Larre onetako ardiak  
ez au bazkatu nai.  
Badik oberik mendian,  
ziripurdika ardi ta artzai  
dijoazenean alai!  
Ijito asto ezur-utsen bat,  
baditekek ire gose;  
baiña ura ere, ire bizia  
urratzeke ezin dek ase.

Lore-biltzaillearen esku ordez,  
erruki gabeko gurpil batek  
zapalduko au destañez.  
Etxerakoan biotz-ondoa,  
astun nian ire miñez.

\* \* \*

Nere erri gaixoa!  
Belar bakan zikiñak,  
badik ire antza.  
Zapaldu induten su ta gar.  
Zikin aute gezur d-dabar.  
Arrazkero guk zenbat dantza!

Noan etxera! Illunak  
mendi guzia arantza!

# ILLUNALDI

Alboko pagadian  
pago zar bi;  
besoak emanak dituzte  
alkarri,  
giroak narama  
aruntz sarri.

Pagondoan apatx egiñik,  
buruak illuna dario,  
inguruan aize epelak  
lurrunean dakar erio.

Armiarma andrea alborago,  
arilketan dabil,  
euli ta xamorroak nai.  
Argi txoratil,  
begietan dabilkit ozka;  
aizea, ixil.

Pago-besoak, eguzki aterpe,  
oriketari eman diote,



joan mendeak gaztearoa  
il zuten. Biar... zer ote?

Alaxe elizpean oi-dira  
agure zarrak kontu-kontari,  
beranduko astegun-meza  
entzun ondoren marmari.

Gerri lodi, sustar zaintsu,  
lur bati lotuak beti,  
basoko praille bakarti,  
pago zar biak beren bakarra  
aitatzen dute negarti.

Baña berago, lagun bat  
badute bakarrago  
alargun basoan.  
Pago bakarrak  
eztu lagunik ondoan,  
ta kontu zarrak itotzen  
zaizkio kolkoan.

\* \* \*

Lañoak lore bustiak  
dakartzkidate.

Jaiki naiz pago ondotik,  
gogoan neke.

Beti da munduan  
norbait triste;  
auzoan besteren bat  
tristeago daite.

-¿...?-

Laño?

Izar?

Ames?...

Zoaz

zere bidez!

# GABON AIZE

Belenen Gabon aize.

Zeruko izarrak, aineruz nasi,  
erretiro txarra dute.

-Pardel aundiok! Ordu auetan  
nori kantatzen zaudete?

Izar txuriak, irri.

-Ez al zenekin lendikan ere  
gure ibillien berri?

Mundua mundu danetik beti  
izan gaituzu gautxori.

-Baiña Aingeruak nola?

-Gaur Jaungoikoak, lurrera jetxiz,  
urratu du zero-zola;  
eta zerua zulo artatik  
jarri da Aingeru daiola.

Zeruan ezta gau ta egunik,  
an beti da Erromeri;  
ordu guziak jai berrietan  
gauzkate pozez kantari;  
ta Aita Jainkoa mai zabalean  
degu betiko bazkari.

Gaur Gabon aize lurrean  
eta Jainkoak zabaldu digu  
zerua Belen-aldean;  
argatik zeru ta lurrekuok  
jai degu gau-biotzean.

# ITURRI AGORTUA

Ai, Iturritxo, Iturri!  
Maitale biurri!  
Iturriak maite bat  
omen zun ixillik.  
Bat ixillikan eta  
bestea gorderik.

Ai, Iturritxo, Iturri!  
Maitale biurri.

Eguzkia goizero,  
an dijoa egan,  
gallurretik jauzika,  
aitzik aitz irristan.  
Nora joango? eta  
-ez ñori esan-  
iturrira ixillik  
maite-joalsetan.

Ai, Iturritxo, Iturri!  
Maitale biurri.

Euzkiak iturrian  
saturik burua,  
aren bustiz gozaten  
zun bere berua.

Ain zan iturri polit!  
ta ain gozo ingurua!...

Eguzkiak antxe zun  
biotza lotua.

Alde egiterakoan,  
gabero malkua.

Ai, Iturritxo, Iturri!  
Maitale biurri.

Lizar-landare gazte,  
iturri-ondoan;  
ezkoaren indarrez  
goraka zijoan.

Nork esango? Lizarra  
iturri alboan  
onen maitez zearo  
galdua zegoan.

Ai, Iturritxo, Iturri!  
maitale biurri!

Euzkiari musu ta  
Lizarrari xirri.  
Lizarrak Eguzkia  
andik kentzearren  
asi da gaiñetikan  
adarrak luzatzen.  
Beretzat bakarrik nai  
iturritxoaren  
kanta txanbeliña ta  
Eguzkia andik ken.

Ai, Iturritxo, Iturri!  
Maitale txoroa!  
Arrisku aundikoa  
den ire jokoa.

Eguzkiak amorroz  
lurra kixkaltzen du  
Lizarra igartzeko  
asmoz, gar eta su.  
Baita ere azkenik

asmaoa burutu,  
ta Lizarrari muiña  
ondotik igartu.

Baiña Lizar-ostoak  
eror ziranean,  
Iturria ere il zan  
aiekin batean.  
Ta Eguzkia pozik  
biaramonean,  
aitzik aitz Iturrira  
etorri zanean;  
maiterik etzun arki  
lur soil elkorrean.



# BIOTZ ERDIKETA

Gau-ama lore-egoak  
biltzen ari da.  
Bidean zear maite bi,  
besoak korapilloan,  
astiro doaz pausoan.  
Oiñatzak bide ixilla  
esnatzen dute otsera.  
Tra!... tra!... tra!... Illuna  
deika biotzera.

Maite bi doaz bidean,  
oiñak alkarren parean,  
izketa ixil, begiak gandu,  
odola irakiñean.  
Odei-muilloak gaiñetik sapai,  
izarrik ez du illargiak zai.

Lau oin, bi ta bi,  
nexka-mutillen  
arraun, lur joaz,  
geldi-geldiro dijoaz.  
Amesik ez da bidean...  
Urruti baten mojen kanpaia  
asperenka da illunpean.

Orduak orraztuaz,  
aurrera dijoa gaba;  
bide alboak sasitzen.  
Maite biak, asmotan bat,  
tanto bi dira urrutira;  
ipurtargiak bide ertzetik  
ikutu die begira.

Besorik-beso, eskurik-esku,  
maite biak geldi dira.  
Bustiñez labain dago  
alboko zingira;  
labaiñago da mutilla  
neskatxaren belarrira.

Geroxeago, aldapan geldi,  
ostropea illunago...

Arnas estu bi aidean!

Ingurua miñez dago.

Biotz biren erditzeak,  
zotin da urruma dario;  
griña itxua etxeko dabil;  
adimena, andik auzo.

Gero... Aldapan bera kezkatu,  
maite biak mutu datoz.

Neskatxa, txima-luze, soiñeko-  
zimur, itxu dator malkoz.

# LIZARDI OROIZ

## I. ILLUNPETIK ARGITARA

Itxasoak garratz ura,  
animak aren mindura,  
zure eriotzak piztu ninduan  
euskal olerti mundura,  
argatik nere lanak badute  
kanposantuko tristura.

Zeru ertzetik ertzera  
izarra doa galtzera;  
ala jo zendun gure artean  
sortu orduko illunpera,  
argi bizizko dizdiz laburrez  
gora jasoaz euskera.

Oi, Parisko txolarrea!  
Nun galdu dezue bidea?...  
Eriotz deiak lañotua du  
portu gaiñeko aidea;  
naigabe miñak itxia dauka  
biotzetako atea.

Gure biziaren latza!  
Oztu da otartxo utsa!  
Aita alargunak biotzean du  
alabaren eriotza;  
ta ari jarraituaz, aterpe ordeaz,  
utzi digu negar beltza.

Zeru-azpia, izarrez;  
zeru barrua, areago;  
goi-argiaren itxaropenak  
egan narama arutzago,  
ekaitz orruak jaiotzen diran  
alorrak baiño gorago.

Amonak egin zun jira,  
Egun Aundiko argira;  
Xarbiertxoren Gabon negarrak

jo zuten bizi berrira;  
aita ta ama etxekoekin  
zeruetan batu dira.

## **II. OROI BIDETAN**

Ames-min diat,  
joan egunak  
nere baitan berritzeko,  
otaloreak negu illean  
nolatan zaitzen duan  
elurtea ikusteko.

Elurpean lo  
dagoen lurra,  
illobi aundia ote?...  
Ire ezurak betiraueko  
arnasez iraun-azteko  
maindirepea dala uste.

Orra pagoa  
etsigaitz, bere  
azken-ostoa galtzeke;

ire oroipen maitagarriak  
ala zirautek josiak...  
Ai, gurekin baintzake.

\* \* \*

Bizi berria  
lotatik esna  
zaiguk baso-mendietan.  
Udaberria eztaietan dek;  
sorgin lana norbaitek  
egiña dik zugaitzetan.

Or zegok ire  
sagar-lorea,  
aidea zuriz arrotzen...  
Elur-marroak?... Pinpilinpauxak?...  
Maitagarrien mamuxak?...  
Orrela itukan amesten.

Zeruetan erne zaikan  
argi berriaren antza  
zeturrek lur-azpitikan.

Eguzki-sua  
erretzen ari  
dek gurdibieko larra.  
Sasiak esker ona agertu dik  
masusta-lorez jantzirik  
goitik datorkion garra.

Eskerrak ire  
Baso-Itzalari!  
An ager zitzaidakan  
ostope illun azpian lerdan  
esku emanaz erregin baten  
gisa bere etxe-atakan.

Gogoan dik ark  
irekin izan  
zuen egonaldi ura,  
ire alboan eseriz gero  
aopekotan ain bero  
gozatuz bion ardura.



Ai, maiteminduen itza!  
Ta bai laburra izaten dala  
berekin dakarren atsa!

\* \* \*

Ondar gorritan  
galdu nauk, lagun;  
Udazkeneko bidetan  
itxas-etzeko arkaitzak gorri  
agiri dituk, ziuurri  
erdoiak jota zaiñetan.

Zartzaroaren  
oiñatz baldarrak  
jo dik etxeko atea.  
Ego-aizeak astindu dizkik  
orbelak adarretatik...  
Gaiñean dek negutea.

Ai, gure bera bearra!...  
Odolean zetorkiguk  
galduko gaituan arra.

### III. GARAIPENA

Kanpai alaien otsa ari dek  
dilin dalam...

Ogi berria gordea zegok  
gari-balan...

Iñularreko negarrak badik  
ama gabaren azia;  
ozkarbiko izarretan  
zeterrek egun berria.

Erniopean aldarrika dek  
Urkizuko oroitarria.

IRE KOPETAK AGIRIAN DIK  
ILLEZKORREN GOI ARGIA!

# **RODINEN ARLAN AURREAN**

## **I. PAKEA**

Atsegiñez soiña lasa;  
aragi lagia,  
katillu jausia,  
xurga iturria.  
Zubipean ezten-islak  
eraso bizia.  
Jaiki! urra! ixuri!  
Gero... ur geldia.

## **II. JASA**

Gurariaren zauritik  
garrasi samiña.  
Lau iztar-suge kakoka,  
arpegiak biurrika.  
Zeruraiño atsegiña!  
Aragiaren kurrixka:  
Griña! griña! griña!!

### III. ZU

Eguzkia arrika  
mendi-tontorrari;  
eguna kanpai joka  
baso illunari;  
goiza loretan lertzen,  
argia kantari...  
Ta nere besoetan,  
zu, nere poz, Mari!

# ZERUKO IKASTOLA

Ostegun Santuz ikasi gendun,  
Jauna, guk zure ikastola:  
«Au da -entzunaz- nere Gopurtza,  
au, berriz, nere Odola».  
Arazkero da jarria gure  
aldaretan zure Etxola.

Ta emen ari gera oiuka  
gizarte nekatuari:  
«Atozte gure elizetara!  
Emen dezue Janari».  
Elizak, ala ere, utsik daude  
eta milloika goseti,  
janari gabe iltzen zaizkigu  
entzungor egiñaz guri.

Noiz ikasiko degu kristauok  
osorik zure bidea,  
animak zeruko Ogiz asetzen  
asi baiño len, gosea  
gorputzetatik kentzen degula,  
jarraituz zure legea?

Ala jokatu bai-zendun, Jauna,  
Ostegun Santu gau artan;  
animak zure Gorputz-Odolez  
ase baiño len, ta bertan,  
zure ikasleen soiñak aseaz  
aurrez Pazku-aparitan.

# K T A N

## I

N.-Zer esnaera det gaur

nere barnean?

Gogo berriak nauka

ito bearrean.

Egarri naiz ta ez dakit

nun dedan iturria.

Dei batek miñez dauka

nere aragia.

## II

K.-Auxen da buru astuna!

Sukar ezkutuak

artu zizkidak nere barruak.

Galda baten mende,

biotz gartua,

lertu bear zaidak

gogo izua.

## EGUARDIAN

K.-Eup!

N.-Nor aut?

K.-Ibai bat ujoletan.

N.-Zer nai dek?

K.-                    Amesetan

itxaso bat zabala  
ikusi diñat. Bertan  
nai niken atseden.

N.-Ator! Ez adi zeken.

Neu nauk ire itxasoa;  
iretzat diat altzoa.

Nork bultzatzen au?

K.-Aldapak. Geza naun.

N.-Ator! Nik gazituko aut.

K.-Nor aut, abost illaun?

N.-Iturri bat nauk sutan.

Nere gar bustiak  
argitara irten nai dik.

K.-Ator! Nik diñat iretzat  
argia.

N.-            BaNiak!

Bai al dek izenik?

K.-Ni NAUK naun. Ta i?



N.-Ni NAUN nauk.

Nola deitzen aute?

K.-KA, ta i, abots?

N.-Ni ENE.

## **ARRATSALDERA**

K.-Ene, bai ederra aizanala, maite.

N.-KA, ire abotsak nere biotza dik bete.

KA ta ENE atsalde artan

K-N

zijoazen.

Biak besotik elduak,

alkarri lotuak.

## **GABAZ**

Ene ta Ka gau artan

N-K

egin ziran.

Ibaia itxasoan

sartu zan.

# KATALIN

Nork eraman du Katalin,  
bere begi ederrakin?

Azkenbordara lagundu dio  
auzoak negar batean,  
olatu galdu batek bota zun  
legorrera bart gabean,  
itxas ertzeko aitzarte baten  
jaso dute gaur goizean.  
Erriko mutil jator guziak  
zerakarten bizkarrean;  
mutil guziak bizkarrean da  
txandaka aldatuz bidean.

Nork eraman du Katalin,  
udaberriko lorakin?

Auzoko biotz gazte guziak  
maitez zituan irakin;  
biotz guziak irakin baiña  
bat besterik maite ezin.

Bat besterikan maite ezin eta  
bera Itxaspeko Martin.

Baiña Martiñek maitasun aren  
berririk etzuan jakin,  
ta itxasoz aruntz, amesen billa,  
erritik zigun aldegin.

Nork eraman du Katalin,  
jostatzera izarrakin?

Itxas kanpotik kaio talde bat  
garraxika dator arin;  
ta ai ene, urruti ontzitxo baten  
galdu da Itxaspeko Martin.  
Neskatxa bati bere biotza  
lertu zaio min arekin,  
ta itxas-aurrera sartu da igari  
deadarka: -Nun aiz, Martin-  
Eta Martiñek erantzun dio  
urpetik: -Ator, nerekin!

\* \* \*

Abots aretxek eraman digu  
illen errira Katalin!

# **IRUGARREN SAILLA**

*Beste olerki auek ere, emen jartzen dizkitzuet.  
Auetan ez det ainbeste fede,  
baiña aitagarriak diralakoan nago.*

# DAMU MALKOAK

Gurutzearen oiñak  
odol gorritan dijoaz,  
gure pekatuen zorra  
neke-ordaiñez jasoaz.

Oiñaze!  
Zula zorrotz  
nere biotz!  
ta nere damu miña ase.  
Beazunez egiña  
dezula ezten miña?  
Ta ze?

Gurutzearen oiña  
damu malkoz  
ezotzen ari naiz,  
nere okerrak garaiz  
al banitza egos.

Damu malkoak

lurrundu dira...

Jarri naiz gora begira:

Jainko besoak,

-barka egoak-

zabalik daude nere gain.

Noan saiets idikira!

# KRISTO BERRI

Gaur igo zera lenengo aldiz  
aldarera, apaiz berri;  
zuri begira zoratzen zeuden  
agintari eta erri.

Begi-biotzak malko-lausotan;  
mingaiñak, berriz, aterri.  
Lege berriaz lotua zendun  
zure biotz eta gerri.

Gotzai Jaunaren itzak sorgindu  
zitun zure ezpaiñak,  
nai dezunean zure esanera  
urratzeko eliz-gaiñak;  
zeruetatik zai zenituan  
Aingeru-talde bikaiñak,  
zure eskuetan noiz eskeiñiko  
guztion oben-ordaiñak.



Makurtu zera, itzegin dezu,  
Kristotu zera mirariz.  
Au da benetan nere Gorputza  
esanaz Jesusen oroiz;  
Aingeru danak inguru zeuden  
zure almenen inbiriz;  
zure eskuetan Jainkoa Bera  
sortu dezu sorginkeriz.

Aldare ederra urre-argitan  
udaberritu da lorez;  
intzentsuaren lurrun gozoak  
usaitu gaituzte gaiñez;  
Meza erdian txilin-soiñura  
biotza bete da amesez.  
Eskoriatzan eliz barrua  
zerutu da goi-arnasez.

Zeru ta lurren egille Jauna  
jaso dezu eskuetan;  
Ogi ta Ardoa Jesusen Gorputz  
ta Odol biurtuz bertan.  
Oben gaitz danen sendabidea  
datorkigu zure itzetan.  
Kristo Berbera berritu zaigu  
gaurko Meza Berri ontan.

# BOST ITURRI

Bost iturri,  
odol gorri!  
Jesus josita egarri,  
gure pekatu mataza  
nolabait aska baledi.

Bost iturri,  
odol gorri!  
gure animen sal-neurri.  
Gu bizitzeko artu du  
Jaunak eriotz mingarri.

Bost iturri,  
odol gorri!  
Jesus Gurutzean larri.  
Aren miñez egun ontan  
auzpez dago Euskalerrri!

# MAITE DAMUA

Ez nau jarri, Jauna, Zu maitatzen  
eskein didazun zeruak;  
ezta ere pekatutik aldentzen  
inpernu beltzeko suak.

Zuk mintzen nazu, Jauna, ikusirik  
zure Gurutz t'eriotza.  
Zure Gorputz ain urratu orrek  
sutan jartzen dit biotza.

Ta ain zaitut maite!... Zeru gabe ere,  
berdin maitatzen nengoke.  
Inpernu gabe pekatuari  
bildur berdiña nioke.

Ez dezu zorrik nerekin, Jauna,  
maite arren nik oinbeste.  
Ezer espero ezpanu ere,  
berdin zinduzket nik maite!

# IRUTASUNA

Irutan Bat zaitugun Jaungoiko altsua,  
Zu ikusteko oso det adimen lotua.  
Argi ori ezpaita nere neurrikua;  
Zuri begira, laster ninteke itxutua.

Lenbizi Aita zaitut, gauz denen egille;  
zure eskua baita guztion ongille.  
Zuk dezu gaiztoentzat inpernu zerraille;  
Zu zera zeruetan zorion emaile.

Bigarren, Seme zera, Aitaren erraiñu;  
agortu gabeko Itza, ta Egi-albaiñu.  
Zugandik urruti da gezur da engaiñu;  
Zuri esker, obenak ez dit sortu lañu.

Irugarren or zatoz, Espiritu Santu,  
Aita ta Semearen Maitasun umatu,  
animan edergaillu, bizitza loratu.  
Ai, Zurekin al banintz zeruetan batu!

# EURIA

Aterkia teillatu,  
euritan banoa;  
oiñak lurrean goian  
amesen ur-loa.  
Aterkiz yasango det  
euri-erasoa;  
gogoak ezin uxa  
barneko lañoa.

Zeru sapaian milla  
txulo sortu dira;  
andik millaka ari  
datoz lur bustira.  
Aterki au kaiola  
da nere begira;  
burni-ari bustiak  
nere jira-bira.

Ala noa bizitzan  
loturaz betea;  
biotzaren lokarri,  
gurari katea.  
Nai ta ezin zabaldu  
amesen atea;  
nere baitan bai-dizut  
gogo-espexea.

Eguzkiak urra du  
zeruko goibela.  
Aterkia bituta,  
argi det txapela.  
Iges doakit gora  
bulkoen txanela.  
Amets egin det berriz  
nere esku naizela!

# IRRISTAN

Biok giñoazela  
besotik bidean,  
begiak urdiñean,  
sagar ustel batean  
irrits egin niñan.  
Ta nerekin ankaz gora  
zalapartan,  
laster intzanan lurrean.

Ustegabeko  
laztan aretan,  
izarrak nastu  
zitzaizkigunan  
oiñetan.

# BEGI EDERROK

Begiratu utsez gozoro iltzen  
nazuten begi ederrok!

Begira ezik, bizi gozoa  
galtzen dezuten izarrok.

Zuen gozoak edo ukoak  
berdin iltzen dit biotza.

Ukatuz miñez, ta begiratzuz  
maitez dator eriotza.

Nolanai iltzen nazun ezkerro,  
naiz gogorrez, naiz legunez;  
begira, Jesus, atertu gabe,  
ta il nadilla maitasunez!



# EUSKAL EGAZTI

Kanta dezagun Iparragirre,  
Euskalerriko olerkari;  
kanta dezagun gure erri zarra,  
seme bikaiñen sorkari;  
eta munduak entzun ezaigu  
nola ari geran kantari,  
Gernikan degun Aritz deunaren  
bertsolari yaioari.

Etziñan sortu gure errian  
zuaitez geldia izateko.  
Zure biotzak, ibil-miña zun,  
ludi zabala ikusteko,  
ames-egotan, pakerik gabe,  
lur berri gose ibiltzeko;  
baiña azkenean zure lurrera  
ekarri zindun iltzeko.

Milla ta zortzireunetan gendun,  
ain zuzen, ogeigarrena,  
Urretxu, erri zoriontsuak  
jaiota ikus zinduen.  
Joxe Agustin, Idiazabalko,  
zure aitaren izena;  
ta Manuela Franzizka berriz,  
Gabiriko amarena.

Zeraingo zure osabarekin,  
aurrenengo zure eskola;  
Gazteizera urrengo txanda,  
sartuaz latin-eskola;  
baiña bi urte baiño lenago,  
zure guraso kaiola,  
Madrileraiño alda zizuten,  
zuk jarraitzen zeniola.

Il da Fernando zazpigarrena,  
ta sortu zaigu burruka.  
Karlosen alde or dator bizi  
euskal-jendea oiuka.  
Iparragirre egon-gaitz dabil,  
(urte geiago baleuzka...)

Goiz baten bere etxea utzita,  
gudura dijoa igeska.

Alperrik dabil Zeraingo osaba  
mutilla beraganatzen;  
Ataunen dago San Gregorio,  
an da mutilla kokatzen.  
Soldau eginda, Karlosen alde  
gogor asten da jokutzen.  
Bi aldiz balak zauritu arren,  
ez da gaztea atzeratzen.

Iturritza ta Altzaa izan ditu  
agintari gerratean;  
Karlosen zaiko, alabardero  
aukera dute legean;  
baiña ordunte bukatu zaie  
gudatea ustegabeen;  
ta Iparragirre, muga igarota,  
sartu da Prantzi aldean.

Egazti sortu da gizonari,  
ames zaio eguratsa;  
gure lur onek jira-biraka

ibiltzeko du ardatza.  
Iparragirrek bere emeretzi  
urtekin badigu gatza;  
mundu guzia txiki iduritzen.  
Nork lotu ari oiñatza?

Jaunak emana dute txoriak  
erein gabe bizitzea.  
Biarko kezka bestentzat bedi;  
aien lana, kantatzea.  
Onela artu du Iparragirrek  
mundu ontako bidea.  
Etengabeko kanta-jaia du  
lagun arteko legea.

Adarrik-adar, basorik-baso,  
gaur egora, biar ipar,  
pagausoa bezela dabil  
Iparragirre lur-zear.  
Paris da Suiza, Tirol da Itali,  
berriz Parisera azkar.  
Marselesaren doiñu zoliaz  
pizten du Frantzin su-txingar.

Bonaparteren zeladoreak  
kezkaz jarraitzen diote.  
Errepublika sua berriro  
arrotz arek piztuko ote?...  
Agintariak kantariari  
neurriak artzen dizkate;  
ta azkenerako Prantzi lurretik  
kanpora bialtzen dute.

Ez da itoko gure gizona.  
Inglaterrara doa.  
Antzokietan mundu guziko  
kantaz aidatzen du loa.  
Taberna baten, kantari ergel  
bat ikusten du lur joa;  
ta aren errukiz, jator abestuz,  
biltzen du diru-pilloa.

An Mazarredo, jeneral jaunak  
entzun ditu euskal kankak.  
Onek lagunduz, Espaiñiako  
enbajadore zegonak,  
iristen dizka Iparragirrei  
emen sartzeko baimenak.

Luzatu gabe, Santoña aldean  
jarri ditu bere oiñak.

Bilbon asita, erririk-erri,  
asi du kanta-mataza;  
txibia bere saltsan bezela,  
biotza du emen lasa.  
Euskal jendea zoratzen dauka,  
ardangela eta plaza;  
jan-edanetan, kontu ta kanta,  
badu aretxek arnasa.

Iparragirre, txori bezela,  
zotzetik zotzera arin;  
ta an da Madrilen, lengo tokiak  
ikusiz bere kantakin.  
San Luis kafea beteta dago  
euskaldun jendearekin;  
Iparragirrek badaki nola  
aien biotzak irakin.

Milla ta zortzireunetik gora  
berroi ta amairugarrena;  
euskaldunontzat aztu eziña,

aurten eunurteurrena,  
Iparragirrek San Luis kafean,  
euskal koplari gurena,  
jaiki ta kanta zigula amesti  
bere kopla ederrena.

*Gerninako Arbola  
da bedeinkatua!...*

Asi da txertatuaz  
biotzetan sua.  
Entzule danak arri,  
dardaraz kolkua.  
Euskalerriak arki  
du bere oiua!

*Euskaldunen artean  
gutziz maitatua...*

Negarra begietan,  
txaloka eskua,  
Aritzak irabazi  
digu gaur jokua;  
Gernikan degu gaurtik  
biotza lotua.

*Eman da zabal zazu  
munduan frutua...*

Bekaitz-arrik gabeko  
biotz-loratua;  
gorrotoari kendu  
diogu lekua.  
Mundua, gure pare,  
nai degu poztua.

*Adoratzen zaitugu  
arbola santua...*

Gure lege, oitura,  
ta erri zintzua;  
guraso zarren arnas  
ta odol sutsua,  
zuk dituzu. Zu zera  
gure eliz autua!

Bizkaiko mendi eta ibarrak,  
jaso zuten oiartzuna;  
euskal biotzak esnatu zuten  
guraso zarrei entzuna;  
zapaldutako lur maite onek  
astindu zigun illuna.



Mendi ostetik eguzki izpiak  
sor zezaketen eguna.

Erromeri da. Iparragirre,  
an dute jai-suspergarri.  
Giza taldeak sua dario;  
guardazibillak an larri.  
Olerkaria atzeman dute  
ta Tolosara ekarri;  
t'Euskalerritik gure txoria  
kanpora dute igorri.

Iru urteren buruan emen  
da berriro olerkaria;  
baiña jendea etzan lengoa;  
illa zegon gure erria.  
Zer egin? Egan! Urrutietan,  
ames-zai du lur berria,  
ta Ameriketean agertzen zaigu  
alai bidari ermia.

Buenos Airesen euskal-emazte  
argia aukeratzen digu.  
Kerexeta-tar Maria Angela,

Alegriko alaba du.

Maitasun onek seme-alabez  
koplaria digu poztu;  
baiña txoria urruti artan,  
kabi miñez da gaixotu.

Lagun karta bat idatzi dio  
Lertsundi jeneralari,  
Euskalerrira etor-gosea  
adieraziz berari.  
Euskal jendeak laguntzen dio,  
ta aize emanaz amesari,  
Burdeoson da, agur egiñaz  
aurrez bere sendiari.

Euskalerrria piztua zegon  
Canovasen lege-miñez.  
Urretxu eta Donostin badu  
arrera beroa ziñez.  
Iparragirre urteen buruz  
zuri da buru-bizarrez;  
eztarria latz, baiña biotza  
etzaio aldatu urtez.

Santa Lutzia ondoan dago  
Txapartegi baserrian.  
Bizkai, Gizpuko ta Arabako  
iru Aldundik batian,  
diru-laguntza eskein diote.  
Iparragirre, lenian:  
kanta ta edan, kezkarik gabe,  
bizi da lagun artian.

Zozoarro du azkenik berak  
aukera duan etxea.  
Etorkizunak ez du kezkatzen  
aren barruko pakea.  
Gau baten, alai, mai-inguruko  
batu da lagun taldea,  
ta ardangelako txoko batean  
egin apari-legea.

Jatordu arek eta gau-pasak,  
sortu dio azken gaitza;  
ta bi astetan ebaki zigun  
koplariaren bizitza.  
Bilboko lagun batzuengandik  
artu du gaixo-laguntza,

ta arekin ordain al izan zuten  
eliz-illeten langintza.

Onela il zan Iparragirre,  
azkenerarte koplari;  
prantzizkotarren jantziz zutela  
aren gorputza estali.  
Urretxuraino ekarri zuten  
auzo ta lagunuen erdi,  
kutxa ondoren negarrez zula  
Zubiri, napar kantari.

Geldiegia izan zan, nunbait,  
azken bizialdi ura,  
eta egonak Iparragirrei  
sortu zion ituzura.  
Andik sartu zan biotz aretan  
eriotzaren landura  
ta emen geio ibil eziñik  
iges zitzaigun zerura.

Euskalerrriak negartu zuan  
zijoakion semea,  
eta geroak maitez gorde du

ark utzitako ondarea:  
abestietan eskeiñi zigun  
biotz gorroto gabea,  
gizon guziei opa ziela  
ARITZAREN ITZALPEA.

# ABESTIAK

Amasei bat urte dira *Kanta Kantari* liburua argitaldu nuala. liburu arek, euskera kanta berrietan sartu nai izan zuan. Lenengo aldiz, euskal itzez jantziak agertu ziran pasodoble, fox, rumba, tango ta abar. Nere asmo ura kaltegarria iruditu zitzaaien batzuei; baiña geroa, nere orduko asmoa ontzera etorri da. Gaur, gazte talde batek jaso du nere orduko lana ta kitarrez eta auspoz lagunduta, or atera zaizkigu Euskalerri osora, abesti berriak arrotzen.

Abesti zaarrak ez ditugu baztatu nai. Aien balioa beti begien aurrean degu; baiña kanta berriak ere gure erriari bearrekoak zaizkio. Izkuntzak indartsu bizi nai badu, sail guziak artu bear ditu, zaarrak eta berriak. Bestela, euskerak artu nai ez duan lurra, erderak jago dio.

Fubolean jokatzeak, eztu pelota jokoak galdu. Biak batera eraman ditezke aurrera. Onela kanta zaar eta berriak ere. Batak ez dio besteari kalterik egingo. Gazteak kanta ditzatela giro berriko abestiak ere, euskerazko itzekin. Beste errialdetan ere, jokaera ori bera ikusten degu.

*Kanta Kantari* liburua agortu-zorian det. Ale batzuek besterik etzaizkit gelditzen. Orregatik, emen sartu dizkitzut, an eskeiñi nizkitzun 33 kanta. Arrazkerro, beste 33 abesti sortuak nituan, eta guziak batera, or dijoazkitzu. Kanta itzazu euskal-giroa loditzeko!

**LENENGO SAILLA**  
**AUR-ABESTIAK**



# SURTZAPI

Surtzapi txuri onekin  
jolasten gera:  
orain alde batera,  
gero bestera.  
Zapi txuria lurrera,  
zapi txuria eskura.  
Zapi txuri onekin,  
noan aurrera.

Neskatxetan politena,  
gure Elena:  
ortz bat du oso ertena,  
biotz zekena.  
Zapi txuria lurrera,  
zapi txuria eskura.  
Arpegian du legena,  
oña errena.

Izarretan ederrena,  
Ama Birjiña:  
besoetan du Semea.  
Nor Ura aña?  
Zapi txuria lurrera,  
zapi txuria eskura.  
Gora dezagun Maria,  
gure Erregiña.

Abesti au, soka-saltoka egitekoa da. «Zapi txuria lurrera» esanaz bat, surzapia bota bezate lurrera; ta «Zapi txuria eskura» esaterakoan, jaso bezate lurretik berriro soka galtzeke.

# KANTA-KANTARI

*(Aur eta gazteak kanta ta  
dantza dezakete)*

Kanta-kantari daude  
txoriak zeruan:  
kanta-kantari daukat  
biotza barruan.  
Ta zergatik? Ta norgatik?  
Maite, zuregatik.  
Kanta-kantari nago  
maite, zuregatik.

Kanta-kantari dator  
argia goizetik:  
kanta-kantari nator  
ni aren aurretik.  
Ta zergatik? Ta norgatik?  
Maite, zuregatik.  
Kanta-kantari nator,  
maite, zuregatik.

Kanta-kantari dator  
erreka menditik:  
kanta-kantari noa  
ni aren zubitik.  
Ta zergatik? Ta norgatik?  
Maite, zuregatik.  
Kanta-kantari noa  
maite, zuregatik.

Kanta-kantari dabil  
aizea basoan:  
kanta-kantari nabil  
ni aren alboan.  
Ta zergatik? Ta norgatik?  
Maite, zuregatik.  
Kanta-kantari nabil,  
maite, zuregatik.

Kanta-kantari doa  
euzkia urpera:  
kanta-kantari noa  
ni nere etxera,  
Ta zergatik? Ta norgatik?  
Maite, zuregatik.  
Kanta-kantari noa,  
maite, zuregatik.

# BAT ETA BI

Bat eta bi,  
iru ta lau.  
Amak uretan  
sartu nau.

Bat ta bi, lau ta  
beste bi, sei.  
Amak etxetik  
egin dit dei.

Sei ta lau, amar;  
ta amar, ogei.  
Nork kontu egin  
lore auei?

Ogei bosteko,  
eun zuzen.  
Gure bildotxak  
denak gizen.

# OGI TXURIA

Zuk eztezu jango, arata;

zuk ere ez, antzar.

Nik gari alea lurrean sar;

nik errotara ekar.

Nik oretuta labean

erre su ta gar.

Ogi txuria neretzat

eta nere txitoentzat.

# TXIO TXIO, MIRUA

Txio txio, mirua,  
jan bear dit txitua.  
-Nundik dabil oillua?  
-Oillotegian sartua.

Klu, klu, klu, oillo lokak,  
miruaren alakak;  
oillo loka azpira  
igesi txitakumak.

Miru, miru, mirua,  
jan nai luke txitua,  
onek lokaren azpi  
gorde ezpalu mokua.

Klu, klu, klu, oillo loka,  
mirua da atzaparka.  
Ez iriki aterik,  
jan etzaitzan bizirik.

Miru, miru, mirua,  
joan zaizu txitua;  
eztaukazu ikusirik  
zure mokau galdua.



# MARTINTXO

*Leloa:*

Martintxo! Martintxo!  
gure pittirrintxo.  
Martintxo! Martintxo!  
oraindik txikitxo.

Amaren bularretik  
xurgatzen du goxo.  
Martintxo! Martintxo!  
gure arkakoxo.

*Martintxo!....*

Egunez lo eginda,  
negarrez gabero.  
Martintxo! Martintxo!  
gure artabero.

*Martintxo!....*

Amari loa kentzen  
mutilla da oso.

Martintxo! Martintxo!  
mutiko maiñoso.

*Martintxo!....*

# KRIXKITIN-KRAIXKITIN

Belenen sortu zaigu,  
-krixkitin kraxkitin-  
Jesustxo poxpolin.  
Askatxoan etzanda,  
larrosa zirudin.

Andre Mariak dauka,  
-krixkitin kraxkitin-  
jantzi txuri-udin.  
Zoragarria dago  
zeruko Erregin.

San Jose antxe dabil,  
-krixkitin kraxkitin-  
sua nai du egin,  
Aurtxoa negu artan  
otzitu ez dedin.

Asto-idiak arnaska,  
-krixkitin kraxkitin-  
berotzen alegin.  
Aurrari nai diote  
gozatu negu min.

Aingeruak aidean,  
-krixkitin kraxkitin-  
egan dabiltz arin.  
Jesusi nai diote  
kantuz lo eragin.

Artzaiak menditikan,  
-krixkitin kraxkitin-  
arkumetxoekin.  
Soiñu ta dantza dute  
txistu ta danbolin.

Erregeak dakarte,  
-krixkitin kraxkitin-  
izarra gaberdin,  
ganbelu ta kutxetan  
naikoa urrekin.

Guk ere jo ditzagun,  
-krixkitin kraxkitin-  
lapiko ta tupin.  
Etxean zai daukagu  
gaztaiña danbolin.

# GABON AMESAK

Elur zuria mara-mara mendi goian.

Elur zuria mara-mara gau guzian.

Aita San Josek estalpetxo bat nai luke.

Andre Maria, aren lagun atez-ate.

-Etxe onetan txokorik bai al dezute?

-Toki guziak bete zaizkigu. Zoazte.

Jose doneak bere biotza erdi bi.

Andre Mariak begi biak malko-iturri.

Senar-emazte doneak mendi aldera.

Aingeru onak arrituta aien begira.

Mendi aldean, aitzulo zar irikia.

Jainkoarentzat, ze nolako jauregia.

Askatxo bat du Jesusek bere seaska.

Asto ta idia aldamenean arnaska.

\* \* \*

Elur zuria mara-mara mendi goian.

Elur zuria mara-mara gau guzian.

Ta Jesus onak seaskatzat arri otza?

Oge bigunen zale geranok, au lotsa!!

# UMEZURTZA

Kale zokoan illun da gogor euria;  
ate ondoan aur bat da otzak josia.

Umezurtxoak aterpe epelik iñun ez;  
Aingerutxoa aren ondoan negarrez.

Ipar aizeak kale zokoan intziri;  
euri ur tantak oiñazez malko itzuli.

Ama zerutik semetxoari begira:  
-«Aingerutxu oi! Ekark semea zerura».

-«Aurtxo maitea, amarengana igo nai?»  
Aurtxo gaixoak Aingeruari: -«Ene, bai».

Egan da egan zeruruntz Aingerutxoa.  
Egan da egan, arekin ume gaixoa.

Zeru bidean izartxoak aiengana:  
-«Bai ume ederra zerura gaur dijoana!»



Zeru atean ama laztana bien zai.  
Seme kuttuna bere besotan artu nai.

\* \* \*

Kale zokoan illun da gogor euria.  
Ama-semeak goian betikozoria!

# **SAN RAFAELEN JUANA AIZPARI**

*(Larogei urte bete zituan egunean)*

Txori txiki politak  
leioan kantari,  
kontu txiki polit bat  
esan dit gaur neri:  
Kontutxo bat, kontutxo bi,  
ez galdetu neri:  
kontu ori galdetu,  
txori txikiari.

Kanpaia dilin-dalan  
egunsentiari,  
mojatxo bat jaiki da  
goizean kantari.  
Mojatxo bat, mojatxo bi,  
nor da gaurko ori?  
Kontu ori galdetu  
txori txikiari.

Lurrean pasa ditu  
urteak larogei,  
ta Konbentu barruan,  
berrogetamasei.  
Mojatxo bat, mojatxo bi.  
Nor da gaurko ori?  
Kontu ori galdetu  
txori txikiari.

Sor Juana du izena,  
abizena Lasa:  
ezta ain motxa izan  
onetxen arnasa.  
Mojatxo bat, mojatxo bi,  
Azkoitin amabi.  
Esan dizut nik entzuna  
txori txikiari.

Ikusi du erortzen  
makiña bat orbel,  
baña tentea dago  
Aizpa San Rafael.  
Nor dan ori? Zein dan ori?  
Jakin dezu garbi:  
orain ez ezer galdetu  
txori txikiari.

San Rafael dezula  
zeruko Patroia,  
luza deizula Jaunak  
gaur dezun sasoia.  
Aingeru bat, Aingeru bi,  
Rafael gidari:  
zeruan sar zaitzala  
abarka ta guzti.

# IKASLE ALPER ETA ZINTZOAK

*Ikasle alperrak:*

Egunero igandea balitza,  
Ai, gure poza! Ai, gure poza!  
Zelaietan bilduko genituzke  
Milla larrosa, milla larrosa.

Liburu denak erreko balira,  
Ai, gure poza! Ai, gure poza!  
Gure bizitza izango litzake  
josta ta goza, josta ta goza.

Ikastolarik iñun ezpalitza,  
Ai, gure jaia! Ai, gure jaia!  
Nexka-mutikoz beteko lirake  
kale ta kaia, kale ta kaia.

Azterketarik beiñere ezpalitza,  
Ai, gure jaia! Ai, gure jaia!  
Pozaren pozez lertuko litzake  
gure anaia, gure anaia.

Maixu denak gaixotuko balira,  
Ai, gure dantza! Ai, gure dantza!  
Mundu guzian entzungo litzake  
gure arrantza, gure arrantza.

*Ikasle zintzoak:*

Beti jai balitz, nork irabaziko  
luke ogia, luke ogia.  
Goseak laster ondatuko luke  
gure bizia, gure bizia.

Ikastolarik gabe bagenitu  
gure erriak, gure erriak,  
basapizti biurtuko lirake  
gizon guziak, gizon guziak.

*Guziak batean:*

Ur guziak agortuko balira,  
Ai, gure miña! Ai, gure miña!  
Nork garbituko ote liguke gure  
musu zikiña, musu zikiña.

# MORO KATUA

*Doñu zarra*

Katu zar bat badegu,  
Moro du izena:  
burutik oñetaño  
beltza da dena.  
Baña beltzagoa du  
ark bere barrena,  
odol orde du, noski,  
zañetan edena,  
katu gaiztoena,  
zikoitz, maltzurrena:  
beiratu zekena,  
al dan okerrena.  
Ondo egin ta gaizki  
artzen duena.

Sagu eizean berriz,  
tentelu zozoa:  
laster artzen diote  
danak zuloa.  
Lukainka muturrari  
begi ernegoa,  
ura arrapatzeko  
billa ixkintxoia:  
beti txarra asmoa,  
okerrerakoa:  
ostutzen yaioa,  
artako jaioa.  
Amaika aldiz eraman  
du urdai-txongoa.

Beti kuxkur maipean,  
arin txonkatilla:  
irikitzen badaki  
tajuz matilla...  
Gure sukalde ortan  
bada iskanbilla:  
an daramala aoan  
katuak opilla!  
Amamak itz milla,



eskuan makilla.  
Ura ume-pilla!  
Danak katu-billa.  
Bera berriz gordetzen  
a zer mutilla.

Amaika gizon bada,  
Mororen antzera,  
eginbearrekotan  
oso atzera,  
ezbearretan berriz  
gogor jokaera:  
oñak eta eskuak,  
beti okerrera,  
onik ez aukera,  
ortan oso bera:  
berandu oera,  
iñoiz ez lanera.  
Jairik-jai ibiltzeko,  
alper-billera.

Laugarren ahapaldia bakarrik dezu nerea.  
Beste iru aurrekoak Jakakortajarena jauna-  
renak dira. Doñu zarra jarri diot.

# TXALOPIN TXALO

Dantza au, seaska erdian zala, egin genduan Azkoitin. Seaska inguruan zortzi nexka kokkor dantzan egiteko prest. Ahapaldi bakoitzean dantza aldantzen zuten.

Gure Potxolo, gure Potxolo,  
seaskan etzandan, gizentzen dago. *(bis)*

Amak lo eiteko kantatzen dio:  
lo lo, nere maite; lo lo, Potxolo;  
baña aur okerrak eztu ein nai lo,  
ta amari egiten dio par gaizto.

Gure Potxolo, gure Potxolo,  
begiak zabalik seaskan dago. *(bis)*  
*(Orain Mamua azaltzen da. Nexka dantzariak  
bildurrez arpegiak estalita, baztarrera  
begira gelditzen dira).*

Lo eiten ez duan aur gaiztoari  
Mamua agertzen zaio tentari:  
ta azkar eragiñaz zaku beltxari,  
ñiñia arrapatzen dio amari.  
*(Mamua bitartean seaska inguru ibillita,  
dantza-eran ezkututzen da).*

Gure Potxolo, gure Potxolo,

Mamua juateko, egin azkar lo. *(bis)*

*(Lau Aingeru azaltzen dira dantzan.*

*Zortzi nexka dantzariak alboratzen dira,  
Aingeruei seaska inguruan leku egiteko).*

Lo egiten duan aurtxo zintzoak,

inguruan ditu Aingerutxoak.

Aiek ekarriko koko goxoak,

ta egan eiteko egon urrezkoak.

*(Aingeruak seaska inguru dantzan  
eginda gero, ezkututzen dira).*

Gure Potxolo, gure Potxolo,

begiak itxita, lo ta lo dago. *(bis)*

Amesetan dago gure Potxolo,

zerura doala igo ta igo:

izarrak bidean or datozkio,

danak berarekin jolas eiteko.

Gure Potxolo, gure Potxolo,

seaskan etzanda, negarrez dago. *(bis)*

Ixo, nere maite! ez ein negarrik,

kaxka txikia da kanpora nairik:

kaxkak irtetzean, emango bai nik

ñañan egiteko txitxia pozik.

Gure Potxolo, gure Potxolo,  
seaskan etzanda, gaxorik dago. *(bis)*  
*(Orain Aingeruak berriro azaltzen dira.*  
*Seaska inguru dantzan egin: Potxolori*  
*musu eman, eta kutxa txuri batean seaskatik*  
*artuta, aurra ilda ateratzen dute).*

Aingeru txuriak seaska inguru,  
dantzan ari dira, soñu ta kantu:  
gure Potxolori emanaz musu,  
zerura eraman dute aingeru.  
*(Aingeruak ezkututzen dira).*

Gure Potxolo, gure Potxolo,  
ilda geldik dago, betiko lo lo. *(bis)*  
Amaren biotza oñaze itxaso,  
seaska ondoan negarrez dago:  
burua makur, da begiak malko,  
illa dagolako gure Potxolo.

*(Nexka dantzariak seaskari begira ta txalo joaz).*

Txalopin txalo, txalopin txalo,  
katutxoa mizpira gañean dago.  
Badago, bego: bego, badago,  
gure txiki polita zeruan dago.

# KOKO MIKO

Koko Miko, Koko Miko,  
geldirik or mutiko!  
Koko Miko Mikotin,  
kraxkiñolak kriskitin.

Koko Miko, Koko Miko,  
sugea etorriko.  
Miztor zorrotzak txistu,  
zu nundik irentsiko.

Koko Miko, Koko Miko,  
amak burua ausiko.  
Sugetzarra utziko du  
ondatuta betiko.

# ERROTA-ARRIA

*(Aur eta gazteak dantza dezakete)*

Errotazuriko alaba  
eiotzen ari da artoa:  
errota arriaren negarra  
aidean zear doa.  
Arritzar orrek etzak mindu  
nexka gaxoaren kolkoa:  
arta iriñez nasten ari da  
gaztearen malkoa.

Erreka zuloan errotak  
etengabe du tranga-otsa:  
arekin batera taupaka  
dabil nexka biotza.  
Illunabarrez aditzen da  
urretxindorraren abotsa,  
zotinka, laster dualako  
egunak eriotza.

Bai luze joaten zaiola  
umezurtzari gau illuna!  
Illargiak eztu poztu nai  
errotaren jarduna.  
Loak artu eziñik dago,  
noiz argituko ote eguna:  
malkoz bustia lagatzen du  
gabaz burko biguna.

# TXIMUA

Entzun bai, entzun bai,  
gure gaurko tximuaren  
ipuia.

Tximuaren ipuia.

Tximua, tximua,  
zugaitzetik erori da  
kaikua.

Erori da kaikua.

Buruan, buruan,  
arek artu duan  
kazkarrekua!

Ai, au kazkarrekua!

Istatsa, isatsa,  
zintzilik jartzen du  
adarretatik.

Jartzen adarretatik.



Ta gero, ta gero,  
lurra jo ta min du  
ezurretatik.  
Min du ezurretatik.

Berriro, berriro,  
igotzen da lengo  
adar berera.  
Lengo adar berera.

Ta gero, ta gero,  
bein da berriz  
erortzen da lurrera.  
Erortzen da lurrera.

Kontu izan, kontu izan,  
tximuaren antzekoa  
bizitzan!  
Antzekoa bizitzan.

Sarritan, sarritan,  
eroriaz lengo  
utsegiñetan.  
Lengo utsegiñetan.

# EUSKAL-AURRAK

Euskal-aurrok bagoaz  
bizitzan aurrera,  
euskeraz ikasiaz  
guziok batera.

Gora, gora!  
Gora gure Euskera!  
Gora, gora!  
Euskal aurrak gera.

Euskaldun jaio giñan,  
ta euskaldun azi;  
euskaldun iltzeraño  
guk nai degu bizi.

*Gora...*

Oiu bat zabaldu da  
euskaldunontzako:  
Erdera utzi pakean  
erdaldunentzako.

*Gora...*

Euskaldun gurasoa,  
nun dezu zentzua?  
Erdaldun azi dezu  
zure semetxua.

*Gora...*

Euskaldun erdalzale,  
nun dek ik biotza,  
orrela baztartzeko  
amaren izkuntza?

*Gora...*

**BIGARREN SAILLA**  
**GAZTE-ABESTIAK**

# LAÑO GORRIXKA

Laño gorrixka baten  
nai zinduzket atxi,  
ta izarrik gorenean  
ezkuta, Azentzi;  
an neretzat bakarrik  
zindezadan pitxi,  
ene jostaillu zeran  
biotzeko antsi.

Zure biotz lapurren  
bildurrikan gabe,  
kate gozoz lotuak  
alkarren mirabe,  
biotzak eztaietan  
maitezko bi labe,  
antxe argitan biok  
gindezke poz jabe.

Zeruko Jauna bedi  
gure poz ikusle;  
ez beza iñork zeleta  
gure maite-zale,  
ez iñoren bekaitzak  
jan gure logale.  
Ixil-ixillik biok...  
Amesti!... Maitale!...

# ANTONI TA ANTON

*Antonek:*

Antoni! Antoni!  
Zure atean nago ni.

*Antonik:*

Ai, Anton! Ai, Anton!  
Ate ondoan or konpon.

*Antonek:*

Ormatxoriak negu gorrian  
ez du atsegin elurra:  
zerua goibek, kabia otza  
ta janari gabe lurra.  
Ai, maite, nere biotzak duan  
zure otzaren bildurra!  
Biontzat kabi bat berotzeko  
bilduko nuke egurra.

*Antoni!... (goian bezela*

*Antonik:*

Enarak ez du bein egindako  
kabirik iñoiz aldatzen:

urtero beti kabi aretan  
umeak ditu bazkatzen.

Baña zu, Anton, enara txarra  
zaitut neretzat billatzen:  
jai bakoitzean nexka berria  
ikusten zaitut maitatzen.

*Antoni!... (goian bezela*

*Antonek:*

Enarak ere, bere kabia  
galduta badu ikusten,  
biderik gabe, arutz ta onutz  
kabitik du aldegiten.

Egarri dagon nere biotza,  
zuk eman ezik edaten,  
berriro ere ibilliko da  
gogorik gabe nunbaiten.

*Antoni!... (goian bezela*



*Antonik:*

Zure biotza egarri dala,  
esan didazu bertsoan:  
neronek ere ikasia det  
arrazoi dezula ortan.  
Zu beti zabiltz edari billa,  
ikusi zaitut askotan:  
baña neurritz gain, egarri ori  
itotzen dezu ardotan.

*Antonek:*

Antoni! Antoni!  
Kalabaza-zale ez naiz ni.

*Antonik:*

Ai, Anton! Ai, Anton!  
Aize preskuari, gabon!

# SOLDADU NOANEAN

Soldadu noanean  
oi, nere maite!  
etzazu negar egin:  
alaitu zaite.

Aizeak galtzen ditu  
neguko laño beltzak:  
kantuz uxa ditzagun  
biotzeko arantzak.

Erritik irtetzean  
oi, nere maite!  
biotza utziko dizut:  
alaitu zaite.

*Aizeak...*

Gerrako arriskutan  
oi, nere maite!  
Jainkoak zaituko nau:  
alaitu zaite.

*Aizeak...*

Zaurituta banentor  
oi, nere maite!  
zuk sendatuko nazu:  
alaitu zaite.

*Aizeak...*

Zertan zaude negarrez?  
oi, nere maite!  
laster naiz berriz emen:  
alaitu zaite.

*Aizeak...*

Guda amaitutakoan  
oi, nere maite!  
zurea izango naiz:  
alaitu zaite.

*Aizeak...*

# PANDERO ZARRA

Pandero zarraren otsak  
alaitzen ditu biotzak,  
alaitzen ditu biotzak,  
gure gazte jendeari  
kenduz dantzarako lotsak.

Begira, begira dantzari.  
Begira soiñu joilleari.  
Begira begi bietatik  
darion negar malkoari.

Pandero zarra ta alboka,  
biak ari gera joka,  
biak ari gera joka.  
Gazte jendeak or dauka  
bere biotzen azoka.

*Begira, begira...*

Pandero joille gaztea,  
nun dezu adiskidea?  
nun dezu adiskidea?  
Joxeparekin dantzatzen  
ari da lotsagabea.

*Begira, begira...*

Pandero zarra jo ta jo  
ez det entzuten geiago,  
ez det entzuten geiago.  
Ganbarako baztar baten  
aztuta negarrez dago.

*Begira, begira...*

Pandero zarra tarrantan,  
katuak atzaparretan,  
katuak atzaparretan,  
urratuta utzi ditu  
bart gabeko amarretan.

*Begira, begira...*

# EUZKIAK GOIZETIK

Euzkiak goizetik mendia argi:  
geiago nazu argitzen zuk ni.  
Ene maitea!  
Geiago nazu argitzen zuk ni.

Zeruan bart galdu dira izar bi:  
gaur zure begitan dira agiri.  
Ene maitea!  
Gaur zure begitan dira agiri.

Arratsaldera lañoak gorri:  
ala zure lotsaz ni're sarri.  
Ene maitea!  
Ala zure lotsaz ni're sarri.

Zeru izartuan nausi da Illargi:  
nere biotzak zu zaitu nausi.  
Ene maitea!  
Nere biotzak zu zaitu nausi.

Itxasoko ura zu baziñake:  
agortzeraiño edango nuke.  
Ene maitea!  
Agortzeraiño edango nuke.

Itxaso zabala gazi-gazi:  
zu bertan sarturik, dana ezti.  
Ene maitea!  
Dana gozatzeko zeu zera aski.

Kutxan garia ondo gorderik:  
zuretzat kutxa biotzean nik.  
Ene maitea.  
Zuretzat kutxa biotzean nik.

Lapikoa gal-gal su-garrakin:  
biotzak zure maitez irakin.  
Ene maitea!  
Biotzak zurekin maitez irakin.

Basa-marrubia ttiki-gorri:  
zure ao politaren neurri.  
Ene maitea!  
Zure ao politaren neurri.

Gaztea basoan oiulari:  
oiartzunak erantzuten ari.  
Ene maitea!  
Zu gaxotu ezkeru, ni eri.

Ekaitz-erdian aizea nasi:  
zu maite gabe nik ezin etsi.  
Ene maitea!  
Zu maite gabe nik ezin etsi.

Esaidazu bein goxoro baietz:  
Bestela ilko naiz ni maitemiñez.  
Ene maitea!  
Bestela ilko naiz ni maitemiñez.



# BIOTZA KILIPATZEN

## *Mutillak:*

Zabal-zabalik dago  
gure atadia:  
andik ujolan dator  
zeruko argia:  
maitea azaldu-zai  
or nago josia:  
alako baten, or da  
nere eguzkia.

## *Neskatxak:*

Etzaitez urreratu  
geiegi nigana,  
badezu lasaitzeko  
or nora joana,  
bapo ikasi dezu  
tentaketa lana:  
diabrua eta zu,  
a ze pardel bana.

*Mutillak:*

Exertzen zeranean  
zu nere alboan,  
biotza kilipatzen  
asten zait kolkoan:  
ezin det geldik euki,  
eztakit zer duan,  
azkura batek dantzan  
jartzen dit barruan.

*Mutillak:*

Lan du biotzak orain  
zu emen uztea:  
ala du min ezurak  
erditik austea.  
Nola iritxi nezake  
min au itotzea?  
Sendagairik ezpadu,  
obe det iltzea.

# EIZTARIAK BIDEAN

Eiztariak bidean  
zu jetxi zai daude,  
zure ego txuriak  
zulatzeko, maite.  
Nere usategian  
sar zaitzaden arte,  
nere uso kuttuna  
goitik ibil zaite.

Izarrak kiñuka  
ditugu goietan,  
maiteak biñaka  
dirala bidetan:  
maiteak biñaka  
dirala bidetan,  
izarrak kiñuka  
zeletan.

Azala txuri dezu,  
elurraren pare,  
begi-ondoak berriz,  
itxas urdin bare.

Zure biotza artzeko  
bota nai det sare:  
aspaldi jaso nizun  
nerean aldare.

*Izarrak kiñuka.*

Laztan eskea dezu  
matrail-txuloetan,  
laztana lertzen dago  
nere ezpañetan.  
Etsaiak gal ez gaitzan  
bere tentaketan,  
zurekin bearko det  
laster eztaietan.

*Izarrak kiñuka.*

Zure ezpain-loretan  
erle izan nai nuke,  
duten ezti guzia  
xurgatzeko maite.

Zure gozoz betetzen  
pozik niñuzuke,  
beti zure morroe  
dezun ezti-truke.

*Izarrak kiñuka.*

Zure beso-kakoak  
estutu nazate:  
oiek bitez neretzat  
zoratzeko kate:  
kartzela ortan itxi  
neri leio ta ate,  
zure besotan preso  
nazazun il arte.

*Izarrak kiñuka.*

Burua zuritu zait  
zure biotz-eske:  
ala ere errukirik  
ez didazu, maite,  
Zeruetan biontzat  
lekurik badaite,  
maite bearko nazu  
Jainkoa dan arte.

*Izarrak kiñuka.*

# AINGERUARENA

Mendi axala goiz argiz zilar  
egun atari denean;  
lotan zegoen baso itzala  
txori soiñuz esnatzean;  
mendi gaillurra eguzkiaren  
laztan beroz gorritzean,  
nere gogoan zaitudala, Ama,  
asten naiz ni otoitzean.

Eguzki jaunak, urre ta sutan,  
galda jaia duanean:  
zeru gaillurra argi bizitan  
irabazi ondorean;  
egun erdian, lana utzita,  
itzal gose naizenean,  
kanpai otsera, Ama lazтана,  
berriz aitut biotzean.

Arratsaldera, egun argia  
logaletzen zaigunean,  
eguzki jaunak argi opilla  
lotara daramanean,  
illunabarra, Ama Maria,  
laño gorritan galtzean,  
nere lanari agur egiñaz,  
otoi dagizut pakean.

Gau amak lurra maindira beltzez  
izkutatzen digunean,  
sasi ta lore, illunpe bildur  
kuxkurtzen zaizkigunean;  
txori soiñurik Ama Maria,  
basoak ez duanean,  
Zuri otoika lo artzen det nik  
Ama, zure magalean.

# BARATZEKO AMARI

Zergatik zaude, Ama,  
baratze atean,  
ain maitagarri jantzi  
zuri urdiñean,  
esku biak batuak  
Jaunari eskean,  
ta bi odol larrosa  
zure oin gañean?

Zergatikz zaude, Ama,  
baratze atean,  
lau nekosten itzala  
dezula atzean,  
lau kandelargi musker  
zure omenean,  
babesten zaituztela  
aldare antzean?



Nere zai zeunden, Ama,  
baratze atean,  
Agurtza erakutsiz  
otoitz ixillean.  
Nere zai zeunden, ta nik  
nere itxumenean,  
ez nekin zer zeru nun  
zure magalean.

Orain badakit, Ama,  
baratze atean,  
zergatik zauden zutik  
beti otoitzean,  
ta gaur naigabez Zuri  
egur egitean,  
badakit nora etorri  
gaixo nadiñean.

# MAITE-MIN

Maite bat det zoragarri,  
musu lore zuri-gorri,  
beltxaran, begi-beltz aundi,  
begi-ondoak, zeru bi.  
Sudur politaren azpi,  
odol-tanta ala marrubi?  
lore-pipita ao txiki:  
ortz txuriak andik irri.

Lepo meia, esne-iduri:  
esku biak, elur txuri:  
bulartxoa esna-berri:  
zumitzez egiña gerri.  
Oña ttiki ibillera azti;  
aren mintzoa, eresi:  
begirasuna, eguzki:  
biotza sorgintzen daki.

EZTAI-KANTA

Aldare aurrean argi,  
itz emanak gera alkarri...  
Atoz, nere usotxo ezti!  
begiak pozez ler-zori,  
laztanka-aotxo-marrubi,  
biotza maiteka gori!  
Zurekin bat, urtu nadi.  
Dezagun betiko kabi!

# OI, LORETI

*Schubert-en Serenata.*

*Mutillak:*

Oi, Loreti!

Aingeru txuri,

biotzaren pozgarri:

*Neskatxak:*

oso naiz zure egarri.

*Mutillak:*

Maitezko ames txuri-gorri,

larrosa eta lili,

*Neskatxak:*

elur eta marrubi.

*Mutillak:*

Goiz-sentiak eman dio  
zure ille ixkurrari,  
bere urre-argi.  
Nere baratzan jaso det  
bizileku berri,

*Biak:*

biotzako kabi.

*Mutillak:*

Antxe daukat

*Biak:*

ezkutuan urrezko ontzi:

*Mutillak:*

barruan du

*Biak:*

Zoratzeko maite edari,  
Edan dezagun oparo  
ardo gozo ori,  
maitezko zorabioz

biotzak ordi,  
emaiogun itz Jaunari,  
izateko biok  
alkarrenak beti.

*Mutillak:*

Oi, Loreti!

# KWAI IBAI GAIÑEKO ZUBIA

Danga! Etxetik urruti.  
Danga! Etsai-begipean,  
Emen naukazu, maite,  
zubi bat jaso nairik lanean.

Danga! Etxetik urruti.  
Danga! Txistuka bidean,  
zure begi gozoen  
argia dedala biotzean.

Ai, ene maite, zu noiz ikusko  
emen nabil ametsetan,  
zure izena adituaz  
basamortuko aide onetan.

Aisa dijoa Felisa.  
Aisa, txoriaren gisa;  
ta ni emen nazue  
ikusi nairik aren geriza.

Aisa dijoa Felisa.

Aisa, txoriaren gisa.

Neskatx ori eztezu

nun-nai arkitu diteken ziza.

Ibaiko urak zubipean bera

itxas aldera dijoaz,

zure oroipen ametsetan

nere naigabeak gozatuaz.

Aisa dijoa Felisa.

Aisa, txoriaren gisa.

Pozik nuke biotza,

noizbait nerea izango balitza.

Aixa dijoa Pelixa.

Aixa, txoriaren gixa.

Batez ere sarritxo edaten

duanean anixa.



# MAITE

Gabak zabaltzen ditun  
izarren bidetan,  
zure irudi maitea  
dator amesetan.  
Egunak galtzen ditu  
izar eta amesak;  
ala ondatzen nau ni,  
zu nerekin ezak.

Maite! Eguzki eder,  
eguardi beteko argia!  
Neke miñen artean  
nere zorion iturria!  
Noizbait illuntzen bada  
nigan zure irudi ezta,  
kontu egizu, Maite,  
galdu dedala nik bizia.  
Maite! Maite! Maite!

# ILLARGI AIZPA

Izar guzien aizpa zarrena,  
or da Illargi, zerura irtena.  
Eguzkiaren emaztegai da,  
ta gaur du eztai-eguna.  
Ozkarbi zear bidari ixilla,  
maitez dar-dar Eguzki-billa:  
senargai berak argiz jantzi du  
ontzako urre borobilla.

Aizpa txikiak eztai-soñuan,  
Illargiaren leñuruan,  
biribilketa asia dute:  
izar-dantza da zeruan.  
Zeru illuna dantzari txuriz,  
galtzen doa goizeko argiz.  
Eguzkiaren etzan-lekura  
jo du Illargiak maite irriz.

# EGUZKI ANAIA

Argia esna baño lenago  
igo nai det gallurrera,  
eguzkiari ate zabaltzen  
nor dabillen ikustera.

Zaitu lenengo argi-aria,  
ta aupa aren bizkarrera:  
zaldizka aren gain gallurik-gallur,  
arin egin ibillera,  
ta urrezko izpi argi aretan  
jetxi arru barrenera.

Gabaz mendiak oro beltz zeuden  
aitzulo illun iduririk:  
sasi ta iturri Basajaun beltzak  
zeuzkan ziara arturik.  
Orain euzkiak millaka margo  
utzi ditu ederturik,  
basarri txuriz, teillatu gorriz,  
Zelai orlegiz jantzirik,  
errekaldeko ostrope illuna  
zeru urrez ziprizkindurik.  
Euskalerriko ikurrin argiz  
mundua ziprizkindurik.

Arratsaldera Euzki anaiak,  
bide luzez aunatua,  
mendi-gallurrei agur dagie  
emanik azken-musua:  
urretxiñolak bialdu dio  
iñularreko doña:  
eliz-kanpaiak aidea urratuz  
jo du Abemarikua.  
Txapela jautiz oiu dagiot:  
Agur, Jainkoaren sua!

# ITXAS AMA EPAIPEAN

Orruka ari dan  
itxas nastuari,  
aizeak burrundan  
diotsa kantari:  
Ama sabel-aundi,  
arraiz ta urez izor,  
gañean zabaldi,  
sakonean malkor.

Zerk galerazten din  
loaren magala?  
Sukarrez burumin  
dardaraz aut, ala  
epai zorrotz bidez  
loa uka din Jaunak,  
betiko logurez  
mintzeko ire egunak?

Ain zoro diardun  
dantzari, beti zut.  
Geitxo egin al dun  
ezkutuan txurrut?  
Izan ere erreka  
ta ibaiak bota ala,  
edan den ozenka.  
Ezten lan makala!

Uin artoa aparrez  
betetzen ondartzia:  
ire bular-esnez  
zuritu den aitzia.  
Magal zabalean  
dantzan lau ontzixka.  
Ote dira, agian,  
aurdun lau seaska?

Islaruntz zeruak  
urrezko izerdia:  
zapi beltzez gauak  
txuka aren bustia.  
Iruten Illargi  
elur-arilletan:  
zillar bide zuri  
dagi ur beltzetan.

Itxas amak lurra  
oeratu nai du:  
olatu negarra  
du bere lo-kantu.  
Lotan dago dana,  
bai mendi, bai zelai.  
Itxaso esna!  
Ori du bere epai.

# UDABERRIKO MAITE-KANTA

*Xabier*

Enarak aidea astinduz  
badatoz ugari:  
ego-barruan dakarte  
epe Udabarri:  
kabi tokia aukeratzen  
or dabiltz urduri:  
gazte askoren biotzak  
*maitemiñez eri.*

*Arantza*

*Maite asmotan* bazera  
badezu naigabe:  
biotzak egingo zaitu  
besteren mirabe:  
pake ordezt laster dezu  
kezka zure jabe:  
ez dezu inñun larrosarik  
*arantzarik gabe.*



*Xabier*

Maitezko bide latzetan  
*oso naiz egarri:*  
ito bear ote naizen  
bildurra det sarri:  
izerdi otzak artzen nau  
amesetan larri:  
mutil zarraren pakerik  
ezin det ekarri.

*Arantza*

Ibaiak puztuta datoz  
elur-ujoletan:  
iturri asko dituzu  
euskal-mendietan.  
*Nola zindezke ur erdian*  
*ibil egarritan?*  
Biotzik asko badezu  
maite-amesetan.

*Xabier*

*Kezka itxaso garratz ontan*

naukazu galdurik:

*ta ur gazi onek ezin dit*

*kendu egarririk:*

iturritxo bakarra det

senda nazakenik:

bañan eztakit neretzat

ote duan urik.

*Arantza*

*Itxas uretan bazabiltz*

lendanik igari,

gesal zelaiak utzirik

*eldu legorrari.*

Mariñelak gaberdian

an du kaian argi:

*biotz ixil batek badu*

zuretzat erruki.

*Xabier*

*Ixilleko gaitzak ez du  
iñun sendagairik:  
bildur naiz ez ote dedan  
arkituko kairik.  
Itxasoa utziko nuke  
azkar asko pozik,  
zu legorrean bazeunde  
besoak zabalik.*

*Arantza*

*Ezker-eskubi mendi bi  
erreka bitarte:  
egarri diran txoriak,  
ur garbia an dute.  
Nere besoak zure zai  
zabalik diraute:  
osorik zurea nazu,  
maitea, il arte.*

*Xabier*

Ai, au lertu bearreko  
biotzaren poza!  
Zabaldu da gaur neretzat  
maitezko larrosa.  
Uste gabeko zero au  
ez ote da amesa?  
Ala balitz, nere loak  
betiko iraun beza.

*Biak batera*

Enerak billatu dute  
tellapean kabi:  
eldu da maiteminduen  
pozezko Udabarri.  
Ez genekian alkarren  
biotzaren berri:  
jaso dezagun lenbailen  
MAITEZKO UZTARRI.

# AI, NERE NIRE

(Maite-kezakak)

## *Nere*

Uste gabe sartu ziñan  
nere biotzean,  
tximista laño artetik  
sortzen dan legean:  
arrazkero ezin naite  
bizi ni pakean:  
aztu eziñikan nabil  
oi, nere kaltean!  
Biotzak ez du legerik,  
maite duanean.

## *Iñaki*

Zertan zabiltz, nere maite  
ailperrik nekatzen,  
maitasunezko bidetan  
biotza kezkatzen?  
Txoriak goiz argiari  
bezela kantatzen,  
ala nai zinduzket pozez  
ikusi zoratzen:  
kezka gabe asi zaite  
biotza gozaten.

## *Nere*

Nundik nora zenebillen  
lengo arratsean,  
beste arekin ixilka  
bide baztarrean?  
Erruki gabe zulatu  
nazu biotzean:  
bizia eman ondoren,  
il nazu batean.  
Biotzak ez du jolasik  
miñez dagonean.

### *Iñaki*

Mingain txarrak ezin dira  
egon oi pakean,  
biotz onen zoriona  
garraztu naiean:  
utzi zaiezu miztorrei  
beren jardunean.  
Erleak, lorerik-lore  
ibil oi danean,  
eztu eztirik jasotzen  
lokatza artean.

### *Nere*

Ez dezadala sinistu  
iñoren esanik,  
mingain txarren lan okerrak  
bertan bera azturik:  
neuk baña zoritxarrear  
zaitut ikusirik,  
biotza urratzeko ezta  
alako eztenik.  
Maite duanak eztu iñoiz  
esaten gezurrik.

### *Iñaki*

Gezurrak eztu nerean  
arki ostaturik,  
egia da ez dedala  
zu beste maiterik:  
lengo gabeko arekin  
ez nuan maite-itzik:  
sinisten ezpadidazu,  
kezkaz itxuturik,  
banoakizu biotza  
ziaro mindurik.

### *Nere*

Agur, nere biotzeko  
amesik onena,  
bazoaz bertan urturik  
nere itxaropena.  
Orbel-dantza zoro dabil  
basoan barrena,  
ego aizeak aidean  
dakar Udazkena,  
arekin batera ilko da  
nere maitasuna.



## *Iñaki*

Ai, nere Nerek eztu nai  
nere itzik sinistu:  
neri berriz nere Nerek  
biotza dit piztu:  
nere Nerek neri zenbat  
kontu didan nastu!  
Atoz, neregana, Nere,  
ez nazazu aztu:  
Nere neretzat ezpadet,  
nereak egin du.

# UR ERTZEKO LOREA

Ibai ertzeko belar artean  
ezetasunez ernea,  
udaberriko goiz ederrean  
jaio zan nere lorea. *(bis)*

Inguru ziran belar gazteak  
(aize epeletan igari)  
arrera ona egin zioten  
beren aizpa berriari. *(bis)*

«Ur ispilluan -loreak zion-  
nere ederra ikus dezaket:  
orregatikan nere biotza  
ibai ertz ontan lotu det». *(bis)*

-Ai, ur ertzeko nere lorea,  
etzazu maite ibairik:  
ugolde batek joko bazindu  
etzenuke zelai-jairik. *(bis)*

«Eguzkiaren laztan beroa  
emen artzen det gozoro,  
aren argitik bizi berria  
xurgatuaz egunoro». *(bis)*

-Ai, ur ertzeko nere lorea,  
etzazu maite eguzkirik:  
aren su-agaldak joko bazindu,  
etzenuke or bizirik. *(bis)*

Biaramonez lore gaxoa,  
eguzkiak kixkaldua,  
ujola batek lokatzapean  
utzi zuan lardastua. *(bis)*

# ENE MAITIA

Ene maitia zoragarria,  
itxasorako zai degu ontzia.  
Biotza det samiñez,  
begi biak negarrez,  
zu legorrearan utzi bearrez.  
Laster naiz berriz,  
zure egarriz,  
zu besarkatzera arpegi argiz.

# BIOTZ MIÑAK

Gezurretan ari ziran izarrak alkarri:  
etziñala neretzako, maite zoragarri;  
Ai, al bazindut lenbailen etxera ekarri,  
gure biotzak dezaten maitezko lokarri.

# MADALENEN IL-KANTA

Izarrak ezkutu dira  
goibelaren mende:  
zu berriz lurpe otzean,  
maitea, or zaude:  
zora bearrean nabil,  
beti zure galde:  
laster batuko nazaizu  
eriotz bestalde.

# BIOTZAREN ERDIAN

Biotzaren erdian det  
zure maitasuna;  
ezin zait aztu beñere  
jun ziñan eguna;  
nere bizia zu gabe  
oso zait astuna;  
atoz, maite, argitzera  
nere gau illuna.

# BEGIAK MALKOETAN

Begiak malkoetan,  
biotza zotiñez,  
emen naukazu, maite,  
zu ikusi eziñez.

Begiak malkoetan,  
biotza zotiñez,  
zure oroitza nauka  
biotzeko miñez.

Egunak luze dira,  
gabak lorik gabe;  
kezka larria daukat  
nere biotz jabe.

Egunak luze dira,  
gabak lorik gabe;  
maitasunak egin nau  
ni zure mirabe.



Itxasoko olatuak  
zure galdez dira,  
apar zuria dute  
arro eguzkira.

Itxasoko olatuak  
zure galdez dira;  
nere burutapenak  
zugana urrutira.

Ain minbera dituzu  
biotzen zauriak!...  
Ixillik lotzen zaitu  
maite lokarriak.

Ain minbera dituzu  
biotzen zauriak!...  
Urrutitik aditzen  
ditut intziriak.

Zapalduko dituzu  
lur ez-ezagunak;  
burutikan joango  
zaikzitzu lagunak.  
Zapalduko dituzu  
lur ez-ezagunak;  
baiña nik ezin aztu  
gure maite-egunak.

Lurpean ustelduko  
dira nere ezurrak;  
elurrak zurituko  
dizkigu gaillurrak.  
Lurpean ustelduko  
dira nere ezurrak;  
baiña nun-nai jarraiko  
dizu nere agurrak!

# DEBARI ABESTIA

*Erbestetutako debarrak bere erriari.*

Debako erri maite,  
nere sor-lekua,  
urruti nabilkizu  
zugatik mindua.  
Etzait beñere aztu  
zure ingurua,  
biotzean bai zaitut  
barrura sartua.

Itxasoak ertzean  
egin zizun leku:  
amak aurra bezela,  
or laztantzen zaitu:  
zu lotaratzeko du  
olatuen katu:  
urak txirla ain politik  
eztu iñoiz bazartu.

Mendi oñean zauden  
seaska txuria,  
arrizko mirari da  
zure eliz-nausia.  
Ondartza gorriaren  
atze zumardia:  
kabi bat dirudizu  
zerutik jausia.

Alostorreko belak,  
Maspeko mollarri,  
Zubeltzutorren il zan  
andre gorulari;  
Buztiñaga ta Iturtza,  
burrukan alkarri:  
antziñatik ditugu  
Deban oroigarri.

Zure alboan dezu  
Santa Kataliña,  
debarrak San Juanez  
dantzatzeko gaña:  
itxasoari munka  
Andutzek dun oña,  
zerurako armalla  
dan muño liraña.

Artzabaldik aurrera  
baratza zabala,  
emaitz guzietatik  
ugari damala,  
Jaunaren mirari bat  
esan leike, dala:  
Paradisua ortxe,  
itxura da, zala.

Sasiolatik dator  
ibai aberatsa,  
illargi berrietan  
angula arratsa,  
ujola-egunetan  
egurra ta zotza,  
apakiñez berotu  
dedin etxe otza.

Andutz ta Arno dituzu  
zure zeletari,  
gallurretan dutela  
Gurutzea agiri:  
arri biurtutako  
otoitz bi iduri,  
zerua nun dagoan  
erakusten guri.

Jaso ezazu, Deba,  
goi zure begia,  
menditik datorkizu  
zeruko *Argia*,  
mariñel larrituen  
*Izar* pozgarria:  
zurea da ITZIARKO  
AMATXO maitia.

Etzazu negar egin,  
ezkutuan, maite;  
burua zuri baña  
biotza det gazte.  
Debara noa berriz  
zure biotz-eske,  
Itziarko Amatxok  
bedeinka gaitzazke.

# ARDO GORRI NAPARRA

*Gizona ardoaren alde.*

A, a, a.

Ardo gorri naparra:

eztarriko lakarra,

kentzen au den azkarra.

A, a, a. Kentzen au den azkarra.

*Andrea ardoaren aurka.*

A, a, a.

Kontuz busti zintzurra,

jo nai ezpadek lurra,

ta ausi lepa-ezurra.

A, a, a; ta ausi lepa-ezurra.

*Gizona ardoaren alde.*

A, a, a.

Au den ardo bikaña!

Edan zagun nai aña,

naiz argitu bekaña.

*Andrea ardoaren aurka.*

A, a, a.

Matsaren ur sorgiña:

gizonak edan-griña,

ta andreak mitiña.

*Gizona ardoaren alde.*

E, e, e.

Ni ardoaren alde,

goiz eta arratsalde

beti naiz aren galde.

*Andrea ardoaren aurka.*

E, e, e.

Edari etxe-kalte,

nasaikerien ate,

tabernetan alkate.

*Gizona ardoaren alde.*

I, i, i.

I aut nere edari,

ik jartzen nauk kantari,

ta sarritan dantzari.



*Andrea ardoaren aurka.*

I, i, i.

Matsaren zumu azti,  
griña txarren illati,  
osasunaren pipi.

*Gizona ardoaren alde.*

O, o, o.

Onek jartzen nau bero,  
eta sarritan ero  
edanaz egunero.

*Andrea ardoaren aurka.*

O, o, o.

Edari demonio,  
inpernuko jario,  
pardel danen bizio.

*Gizona ardoaren alde.*

U, u, u.

Au den gure erregu:  
ardoa bear degu,  
naiz uda ta naiz negu.

*Andrea ardoaren aurka.*

U, u, u.

Ur gorrizko olatu,  
orrek au i ondatu,  
ta andreak asarratu.

*Andre ta gizon batera.*

U, u, u.

Ardo madarikatu!  
Gau-txorien tellatu,  
alper danen ostatu.  
U, u, u. Ardo madarikatu!

# SANTA AGEDA ABESTIAK

*Abesti au, aldaketa txiki batzuek sartuta dago,  
Azkoitin kantan genduan bezela.  
Nai duanak, kanta beza  
Guridik ematen duan bezela.  
Nik jarri dizkiodan itzak sartzeko,  
erosoago etorriko zaizu  
goian dagon bezela abestea.*

Zorion, etxe ontako denoi,  
oles egitera gatoz:  
aterik-ate oitura zarra  
aurten berritzeko asmoz.  
Ez gaude oso aberats diruz,  
ez ta ere oñetakoz:  
baña estarriz sano gabiltza,  
ta kanta nai degu gogoz.

Santa Ageda bezpera degu  
Euskalerriko eguna,  
etxe guztiak kantuz pozteko  
aukeratua deguna.

Santa maitea gaur artu degu  
gure bideko laguna;  
aren laguntzaz bete gentzake  
egun ontako jarduna.

Siziliako ugarte ederrak  
emana degu lorea:  
an jaio bai zan gure Ageda,  
zorioneko gaztea.

Txikitatikan gogoz artu zun  
Jesukristoren legea:  
maitasun onek ekarri zion  
biotzeko poz betea.

Edertasunaz Jaunak apaindu  
zuan Ageda gaztetan:  
aren begiak izar bi ziran,  
arpegi gozo aretan.

Gizon gaiztoen griña zitalak  
esna zitzaken benetan;  
laster itxutu zan Kintziano  
Agedaren ederretan.

Agedak bere maite bakarra,  
Jesus aukeratu zuan:  
orregatikan beste maiterik  
etzan arentzat munduan.  
Kintzianoren eske guztiak  
errez bazartu zituan:  
baña agintari gaizto arek  
kristautzat salatu zuan.

Emakume gaizto baten mende,  
sartu zuten giltzapean,  
Agedaren biotz garbi ura  
zikin ote-zezakean.  
Alperrik baña alegindu zan  
andra lizuna lanean:  
onen esanak etziran  
sartu Agedaren biotzean.

Amorro biziz oñutsik jarri  
dute Ageda zintzoa,  
txingar gorien gañean gero  
ibil-arazi gaxoa:  
ondoren, bular bat ebakita,  
uzten dute urratua:  
baña Jainkoak biurtu zion  
gau artan bular mindua.

Ailperrik gizon gaiztoak zuten  
oñazez erdi illik utzi:  
Jesukristoren maitasun artan  
etzuan iñola etsi:  
otoi gozotan gozoa ixuriz  
mundu ontatik igesi,  
zeruetako zori ederra  
betiko zun irabazi.

### *ALKATE JAUNARI*

Alkate Jauna, legean gatoz  
baimen-eskean atera,  
kanta zarrak galdu ez ditezen  
lengo oitura piztera.  
Guraso zarren legean pozik  
goaz danok kantatzera:  
Santa Agedak ekarri gaitu  
beorren etxe-aurrera.

### *BIKARIO JAUNARI*

Apaizburu Jaunaren atean  
jo nai degu gaur aurrena,  
Jaungoikoaren ordezkoiari  
gure agurrik onena.

Zeruko Jaunak argitu beza  
beorren jardun zuzena,  
zeru goietan izan dezagun  
guztiok gure azkena.

*ETXEKO JAUNARI*

Mendi-tontorrek elurrez zuri,  
atai-aldean laiotza:  
etxe ontako nagusi jaunak,  
urrezkoa du biotza.  
Santa Agedak kendu digu gaur  
eskean asteko lotsa;  
dirurik ezpada, berdin zaigu  
gizendutako bildotsa.

*ETXEKO ANDREARI*

Zelai erdian loreak argi,  
larros, krabelin da lili:  
etxe ontako etxekoandreak  
Ama Birjiña dirudi.  
Etxe onetan urdaiazpiko  
asko, kakutik zintzili;  
ta lukainka gorriak ugari  
poltsa betetzeko guri.

### *SENAR-EMAZTE GAZTEEI*

Itzal berria zabaldi digu  
atai aurreko intxaurrak:  
abe berriak sendotu ditu  
etxeko sakape zarrak.  
Senar-emazte gazteak neurtu  
dituzte beren indarrak:  
arto ta gariz beteko dira  
aurten mandio baztarrak.

### *ETXEKO SEMEARI*

Tantai luzeak gerria zuzen  
darama zero aldera:  
etxe ontako seme jatorrak  
badu maitale aukera.  
Alaba gazte asko dabiltza  
zugatik biotz-minbera:  
mutilzartuta bizi izateko  
Jaunak egiña etzera.

### *ETXEKO ALABARI*

Mutil gazteak atean gera  
Nun da etxeko larrosa?  
Atera bedi azkar leiora  
begiak ditzagun goza.



Eguzki berak ikusi nai du  
orren arpegi panpoxa:  
nere emazte izan nai balu,  
betea nuke nik poza.

Mutil taldea ementxe gaude,  
danok gazteak eta gai:  
mundu guztia igaro degu,  
itxas, legor, mendi, zelai.  
Neskatx ederrak utzi ditugu  
negar-malkotan gure zai:  
baña guk nexka danen artean  
emengotxe alaba nai.

### *ETXEKO AURREI*

Gau ederrean illargi inguru,  
izarrak zero urdiñean:  
sukalde ortan amaren albo,  
aur ederrak jolasean:  
zerua uztu zaigu aingeruz,  
oiek emen jaiotzean:  
zeruko Jaunak gordeko ditu  
gizon egin bitartean.

## *DENDETAN*

Eskean gatoz, baña ez gera  
ez ijito, ta ez praille:

Santa Agedak atera gaitu  
kaletara kantatzalle.

Denda onetan jakoitxo asko,  
danak giltza, ta zerralle:  
estraperloko kajoitik bota  
peseta pare bat mille.

## *TABERNETAN*

Aspaldi ontan ura garesti  
dabil esne ta ardotan:  
mats gutxi izan arren, ardorik  
ezta palta tabernetan.

Jesusek ura ardotu bazun  
Kanaango eztaietan:  
orain ikasle azkarrak sortu  
zaizkio ardangeletan.

Ura gustatzen zaigu eskuak  
ta arpegia garbitzeko:  
baña napar beltza bear degu,  
eztarria bustitzeko:

txanpaña ere edango geunke,  
norbait balitz emateko;  
pattarra ez da gaizki etortzen  
bizkarreko otza kentzeko.

*PERNANDO AMEZKETARRARENA*

Amezketako Pernando zanak  
jo zuan bein il-kanpaia,  
erri guzian zabaldurikan  
nor il zan galdetu naia.  
Erri osoa batu zanean,  
Pernandok kiñu eginda:  
erri onetan, esaten die,  
karidadea gaur il da.

Euskalerriko erri onetan  
Pernandok ez du lanikan:  
karidadea bizi da emen  
kale ta baserrietan.  
Gaurkoagatik, beraz, Pernando,  
zaude zure ezurretan:  
zure zirien bearrik ez da  
erri ontako etxetan.

# PATXI ARLOTE

Lurperatu digute  
Patxi Arlote.

Pobrea zan da, aren iltzeak  
ez du kezka aundirik sortu.  
Aragiz urri, berealaxe  
zaiñak zaizkio gogortu.  
Ezur uts zegon gizajoari  
arnasa zaio agortu.

Lurperatu digute  
Patxi Arlote.

Etxean norbait utzi bearko  
aur txikienak zaitzeko;  
seme-alaba nagusienak,  
ez daude eskolarako.  
Berriro ere, pobreen aurrak  
astirik ez ikasteko.

Lurperatu...

Pobre kontuak orrela dira  
gure gizarte onetan  
Zuzenbiderik ez da agiri  
zertan asi negarretan?  
Pobre arlote oien malkoak  
aztuko dira lanetan.

Lurperatu...

# URRUTI NERE MENDITIK

*Itzak aldatuak ditut  
laugarren ahapalditik aurrera.  
Lenengo iru ahapaldiak  
Etxegarai-tar Karmelo jaunarenak dira.*

Urruti nere menditik  
juan nintzan dirutu nairik.  
Urrutietan nere biotza  
naigabez erdibiturik,  
gelditu nintzan tristerik,  
pake santua galdurik.

Nere biotza zegoen  
Euskalerrian pentsatzen.  
Egun guztian, gabaz orobat,  
beti zitzaidan oroitzen,  
zein gozo nintzan bizitzen  
aurtxo nintzanean antxen.

Gogoan nuen etxea,  
gaztain artean gordea.  
Mendixka gañean agiri zan  
erriko eliz maitea,  
ta ango kanpantorrea,  
ainbat oroitzez betea.

Ta gure etxeko atean  
ama zotinka batean.  
Nik aldeginde biotza miñez,  
aitu zan negu beltzean:  
aren ezurrak lurpean,  
ta ni emen erbestean.

Berriro nere etxera,  
etorri naiz ni ostera.  
Etorri eta lenengo lana,  
amaren Gurutzepera:  
antxe otoi egitera,  
lurra malkoz bustitzera.

O, mendi biotzekoa!  
O, nere kabi txuloa!  
Inguru guztiak egiten dit  
ongi-etorri gozoa:  
emen pozik jan taloa,  
ta pakean egin loa.

Ez noa ni iñora, Jauna,  
damu det len ala juana.  
Soro, zelai ta baso auetan  
daukat nere zoriona:  
emen bezat nere lana,  
nere bizi ta poz dana.



# BALENTXI ZANARI

*Etxaniz-tar Sebastian  
bertsolaria il egunean egiñak.*

Il da bertsolaria,  
erriko kantari,  
basarri ingurua  
beltzez da estali.  
Beltz ikullu aldea,  
beltz etxe ta atadi:  
auzo guztia illa  
dagola dirudi.

Izarraitz kopeta illun,  
zerua auts-zapi,  
tontorrean lañoa  
lau ankan igari:  
txori laguna leio  
aurrean da ari,  
txistu illunena jotzen  
bertsolariari.

Il da bertsolaria,  
len kantu ta jolas,  
oe gañean datza  
sor-gor, ille narras:  
oraindik ez da galdu  
gelan aren arnas:  
eriotza jabetu  
zaio ari arras.

Mututu da basoa,  
orbelen illobi,  
ostrope illunean  
aizeak intziri:  
atai-txakurrak ulu,  
deika nausiari:  
egualdiak zerutik  
euri-malko dari.

Il da bertsolaria...  
baña zeruetan,  
argi berria sutu  
zaio begietan.  
San Pedrori eraso  
dio bertsoetan,  
santu danak txaloka  
zeruko atetan.

Zaude, Balentxi, pozik  
zorion orretan  
aingeru ta santuen  
soñu ederretan.  
Kanta ezazu alai  
betiko pozetan,  
bederatzi puntoko  
bertso berrietan.

# BERANDU

Berandu dek, berandu!  
Ire bizitzan egin ditukan  
belzkeriak zuritzeko.

Berandu dek, berandu!  
Ire okerren kalte aundiak  
orain damuz garbitzeko.

Langille etxetan ire jornalak  
gosea zabaldu zian.

Irean, berriz, aisa ziñaten  
gizentzen irabazian.

Langille aurrak gaixotu ituan  
gosepe aren azpian.

Berandu dek... berandu!  
ire kalteak konpontzeko.

Berandu dek... berandu!  
osasuna berritzeko.

Aberastu aiz besteren bizkar,  
ez dek errukirik izan.  
Langilleari zor iokana,  
ez iokan beiñere eman.  
Erdi-janean aren indarrak  
aspaldi aitu ituan.

Berandu dek... berandu!  
ire ildakoak pizteko.  
Berandu dek... berandu!

# AIETEKO ELIZAN

Aieteko elizan,  
eta Azaroan,  
biotz bi urtu dira  
elkarte gozoan.  
Uztarria badute  
bizitza osoan.  
Aieteko elizan  
eta Azaroan.

Gurasoen ondotik  
eten da kimua;  
alabak utzi bear  
amaren altzua.  
Gaurko pozak berekin  
du min izkutua.  
Gurasoen ondotik  
eten da kimua.

Zeruak goza beza  
guzion biotza,  
emarik-ezak utzi  
digun min zorrotza;  
ezin aztu baitegu  
aren eriotza.

Zeruak goza beza  
guzion biotza.

Seme-alaben poza,  
bai dala aundia!  
Biotz biren arnasak  
mammitzen bizia,  
zeruak sortutako  
mirari argia.

Seme-alaben poza,  
bai dala aundia.

Izarrak zeruetan  
gabaz dute jaia;  
maiteen loa zaitzen  
dute bere eztaia.  
Jaunak bedeinka beza  
maite auen naia!  
Izarrak zeruetan  
gabaz dute jaia.

# EZTAI-GIRO

Artzai Oneko elizan eta  
Otsaillaren biotzean,  
bi lore gazte alkartu dira  
kristau ezkontza legean.

Urta labiru labiru lena;  
urra labiru labiru len.  
Gaur sortu duten lokarri ori,  
orain iñork ezin eten.

Senar berria Nikasio ta  
emaztea Mari Jesus;  
oien arteko ezta giroa,  
ezin eros leike diruz.

Urta labiru labiru lena;  
urra labiru labiru len.  
Sorgiñak dabiltz aidean eta  
aurren bat badegu aurten.



Negu erdian biotzak bero;  
eztegu elur bildurrik.  
Otzak ez die aurten galduko  
ezkonberriei ezurrik.

Urra labiru labiru lena;  
urra labiru labiru len.  
Zeruak lagun dezaizuela  
zorion ontan bizitzen.

Gaurko poz onek iraun dezala  
zuentzat beti argitan;  
biotzak maite-eztaietan da  
seaskak, lore berritan.

Urra labiru labiru lena;  
urra labiru labiru len.  
Miretxu ala Xabiertxo bat...  
Zein jaioko ote da lenen?

# ZERU-AZPIA

Ames-egunak igaro ziran antziña:  
urtu zitzaigun  
poz aien laño ariña.:  
ezin zait aztu  
zure oroipen samiña:  
zurekin juan zan  
bizitzeko atsegiña.

Negarrez dago poztu oi-zendun etxea:  
gure maite itzak  
entzun oi-zitun lorea,  
ta biok pozik  
egin oi gendun bidea.  
Bai beltza dala  
nere barruko illunpea.

Zu ziñan nere biotzeko Erregiña:

orain nigandik

betiko zera aldegiña.

Au da biotza

barruan lertzeko miña!

Obe nuan bai,

biok batera il bagiña!

Zeru azpia txulo argiz betetzen danean:

izar bakoitza

zeruko leio dala gabeen:

maitea andik

zeletan dedan ustean,

gora begira

egon oi naiz goiz artean.

# ANA!

*Pasodoble aidea.*

Ana! Auxe da lana!  
Zu gabe gozagaitz zait dana:  
jana eta edana  
kaltegarri ditut, laztana.

*Ana! Ana!*

Usoak joan dira ego aldera,  
Kabi berriren bat an billatzera,  
maitasun galduak aztutzera.

*Lañoak aizetan dabiltz  
bide luzeak egiten:  
biotz ixillen malkoak  
ez ditu iñork jakiten.*

*Ana! Ana!*

Negarrez urtu naiz dana,  
illunari nago emana.

*Atoz, ai, neregana:  
atoz, bai, Ana.*

# EDURNE

*Fox-aidea.*

Illargiak damu du zu jaioa:  
eguzkia da zure oinpekoa:  
izarrak zure bekaitzez urtzen daude,  
zerua illun dagolako zu gabe.  
Txoraturik naukazu, Edurne.

Nere ames urdin gozoa,  
iltzen daukat biotz gaxoa,  
nerezat zure ezezkoa,  
nere izar biotzekoa,  
eriotz miña litzake.

Ostroz dago baso-aldea,  
txori-soñuz dana betea:  
jostari dator ur garbia:  
kantari dago iturria.

Ostroz dago baso-aldea,  
txori-soñuz dana betea.  
Nere biotzak zu zaitu zeru,  
nere pozezko aingeru.

# IRU ALABA

*Rumba-aidea.*

Iru alaba ditut; iru:  
Maribel, Maribi, ta Marilu.  
Iru alaba, txiruliru:  
obe nuan etxe-bete diru. *(bis)*

Ai, Peru!  
Alabak ez dira aingeru.  
Ai, Peru!  
Mutillak dituzte inguru.  
Ai, Peru!  
Laster naiz, txiruliruliru,  
ez alaba ta ez diru.

Maribel ziaro itxutu da  
senargai begi-bakar batekin.  
Maribik naikoa lan badu,  
artu dun gizon pardelarekin.  
Marilu aseko da ongi,  
bere senarraren jipoiekin.  
Orra nere iru alaba,  
bakoitza bere gurutzarekin.

Ai, Peru!  
Alabak etziran aingeru.  
Ai, Peru!  
Ezkontza ez da beti zeru.  
Ai, Peru!  
Orra nola gelditu naizen,  
ez alaba ta ez diru.

*BUKAERAN*

Maribel, Maribi, Marilu,  
Peru!



# LAZTAN BAT

*Rumba aidea.*

Laztan bat, laztan bat,  
edenez betea eman zenidan bart.

Laztan bat, laztan bat,  
arrazkero milla bider damutu zat.

Laztan arek ondatu dit bizia:

laztan arek galdu nere zoria.

Laztan bat zan atzo nere zeru:

laztan bat da gaur nere inpernu.

Laztan bat, laztan bat,  
arrazkero gorroto dezu neretzat.

Laztan bat, laztan bat,  
arrazkero nere biotzak negar bat.

Laztan arek garraztu dit bizitza:

laztan arek ekarri zorigaitza.

Laztan bat zan atzo nere zeru:

laztan bat da gaur nere inpernu.

Laztan bat, laztan bat,  
arrazkero argirik ez da neretzat.  
Laztan bat, laztan bat,  
arrazkero nere bizia inpernu bat.  
Laztan arek urratu dit biotza:  
laztan arek sortu dit eriotza.  
Laztan bat, zan atzo nere zeru:  
laztan bat, da gaur nere inpernu.

*Bukatzeko:*

Laztan bat!

# EZ NIÑAN USTE

*Tango aidea.*

Ez niñan uste ire ezpain oiek,  
ain labain zorrotz ziranik:  
nere biotza alderik alde  
urratu didan ondotik.  
Errekan bera datorren urak,  
ez din gorako biderik:  
ailperrik abil, ez den sortuko  
nik aña maiteko aunik.

*Loretan den gure sagarra;  
ostrotu den intxaur-adarra:  
baña biotzeko negarra,  
ez den oiekin gozatzen.  
Ire ondapen ta itxumenak  
galdu dizkin nere kemenak.  
Bein usteltzen diran txermenak,  
ez ditun geiago loratzen.*

Zillar-dizdirak itxutu indun

ire biotza saltzeko:

aberastu aiz, baña diruak

ez din biotzik aseko.

Aur-jostallu bat bezela artu

aute jolas egiteko:

jostallu legez, puska ondoren

baztarrera botatzeko.

*Loretan den gure sagarra...*

# BIDE ORTATIK

*Tango aidea.*

Bide ortatik joan,  
bide ortatik galdu;  
arrazkero etzera  
neregana azaldu.

Bide ortatik joan,  
bide ortatik galdu,  
norbaiti nai nioke  
nere zori au saldu.

Galdu zure begitartea.  
Galdu biotzeko pakea.  
Galdu zure itzal gozoa;  
arek eraman zidan  
bizitzeko gogoa.

Agur, agur!  
Nere ames itxua!  
Agur, agur!  
Nere zori galdua.

# TXA TXA TXA

Txa, txa, txa.

Gure neska motxa.

Nun da gure neska motxa,  
zintzilik bere mototxa?

Argi du begi zorrotza,  
pozik dakar gaur biotza.

Txa, txa, txa.

Pozik daukat nik biotza.

Txa, txa, txa.

Gure neska motxa.

Ai, ai, gure neska motxa!

Moztu diote mototxa.

Illun du begi zorrotza;  
eta negarrez biotza.

Txa, txa, txa.

Negarrez daukat biotza.

Txa, txa, txa.

Moztu diote mototxa.

A!!!

# ASTIGARRAGAKO TOMASA

Astigarragako Tomasak,  
orrek eman dizkigu azak!

Lau mutil dabilta  
nexka orren ondoren,  
ta bakoitzari eman dio  
maitasun laurden.

Astigarragako...

Ai, au aize otza!  
Nun den ire lotsa?  
Ire inguruan ederki  
arrotu den autsa.

Astigarragako...

Ez aiz i makala!  
Ori den azala!  
Zer egin den ondatzeko  
ik unan itzala?



Astigarragako...

Ai, gure Tomasa!  
Ederki da lasa;  
baiña orain estutu zaio  
bere arnasa.

Astigarragako...

Nun den ire lengo  
matraillen larrosa?  
Bai laburra izan dala  
ire maite-poza!

Astigarragako Tomasa,  
bukatu den ire mataza.

# OINTXOAK

*Gabriela Mistralen  
itzak euskeratuak.*

Oi, aurtxuon oin txikiok,  
otzaren otzak ain more;  
Nola zauzkate orren gorririk,  
izanikan Jainko lore?

Oi, aurtxuon oin txikiok,  
arri zorrotzetan miñez!  
Ain ondatuak elur zapaldu  
eta lokatza zikiñez.

Gizon itxuak ez daki  
zuen ointxoak jo-ala,  
nolatan lurra argizko lorez  
apaintzen dan bereala;

ta nola zuen oinpeak  
zapaltzen duan tokian,  
usaitsuago zabaldu oi dan  
akara udaberrian.

Bide zuzenetan zear  
zoazten ezkerro, izan  
kemen aundiko gizon azkarrak,  
bikaiñak zeraten gisan.

Oi, aurtxuon oin txikiok,  
bi arri bitxi minduak!  
Nola dijoaz zuek ikusi  
gabe bidez jende itxuak?

# JOXEPA

Asarratzen naizenean  
esaten det: esaten det:  
(Deadarka:) -Arranoa!  
(Abesten:) -Arranoa.

Zure oztasuna ikusita,  
begietan, begietan,  
(Deadarka:) -det malkoa,  
(Abesten:) -det malkoa.

Ez nazu orren zatarra,  
izan arren begi-bakarra  
Ai!...  
(Deadarka:) -Joxepa!  
(Abesten:) -Ar nazazu senartzat  
-Izango naiz zuretzat.  
(Esanaz:) -Neretzat?  
(Abesten:) -Zuretzat.

Ai, au munduko saltsak!

Andreak jantzi dizkit galtzak.

Galtzak?

Bai!

\* \* \*

Biotzak min duanean,  
alperrik da, alperrik da  
kantatzea.

Askoz obe da, maitea,  
oilasko bat, oillasko bat  
jatea... A!...

# ARGATIK

Eguzkitara zabaldutako  
zapi urdin zan zerua  
Izarraitztik Erniora.  
Argia urrezko ogean,  
etzatera zijoan  
Keixeta aldera.  
Argatik alkar  
maite izan gendun  
iñular girora.

Eguzkia odol zan  
arrats malkoetan;  
lañoak gorri ziran  
argi zotiñetan.  
Argatik gure biotzak  
lenengo miña izan zuten  
egun artan.

Zerua auts kolore  
ego-aldezik;  
argia zikin zetorren  
zeru-sapaitik.  
Argatik gure ametsak  
lausotzen asi ziran  
atsalde artatik.

Zerua goibel,  
aizea naasi;  
argia, ekaitz-bildur  
joan zan igesi.  
Argatik gure maite-ustek,  
-zorion-azi-  
gau aretan  
ziran ausi!

# AIN URRUTI TA AIN URBIL

Ain urruti ta ain urbil.  
Au izan den gure gurpil.

Ogei urte dizkiñagu  
alkarren albo lanean.  
Nik, ire gose biotzean.  
Ik, nere egarri ixillean.

Begiratu niñan bildurrez beingoan.  
Ik, bestera begiratu unan.  
Begiratu idanan beste bein bildurrez.  
Nik, jetxi nizkiñan begiak samiñez.

Ain urruti ta ain urbil.  
Ogei urte onen ixil!

Intziri bat nik. Ik; gaxo al ago?  
-Burua astun diñat. Ez diñat geiago.



Itzegin nai unan, baiña sorgin batek  
alda ziñan ire itza:  
-«Aidean lañoak zeudek».

Ain urruti ta ain urbil.  
Orrek din gure biotza il!

# KATALIN

## *Galdera*

Nork eraman du Katalin,  
bere begi ederrakin?

## *Ahapaldia*

Azkenbordara lagundu dio  
auzoak negar batean;  
olatu galdu batek bota zun  
legorrera bart gabean;  
itxas ertzeko aitz arte baten  
jaso dute gaur goizean.  
Erriko mutil jator guziak  
zerakarten bizkarrean.  
Mutil guziak bizkarrean da  
txandaka aldatuz bidean.

## *Galdera*

Nork eraman du Katalin,  
udaberriko lorakin?

### *Ahapaldia*

Auzoko biotz gazte guziak  
maitez zituan irakin;  
biotz guziak irakin baiña  
bat besterik maite ezin;  
bat besterikan maite ezin eta  
bera Itxaspeko Martin;  
baiña Martiñek maitasun aren  
berririk etzuan jakin,  
ta itxasoz aruntz amesen billa  
erritik zigun aldegin.

### *Galdera*

Nork eraman du Katalin,  
jostatzera izarrakin?

### *Ahapaldia*

Itxas kanpotik kaio talde bat  
garraxika dator arin;  
ta ai ene! urruti ontzitxo baten  
galdu da Itxaspeko Martin.  
Neskatxa bati bere biotza  
lertu zaio min arekin,  
ta itxas aurrera sartu da igari,

deadarka: -Nun aiz Martin?  
Eta Martiñek erantzun dio  
urpetik: -Ator nerekin.

*Bukaera*

Abots aretxek eraman digu  
illen errira Katalin!

# EZTEN ATZOKOA

Ezten atzokoa  
nere malkoa.

Bart nere gelan  
sartu intzanenean,  
negarrez billa nindunan.  
Ire arpegi maiteak,  
izu-ikara,  
ildakoen itxura  
artu ziñan.

Baiña exeri adi.  
Ezten atzokoa  
nere malkoa.  
Ik eztakin, maitea,  
zein leize sakona  
dan nere gogo.

Ez zaidan galdetu.

Ailperrik uke.

Eztin iñork galdetzen

zenbat ur-tanta

ditun itxasoak.

Ailperrik den

izarrak zenbat diran

kontatzen astea.

Beti zegon zeru beltzean

arutzago,

beste bat gordea.

# ILLUNABARRA

Etzeiñat zer duan  
illunabarrak.  
Ezkuuren bat  
gordea badin  
laño gorrixken arrebak.

Atsaldearen negarra!  
Zerua, auzpez dagon  
katillu-barrua,  
argi-intziritan  
zijoan galdua.  
Ta ni, aren aurrean,  
laño-lits bat naun,  
beltzean urtua.

Utzion arratsari  
estaltzen mundua.  
Biotzak negar egiteko, ai!  
naiago din ezkutua.

# EUSKALERRI MAITEA

EuskalERRI maitea,  
pekatu bat dezu:  
mundu onentzat  
txikiegia  
ez ote zera zu?

Txiki eta ederra,  
orra or pekatu.  
Orregatikan  
ezin dizute  
iñola barkatu.

Bi landare aundiren  
erdian zaitugu.  
Ta aiek argia  
jaten dizute,  
utzirik zu itxu.



Auzokoa etxean  
daukagu nagusi;  
argatik gure  
etxeko ormak  
oso daude itxusi.

Zure etsai zitalak  
ez dute pakerik,  
alperrikako  
alegiñetan,  
zu ondatu nairik.

Euskalerra gaixoa,  
burua jasoizu.  
Zeruetatik  
Jaungoiko Jaunak  
lagunduko dizu.